URTEKO TXOSTENA

CAF 2019

**PRESIDENTEAREN ESKUTITZA** 2

**TALDE BATERATUAREN 2019KO KUDEAKETA TXOSTENA** 7

CAF Taldearen negozio eredua eta aurreikuspenak 8
Negozioen bilakaera eta emaitza 10
Jarduera komertziala 12
Industria-jarduera - Trenen segmentua 16
I+G+b jarduera - Trenen segmentua 18
Solaris 20
Inbertsioak 24
Arrisku eta zalantza nagusiak 26
Likidezia eta kapital-baliabideak 30
Burtsako informazioa 32
Beste informazio bat 34

**FINANTZA ARLOKOA EZ DEN INFORMAZIOAREN EGOERA BATERATUA** 37

Sarrera 38
Ingurumenarekin lotutako jarduera 42
Giza baliabideak 48
Giza eskubideekiko errespetua 56
Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka 58
Gai sozialak 62

**AUDITOREAREN TXOSTENAK** 71

**TALDE BATERATUAREN URTEKO KONTUAK** 83

Egoera Balantze Bateratuak 84
Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak 86
Aitortutako Sarrera eta Gastuen Egoera Bateratuak 87
Ondare Garbi Bateratuan Gertatutako Aldaketen Egoerak 88
Eskudiruaren Fluxuaren Egoera Bateratuak 89
Urteko Ekitaldiari Dagokion Memoria Bateratua 90

**ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN ONARPENA** 160

Administrazio Kontseiluak Batzar Nagusiaren onarpenaren mende jarritako akordioak 161

**EMAITZA APLIKAZIO PROPOSAMENA** 162

**ADMINISTRAZIO KONTSEILUA** 162

**INFORMAZIO OSAGARRIA** 163

Egoera Balantze Bateratuak 164
Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak 166

2019. URTEKO TXOSTENA

Jatorriz gaztelaniaz argitaratutako txostenaren itzulpena. Desadostasunen bat izanez gero, gaztelaniazko bertsioa gailenduko da.

Argitalpen honek CAF eta bere Mendeko Sozietateen dokumentazio legala jasotzen du frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez ere argitaratu da.

www.caf.net helbidean CAFi eta bere produktuei buruzko informazioa nahiz akziodun eta inbertitzaileei legez ezarritakoa aurki daiteke.

# PRESIDENTEAREN ESKUTITZA

Akziodun agurgarriak:

Txosten honek eskaintzen didan aukeraz baliatu nahiko nuke CAF Taldeak 2019. urtean egin dituen jardueren inguruan nire ustez esanguratsuenak diren gogoeta batzuk azaltzeko. Urtea bereziki garrantzitsua izan da hiriko mugikortasun arloan eman dugun aurrerapausoa dela eta; izan ere, lehen aldiz, gure autobusen negozioa (Solaris Bus&Coach) bateratu dugu ekitaldi oso batean eta, gainera, hazkunde handia izan du. Era berean, aipatu beharrekoa da Euromaint gehitu genuela Taldearen perimetrora uztailean eta horrek tren-zerbitzuen arloan aurrerapenak ekarri dituela. Eta, bestetik, garraio-sistema integraletan ere aurrerapenak izan ditugu; kasu horretan, amaitu berria den ekitaldian era horretako kontratu esanguratsuak eskuratuta.

Jarduera-ildo horiek guztiak indarrean dugun Plan Estrategikoan jasota daude eta bere oinarrizko helburuen artean dago hau: gure negozioen hazkunde errentagarria eta jasangarria lortzea enpresa gisa gure ezaugarri diren balioetan eta epe luzean begirada jarrita. Helburu horietako bat da, bestalde, eragingarriak eta ingurumenari dagokionez jasangarriak diren garraio-irtenbideetan Europako eta mundu mailako liderretako bat izatea. Helburu horrek, bestalde, hazteko aurreikuspen baikorrak ditu oinarrian, trenen mugikortasunari zein erregai fosilen alternatiba den trakzioa (hibridoa, elektrikoa, hidrogeno-zelula bidezkoa eta abar) duten hiriko autobusei dagokienez.

Horren guztiaren eta CAF Taldearen jarduera tradizionalenek izandako bilakaera komertzial positiboaren ondorioz, 2019ko ekitaldia 4.066 milioi euroko kontratazio-zifrarekin itxi dugu eta, horri esker, gure eskarien zorroan 9.446 milioi euroko beste maximo historiko bat lortu dugu. Zifra horrek trenen eta autobusen sektoreetako gure negozio-zifra bateratua 3,5 aldiz biltzen du. Kontratazio horien profila, oro har, oso positiboa da; izan ere, hauek izan dira ezaugarri nagusiak: batez ere Europakoak dira, dibisa-arriskua txikia da, gure produktu-plataformek horietan duten presentzia handia da, etorkizunean hedapenak egitea egingarria da, bezeroak errepikakorrak dira, eta finantza-baldintzak egokiak.

Trenen sektoreari dagokionez, adibidez, CAFen jarritako konfiantza berritu duten bezeroak hainbat izan dira eta, horien artean, hauek aipa ditzakegu adibidez: De Lijn garraio-operadore flandriarra edo Napoleseko metroa (tranbien eta metroen proiektuak zabaldu dituzte hurrenez hurren), Pariseko RATP (RER trenak birgaitzeko kontratu berria egin du) edo Birminghameko tranbia. Azken horrek, gainera, FreeDrive katenariarik gabe funtzionatzeko teknologiak biltzen ditu eta, horri esker, Erresuma Batuan era horretako lehenengoa izango litzateke. Mantentze-lanetako zerbitzuen esparruan, gainera, dagoeneko ohiko bihurtu diren bezeroekin berritze-lan handiak itxi ditugu: RENFErekin edo SROrekin (Saudi Arabia), adibidez.

Era berean, adierazgarriak izan dira Docklands Light Railway linean material mugikorra berritzeko sinatutako kontratuak TfL-k (Transport for London) dituen maila eta prestigioa direla eta. Beste kontratu esanguratsu bat SNCFrekin adostutakoa izan da, baina kasu horretan Intercity Comfort200 motako 28 tren hornitzeko izan da eta beste 75 arte gehitzeko aukera jasotzen du. Horixe izan da CAFek Frantzian orain arte hitzartu duen kontratu handiena eta herrialde hartan dugun presentzia komertziala eta industriala sendotzeko lagungarria izango dela espero dugu.

Horiek bezain garrantzitsua da Liejako, New South Waleseko (Australia) eta Jerusalemgo garraio-agintariek CAF Taldeak garraio arloko proiektu integralak egiteko eta zuzentzeko dituen gaitasunetan jarritako konfiantza. Horien irismena material mugikorra hornitzeaz harago doa gainera (mantentze-lanetarako deposituak, bideak, elektrifikazioa, seinaleztapena, sistemaren integrazioa, sistema osagarriak, operazioa eta mantentze-lana eta, dagokionean, finantzaketa barne hartuta). Hala, era horretako operazioetan mundu mailako liderretako bat bihurtu da eta hurrengo urteotan hazkunde handia lortzea espero dugu.

Amaitzeko, aipatu beharrekoa da CAF Signalling-ek eman duen aurrerapausoa; izan ere, bere zorroa pixkanaka hazten lagungarriak izan diren seinaleztapen-kontratuak eskuratu ditu Espainian (ADIF), Eslovenian, Bulgarian eta Uruguain. Hori guztia, gainera, gainerako negozioek (MiiRA, CAF Power&Automation eta abar) aurreko ekitaldian izandako ekintza komertzial handiarekin osatu dugu.

Bestalde, Solarisek aurrera jarraitzen du bere ibilbide komertzial arrakastatsuarekin bere sektoreko aldeko dinamikei esker. Trakzioko teknologien gama zabala duten autobusak hornitzeko kontratu esanguratsuak lortu ditu eta hori guztia, aldi berean, sektoreko eskaintza teknologiko zabalena izatearen ondorioa da. Hain zuzen ere, hurrengo urteotan produzitu beharreko autobusen kopuruan hazkunde esanguratsua hautematea ahalbidetzen duten kontratu horiek era askotako irtenbideak biltzen dituzte: Solaris 2019an Europako merkatuko kuotan liderra izan den irtenbide elektrikoak (Milan, Varsovia eta Venezia hirietan, adibidez -ebusak-); gas naturalean oinarritutakoak (Tallin,

adibidez -GNC-), erregai-pila dutenak (Bolzano -hidrogenoa-, Bergen -trolebusa-) edo diesel motakoa (Erroma -konbentzionala-).

2019ko ekitaldiko erronka nagusiak ziren, lehen aipatutako zorroa mantentzeaz gain, sarreretan bi digituko hazkundea lortzea eta irabazia areagotzea. Lortutako emaitzak helburu horien araberakoak dira. Hala, salmenta-zifra 2.598 milioi eurokoa izan zen; hau da, aurreko urtekoa baino % 27 handiagoa, jarduera industrialak izandako igoeraren ondorioz. Hori guztia, batez ere, abian dauden hainbat proiekturekin lotuta egon da eta hauek aipatu behar dira batez ere: gure CIVITY plataformako aldiriko tren elektrikoak NSrentzat (Holanda) eta Aucklanderako (Zeelanda Berria), Northern eta Transpennine frankizientzat, eta atoian eramateko kotxeak frankizia horrentzat eta Caledonian Sleepers-entzat (guztiak dira Britainia Handiko proiektuak), metro-unitateak Quitorako, Aljerrerako, Mexiko DFrako eta Bruselarako, eta tranbiak Utrecht, Luxemburg, Amsterdam, Gasteiz, Budapest, Stockholm, Maurizio eta Bostonerako. Horiei guztiei, noski, Solarisek erabateko bateratzea izan duen lehen urtean eta integraziotik aurrera Euromaintek egindako ekarpenak gehitu behar dizkiegu.

Doitutako EBITDAren kasuan, 244 milioi eurokoa izan zen; hau da, urtetik urterako igoera % 21ekoa izan zen eta negozio guztietarako % 9,4ko marjinarekin bat dator. Bestalde, zergen aurreko cash-flowa 106 milioi eurotara arte igo zen; hau da, aurreko urtekoa baino % 5 handiagoa izan zen. Aldiz, egotzitako irabazi garbi doitua 63 milioi eurokoa izen zen eta, kasu horretan, bilakaera gorakorra izan zen: % 58koa.

Emaitza horiek guztiak, bistakoa denez, gure jarduera-perimetroak izan duen igoeraren ondorio dira. Baina, era berean, gure jarduera guztiak optimizatzearen alde egindako ahalegin jarraitua dago horren guztiaren oinarrian. Ahalegin hori hornikuntzari, fabrikazioari, gure autobusak eta tren-ibilgailuak entregatzeari eta mantentzeari dagokionez egin da kostu industrialetan eta cash-flowan, eta gure produktu eta garraio-sistemen bizitza-zikloan eragingarritasun handiagoa lortzeko. Ahalegin horri eta abian dauden proiektuen kobrantza-profil positiboari esker, 2019. urtea 434 milioi euroko finantza-zor garbiarekin amaitu dugu; hau da, ekitaldiko EBITDA doitua 1,8 aldiz, ekitaldiaren erdialdean Euromaint erosi ostean.

Hori dela eta, dibidendu gisa 28,9 milioi euroko balioa duen kontu-saila bideratzeko aukera aurkeztu diogu Akziodunen batzar nagusiari, onar dezan. Akzio bakoitzeko 0,842 euroko banaketa gordinari dagokio hori eta, hala, aurreko ekitaldikoarekin alderatuta, gure akziodunei eman beharreko ordainsaria % 10 handituko litzateke.

Gure oraingo planteamendu estrategikoaren garapeneko azken txanpan sartu gara. Esparru horren baitan orain arte egindako jarduerak ugariak izan dira. Besteak beste, CAF Taldearen nazioarteko garapena lau esparru nagusitan bultzatu dugu: tren arloko material gurpilduna eta osagaiak; operadoreei zuzendutako zerbitzuak (mantentzea, tren eta tren-makinen birgaitzea, operazioa, leasing-a, finantzaketa eta gure LeadMind plataformaren inguruko zerbitzu digitalak); garraio-sistemen esparruko beste negozio osagarri batzuk garatzea (EPC eta integrazioa, seinaleztapena, elektrifikazioa eta osagarriak); eta hiriko autobusen arloan emandako bultzada irmoa.

Ziklo estrategiko hau amaitu ahal izateko, beharrezko da oraindik ere berrikuntzarekin lotutako jardueretan azken urteotan egindako inbertsio-ahaleginarekin aurrera jarraitzea teknologiekin, produktuekin eta bezeroei zuzendutako irtenbideekin lotuta. Hala, 2020ko gure Plan Teknologikoak I+G proiektuen garapena hainbat arlotan aurrez ikusten du: seinaleztapena eta automatizazioa (CBTC eta ERTMS Baseline 3, adibidez), pisuaren eta kontsumoen optimizazioa, dieselarekiko alternatiba diren energia-irtenbideak (hidrogenoa, hibridazioa, baterietan ontziratutako energia) pixkanaka gehitu izana trenen esparruan, hiriko autobusen gaur egungo gama zabaldu izana merkatu berriei aurre egiteko, balioztatze birtualeko inguruneak eta Tren Digitalaren (trenen eta azpiegituraren prebentziozko mantentzea eta zerbitzuko monitorizaziorako diagnostikoa, 4.0 teknologiak produkzio-prozesuetan eta abar) ekimena besteak beste.

Negozio ugariekin lotuta izan den eta aurrez ikusita zegoen hazkundearekin batera, joan den urtean ibilgetuarekin lotutako hainbat inbertsio egin dugu eta, horien artean, honako hauek azpimarra ditzakegu: Corellako (Nafarroa) proba-zirkuitua amaitu izana, CAF Frantziaren tailerrak zabaldu izana herrialde hartan lortutako zorroak izandako igoera ikusita, eta Solarisen egindako berregokitze-lanak produkzio-gaitasun handiagoa emateko.

Hemen azaldutako guztia CAF Taldea osatzen dugun guztion dedikazioaren eta ahaleginaren ondorio da eta haiei guztiei nire esker ona adierazi nahiko nieke. COVID-19aren eragina mundu mailan, osasun publikoari, gizakion bizitzei eta enpresa-emaitzei eta ekonomia nazionalei dagokienez, horren adierazgarria izan den eta izaten ari den uneotan agertu nahiko nieke bereziki, gainera, nire esker ona. Horregatik, bi aldiz eman nahiko nizkieke eskerrak proiektu bikain hau osatzen dugun pertsona guztiei: izan ere, zalantzarik gabe, azken asteotan agertu dituzten disposizio eta konpromisoari esker, pandemia honek enpresan izango dituen eraginak minimizatu ahal izango ditugu eta ahalik eta gehien gerturatuko gara ezarrita genituen helburuetara.

Aitorpen hori, gainera, gure akziodun guztietara ere zabaldu nahiko nuke azken urteotan gure enpresa-proiektuarekin lotuta agertu izan dituzten konfiantza eta laguntzarengatik, eta, bereziki, bizi dugun 2020. urte berezi honetan.

Eskerrik asko.



Andrés Arizkorreta García
Presidentea

**nazioartean erreferentea da mugigarritasuneko sistema integralak diseinatzen eta ezartzen.**
**CAFek proiektuen eta ingeniaritzako kudeaketa integrala eskaintzen du eta horrek honako hauek guztiak biltzen ditu: sistemaren diseinua, obra zibila, seinaleztapena, elektrifikazioa eta beste sistema elektromekaniko batzuk, material gurpildunaren hornikuntza, eta sistemaren operazioa eta mantentze-lanak.**

## TRENBIDE PROIEKTUAK

### ALDIRIKO ETA ESKUALDEKO TRENAK

Auckland (Zeelanda Berria)
Caminhos de Ferro Portugueses (Portugal)
Companhia Brasileira de Trens Urbanos (Brasil)
Companhia Paulista de Trenes Metropolitanos (Brasil)
Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos (ET/FV)
Ferrocarriles Españoles de Vía Estrecha (FEVE)
Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya (FGC)
Finnish Railways (VR Ltd)
Heathrow Airport Express (Erresuma Batua)
Hong-Kong Airport Express
Irish Rail (Irlanda)
Izban (Turkia)
Montenegro
Nederlandse Spoorwegen (NS)
Northern-Arriva (Erresuma Batua)
Northern Ireland Railways (Ipar Irlanda)
Northern Spirit (Erresuma Batua)
Red Nacional de Ferrocarriles Españoles (RENFE)
Regione Autonoma Friuli Venezia Giulia (Italia)
Secretaría de Comunicaciones y Transportes (Mexiko)
Serveis Ferroviaris de Mallorca (SFM)
Société Nationale de Chemins de Fer Français (Frantzia)
TransPennine-First Group (Erresuma Batua)
Transport for New South Wales (Australia)
West Midlands - Abellio, JRE, Mitsui & Co (UK)
Wales & Borders - KeolisAmey
Zweckverband Schönbuchbahn (Alemania)

### LINEA HANDIAK

**INTERCITY**

S/598 tren baskulagarriak (RENFE)
S/599 diesel trenak (RENFE)
S/449 tren elektrikoak (RENFE)
Diesel tren Aljeriarako
Push-Pull Irlanda Intercity zerbitzua
Korsika diesel trenak
Tunisia diesel trenak
Frantzia diesel trenak
Saudi Arabiako trenak
Sardiniako diesel-trenak
Ipar Irlandako trenak
Estatu Batuetako trenak
Eskoziako Caledonian Sleeper

**ABIADURA HANDIKOAK**

Abiadura handiko eta zabalera aldakorreko S-120 eta S-121 trenak (RENFE)
Madril-Sevilla lineako Abiadura Handiko Trenak (AVF)
Lanzadera-trenak S-104 (RENFE)
Abiadura handiko trenak Turkiarako
Norvegiarako abiadura handiko trenak

## HIRIAK/HIRI

### TRANBIAK

Amsterdam
Antalya
Belgrado
Besançon
Bilbo
Birmingham
Boston
Budapest
Canberra
Cádiz-Chiclana
Cincinnati
Cuiabá
Debrecen
De Lijn
Edimburgo
Stockholm
Friburgo
Granada
Houston
Jerusalem
Kaohsiung
Lieja
Lisboa
Lund
Luxemburgo
Manila
Maryland
Mauricio
Nantes
Oslo
Sevilla
Sidney
St. Etienne
Tallinn
Utrecht
Valentzia
Vélez-Malaga
Vitoria-Gasteiz
Zaragoza

### METROAK

Amsterdam
Aljer
Bartzelona
Bilbo
Bukarest
Bruselas
Caracas
Istanbul
Helsinki
Hong Kong
Londres
Madril
Malaga
Medellin
Mexiko
Nápoles
New Delhi
Palma de Mallorca
Quito
Erroma
Txileko Santiago
Sao Paulo
Sevilla
Washington

### UNITATE ARTIKULATUAK

Amsterdam
Buenos Aires
Monterrey
Pittsburgh
Sacramento
Valentzia

## AUTOBUSAK

Solaris autobus konbentzionalen eta elektrikoen mundu mailako hornitzailea da. Proiektuak 750 hiri baino gehiagotan ditu, eta presentzia, aldiz, 32 herrialdetan. E-mobility arloko gama zabala azpimarratu behar da bereziki; izan ere, merkatuko irtenbideen gama zabalena eskaintzen du segmentu horri dagokionez.

# TALDE BATERATUAREN 2019KO KUDEAKETA TXOSTENA


| | |
|---|---|
| CAF TALDEAREN NEGOZIO EREDUA ETA AURREIKUSPENAK | 8 |
| NEGOZIOEN BILAKAERA ETA EMAITZA | 10 |
| JARDUERA KOMERTZIALA | 12 |
| INDUSTRIA JARDUERA - TRENEN SEGMENTUA | 16 |
| I+G+b JARDUERA - TRENEN SEGMENTUA | 18 |
| SOLARIS | 20 |
| INBERTSIOAK | 24 |
| ARRISKU ETA ZALANTZA NAGUSIAK | 26 |
| LIKIDEZIA ETA KAPITAL-BALIABIDEAK | 30 |
| BURTSAKO INFORMAZIOA | 32 |
| BESTE INFORMAZIO BAT | 34 |

# CAF TALDEAREN NEGOZIO EREDUA ETA AURREIKUSPENAK

Abangoardia teknologikoa eta balio erantsi handia oinarri hartuta, bere bezeroei garraio arloko eta mugikortasun iraunkorreko sistema integralak eskaintzen 100 urte baino gehiagoko esperientzia duen talde multinazionala da CAF.

Trengintzarekin lotuta, merkatuko produktuen gama zabal eta malguenetako bat eskaintzen die bezeroei: garraio arloko sistema integral osoenak zein elementu ugariak. Hau da, material gurpilduna, ontziratutako ekipoak, azpiegiturak, tailerrak, seinaleztapena eta zerbitzuak (mantentzea, birgaitzea, diagnostikoa eta finantza-zerbitzuak).

Zerbitzuen esparruari dagokionez, duela gutxi Euromaint enpresa, Suedian bidaiarien flotak eta tren-makinak mantentze arloan liderra dena, Taldera gehitu izanak jarduera-ildo hori baieztatu eta gure tren arloko jarduera guztien presentzia komertziala eta industriala sendotu du Europako iparraldeko herrialdeetan.

Bestalde, material gurpildunaren segmentuaren baitan (horixe da, hain zuzen ere, bere negozio tradizionalena), CAFek produktuen gama zabala eskaintzen du eta honako hauek jasotzen ditu besteak beste: abiadura handiko eta oso handiko trenak, eskualdeko eta aldiriko trenak (diesel eta elektrikoak), metroak, tranbiak, LRVak edo tren-makinak.

Bere negozio-zifraren %90 inguru dago nazioarteko merkatuari lotuta eta gune nagusietako bat da mendebaldeko Europa. Gainera, CAF Taldeak produkzio-lantegiak ditu Espainian, Frantzian, Estatu Batuetan, Mexikon, Brasilen eta Erresuma Batuan. Horrez gain, tren-ibilgailuen flotak mantentzeko zentro eta bulegoak ditu bost kontinenteetako 20 herrialde baino gehiagotan.

Hiriko mugigarritasun iraunkorraren eta autobusaren segmentuan, 2019a izan da Solaris Bus & Coach enpresaren kontrola eta bateratzea jaso duen lehen ekitaldi osoa. Solarisen integrazio osoa aurrerapauso handia izan da hiriko autobusen sektorean eta horrek CAF Taldeak 2011n egindako apustua sendotu du Vectia irtenbideen gamaren bidez. 700 bezero baino gehiago eta propultsioko irtenbideen gama zabalena (diesela, hibridoa, full electric, hidrogenoa, gasa eta trolebusa) ditu eta horri, gainera, autobus elektrikoaren ildo integraletan, mantentzean eta formula komertzial berritzaileetan (eskuragarritasunaren araberako ordainketak, leasing operatiboa, adibidez) Vectiak duen esperientzia gehitu behar diogu. Horrenbestez, asko hazten ari den segmentuan etorkizun oparoa duela esan dezakegu.

2020. urtera begira, CAF Taldearen estrategiaren helburu nagusia Taldearen hazkundea modu errentagarrian lortzea izango da. Horretarako, CAF Taldeko jarduerek, hurrengo urteetan, aurreko ekitaldietako jarduera-ildoak garatzen eta jarduera esparru berriak abian jartzen jarraituko dute; honako hauek dira horietako batzuk, adibidez:

- Tren eta osagaien fabrikazioko eta diseinuko negozio nagusian gure nazioarteko hazkundea sendotzea merkatu tradizionalak eta proiekzio handiko merkatu alternatiboak arakatuta, dagokionean, elkarlanean edo aliantzan negozio-formulak barneratuta.

- Floten mantentzeaz harago joanda, trengintzara aplikatutako epe luzerako zerbitzuen negozioetako hazkundearen aldeko apustu irmoa: emakidak, finantzaketa, tren-sistemen operazioa, alokairua, trenen mantentzea eta/edo birgaitzea, tranbia eta tren-makinak… Horiek guztiak azkenaldian lortutako arrakasten jarraipena dira: Lieja (Belgika), Parramatta edo New South Wales (Sydney, Australia). Horiei guztiei, gainera, zerbitzu digitalen komertzializaziotik erator daitezkeen eta bezeroei zuzendutako balio-proposamen ugariak gehitu behar dizkiegu (floten kudeaketa, produkziozko mantentzea eta abar). Horiek LeadMind izeneko gure irtenbidearen (dagoeneko entrega-fasean dauden hainbat proiektutan instalatuta dago) eta floten salmentarekin loturarik ez duten zerbitzuen kontratuen bidez bideratzen dira.

**2020. urtera begira, CAF Taldearen estrategiaren helburu nagusia Taldearen hazkundea modu errentagarrian lortzea izango da. Horretarako, Taldeko jarduerek, hurrengo urteetan, aurreko ekitaldietako jarduera-ildoak garatzen eta jarduera esparru berriak abian jartzen jarraituko dute.**

- Garapen teknologikoarekin lotuta egindako ahalegin inbertsiogilearekin aurrera jarraitzea teknologiei zein gure jarduera adar guztietako balio erantsi handiko produktuei dagokienez (material gurpilduna, seinaleztapena, energia, datuen kudeaketa, ikuskapenak, autobusak eta abar). Besteak beste, Shift2Rail Europako tren arloko plataforma teknologikoan txertatutako proiektuak aipatu behar dira.

- Bezeroei zuzendutako balio-proposamenean aurrera egitea gure filialen garapen komertzialeko eta teknikoko planen bidez: Signalling, Power & Automation, Turnkey Engineering, Solaris, BWB eta abar. Estrategia horrek garraioaren eskaintza integrala areagotu eta dibertsifikatu nahi du trengintzaz harago joanda, mugigarritasun iraunkorreko behar sozial berriei erantzuna emanda. Horretarako, apustu teknologikoa oinarrizko zatia izan da eta da abangoardia lehiakorrean kokatzeko estrategia zein baliabide gisa.

- Sektore aeronautikoan, espazialean eta trengintzan sistema kritikoak garatzen erreferentea den Orbital Sistemas Aeroespaciales SL (Noain, Nafarroa) enpresarekin operazioak integratzeko prozesuan aurrera egitea. CAF Taldeak enpresa horren %30 eskuratu zuen 2018an, eta partaidetza hori negozio-parametro jakin batzuen bilakaeran zabaltzeko aukera dago. Partaidetza horren bidez, CAF Taldeak Orbitalen oraingo jarduerak sendotzen laguntzea eta sistema kritikoetan punta-puntako garapen-oinarriaren onura jasotzea espero du trenen garraio sektorean bere irtenbideak garatzen laguntzeko segurtasuneko estandar altuekin (hardwarea, softwarea eta integrazioa, eta balioztatze-zerbitzuak).

- Gure prozesu operatiboak pixkanaka digitalizatzeko lanarekin aurrera jarraitzea (fabrikarekin zein zerbitzuen prestazioarekin lotutakoak), epe luzerako lehiakortasuna bermatu ahal izateko eragingarritasun handiagoa eta proiektuen lead-time txikiagoa lortze aldera (Industria 4.0). Bilakaera horren erakusgarri dira teknologia hauek, adibidez: datuak online jasotzea, errealitate areagotuaren laguntzarekin egindako prestakuntza eta exekuzioa, inprimaketa gehigarria eta abar.

- Gastuei eusteko, kostuak eta inbentarioak gutxitzeko eta Taldearen negozio arlo eta jarduera guztien kalitate, segurtasun, ingurumen eta kudeaketa arloetako bikaintasuna lortzeko programak modu sistematikoan eta errepikarian aplikatzea. Hori guztia oso ingurune lehiakorrean egingo dugu. Honako hauek jasotzen ditu:

  – Eraikuntzako moduluen eta plataformen etengabeko hobekuntza (adibidez: Oaris, Civity UK eta Europako Civity, Inneo metroak eta abar).

  – Industria Lanetako Aldaketa Plana pixkanaka hedatzea.

  – Produktuaren bizitza-zikloko kostua (LCC) optimizatzea. Gure lehia maila gero eta gehiago zehazten du elementu horrek.

- Azkenik, enpresa-kudeaketako oinarrizko alderdietan aurrera egitea. Horren baitan, honako hauek aipa ditzakegu: Erantzukizun Sozial Korporatiboa, akziodunei eta inbertsiogileei emandako arreta, arriskuen kudeaketa korporatiboa eta, oro har, gobernu korporatibo onarekin lotutako jardunbideak.

Azken finean, gero eta lehiakorragoa den merkatuan, gure bezeroen asebetetzea areagotu ahal izateko haien beharretara egokitutako irtenbideak etengabe bilatu nahi izatea da enpresaren ezaugarrietako bat. Hori guztia CAF Taldea osatzen duten pertsona guztien arteko kulturaren bidez egiten dugu, intereseko taldeen beharrei erantzun orekatua emanda.

# NEGOZIOEN BILAKAERA ETA EMAITZA

**Adierazle nagusiak (*)**

| Datuak milioi eurotan | 2019 | 2018 | Aldakuntza (%) |
|---|---|---|---|
| **Kontratazioa** | | | |
| Eskarien zorroa | 9.446 | 7.716 | %22 |
| Ekitaldiko kontratazioa | 4.066 | 2.902 | %40 |
| Kontratazio-ratioa / Negozio-zifra | 1,57 | 1,42 | %11 |
| **Emaitzak eta Cash-Flow-a** | | | |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 2.598 | 2.048 | %27 |
| Doitutako EBITDA | 244 | 201 | %21 |
| Cash-Flowa | 106 | 101 | %5 |
| Zirkulatzailean egindako inbertsioa | 112 | 40 | %180 |
| Ibilgetu materialean eta I+G+b arloan egindako inbertsioa | 77 | 94 | %-18 |
| **Kapitalaren kudeaketa eta likidezia** | | | |
| Finantza-zor garbia | 434 | 324 | %34 |
| Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ondare garbia | 733 | 752 | %-3 |
| Likidezia erabilgarria | 914 | 944 | %-3 |
| Ratioa: finantza-zor garbia / EBITDA | 1,78 | 1,61 | %11 |
| **Akzioko dibidendua banatzeko proposamena** | 0,842 | 0,765 | %10 |

(*) Adierazleen definizioak atal honetan jasota daude: "Errendimenduko neurri alternatiboak".

- Kontratazio maila altua dela eta, eskarien zorroa enpresaren maximo historikotan dago eta Taldearen jarduerak garapen normala izango duela bermatzen du.

- Adierazleak aurreko ekitaldiko datuekin alderatu behar baditugu, kontuan izan beharko dira Taldearen bateratze-perimetroan gertatu diren aldaketak: batez ere 2018ko ekitaldiko irailean Solaris Taldea eta 2019ko uztailean Euromaint Taldea gehitu izana.

- Taldeko negozio-zifraren zenbateko garbiaren araberako EBITDA marjina %9,4koa da 2019ko ekitaldian eta, datu absolutuei dagokienez, %21 hazi da.

- Finantza-posizioari dagokionez, finantza arloko zor-ratioa / Ebitda egonkor mantentzen da, ekitaldian Ibilgetu Materialarekin eta I+G+b-arekin lotuta eta Euromaint Taldearen kontrola hartzeko inbertsio-ahalegina egin den arren.

- Emaitzak aplikatzeko proposamena honako hau da: dibidenduak banatzera 28,9 milioi euro bideratzea.

**Kontratazio maila altua dela eta, eskarien zorroa enpresaren maximo historikotan dago eta Taldearen jarduerak garapen normala izango duela bermatzen du.**

# JARDUERA KOMERTZIALA

2018an Solaris autobusen enpresa erosi genuela iragarri genuen; 2019an, aldiz, trenen mantentzeaz arduratzen den Suediako EuroMaint enpresa CAF Taldean sartu dela iragarri behar dugu. Enpresaren eraldaketa-prozesuan beste urrats bat ekarri du horrek.

2019a urte askoan egindako lan onaren ondorio diren gertakari arrakastatsuekin hasi zen. Urtarrilean sinatu zen aurrekalifikazioarekin 2016an hasitako prozesuari amaiera eman zion kontratua: Garraiorako Valoniako Eskualdeko Sozietatearen aurrean (SRWT), Liejako garraio publikoen hiri-sarea Berrantolatzeko eta modernizatzeko – tranbiako lerro baten plangintza; Tram D'Ardent izeneko partzuergoaren barruan, Colas taldeko enpresekin batera. Proiektu honetan CAFen betebeharra honako hauei lotuta egongo da: 20 tranbia, seinaleztapeneko, telekomunikazioetako eta energiako sistemak hornitzea, eta sistemaren mantentze-lanetan parte hartzea.

Era berean, gure antipodetan eta Pacific Partnership eta DIF Infraestructure V-rekin batera osatutako Momentum Trains partzuergoan bidez, CAFek 29 diesel-unitate, gidatzeko simulagailuak hornitzeko eta mantentzeko, eta mantentze-lanetako andel berri bat eraikitzeko eta hornitzeko kontratuak formalizatu zituen. Gainera, CAFek, Momentum Trains partzuergoko kide gisa, Hegoaldeko Gales Berriko estatuko eskualdeko trenen zerbitzurako operazioan hartu du parte.

Erresuma Batuko hiriburuan, Transport for London-ek (TfL) CAFi esleitu dio Docklands Light Railway (DLR) linearako gidatze automatikoko 43 treneko flota diseinatzeko, fabrikatzeko eta hornitzeko kontratua. Unitateak 2023an hasiko dira funtzionamenduan, eta horrek zerbitzuaren maiztasunari hobekuntza handia ekarriko dio, baita garraio-gaitasunari ere, egungo flotaren dimentsioa 10 unitatetan handituko delako eta gidatze automatikoak dituen ezaugarriengatik. Gainera, egungo trenen berezko erosotasunak dituzte, hala nola bidaiari buruzko informazio bisuala eta soinuduna denbora errealean, gailu mugikorrak kargatzeko puntuak, gurpildun aulkirako erreserbatutako eremuak eta erabilera ugaritarako eremuak: haurrentzako aulkitxoak, bizikletak edo ekipajeak.

Erresuma Batuan jarraituz, West Midlands Combined Authority-k (WMCA) 21 tranbia hornitzeko kontratua egin du. Akordio berria 2012an kontratatu eta 2018an katenariarik gabe zirkulatu ahal izateko birmoldatutako 21 ibilgailuen osagarria da. Hornidura berri horrek 2022tik aurrera Birmingham hiriko sarean emango du zerbitzua. Tranbia berriek, gainera, CAF garatutako Greentech teknologia dute: hiri-eremuan aireko linea elektrikorik beharrik izan gabe zirkulazio autonomoa ahalbidetzen dien teknologia. Tranbia berri horiek lehendik dauden Urbos 21ekin batera, Birmingham eta Wolverhampton lotzen dituen Midland metro Linea linean ibiliko dira, baita Centenery Square luzapenean ere. Hori izango da, hain zuzen ere, Erresuma Batuan katenariarik gabe funtzionatuko duen lehen linea komertziala.

Bestalde, De Lijn Flandriako Garraio Konpainiak (Belgika) 2017an hasiera batean kontratatutakoez gain beste 23 tranbiaren erosketa formalizatu du. Zabaltze-lan horiekin, dagoeneko 71 tranbia hornituko ditu CAFek De Lijn tranbia-zerbitzurako. Lehen 48 unitateak datozen urtetik aurrera jarriko

**Beste behin, ekitaldia eskarien zorroaren balioan errekorreko zifrarekin itxi da eta 9.446 milioi eurokoa izan da. Beste nolabait esanda, aurreko ekitaldiaren itxieran zehaztutako aurreko maximoarekiko %22ko igoera gertatu da.**

dira martxan Belgikako kostaldea gurutzatzen duen tranbia-linean. Aldiz, hirugarren loteko tranbiak 2022ko bigarren zatian hasiko dira entregatzen Anberes hirian zerbitzua emateko.

Egoera antzekoa da Napolesen ere (Italia); bertan, Campania eskualdeko hiriburuko udalak hasierako 12 metro-unitateko hornidura-eskaera zabaldu eta beste 7 eskatu ditu.

Jerusalemen, Saphir eraikuntza-enpresarekin egindako partzuergoak, Proiektu Publiko Pribatu (PPP) baten bidez, Israelgo hiribururako tranbien zabaltze-lanak eta ustiaketa formalizatu ditu. Lehendik dagoen sarea zabalduko da beste 27 kilometro eta 53 geltokirekin, eta 114 tranbia berri hornituko dira. CAFek eskainiko dituen lanak izango dira unitate berriak hornitzea, gaur egun zerbitzua ematen duten 46 unitateen zaharberritzea, seinaleztapen-, energia- eta komunikazio-sistemak hornitzea, proiektuaren integrazioa egitea eta hasiera batean 15 urtez bi linea horien operazioko eta mantentzeko jarduera kudeatuko duen SPV sozietatean %50eko partaidetza izatea.

Trenbideetako material mugigarriari eskainitako lehen bloke hau amaitzeko, alboko herrialdean, Frantzian, SNCFk CAFekin distantzia ertain eta luzeko 28 tren egiteko kontratua formalizatu du. Trenek Paris eta Clermont-Ferrand eta Paris eta Limoges eta Okzitaniako Tolosa lotzen dituzten lineetan egingo dute bidea. Dena den, kontratu horrek etorkizunean izan ditzakeen zabalpen-lanek Bordele eta Marseilla arteko ardatzean zirkula dezakete. Trenak 200 km/h abiaduran zirkulatzeko prestatuta daude, erosotasun eta ekipamendu maila handia eskainiz: eserleku ergonomikoak, nasetatik sartzeko eta tren barruan mugigarritasun murriztuko pertsona guztientzako sarrera autonomoa, Wi-Fia, entxufeak eta USB atakak, bizikletetarako eremuak eta cateringerako espazio logistikoa kalitateko orgatxoetan banatuta.

Seinaleztapen eta kontrol sailean ere jaso ditugu azken urteotan egindako lan onaren emaitzak. ADIFek urtarrilean formalizatu zuen CAF Signallingekin zabalera metriko sareko El Berrón, Santander eta Bilboko CTC sistemen mantentze-lanetako laguntza aditua eskaintzeko, eraikuntza-proiektua idazteko eta berritze-lanak egiteko kontratua. ADIFek, gainera, kasu honetan zabalera iberikorako, CAF Signallingi eskatu zion Madril-Vicálvaro salgaien tren-terminaleko hegoaldeko sorta teknikoan katigamendu elektronikoa instalatzeko; Mediterraneoko eta Atlantikoko korridoreen arteko nodo artikulatzailean trenak jasotzeko eta igortzeko 750 m-ko trenetarako egokiak diren lau bide berri exekutatzeko enkarguaren barruan dago eskaria.

Abiadura Handiko ADIFek CAF Signalling – Thales partzuergoarekin sinatu zuen Mediterraneoko Korridoreko La Encina-Xativa – Valentzia guneko zatiari dagokionez eraikuntza-proiektuak idazteko, lanak exekutatzeko, katigamenduko instalazioak mantentzeko, trenen babes-sistemak mantentzeko, zirkulazioaren kontrol zentralizatua, detektatzeko sistema osagarriak, energia hornitzeko sistema, telekomunikazio finkoak, telekomunikazio mugikorrak, babes eta segurtasun arloko instalazioak egiteko kontratua.

Gure mugetatik kanpo, CAF Signalling parte den partzuergoetan Eslovenian eta Uruguain sinatu da kontratu

# JARDUERA KOMERTZIALA

bana. Lehenengoa segurtasun eta seinaleztapeneko sistemak birgaitzeko 117 km-ko zatian Zidani Most eta Sentili geltokien artean, Austriarekin muga egiten duen Esloveniako zatian. Bigarrena seinaleztapen eta komunikazio-sistemak diseinatzeko, fabrikatzeko, instalatzeko, probatzeko eta zerbitzuan jartzeko, linearako Zirkulazioaren Kontrol Zentralizatuko sistema barne, baita ERTMS sistema ere. Hori guztia Ferrocarril Central proiektuko 1. linean. Ibilbidea ia 276 km-koa da eta Paso de los Toros hiria, herrialdearen erdigunean dagoena, Montevideoko portuarekin lotzen du.

Frantziara itzulita, eta birgaitze-lanen negoziora begira, RATP operadoreak (Régie Autonome des Transports Parisiens) eta Île-de-France Mobilitések CAFi esleitu diote 1995 eta 2005 artean fabrikatutako 43 RER MI2N unitate birgaitzeko proiektua.

Hegoalderago, SROk (Saudi Railways Organization) eta SARek (Saudi Railway Company), Saudi Arabiako estatuko bi tren-konpainiek, kontratu bana berritu dute hurrenez hurren Riyadh – Qurayyat eta Riyadh – Dammam zerbitzuak egiten dituzten trenen mantentze-lanetarako. Hala, trenen erosketarekin gure enpresan jarritako konfiantza berretsi dute. Erositako trenen mantentze-lana beste hiru urtez luzatuko da.

Renfek ere CAF aukeratu du Madrilgo Aldirietako zerbitzuko 446 serieko eta Civia unitateak mantentzeko datozen 4 urteetan. Hala ere, kontratuak Renfe eta CAF arten eratutako Actren ekonomia-sozietate mistoak exekutatuko ditu.

Plano teknologikoago batean, fabrikazioaren, birgaitzearen, trenen mantentze-lanen eta seinaleztapenaren aldean, nabarmendu beharrekoa da Erresuma Batuko Northern frankiziak denbora errealeko urruneko monitorizazio-sistema eta CBM (Condition Based Maintenance) kontratatu dituela CAFekin. Proiektuaren asmoa da Real Time Funtzionalitatea eta LeadMind Analitika aurreratua hornitzea CAF entregatzen hasi den Civity UK eskualdeko 101 trenetarako eta Legacy Fleet Class 170 eta 158 trenetarako. LeadMinden antzeko eskaera kontratatu du Saudi Arabian Railway Companyk (SAR) Riad eta Quarrayat artean dabiltzan 6 trenetarako.

Hala, LeadMind dagoeneko ari da mundu mailako ospea duten operadoreei kudeaketa eta flota eta mantentze-lana eskaintzen; besteak beste, hauei: Euskotren, Trenitalia, Santiagoko Metroa (Txile), Amsterdam Tramway (GVB) (Herbehereak), Northern Arriva (Erresuma Batua) edo Zaragozako Tranbiak. Azken lan horiekin, LeadMind unibertsoak 3.700 kotxe baino gehiago izango ditu monitorizatuta 950 tren ingurutan (mundu osoko 25 bezeroren artean).

Autobusen segmentuari dagokionez, aipagarriak dira Europa mailan Taldeak izandako esleipen berriak; horien artean, oso esanguratsua izan da Europan orain arte egindako autobus elektrikoen kontratu handienetako batean Solaris aukeratu izana ATM Milanorako. Guztira 12 metroko 250 autobus elektriko arteko hornidura biltzen du. Milango kontratu hori ACTV SPA Venezia garraio-operadorearekin 30 autobus elektriko eta haien bateriak kargatzeko beharrezko azpiegitura

**ESKARIEN ZORROA** (milioika euro)



hornitzeko egindako kontratuak osatu du. Azken autobus horiek Pellestrina eta Lido uharteetan emango dute zerbitzua. Han, diesel-ibilgailuen egungo flota ordezkatuko dute eta eskualdeak CAF produktuen presentzia handituko da, Venetoko hiriburuan 18 Solaris autobus baitabiltza dagoeneko, eta haietako hamarrek gas natural konprimatu bidez funtzionatzen dute (GNC). Teknologia hori bera erabiltzen dute Varsoviako, Poloniako hiriburuko, garraio publikoaren operadoreak kontratutako 54 autobus elektrikoek eta Tallinen zerbitzua emateko Tallinna Linnatranspordi ASk enkargatutako 100ek.

Italiatik alde egin gabe, eskualdeko garraioaz arduratzen den eta egoitza Erroman duen Cotral operadoreak beste esparru-kontratu bat sinatu berri du hiriarteko gehienez 300 diesel-autobus hornitzeko. Akordio berri hori 2016an sinatutako aurreko kontratua amaitu ondoren etorri da. Hura ere orain CAF Taldean sartuta dagoen Poloniako fabrikatzailearekin egindako kontratua zen, kasu hartan 360 autobus entregatzeko.

Solarisek Norvegian egindako lehen lana Bergen hirirako, herrialdeko bigarren hirirako, 10 trolebusena izan da. Eta marka sendotu egin da Hungariako eta Errumaniako merkatuetan, Paks eta Satu Mare hirietan hiri-garraioa emateko hurrenez hurren 10 autobus elektriko eta 11 hibrido eskaintzeko sinatutako kontratuekin.

Nazio mailara itzulita, Solarisekin, nabarmendu beharrekoa dugu Alsarekin sinatutako kontratua: Bilborako bi autobus elektriko eta kargatzeko bi estazio hornitzeko, hain zuzen ere.  Hala, Espainian 2010etik hornitutako autobus kopurua 200 ingurukoa da, eta zenbait hiritan dabiltza: Bartzelona, Iruñea, Castelló, Las Palmas, Sevilla eta Donostia, besteak beste.

Gainera, nabarmendu nahiko genuke hidrogenoaren teknologia iritsi dela gure enpresara, Italiako Bolzano hirirako hidrogeno bidezko 12 autobuseko eta 8 urterako aldirako haien mantentze-lanerako eskaerarekin. 15 trolebus eta  20 autobus elektriko dira Poloniako Lublin hiriko garraio publikoko operadoreak aukeratutako zero igorpeneko teknologia; sabaian eguzki-plakak ditu, ibilgailuen energia-eraginkortasuna handitzeko.

Jarduera komertzialaren atala amaitzeko, Espainiako Merkataritza Ganberak Frantzian jasotako saria aipatu behar dugu. Bertan, CAFi aipamena egin zioten, Frantzian ekitaldi hartan urteko Espainiako enpresa izateagatik. Sari horrekin, Merkataritza Ganberak balioa eman dio azken urteetan Frantzian CAF Taldeak egindako ibilbideari. Hori ekitaldian zehar kontratu finkoetan gauzatu da.

Azkenik, baina azkena izanagatik ere antzeko garrantziarekin, aipatzekoa da berriz ere kontratazio-zorroko balioetan zifra errekorrarekin itxi dela ekitaldia: 9.446 milioi eurokoa, hau da, %22ko igoera iazko ekitaldiaren amaieran ezarritako aurreko maximoarekiko.

Ekitaldi berri honi baikortasun berrituz egingo diogu aurre RENFEk abiatutako lizitazio ugariren aurrean. RENFE da nazio mailako merkatuan erreferentziazko operadorea, eta espero dugu CAFek bere ehun urte baino gehiagoko historian erregulartasunez egin duen bezala, Espainiako trenbide sektorearen garapenean laguntzen jarraitu ahal izango dugula.

# INDUSTRIA JARDUERA - TRENEN SEGMENTUA

CAF Taldeko jarduera industrialari dagokionez, 2019ko ekitaldiak zifra esanguratsuak utzi ditu; guztira, 26 proiektutarako 1.048 kotxe eraiki dituzte, eta 5 kontinenteetako bezeroentzako 70.000 gurpil baino gehiago eta beste elementu batzuk fabrikatu dituzte.

Proiektuen bizi-zikloaren arabera aurrera eginez, 2019 ekitaldian zehar aurreko ekitaldietan hasitako zenbait amaitu ditugu, adibidez, Caledonian sleeper-entzat atoian eramateko 75 kotxeren proiektua, azken 14ak entregatuta; Transpeninne Express kontratuaren 12ak osatzen dituzten 8 unitateak; bezero berarentzat atoian eramandako kotxeen 13 konposizioen proiektua, azken 2 trenen fabrikazioarekin; Quitoko metroak kontratatutako 18 trenen proiektua, azken 15ak entregatuta, eta Tolucarako (Mexiko) 30 trenen azkena ere bai; Holandako Utrecht hiririrako 5 moduluko 27ko eskaera osatzen duten 8 tranbiak, eta hiri bererako 22ko lote bateko 7 moduluko tranbien lehen 5ak.

Ekitaldi honetan amaitu ditugun proiektuen artean dago, gainera, Newcastle hiriarekin sinatutakoa, 6 tranbietako azkena entregatuta; Kansas hirirako proiektua, 2 tranbia entregatuta, baita Aljerreko Metrorako 12 unitateko eskaera ere, azken sei konposizioak entregatuta eta 1. Linearako Mexikoko Metroak kontratatutako 10ak osatzen dituzten 7 trenen entrega.

Hasieran adierazitako 26 proiektuetatik, 2019an zehar oso garrantzitsua izan da garatutako industria-jarduerari dagokionez Holandako Nederlandse Spowegen operadorearentzako aldirietako trenen kontratua, 3 kotxeko 21 konposizio eta 4 kotxeko 20 konposizio fabrikatzeko. Aipagarriak dira Ipar Amerikako Amtrak operadorerako eraikitako atoian eramateko 12 kotxeak ere, eta Boston hiririrako 14 LRVak (Ligth Rail Vehicle) eta Maurizio Uharteetarako proiektuaren 18 LRVetatik 13ak. Gainera, Norvegiako Flytoget bezeroarentzat abiadura handiko 8 trenetatik 4 entregatu dira, Bruselako Metrorako 22ko lote batetik lehen 2 trenak; Auckland (Zeelanda Berria) hiriak kontratatutako 15 kontratuetatik lehen 4ak, edo Stockholm hiriak kontratutako 20 tranbietatik lehen 7ak.

Tranbien kategoriarekin jarraituz, ekitaldi honetan hasi dira Gasteizko proiektuaren lehen entregak, lehen 4ak entregatuta, Budapest hiririrako 9 moduluko 4 tranbiak, Luxenburgorako 7 moduluko 7 tranbiak eta Amsterdamerako 5 moduluko 6 tranbiak.

Aipagarriak dira Britainia Handiko merkaturako proiektuen artean Northern Arrivarako frankiziara biderатutakoak. Horien artean dago, esate baterako, DMU (Diesel Multiple Unit) motako 58 unitateen kontratua eta horietatik bi kotxeko 20 tren eta 3 kotxeko 22 konposizio egin dira. Bestalde, bezero berarekin jarraituta, nabarmentzekoa da EMU (Electrical Multiple Units) kategorian 3 kotxeko 23 tren eta 4 kotxeko 6 tren ere egin ditugula. Merkatu horretarako egin da, gainera, West Midlandsekin izenpetutako kontraturako konposizio ugariko 26 trenetako lehenengoa.

Azkenik, fase goiztiarrean egon arren Taldearen jarduera industrialean sartzen ari diren proiektuei ere erreferentzia laburra egin nahi diegu; adibidez, Bartzelonako metrorako tren berriak, bai 5.000 serierako, bai 6.000 serierako, edo Manila hiriak kontratutako proiektua.

**NEGOZIO ZIFRA** (milioika euro)



**CAF Taldeak tren esparruan izandako jarduera industrialari dagokionez, 2019ko ekitaldiak zifra esanguratsuak utzi ditu; guztira, 26 proiektutarako 1.048 kotxe eraiki dituzte, eta 5 kontinenteetako bezeroentzako 70.000 gurpil baino gehiago eta beste elementu batzuk fabrikatu dituzte.**

2019an fabrikatutako produktu esanguratsuenak honako hauek izan dira:

| KOTXE KOPURUA | |
|---|---|
| Flytoget abiadura handia | 16 |
| Amtrak distantzia luzeko kotxeak | 12 |
| Caledonian distantzia luzeko kotxeak | 14 |
| Transpeninne distantzia ertaina. Kotxeak+kabina | 11 |
| Transpeninne distantzia ertaina EMUak | 40 |
| Northern Arriva distantzia ertaina EMUak (3 kotxeko konposizioa) | 69 |
| Northern Arriva distantzia ertaina EMUak (4 kotxeko konposizioa) | 24 |
| Northern Arriva distantzia ertaina DMUak (2 kotxeko konposizioa) | 40 |
| Northern Arriva distantzia ertaina DMUak (3 kotxeko konposizioa) | 66 |
| West Midlands distantzia ertaina (4 kotxeko konposizioa) | 4 |
| CPTM aldirikoak | 8 |
| Tolucarako aldirikoak | 5 |
| NSrako aldirikoak (3 kotxeko konposizioa) | 63 |
| NSrako aldirikoak (4 kotxeko konposizioa) | 80 |
| Aucklanderako aldirietakoak | 12 |
| Quitoko metroa | 90 |
| Aljeriako metroa | 36 |
| L1 Mexikoko metroa | 63 |
| Bruselako metroa | 12 |
| Bostonerako LRVa | 42 |
| Mauriziorako LRVa | 91 |
| Gasteizerako tranbia | 28 |
| Utrechterako tranbia (5 moduluko konposizioa) | 40 |
| Utrechterako tranbia (7 moduluko konposizioa) | 35 |
| Budapesterako tranbia (9 moduluko konposizioa) | 36 |
| Luxenburgorako tranbia | 49 |
| Newcastlerako tranbia | 5 |
| Amsterdamerako tranbia | 30 |
| Stockholmerako tranbia | 21 |
| Kansaserako tranbia | 6 |
| **GUZTIRA** | **1.048** |

| BOGIEAK | |
|---|---|
| Mekano-soldatutako bastidorearekin | 1.321 |

| ERRODAJEEN ETA OSAGAIEN UNITATEAK – MiiRA | |
|---|---|
| Muntatutako ardatzak (motorra + atoia) | 4.721 |
| Ardatz-gorputz solteak | 8.449 |
| Osoko gurpilak | 71.174 |
| Gurpil elastikoak | 1.966 |
| Loturak | 941 |
| Erreduzitzaileak | 2.962 |
| Bandajeak | 788 |

# I+G+b JARDUERA - TRENEN SEGMENTUA

CAFi eta CAF I+Dri dagokienez, 2019ko lehen hilabeteetan ezarri zen 2019-2020 aldirako CAF Taldeko Berrikuntza Plan berria, Plan Estrategikoarekin lerrokatuta.

Berrikuntza Prozesu berriaren arabera zehaztutako Berrikuntza Planak I+G korporatiboko plana zein negozio hauetako produktu-planak biltzen ditu: CAF Vehículos (Ibilgailuak), CAF I+D, Rail Services, MiiRA, CAF Power & Automation, CAF Signalling, CAF T&E eta Cetest.

Berrikuntza Planak 192 proiektu biltzen ditu guztira: 83 I+G korporatiboaren planean, eta 109 negozio ugarietako produktu-planen artean.

Proiektu horiek finantzatzeko, I+Gko jarduera babesteko hainbat laguntza jaso da. Honako hauek emandakoak dira horiek:

- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza
- Ekonomia eta Enpresa Ministerioa
- Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioa
- Europako Batzordea

CAF, CAF I+D eta filial ugariak partaide diren proiektuak bultzatu dituzte abian jarritako Planaren bidez, zentro teknologiko eta unibertsitate ugarirekin elkarlan handia izanda.

2019-2020 Berrikuntza Planean jasotako proiektuek esparru hauek jasotzen dituzte:

- Tren arloko produktu espezifikoak.
- Tren Digitala. Zerbitzuan lortutako datuak jasotzearekin eta tratatzearekin lotutako proiektuak biltzen ditu gero horiek produktuan eta mantentze-lanetan egin beharreko hobekuntzetan erabiltzeko. Horretarako, BigDatako teknologiak erabiltzen dira.
- Energiaren kudeaketa eta ekodiseinua trenen eta sistema orokorraren kontsumoa murrizteko eta optimizatzeko, hainbat baliabidetan energia lortzea eta biltegiratzea eta abar.
- Seinaleak, enbarkatuak zein finkoak.
- Trakzioa.
- Ibilgailu autonomoa.
- Balidazio eta homologazio birtuala.
- Oinarrizko tren-teknologiei, trakzioari, gurpilei eta ardatzei, erreduzitzaileei, loturei, kontrolari eta komunikazioari, mantentze-lanei eta abarrei buruzko produktu eta teknologia espezifikoak.

Haietan guztietan, teknologietan oinarritutako produktuak garatuta, bateratu egin dute teknologiak bereganatzera zuzendutako proiektuen egikaritzea.

CAF Taldea lankidetza-proiektuetan parte hartzen ari da Estatuko programen eta Europako zazpigarren esparru-programaren eta Horizon 2020 (H2020) ekimenaren baitan. Proiektu horien artean, honako hauek azpimarra ditzakegu:

- SMART TRAIN: CAFen digitalizazioko ekimen estrategikoaren baitan dagoen proiektu horren helburua tren eta zerbitzuen belaunaldi berria garatzea da, trenak sortzen dituen datu guztien kaptura, biltegiratzea, prozesamendua eta azterketa aurreratua modu ziberseguruan eginda.

- UNIMODEL: elkarlaneko proiektu horrek 2 urteko iraupena du eta horren helburua da kostu unibertsaleko ereduzko (UCM) metodologia garatzea, gero ibilgailua bidean operatzeak duen kostu orokorra kalkulatu, LCCren kostuak gutxitu eta hobetu eta tren-ibilgailuetan berrikuntza teknologikoak txertatzeak kostuan duen inpaktua alderatu ahal izateko.

- AROSS: tren arloko materialaren errodadurako, esekidurako eta balazta-ekipoko funtsezko elementuen predikzioko, monitorizazioko eta diagnostikoko irtenbideak garatzen oinarritzen da. Elementu horien kudeaketa aurreratua eta bizitzaren optimizazioa egitea ahalbidetuko dute.

- SHIFT2RAIL: Horizon 2020 programaren baitan tren arloko I+Ga bultzatzen duen Shift2Rail JUaren (Joint Undertaking) bazkide sortzaile gisa, CAFek teknologia garatzeko hainbat proiektutan (CONNECTA 1, PINTA 2, IMPACT 1, FINE 1, X2RAIL 1, PIVOT, FR8RAIL1, IMPACT1, IMPACT2, CONNECTA 2, PINTA 2, X2RAIL 1, X2RAIL 2, X2RAIL 3, PLASA 2, FR8RAIL 2) hartzen du parte eta horiek guztiek 2024. urtera arte iraungo dute.

- RAILCONNECT (Basque Industry 4.0 programa): proiektu horren helburu nagusia CAFen nazioarteko lehiakortasuna areagotzea da, honako hauekin lotutako I+Gko teknologiak hedatuta: Big Data – Analitika Aurreratua eta Zibersegurtasuna. Horren bidez, enpresak material gurpildunaren kudeaketarekin eta mantentzearekin lotuta, enpresak gainerako lehiakideenarekiko ezberdina den negozio-lerroa eratu ahal izango du.

**2019-2020 aldirako CAF Taldearen Berrikuntza Plan berria zehaztu da eta horrek 192 proiektu biltzen ditu guztira: 83 I+G korporatiboaren planean, eta 109 negozio ugarietako produktu-planen artean.**

Ibilgailuen plataformen garapena, sakontzea eta zabaltzea egiteaz gain, aurten landutako ingeniaritza-proiektu esanguratsuenak honako hauek izan dira:

- Northern-Arrivarentzako (UK) diesel-unitateak eta unitate elektrikoak.
- Transpennine Express-First Groupentzako (UK) unitate elektrikoak
- Bostongo eta Marylandeko metrorako LRV (AEB)
- Caledonian eta Transpennine Express-First Groupentzako (UK) atoian eramandako kotxeak
- Tolucarako unitateak (Mexiko)
- Mexikoko metroko 1. linea
- Canberrarako eta Newcastlerako (Australia) eta Amsterdamerako (Holanda) tranbiak
- RATPentzako (Frantzia) lokotraktoreak
- Schönbuchbahn-erako (Alemania) unitate elektrikoak
- STIBentzako (Brusela) metro automatikoa
- DMU West Midlands (UK)
- Napoleseko metroa (Italia)
- LRV Manila (Filipinak)
- Bartzelonako metroa (Espainia)
- Amsterdameko metroa (Holanda)
- Oslorako (Norvegia) eta Lunderako (Suedia) tranbiak
- Friburgoko tranbia handitzeko lanak.
- Liejako tranbia.
- Wales & Borders-entzako (Keolis) DMUak.

Gainera, 2019an, honako hauek jarri dituzte martxan:

- NIRentzat unitateak birgaitzea eta tarteko kotxeak
- Parramattako tranbia
- Medellineko metroko unitateak birgaitzea
- NSrentzako (Holanda) unitateak zabaltzea
- DE Linjerako (Anberes) tranbiak
- Docklandserako metro-unitateak (Londres)
- DEMU Long Regional for Transport of New South Wales (TfNSW)
- Birminghameko tranbia
- Jerusalemeko tranbia
- TET AMLD SNCF trenak

# SOLARIS

2019a errekorreko urtea izan zen Solarisentzat alderdi askotan. Lehenengo eta behin, enpresak negozio-zifrako bolumen handiena lortu zuen. 2019an, Solarisek 1487 ibilgailu saldu zituen (errekorreko kopurua da) eta enpresak sekula lortu duen emaitza onena izan da. Salmenta-bolumenari dagokionez, aurreko errekorra 2017an lortu zuen eta ia 100 autobus gutxiagokoa (1397) izan zen.

**2016TIK 2019RA BITARTEAN SOLARISEK IZANDAKO IBILGAILUEN SALMENTAK, UNITATETAN ZENBATUTA**




Gaur egun, Solarisen produktuak 32 herrialde eta 700 hiri baino gehiagotan topa ditzakegu. Guztira, orain arte, fabrikatzaileak bezeroei 19.000 ibilgailu inguru hornitu dizkie. 2019an, Solarisen salmentako merkatu nagusiak hauek izan ziren: Polonia, Alemania, Belgika, Lituania eta Italia.

Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da Solaris Europako merkatuetan bere salmenta-posizioa oso modu dinamikoan garatzen ari dela, baina, horrez gain, produkzioaren eta salmenta osteko zerbitzuaren antolaketa bizkor birbideratu du zero edo isurpen baxuko propultsio alternatiboak dituzten ibilgailuetarantz. 2018an, autobus hibrido eta elektrikoak zein trolebusak izan ziren saldutako ibilgailu guztien %29. 2019ko ekitaldian, salmentetako partaidetza ehuneko 11 puntutan handitu zen: %40ra arte.

Solaris e-mugikortasunean Europako lider argietako bat da. Azken urteotan, modu dinamikoan hazi da Solarisek fabrikatutako saldutako eta kontratatutako autobus elektrikoen kopurua. 2019an, fabrikatzaileak bateria bidezko 162 autobus elektriko hornitu ditu. Ondorioz, 2018ko datuekin alderatuta, igoera %51koa izan da.

2020an ziurtatuko eskariak oinarritzat hartuta, Solarisen autobus elektrikoen salmentek 2020ko ekitaldian gutxienez 500 unitateko maila lortuko dutela aurrez ikus dezakegu. Datorren urtean gauzatuko diren kontratuek, besteak beste, Varsoviako MZA operadorearentzako 130 Solaris Urbino 18 artikulaturen mega eskaria edo Milango ATM operadorearentzako Solaris Urbino 12 modeloko 250 autobus elektriko hornitzeko esparru-markoa jasotzen dituzte.

**Solaris e-mugikortasunean Europako lider argietako bat da. Azken urteotan, modu dinamikoan hazi da Solarisek fabrikatutako saldutako eta kontratatutako autobus elektrikoen kopurua.**

**EBKO ESTATU KIDEETAN, SUITZAN ETA NORVEGIAN, 2019AN ESKATUTAKO BATERIADUN AUTOBUS ELEKTRIKOEN GUZTIZKO KOPURUA**




**PROPULTSIO ALTERNATIBOA DUTEN AUTOBUSEN EHUNEKOA, AUTOBUS KONBENTZIONALEKIN ALDERATUTA, 2018 ETA 2019 ARTEAN SOLARISEN SALMENTEN EGITURARI DAGOKIONEZ**



# SOLARIS

2017arekin alderatuta, autobus elektrikoetarako ziurtatutako eskariak zortzi aldiz baino gehiagoz ugaritzea esan nahi du.

Solarisen salmenten egituran autobus elektrikoek duten gero eta garrantzi handiagoa bat dator enpresaren epe luzerako garapen-estrategiarekin, baita Solaris 2018tik kide den CAF Talde osokoarekin ere.

Era berean, bat dator Europar Batasuneko merkatu osoko eta Merkataritza Askeko Europako Elkartearen joerekin ere. Horiek dira Solarisek jarduera garatzen duen merkatu nagusiak. Duela urte batzuetatik hona, garraio publikoen igorpen baxuko edo igorpenik gabeko ibilgailuen eskaeraren ezohiko igoera dinamikoa hauteman dute egoera horiek; 2019an, joan den urtearekin alderatuta, %78 egin zuten gora. Solaris merkatuko liderra da e-mugikortasunerako trantsizio horretan. Solaris enpresa izan zen e-bus teknologiaren lehen bultzatzaile eta sustatzaileetako bat eta liderra izaten jarraitzen du duela hainbat urtetik.

Igorpen baxuko edo igorpenik gabeko ibilgailu-merkatuaren gero eta behar handiagoari erantzuteko helburuarekin, Solaris produktu-zorroa ari da garatzen etengabe arlo horretan.

2019an, Stockholmen izan zen Garraio Publikoaren gaineko Munduko Gailurrean, Poloniako enpresak hidrogenozko Solaris Urbino 12 modeloko autobus belaunaldi berria aurkeztu zuen. Ibilgailuaren energia-iturri nagusia hidrogenoa da. Hidrogenoa elektrizitate bihurtzen da, eta elektrizitateak, era berean, propultsio-sistema elikatzen du.

Energia sortzeko erabilitako hidrogeno-teknologiari esker, autobusek oraindik ere distantzia luzeagoak egin ahal izango dituzte batere igorpenik gabe. Hidrogenoarekin elikatutako autobusei esker, igorpenik gabeko autobusen zorro osagarria sortu ahal izango da. Horri esker, Solaris egungo erronketarako eta bezeroen beharretarako prestatuko da ibilgailuen irismenari, malgutasunari eta eragingarritasunari dagokienez. Solariesek uste du elektromugikortasuneko arlo guztien garapenak, bai bateriadun autobus elektrikoak, trolebusak edo hidrogeno bidez propultsatutako ibilgailuak, sinergiak sortu behar dituela, eta prozesu hori ezinbestekoa izango dela etorkizuneko garraio iraunkorra bermatzeko. Ondorioz, hidrogenoarekin propultsatutako Solarisen autobusak ez dira bateriadun autobus elektrikoentzako edo Trollino serieko modeloentzako konpetentzia izango. Alderantziz; teknologia horiek elkarren osagarriak izango dira eta guztiek jasoko dituzte unitate eragile elektrikoen eta horien osagaien prozesu teknologikoaren onurak. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da 2019an Solarisek hidrogenozko ibilgailuen lehen eskariak izan zituela. SASA Bolzano garraio-enpresak Urbino 12 hidrogenoazko modeloko 12 unitate eskatu ditu eta 2021ean entregatuko dira. Horrela, Solarisek egiaztatu du 2014tiok hidrogenoaren teknologian bazkide fidagarria dela; izan ere, modelo horretako ibilgailuak entregatu ditu Hamburgen eta Rigan.

Solarisek 2019an aurkeztutako beste berrikuntza bat Trollino 24 biartikulatua izan zen; fabrikatzaileak orain arte egindako ibilgailurik luzeena da. Trollinoren asmoa plataforma bat sortzea da transmisio elektrikoduna edo hibridoduna duten 24 metroko ibilgailuen eta trolebusen etorkizuneko serieko ekoizpena egiteko.

Enpresaren azken garapena Solaris High Energy+bateriak bateriak dira. Solarisen ikerketa eta garapen sailak diseinatu zituen eta baldintza klimatikoak edozein izanda ere, karga bakarrarekin gutxienez 200 km egin nahi dituzten garraiolarien beharrak kontuan hartuta diseinatuta daude. Solaris High Energy+bateriak baterien ezaugarri nagusia honako hau da: oso energia-dentsitate altua, 79 kWh eskaintzen dituzte pakete

bakar batean eta gehienez 7 instala daitezke autobus artikulatuen kasuan. Nabarmendu beharrekoa da Solaris eta BZM Poland-en ikerketa eta garapen sailen arteko lankidetzaren emaitza dela irtenbidea.

E-mugikortasuneko merkatuaren garapen orokorra eta Solarisek etengabe gainbegiratzen dituen bezeroen beharrak kontuan hartuta, enpresak eSConnect produktua garatu du, autobus elektrikoetarako urrunera diagnostikatzeko sistema modernoa, igorpenik gabeko ibilgailuak eskuratzea erabaki duten Solariseko bezeroei eskainita. eSConnect softwarea hainbat alderdi dituen tresna da, autobus elektrikoen flota baten kudeaketa eta horien goi mailako erabilera ahalbidetzen dituena. eSConnect softwarea mantentzeko gaitasunak errazten eta babesten dituen diagnostiko zorrotza egiteko tresna da.

eSConnect sistemak erabiltzaileei eskaintzen dizkien funtzionalitateen artean, hauek nabarmendu behar dira:

- Ibilgailuaren datuetara sarbidea denbora errealean;
- Ibilgailuen parametro eragile eguneratuen berrikusketa: energia-kontsumoa, bateriaren karga-egoera, edo aurrez ikusitako autonomia;
- Autobusen flotaren kokapenaren jarraipena denbora errealean eta ibilbideen zaintza;
- Beste hainbat gauzaren artean, karga-ziklo kopuruari eta bateriak berriz kargatzeko beharrezko denborari buruzko estatistikak eta txostenak sortzea;
- Ibilgailuak gidariari eta eragileari adierazitako kalteak, gorabeherak edo alertak denbora errealean identifikatu eta jakinaraztea.
- Mantentze-lanari berehalako babesa ematea: Solaris zerbitzuak diagnostikoko datuetarako urruneko sarbidea du; horrek nabarmen murrizten du konpontze-denbora.

2019an Solarisek egindako I+Gko beste proiektuak Solaris ibilgailuetan eskuragarri dauden gidariari laguntzeko irtenbide aurreratu berriak dira. Bien bitartean, 2020an, Solarisek azken eskaintza aurkeztuko du autobus elektrikoen segmentuan. Solaris Urbino 15 LE elektrikoa izango da, sarrera baxukoa (low-entry). Hiru ardatzeko autobusa batez ere Eskandinaviako merkatuko bezeroetan pentsatuta eraiki da. Ibilgailua hiriko ohiko autobus (I. klasea) gisa egongo da eskuragarri, baita hiri arteko autobus (II. klasea) gisa ere.

Laburbilduz, Solarisek erronka berriei egin die aurre 2020an; horiek guztiak, batez ere, elektromugikortasunaren etengabeko garapen dinamikoarekin eta egungo eskari-zorroari erantzun ahal izateko jarduera komertziala eta fabrikazio-jarduera handitzearekin lotuta egon dira.

# INBERTSIOAK

2019ko ekitaldian, CAF Taldeak egindako inbertsio materialen zenbatekoa 40.493 mila eurokoa izan da. Inbertsio horien artean, hauek nabarmen ditzakegu:

MiiRAko errodajeetako jardueran, ardatzen forjaketa modernizatu eta sailaren produkzio-prozesua automatizatu da kostuak gutxitzeko eta lanetan doitasun handiagoa lortzeko asmoz. Era berean, gurpilen tratamendu termikoko linean hozketa-instalazioa ordezkatu eta ardatzen forjaketan piezak berotzeko labea berritu da.

Trenen fabrikazioari dagokionez, produkzio-eredua aldatzeko planarekin aurrera jarraitu dute prozesua eragingarriagoa izan dadin. Plan horrekin lotuta, fabrikaziorako teknologia aurreratuena duen bogieen instalazio robotizatu berria, eta Irungo lantegiko akaberako lineen eta egituren fabrikazioko saila berritu izana nabarmendu behar da, Horiez gain, Zaragozako lantegian logistikako eta biltegiko instalazio berriak egin dituzte.

CAF Taldeak aurretik hasitako "lantegi digitala" planaren aldeko apustuarekin aurrera jarraitzen du arlo digitalean baliabide eta bitarteko gehiago ezarrita. Horien guztien helburuak lantegian informazioa jasotzeko eta horren berri emateko prozesua indartzea, langileak erabiltzen duen informazioa hobetzea eta prozesuak eta plangintza aurreratua optimizatzea dira. Bestalde, informazioaren teknologiei dagokienez, sareko blacbone-aren azpiegitura berritzen eta biltegiratzeko eta zerbitzarien azpiegitura zabaltzen ari dira. Enpresak erabiltzen dituen aplikazioen eta informazioen kopurua ugaritu izanak eragin du hori.

Enpresako gainerako sailekin lotuta, Beasaingo eta Zaragozako lantegietan egindako inbertsioei dagokienez, bereziki nabarmendu beharrekoak dira bulegoetan egindakoak. Lantegi horietako langile kopurua handitu izanak eragin du hori guztia. Era berean, zenbait sail (bereziki Kalitatea eta Giza Baliabideak) berriro banatu dituzte.

Bestalde, aipatu beharrekoak dira CAF Power & Automation filiala egiten ari den inbertsioak. Izan ere, Gipuzkoan dituen instalazioak zabaldu ditu eta, horrekin, haren produkzio-gaitasuna areagotuko da. Gainera, Madrilen bulego berriak egokitu ditu, trakzio-ekipo osoen proiektuei aurre egin ahal izateko beharrezko ekipamenduarekin hornituta.

Era berean, nabarmendu beharrekoa da CAF Digital & Design Solutions filialak ekipamendu berria erosi duela bere negozioa

**INBERTSIOAK** (milaka euro)



**2019ko ekitaldian, CAF Taldeak egindako inbertsio materialen zenbatekoa 40.493 mila eurokoa izan da. Horien artean, nabarmendu beharrekoak dira hauek: probetarako bide berria jarri izana, eta Frantziako Bagneres de Bigorre hiriko lantegian eta Solarisek Polonian dituen produkzio-lantegietan egindako inbertsioak.**

hazi izanaren ondorio diren inprimaketa-beharrei aurre egin ahal izateko. Bestalde, 2019ko ekitaldian, CAF Track Test Centerrek proben bide berria amaitu du Corella udalerrian. Iaz hasi zen inbertsioa eta dagoeneko erabat operatibo dago.

Atzerriari dagokionez, nabarmendu beharrekoak dira Mexikoko Huehuetocako lantegian herrialde hartan garatu beharreko proiektu berriari aurre egin ahal izateko abian jarritako jarduerak. Batez ere altzairu herdoilgaitz austenitikoko egiturak fabrikatzeko beharrezko bitartekoak ezartzearekin eta erostearekin lotutako inbertsioak izan dira.

Frantziako Bagneres de Bigorre udalerrian dagoen lantegiari dagokionez, fabrikazio-nabe berria eraikitzen ari dira eta 2020ko lehen seihilekoan erabilgarri egongo da. Lantegi berria beharrezkoa izango da CAF Taldeak hurrengo urteotan lantegi hartan bideratuko duen jarduerarako. Amaitzeko, azpimarratu beharrekoak dira Solarisek Polonian dituen produkzio-lantegietan bideratu dituen inbertsioak. Horien helburua instalazioak filial horrek hurrengo urteotan izango duen autobus-produkzioaren igoerara egokitzea izango da.

# ARRISKU ETA ZALANTZA NAGUSIAK

CAF Taldea egiten dituen jarduerei eta lan egiten duen herrialde eta merkatu ugariei atxikitako hainbat arriskuren mende dago, eta bere helburuak lortzea eragotz dezakete horiek.

Gai hori lantzeko konpromisoarekin, CAF Taldeko Administrazio Kontseiluak arriskuak behar bezala kontrolatzeko eta kudeatzeko oinarrizko mekanismoak eta printzipioak finkatzen ditu Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Politika Orokorraren bidez. Politika hori bat dator Taldearen misioarekin, ikuspegiarekin eta balioarekin, eta horren bidez honako hauekin lotuta segurtasun eta ziurtasun handiagoa eskaintzeko konpromisoa hartzen du bere gain:

- CAF Taldeak aldakortasun kontrolatuarekin zehazten dituen helburu estrategikoak lortzea.
- Akziodunei ahalik eta berme maila handiena eskaintzea.
- CAF Taldearen erreputazioa eta emaitzak babestea.
- Interes-taldeen interesak defendatzea.
- Enpresa mailako egonkortasuna eta finantza-irmotasuna denborari dagokionez modu iraunkorrean bermatzea.

Horretarako, Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Politika Orokorra CAF Talde osorako hedatzen da Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Sistema Integralaren bidez. Sistema hori informazioko sistemen, arauen, prozesuen, prozeduren eta kontrolen multzoa da eta, horren bidez, arrisku guztiak behar bezala kudeatuta egoten dira honako hauek jasotzen dituen sistemako hurrengo etapen eta jardueren bidez:

1) Jarduera bakoitzerako arriskuen kudeaketako testuingurua ezartzea, besteak beste, Taldearen arabera onargarria den arrisku maila zehaztuta.

2) Arrisku mota ugariak identifikatzea Taldeak aurre egin behar dion Politikan zehaztutako arrisku nagusiak aintzat hartuta.

3) Identifikatutako arriskuen azterketa eta inplikazioa CAF Talde osoan.

   – Arrisku korporatiboak - Talde osoari eragiten diotenak dira.
   – Negozio-arriskuak - Negozio/proiektu bakoitzari modu espezifikoan eragiten diotenak dira eta haietako bakoitzaren berezitasunaren arabera aldatzen dira.

4) Taldearen arabera onargarria den arrisku mailan oinarrituta, arriskuaren ebaluazioa egitea (arriskuarekiko apetitua).

**Arriskuak Kontrolatzeko eta Kudeatzeko Politika Orokorra CAF Talde osorako Arriskuak Kudeatzeko eta Kontrolatzeko Sistema Integralaren bidez hedatzen da. Horrekin lotuta, arrisku guztiak behar bezala kudeatu ahal izateko, arauak, prozesuak, prozedurak, kontrolak eta informazio-sistemak daude abian.**

5) Identifikatutako arriskuen tratamendurako aurrez ikusitako neurriak.

6) Gaur egungo arriskuen eta arrisku potentzialen aldizkako kontrola eta jarraipena egitea barne mailako kontrol- eta informazio-sistemak erabilita.

Aurretik zehaztutako eta CAF Taldeak onartutako Arriskuen Kudeaketako Sistema Integrala nazioarteko estandarren araberakoa da arriskuaren azterketa eta kudeaketa integratua egiteko metodologia eragingarria eta Defentsako Hiru Lerroen Eredua (arriskuen kontrolarekin eta kudeaketarekin lotuta erantzukizunak esleitzeko) erabiltzeari dagokionez.

Horrekin lotuta, Administrazio Kontseilua da Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Politika Orokorraren arduradun gorena. Hark onartzen ditu arriskuak identifikatzeko, neurtzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko prozedura egokiak. Era berean, agintaritzako eta erantzukizuneko ildo argiak zehazteaz arduratzen da eta kudeaketarekin lotutako barneko kontrol eragingarri eta arrisku mota ugariak neurtzeko metodologia egokiak izatea eskatzen du. Horrez gain, Taldean ezarritako Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Sistema Integrala ezartzeaz eta haren jarraipena egiteaz arduratzen da eta hark egiaztatuko du Talderako arrisku esanguratsuak sendoak direla eta ezarritako arriskuarekiko tolerantzia maila barruan daudela.

Bestalde, Auditoria Batzordeari dagokio ezarritako Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Sistema Integralaren eta jarraipena egiteko diseinatutako prozeduren eragingarritasuna modu independentean gainbegiratzea edo ebaluatzea.

Horretarako oinarria Arriskuen Kudeaketa Saila da eta, modu osagarrian, Barne Auditoriako Funtzioari dagokionez.

Hauek dira Taldeak dituen arrisku nagusiak, kategoriatan sailkatuta:

**Arrisku estrategikoak:** baldintza makroekonomikoek eta geopolitikoek zein Taldeak lan egiten duen sektoreko eta merkatuetako ezaugarriek eta hartutako plangintza estrategikoko eta teknologikoko erabakiek eragiten duten ziurgabetasunetik eratorritako arriskuak dira.

# ARRISKU ETA ZALANTZA NAGUSIAK

**Finantza-arriskuak:** merkatuen gorabeherek (finantza arlokoek eta lehengaienek), hirugarren batzuekiko kontratu arloko harremanak (bezeroak, zordunak) eta finantza arloko aktiboetan eta pasiboetan egindako inbertsioarekin lotutako kontrako alderdiek (finantza-erakundeak, inbertsiogileak) eragindakoak dira. Honako hauek dira sartutako arriskuen azpikategoriak:

- Merkatuko arriskua, tipologia hauek kontuan hartuta:
  - Interes-tasaren arriskua: interes-tasen aldaketen aurrean egon daitekeen arriskua. Emaitzetan zein Taldearen aktiboen eta pasiboen balioan aldaketak eragin ditzakete aldaketa horiek.
  - Truke-tasaren arriskua: dibisa baten eta beste baten arteko truke-tasen aldaketatik eratorritako arriskua da. Horrek etorkizuneko transakzioen eta dibisan izendatutako aktiboen eta pasiboen balorazioaren gainean eragina izan dezake.
  - Lehengaien prezioen arriskua: negozioetako hornikuntza-katean beharrezkoak diren lehengaiekin lotuta merkatuko aldagaietan eta prezioetan gertatzen diren aldaketetatik eratorritako arriskua.

- Kreditu-arriskua: Kaudimen-arriskua, hartzekodunen konkurtsoarena edo porrotarena edo Taldeak benetan kreditu garbia eman dien eta likidatu edo kobratu gabe dauden eta aurkako alderdiek diruzko obligazio zenbagarriak ordaintzeko garaian ez betetzearekin lotutakoa da.

- Likidezia-arriskua eta finantzaketa: pasiboari dagokionez, transakzioak egitea ezinezkoa izatearekin edo, sozietatearen kreditu-kalitatea gutxitu izanaren ondorioz edo beste kausaren bat dela eta funtsik edo finantza-merkatuetara sarbiderik ez duelako, jarduera operatiboetatik edo finantzarioetatik eratorritako obligazioak ez betetzearekin lotutako arriskua da. Aktiboari dagokionez, merkatu-prezioaren arabera salmenta egiteko une jakin batean aktiboaren eskuratzaileak ez lortu ahal izatearekin edo merkatu-preziorik ez izatearekin lotutako arriskua da.

Merkatu-arriskuarekin eta kreditu-arriskuarekin lotuta Taldeak duen esposizioa 5. oharrean ("Finantza-arriskuen kudeaketa") dago jasota, eta jarduerek jasaten dituzten arriskuak estaltzeko erabiltzen diren finantza-tresna eratorrien erabilera urteko kontu bateratuen memoriako 17. oharrean, "Finantza-tresna eratorriak" izenekoan, dago jasota. Likidezia-arriskua hurrengo atalean modu zehatzagoan jorratuko dugu.

**Lege-arriskuak:** era askotako (merkataritzakoak, administraziokoak, jabetza intelektualekoak eta industrialekoak eta abar) kontratu eta betebeharrak prestatzearekin eta gauzatzearekin eta horietatik erator daitezkeen arriskuekin lotuta daude. Prozedura judizialekin, erreklamazioekin eta administrazioko prozedurekin lotutako arriskuak ere barne daude.

**Arrisku operazionalak:** gizakiaren akatsen/akats teknologikoen, behar bezain sendoak ez diren barne-prozesuen edo kanpoko eragileen esku-hartzearen ondorioz inpaktu ekonomikoak eta erreputazio mailako eraginak sortzen diren Taldeko jarduera, produktu, sistema eta prozesu guztien baitan dauden arriskuak dira.

**Gobernu Korporatiboaren arriskuak:** Gobernu Organoen diseinua, integrazioa eta funtzionamendua, eta enpresaren interes-taldeekiko harremana arautzen duen Taldearen Gobernu Korporatiboaren Sistema ez betetzetik eratorritakoak dira. Horren oinarria, aldi berean, printzipio etikoekiko,

jardunbide egokiekiko eta gardentasunarekiko konpromisoan oinarritua daude, eta interes sozialaren defentsa eta balio iraunkorra sortzea dute helburu.

**Betetzearekin eta araudiekin lotutako arriskuak:** jarduera edozein izanda ere aplikagarriak diren Estatuko eta nazioarteko arauak eta legeak haustearekin lotuta daude eta lau bloke nagusi hauetan sailka ditzakegu: (i) Merkataritza eta Lehia (merkatu-abusua, sozietatearen betebeharrak eta balio-merkatua erregulatzen duen araudia, lehiaren defentsa eta lehia desleiala), (ii) Penala (delituen prebentzioa, ustelkeriatik eratorritakoak barne), (iii) Lanekoa, (iv) Zerga arloa (fiskala) eta (v) Administraziokoa (besteak beste, izaera pertsonaleko datuak babesteko araudia, ingurumeneko legeak eta abar).

Arriskuei dagokienez mundu mailako irismena dutenez, Arriskuen Kontroleko eta Kudeaketako Sistema Integrala etengabe eguneratzen da ingurunean izandako aldaketen, helburu eta estrategietan egindako berrikusketen edo sistemaren jarraipenetik edo kontroletik ikasitako lezioak jatorri dituzten eguneratzeen ondorioz Taldean eragina izan dezaketen arrisku berriak txertatzeko.

2016ko ekainean Brexita bat-batean sartu zenean Taldearen negozio-lerro ugarietan horrek izango lituzkeen ondorio eta eraginen inguruko azterketa egiteko beharra sortu zen. Azterketa haren ondoren, eraginak kudeatzea eta haiei aurre hartzea ahalbidetu duten mekanismoak aktibatu ziren.

Inpaktu handieneko ondorioen artean, zorroan dauden kontratuetako operazio-arriskuak (2019ko abenduaren 31n, horien bolumena 1.600 milioi euro baino handiagoa zen) eta etorkizuneko lizitazioak identifikatu ziren. Bloke jakin horren kasuan, aduanekin eta/edo muga-zergekin lotutako izapidetzeetan gertatutako aldaketak eta Brexitarekin lotutako denbora mailako epemuga eta agertoki ugarietarako pertsonen mugimenduak zirela eta eragina izan zezaketen proiektuak identifikatu eta aztertu zituzten eta, ondorioz, une bakoitzerako jarduera-neurri egokiak finkatu.

Era berean, CAFek lan egiten duen gainerako herrialdeetan bezalaxe, finantza-arriskuekin lotutako inpaktuak aztertu zituzten. Libra esterlinarako truke-tasaren arriskuari dagokionez, izan dezakeen inpaktua urteko kontu bateratuetako "Finantza-arriskuen kudeaketa" izeneko 5. oharrean dago jasota eta, LIBOR interes-tasaren arriskuari dagokionez, ez dago esposiziorik.

Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da Brexitaren ondorioak arintzeko sortutako ekintza-planak eta neurriak etengabeko jarraipen eta kontrolarekin ari direla lantzen.

# LIKIDEZIA ETA KAPITAL-BALIABIDEAK

### Epe laburreko likidezia-eskuragarritasuna

CAF Taldeak etengabe ebaluatzen du eskuragarri duen likidezia, eskudiruaren saldoak, epe laburreko inbertsio likidoak, kreditu-lerroen eskuragarritasuna, epe laburreko epemuga duten kapital-merkatuko tresnetarako sarrera eta eragiketa-kutxako fluxuaren sorkuntza barne. Horren guztiaren helburua Taldearen likidezia-beharrei uneoro arreta ematea da.

CAF Taldeak dituen epe laburreko likidezia-beharrak ebaluatzeko garaian, beste hainbat faktoreren artean, honako hauek hartzen dira kontuan: Taldearen likidezia-beharren hegakortasun historikoa, urtarokotasuna, zorraren epemugen profila, inbertsio-planetatik eratorritako beharrak, bezeroen aurrerakinen aurrez ikusitako maila eta kapital zirkulatzailearen bilakaera. Eskuragarri dagoen likidezia-helburuen mailak zehazteko, oinarrizko kasuaren gainean narriatutako testuinguruak hartzen dira kontuan.

2017ko abenduaren 21ean, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA enpresak Irlandako Burtsan epe laburrerako ordaindukoen jaulkipen-programa erregistratu zuen 200 milioi euroko gehieneko bolumenarekin. Gerora, 2018ko abenduaren 19an eta 2019ko abenduan berritu egin zuten eta, azken berrikuntza horretan, hasierako zenbatekoa 250 milioi eurora handitu zuten. 2019an, programa horren baitan, jaulkipenak egin dira eta inbertsiogileen eskari maila ona lortu dute. Taldeak egungo kreditu-lerroekiko finantzaketarako iturri alternatibo gisa erabili ditu, finantzaketaren jatorria dibertsifikatuta eta likideziarako iturri osagarria gehituta.

Epe laburrera begira eskuragarri dagoen likideziaren iturriek aktibo likidoak, epe laburrerako finantza-inbertsioak eta erabili gabeko kreditu-lerroak jasotzen dituzte. Honako hau izan da azken ekitaldietan Taldean eskuragarri egon den likideziaren bilakaera:

### Kapitalaren egitura

Taldeko kapital-kudeaketaren xedea da kapital-kostua optimizatzeko finantza-egitura eraikitzea, betiere finantza-egoera sendoari eutsita. Politika horri esker, bateragarriak dira akziodunentzat balioa sortzea eta finantza-merkatuen kostu lehiakorrean jardutea, bai zorra birfinantzatzeko, bai negozio-funtsak estaltzen ez duen inbertsio-plana finantzatzeko.

Taldearen helburua bere negozioen profilerako egokiak diren kreditu-kalitate eta palanka-efektu mailak mantentzea da.

CAF Taldeak aldian-aldian aztertzen du bere pasibo-egituraren egokitasuna, aurrez ikusitako kutxa-fluxuak, zorraren epemuga-profila, kapital zirkulatzailearekin lotuta aurrez ikus daitekeen bilakaera eta likideziako etorkizuneko beste behar batzuk kontuan izanda.

2018an, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAk Solaris autobusen Poloniako fabrikatzailearen kapital osoa eskuratu zuen. Era berean, 2019ko uztailean, EuroMainten (trenen mantentze-lanetako segmentuan bere herrialdean liderra den Suediako enpresa) akzio guztiak eskuratu zituen 80 milioi euro baino gehiagoren truke. Erosketa horien balioa Taldearen enpresa nagusiak epe luzera begira duen zor osagarriarekin finantzatu da batez ere. Erosketa horiek inpaktu esanguratsua izan dute, alde batetik Taldearen finantzaketa-zor gordineko zifretan akzioak erostera bideratzeko Taldeko enpresa nagusiaren zorra handitu delako, eta bestetik 2018an Solaris Taldearen perimetroan gehitu zelako.

Taldearen pasibo-egiturako magnitude nagusiek azken ekitaldiotan izandako bilakaera honako hau izan da:

**LIKIDEZIA ERABILGARRIA** (milioika euro)




**FINANTZA-ZOR GARBIA** (milioika euro)



| Milioi €-tan | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 |
|---|---|---|---|---|---|
| Emakiden zor gordina | 346 | 364 | 283 | 239 | 203 |
| Solarisen zor gordina | - | - | - | 145 | 168 |
| Zor gordin korporatiboa | 531 | 403 | 406 | 650 | 708 |
| **Guztira** | **877** | **767** | **689** | **1.034** | **1.079** |

CAF Taldea pasibo finantzarioen bere egitura berriro negoziatzeko etengabeko prozesuan dago finantzaketaren kostua minimizatzeko eta epemugako epeak bere beharren arabera egokitzeko helburuarekin, zor-merkatuek eskaintzen dituzten aukeren barruan.

2019ko abenduaren 31n, Taldearen zorraren epemugen profila honako hau zen 2018ko itxieran zegoenarekin alderatuta:

**CAF Taldeak aldian-aldian aztertzen du bere pasibo-egituraren egokitasuna, aurrez ikusitako kutxa-fluxuak, zorraren epemuga-profila, kapital zirkulatzailearekin lotuta aurrez ikus daitekeen bilakaera eta likideziako etorkizuneko beste behar batzuk kontuan izanda.**

**KREDITU-ERAKUNDEEKIKO ZORRAK EPEMUGA URTEEN ARABERA**
(milioika euro)



# BURTSAKO INFORMAZIOA

| | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Kotizazioa** | | | | | |
| Kapitalizazioa ekitaldiaren itxieran (Milioi €) | 1.406 | 1.241 | 1.172 | 1.313 | 876 |
| Azken prezioa (eurotan) | 41,00 | 36,20 | 34,18 | 38,30 | 25,55 |
| Gutxieneko prezioa (eurotan) | 35,30 | 31,30 | 32,22 | 20,66 | 23,45 |
| Gehieneko prezioa (eurotan) | 44,90 | 43,60 | 39,50 | 38,39 | 34,39 |
| **Akzio bakoitzeko datuak (Eurotan)** | | | | | |
| Akzio bakoitzeko irabazi garbia (BPA) | 0,72 | 1,27 | 1,24 | 1,02 | 1,20 |
| Akzio bakoitzeko dibidendua | 0,842 | 0,765 | 0,66 | 0,58 | 0,525 |
| **Burtsako ratioak** | | | | | |
| PER (batez besteko kotizazioa/BPA) | 56,34 | 30,14 | 29,06 | 30,30 | 23,76 |
| Batez besteko kotizazioa/Doitutako EBITDA | 5,72 | 6,50 | 6,84 | 7,84 | 5,87 |
| PVC (batez besteko kotizazioa/VC) | 1,90 | 1,74 | 1,64 | 1,37 | 1,39 |
| Dibidendu bakoitzeko errentagarritasuna | %2,07 | %2,00 | %1,84 | %1,87 | %1,85 |
| Pay-out-a (Dibidendua/BPA) | %117 | %60 | %53 | %57 | %44 |
| **Likidezia ratioak** | | | | | |
| Free-float-aren errotazioa | %47 | %65 | %71 | %89 | %99 |
| Negoziatutako bolumena (milioi akziotan) | 8,4 | 10,8 | 11,8 | 15,6 | 16,2 |

## CAF TALDEAREN BURTSAKO KOTIZAZIOAREN BILAKAERA



# BESTE INFORMAZIO BAT

## ONDORENGO GERTAERAK ETA GOBERNU KORPORATIBOAREN URTEKO TXOSTENA

2019ko abenduaren 31n, 9.446.468 mila euro inguruko eskaera-zorroa zuen kontratu irmoarekin eta konturako egindako fakturazioen zenbatekoak kenduta (7.716.487 mila euro 2018ko abenduaren 31n) (11. oharra).

Horrez gain, 2020ko urtarrilean, Euromaint filialak VY operadorearekin Bergensbananeko flota (Norvegia) mantentzeko akordioa itxi du. Gainera, erakunde kontrolatzaileak Helsinkiko metrorako beste bost unitate hornituko ditu. Kontratu horien batura 100 milioi euro baino gehiagokoa da.

2019ko ekitaldiari dagokion Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena kudeaketa-txostenaren barruan dago eta CAFen webgune korporatiboan (www.caf.net) argitaratuta dago Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari gertaera esanguratsugisa horren berri eman ostean.

## AKZIO PROPIOAK EROSTEA ETA BESTERENTZEA

2019. urtean, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAk eta haren eskumendeko enpresek ez dute erosi edo izan enpresako akziorik.

## HORNITZAILEEI ORDAINKETA

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epearen inguruko informazioari dagokionez, 2019an 86,18 egunekoa izan da. Epe hori 11/2013 Legeak ezarritako gehieneko epera egokitu eta murrizteko, Sozietatea esfortzua egiten ari da kobrantzak ordainketak sortzen dituzten ekintzak egokitzeko, beharrezko likidezia galdu gabe ordainketa-denbora murriztu ahal izateko.

## ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK

**Eskarien zorroa:** galera eta irabazien kontu bateratuko "Negozio-zifraren zenbateko garbia" epigrafean etorkizunean aitortuko diren eskari irmoen bolumena jasotzen du. Eskari bat irmoa da CAF Taldearen eta bezeroaren artean betebeharrak sortzen dituenean bakarrik. Trenen eta zerbitzuen kasuan, une hori alderdien arteko kontratua sinatzen den unean gertatzen da.

**Ekitaldiko kontratazioa:** ekitaldian irmotzat jotako eskariak zein aurreko ekitaldietako eskarietan gertatu diren aldaketak jasotzen ditu, eta honela lortzen da: (Aldiaren amaierako eskarien zorroa – Aldiaren hasierako eskarien zorroa + Negozio-zifraren zenbateko garbia). Adierazle horretan ez dago jasota ekitaldian negozioak bateratuta eskuratutako eskarien zorroa.

**Doitutako ustiapen-emaitza:** Taldearen ustiapen-emaitza errepikaria neurtzea du helburu eta "ustiapen-emaitzatik" errepikakorra ez den edozein elementu esanguratsu kenduta kalkulatzen da: negozioaren operatiba normaletik kanpo sortutako auzien bukaera, aparteko langileen berregituraketa-kostuak edo, oro har, hurrengo urteetan ustez berriro gertatuko ez den aparteko edozein gertaera.

Ekitaldian Taldeak izandako finantza-egoeretara doitutako ustiapeneko emaitzaren berdinkatzea honako hau da:

| Milaka euro | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Ustiapen-emaitza | 124.994 | 144.168 |
| Auzien araberako emaitza (*) | 37.872 | - |
| Ustiapen-emaitza doitua | 162.866 | 144.168 |

*(*) Urteko kontu bateratuen 26.a) oharrean sartutako xehetasuna.*

**Doitutako EBITDA:** Taldearen EBITDA errepikaria neurtzea du helburu eta, hori kalkulatzeko, "Ustiapenaren Emaitza Doitutik" honako epigrafeetan sartutako zenbatekoak kendu dira: "Ibilgetuaren amortizazioa" eta "Ibilgetua besterentzearen okerragotzea eta eragina".

**Cash-Flow-a:** galera eta irabazien kontu bateratuko "Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ekitaldiko emaitza bateratutik" honako epigrafeetan sartutako zenbatekoak kenduta kalkulatzen da: "Ibilgetuaren amortizazioa" eta "Ibilgetua besterentzearen okerragotzea eta eragina".

**Zirkulatzailean egindako inbertsioa:** balantze bateratuko kontu-sail hauek kontuan hartuta kalkulatzen da eta haien banakapena urteko kontu bateratuetatik lor daiteke:

+ Izakinak
+ Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk
+ Estaldurako eratorri korronteak (aktiboa)
+ Beste aktibo korronte batzuk
– Hornidura korronteak
– Estaldurako eratorri korronteak (pasiboa)
– Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk
– Beste pasibo korronte batzuk

**Finantza-zor garbia:** memoria bateratuko 14.h oharrean banakatuta dauden adierazle horren kalkulua osatzen duten kontu-sailak kontuan hartuta lortzen da.

**Likidezia erabilgarria:** Finantza Zor Garbia (Memoria bateratuko 14.h oharra), "Aldi baterako finantza-inbertsioak" eta "Eskudirua eta baliokide diren beste aktibo likido batzuk" kalkulatzeko zehaztutako kontu-sailak zein kreditu-lerroak eta erabili gabeko gainerako finantza-eskuragarritasunak jasotzen ditu.

**Kapitalizazioa itxieran:** ekitaldiko azken kotizazio-egunaren itxieran akzioek duten balioa burtsan zirkulazioan dauden akzioen kopuruaz biderkatuta (memoria bateratuko 14. oharra).

**Free-float-aren errotazioa:** negoziatutako tituluen bolumena aurrez ikusitako akzio flotatzaileekin alderatzen duen ratioa. Horietan ez dira kontuan hartzen akziodun adierazgarrien edo administrazio kontseiluko kideen esku daudenak edo sozietateak autozorroan dituenak. Aurrez ikusitako kapital flotatzailearen ehunekoa gobernu korporatiboaren urteko txostenean dagon banakatuta (A.11 atala).

ACT
Transport Canberra
002

# FINANTZA ARLOKOA EZ DEN INFORMAZIOAREN EGOERA BATERATUA


| | |
|---|---|
| SARRERA | 38 |
| INGURUMENAREKIN LOTUTAKO JARDUERA | 42 |
| GIZA BALIABIDEAK | 48 |
| GIZA ESKUBIDEEKIKO ERRESPETUA | 56 |
| USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKA | 58 |
| GAI SOZIALAK | 62 |

# SARRERA

Kudeaketa-txosteneko atal honetan daude jasota finantza arlokoa ez den informazioarekin lotutako gaiak. Eduki hori xehetasun osoz garatzen da 11/2018 abenduaren 28 1/2010 Legearen bidez eta horrek aldarazi ditu honako hauek: Merkataritza Kodea, 2 uztailaren 22/2015 20 Legegintzako Errege Dekretua, eta Kontuen Auditoriari buruzko uztailaren Legea, finantza arlokoa ez den informazioari eta aniztasunari buruzkoa.

Hala eta guztiz ere, CAFek urteko txosten bat ere egin du Erantzukizun Sozial Korporatiboaren arloan. Horrek lehen aipatutako gaiak eta iraunkortasun eta erantzukizun sozial korporatiboaren arloan aparteko gaien garapen handiagoa biltzen ditu.

Horrekin lotuta, eta CAFeko Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikarekin bat eginez, bere estrategia korporatiboaren ardatz nagusia da CAF Taldea osatzen duten pertsona guztiek beren jarduera fede onaren eta zintzotasunaren printzipio etikoetan oinarritzea eta haien jokabide-estandarren oinarriak aipatutako politikako balioak izatea.

CAF Taldearen lehentasunezko helburua da (eta hala dago jasota bere Jokabide Kodean) konfiantza sortzea eta balioa banatzea garraio-jarduerak eta beste batzuk egitera bideratuta dauden elementu, ekipo, material, ondasun eta zerbitzuen nazioko zein nazioarteko merkatuan; hori guztia honako hauek aintzat hartuta egiten du: bezeroen beharrak, akziodunen inbertsioa, gure erakundeak diharduen herrialdeetako



| Gobernu korporatibo ona | Negozio arduratsua eta berrikuntza | Gure taldearen bikaintasuna | Ingurumena zaintzen laguntzen | Gure jardueraren balio soziala |
|---|---|---|---|---|
| Arriskuen kudeaketa | Bikaintasuna bezeroarekiko harremanean | Talentuaren kudeaketa | Mugigarritasun iraunkorra eta produktu ekoeragingarriak | Garapen soziala |
| Araudia betetzea | Berrikuntza | Giza eskubideekiko errespetua | Ingurumeneko aztarna lanetan | |
| Etika negozioetan | Produktuaren segurtasuna | Laneko segurtasuna | | |
| Iruzurrarren eta ustelkeriaren prebentzioa | Hornikuntza-bermea | | | |
| Erantzukizun fiskala | Hornikuntza-kate arduratsua | | | |

lehiakortasuna, eta gure erakundean diharduten guztien aurreikuspenak.

Gainera, erantzukizun soziala bere enpresa-helburuak lortzea bultzatzeko konpromiso boluntario gisa zehazten da. Horren baitan, legezko betebeharrak betetzen eta interes-taldeekiko harremanetan oreka-irizpideak aplikatzen ditu balioa modu iraunkorrean sortzeko.

Taldeak iraunkortasunarekin lotuta duen konpromisoa Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikak ezarritako 8 jarduera-printzipioren bidez gauzatzen da: 1) Prebentzio-neurriak ezartzea indarrean dagoen antolamendu juridikoa zorrotz betetzeko, 2) Gobernu onaren jardunbideei jarraitzea, 3) Oinarrizko eskubideak zorrotz errespetatzea, 4) Konfidentzialtasuna eta gardentasuna, 5) Komunikazio arduratsuko praktikak, 6) Zerga-erantzukizuna betetzea,

*1. Akziodunen inguruko informazioa CAFeko Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenean jasota dator. Webgune korporatiboan dago eskuragarri.*

# SARRERA

7) Konpromisoa Berrikuntzarekin eta Iraunkortasunarekin eta 8) Ingurumenarekiko konpromisoa.

Erantzukizun sozial korporatiboaren kudeaketa-hobekuntzan aurrera eginez, 2019an Ibilgailuak, MiiRA eta Rail Services-en jardueretarako hirugarren alderdi positiboaren aitorpena lortzea ahalbidetu duen ISO 26000:2012 arauan bildutako arauak bete direla bermatzeko beharrezko jarduerak garatu dira.

Finantza arlokoa Ez den Informazio Egoera hau Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikan identifikatutako intereseko taldeen aurreikuspenetatik eta eskakizunetatik abiatua egin da, horientzako gai garrantzitsuenei eta Taldearen estrategian inpakturik handiena dutenei arreta berezia ipinita .

CAFen estrategiaren erdigunean kokatzen diren intereseko taldeak hauek dira: akziodunak, pertsonak, gizartea, hornitzaileak eta bezeroak.

CAFeko interes-taldeen lehen identifikazio formala Jokabide Kodearen definizioan gauzatu zen 2011n, eta indarraldia berretsi zuen 2016an garatutako materialtasunaren azterketan.

Ildo honetan, ekitaldi honetan zehar, CAF Taldearen kudeaketa-eredua (MGCAF) garatu da. 7 elementuz dago osatuta eta horien artean daude Intereseko 5 Taldeak. Eredu horrek CAF Taldearen Kudeaketa Estrategia jasotzen du eta, negozio-estrategiarekin batera, Taldearen testuinguru estrategiko orokorra osatzen du.

CAFen helburua Intereseko Taldeekin konfiantzazko harremana sortzea da. Hori dela eta, horiekin etengabeko komunikazioa eta komunikazio eraginkorra sustatzen du jarraian adierazitako komunikazio-bide hauen bidez, betiere, helburu korporatiboetako eta jarduerei kaltea eragindako arlo horietan partaidetza eta esku-hartzea sustatzeko helburuarekin.

Bide horiek ezinbestekoak dira Erantzukizun Sozial Korporatiboaren arloan interes-talde bakoitzaren kezkak eta interesak ezagutzeko, eta CAFek arlo horretan dituen estrategia eta jarduerak zehazteko funtsezkoak dira. Horretarako, 2019an, komunikazio-bideen berrikusketa eta eguneratzearen bidez Intereseko Taldeekin komunikazio-prozesua sistematizatu da hauek lortzeko: intereseko taldeen informazioa biltzea, bakoitzarentzako garrantzitsuak diren KPIak definitzea, horri buruzko ekintza-planak tratatu eta ezartzea, eta aipatutako komunikazio-bideak erabiliz ondoren jakinaraztea.

Ziklo estrategikoarekin bat etorrita, CAFek, 2016an, Erantzukizun Sozial Korporatiboan materialtasunaren azterketa garatu zuen barneko eta kanpoko informazio-iturrietatik abiatuta, Global Reporting Initiative-k (GRI) fase hauen bidez zehaztutako arauei jarraituz.

**Identifikazio-fasea:** arlo materialak eta horien estaldura antzematea ahalbidetzen du, jardueretan, produktuetan, zerbitzuetan eta erakundeko harremanetan, bere barruan eta bertatik kanpo, dituen ondorioei erantzunez. Horretarako, CAFek erdietsitako konpromisoetatik (Konpainiaren ildo estrategikoak, CAFeko politikak, araudi aplikagarria), bezeroen eskakizunetatik (CAFi Erantzukizun Sozial Korporatiboaren arloan eskatutako galdetegiak, CAFek parte hartu duen lehiaketen eskakizunak) eta Erantzukizun Sozial Korporatiboko joeretatik (Global Reporting Initiative, munduko hitzarmenaren printzipioak, komunikazio-bideak) datorren informazioa biltzen du.

**Lehentasunak ezartzeko fasea:** emandakoaren edukia zehaztea ahalbidetzen du erakundeko sailetako zuzendaritzen prozesu parte-hartzailearen bidez identifikatutako gai garrantzitsuak lehenetsita. Ildo horretatik, CAFeko sailek arlo materialak definitzeko prozesuan hartzen dute parte. Horrela, Enpresan Erantzukizun Sozial Korporatiboaren ikuspegi orokorra islatzen da.

**Baliozkotze Fasea:** amaierako edukiak zehaztea, erakundeko goi-zuzendaritzaren arabera esanguratsuak diren alderdien zerrenda balioztatzea eta horien estaldura eta lehentasunak finkatzea ahalbidetzen du. Era berean, CAFeko Zuzendaritzak modu aktiboan hartzen du parte materialtasun-azterketa horretan eta fase bakoitzean bere aurreikuspenak txertatzen ditu. Ondorioz, gai materialen azken zerrenda izan da emaitza.

Diagnostiko horri esker egindako identifikazioak indarrean jarraitzen du eta ISO 26000:2012 arauan Erantzukizun Sozial Korporatiboaren arloan eta 2020rako Taldeko Kudeaketa Ereduaren definizioan bildutako arauekin bat etorriz egindako azterketaren ostean berretsi da.

Materialtasunaren azterketatik eratorrita, CAFentzat eta bere intereseko Taldeentzat funtsezkoak diren Erantzukizun Sozial Korporatiboaren baitako 16 alderdi baieztatu dira.

2018ko ekitaldiari buruzko Finantza arlokoa Ez den Informazio Egoeran honetan dagoen informazioa 2019ko ekitaldiko informazioarekin batera alderatzeko aurkeztu da. Alderatzeko helburuarekin Finantza arloko Ez den Informazio Egoera honetan aurkeztutako adierazle bakar bat ere ez da desberdintzen 2018ko ekitaldiko Finantza arlokoa Ez den Informazio Egoeran egindakotik.

Jarraian azaltzen den informazioa baino gehiago nahi izanez gero, ikus CAF Taldearen webgunean eskuragarri dagoen GRI Estandarren Oinarrizko aukerarekin bat etorriz egindako "Erantzukizun Sozial Korporatiboko 2019ko txostena".

# INGURUMENAREKIN LOTUTAKO JARDUERA

CAF Taldeak klima-aldaketaren aurka borroka egiteko eta ingurumena zaintzeko konpromisoa hartu du bere gain batez ere bi esparru hauetan:

- Indarrean dagoen Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikan jasota dagoen moduan, garraiobide eragingarriagoak eta ingurunea gehiago errespetatzen dutenak eskaintzea. Horretarako, Taldeak Produktuaren eta Teknologiaren Berrikuntzako bere ekimenak bideratzen eta koordinatzen ditu Berrikuntzako Estrategia korporatiboaren baitan. Horren helburua da garapen teknologikoko eta produktu/zerbitzuaren jarduerak enpresako erronka estrategiko nagusiekin lerrokatzea irtenbide eragingarriak, irisgarriak eta ekologikoak garatzeko eta gure bezeroei eskaintzeko eta, aldi berean, gure lehiakortasuna bermatzeko.

- Era berean, ingurumen-zuhurtziaren printzipioa txertatzen dugu garatutako jarduera industrial guztietan ingurumeneko inpaktuaren prebentzioa oinarritzat hartuta. CAFeko Ingurumen Politikan jasota dagoen moduan, bideratutako jarduerak ingurumeneko alderdi esanguratsuak kontrolatzeko eta minimizatzeko beharrezkoak eta ekonomikoki bideragarriak diren neurriak hartzera zuzenduta daude: atmosferara egindako igorpenak, hondakinak sartzea eta energia-kontsumoa besteak beste.

Bi esparru horien baitan, eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuei zein enpresak egiten dituen jarduera industrialei lotutako ingurumeneko arrisku hauek identifikatu dira: (i) material kutsagarrien erabilera; (ii) energiaren eta baliabide naturalen kontsumoa ez optimizatzea (elektrizitatea, erregaiak, ura...); (iii) ur-iturrietan izandako eragina; (iv) inpaktua bioaniztasunean; (v) isurpen kutsagarriak, negutegi-efektua duten gasak barne; (vi) hondakinak sortzea; (vii) produktu eta zerbitzuen ingurumeneko inpaktua tokologiaren garapenean; (viii) gehiegizko ingurumeneko zarata sortzea; (ix) bezeroaren zehaztapenek ezarritako eskakizunak ez betetzea; (x) klima-aldaketarekin lotutako muturreko egoera klimatikoak; (xi) produkzioan eta/edo makinekin lotuta hondakin eta produktuen kudeaketa okerrarekin lotutako ingurumeneko beste inpaktu batzuk.

Arrisku horietatik eratorritako inpaktuek ingurumeneko legeak ez betetzearekin lotutako ikuskapenak eta isunak, ekosistemari eragindako kalte itzulezinak eta sozietatean eraginak sor ditzakete. Gainera, CAF Taldeko operazioetan kostu osagarria eragin dezakete klima-aldaketaren aurkako efektuak direla eta. Inpaktu horiek zuzeneko eragina dute epe laburrera begira, baina azken bi inpaktu horiek epe ertainera begirako eragina izan dezakete, ingurumeneko inpaktuek denborari dagokionez irauten dutelako. Ildo horri dagokionez, nabarmendu beharrekoa da 2018an bezalaxe, ez dela ingurumen-arriskuetarako berme edo zuzkidurarik jaso; izan ere, ez du ingurumenaren hobekuntzarekin eta babesarekin lotutako auzirik edo gertakizunik, edo ingurumen-kutsadurako gertaerarik.

Arrisku horiek testuinguruan ezarrita, Taldeak ingurumeneko kudeaketa-sistema du ezarrita ingurumen arloko lana hobetzeko, legezko eskakizunak betetzeko eta ingurumen-helburuak betetzeko helburuarekin. ISO 14001:2015 erreferentziazko testuingurua du sistema horrek oinarritzat.

Ingurumeneko kudeaketa-sistema honek ingurumeneko politika eta ingurumeneko kudeaketa-sistemarako eskuliburua ditu eta horietan daude ezarrita kudeaketako printzipioak, kudeaketa-sistemako prozedurak eta egindako jarduerak biltzen dituzten erregistroak.

Gainera, Zuzendaritza partaide den Ingurumeneko Batzordea du eta aldizkakotasunez biltzen da. Ingurumeneko kudeatzaile gisa jarduten du, ingurumen arloko zeregina lortzeko eta hobetzeko beharrezkotzat jotako ekintza guztiak koordinatzen eta bultzatzen.

Esparru hori osatuz, irismen korporatiboa duen arriskuen kontrolerako eta kudeaketarako sistema dago. Aurrez

**Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikan zehaztuta dagoen moduan, CAF Taldeak ingurunearekiko begirunetsuagoak eta eragingarriagoak diren garraiobideak eskaintzen ditu, eta ingurumen-zuhurtziazko printzipioa du txertatuta garatutako industria-jarduera guztietan ingurumeneko inpaktua prebenituta.**

zehaztutako arriskuak biltzen eta horiek kudeatzera modu esklusiboan zuzendutako jarduerak eskaintzen ditu. Prozesu horrek erreferentziazko esparruaren arriskuen eta aukeren azterketa egiteko eskakizuna betetzen du.

Garraiobide eragingarriagoak eta ingurunearekiko begirunetsuagoak eskaintzeko helburuari dagokionez, garraio-sistema kolektiboek (trena eta autobusa) abantaila ekologiko handiak eta ingurumen-inpaktua gutxitzeko, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta ekosistema babesten[2] modu aktiboan laguntzeko aukera handiak eskaintzen dituzte.

- EBn garraiotik eratorritako eta negutegi-efektua duten gasen (GHG) isurpenak %20 ingurura handitu ziren 1990 eta 2013 artean. Gaur egun, garraioak pilatzen du mundu mailako $CO_2$ isurpenen ia %23 eta, datu horretatik, trenek mundu mailako isurpenen %0,7 baino ez dute biltzen.

- Europako Batzordeak, "2011 Transport White Paper" izenekoaren bidez, 1990 eta 2050 artean $CO_2$ isurpenak %60 gutxitzeko helburua ezarri du. Horren ondorioz, beharrezkoa da isurpen horiek gutxitzeko hurrengo urteotan ahalegin berezia egitea.

- Urbanizatzeko joera gero eta handiagoa da eta, horren ondorioz, hirietan airearen kalitatearekin lotutako gero eta arazo handiagoak dira. Askotan, gainera, agintariek neurriak hartu behar izan dituzte ibilgailu pribatuen zirkulazioa mugatzeko.

Garraiobide ekologiko diren heinean, trenen eta autobusen sektoreak klima-aldaketaren aurkako borrokan ekarpen esanguratsua egin dezake. Testuinguru horren baitan, CAFek lehentasuna ematen die garraio arloko energia-kostuak hobetzera eta oso eragingarriak diren mugikortasun-alternatibak eskaintzera bideratutako jarduerei. Horiek ezartzen dute etorkizun iraunkorra, garbia, ekologikoa eta isurpenik gabea lortzeko bidea. Hurrengo jarduera-ildoetan gauzatzen da: 1) Eko-diseinuko metodologia, 2) Energia-eragingarritasuna hobetzea, 3) Material birziklagarri eta arinen erabilera. 4) Zarata eta bibrazioak gutxitzea.

- Eko-diseinuaren metodologia: Ingurunea gehiago errespetatzen duten eta eragingarriagoak diren garraiobideak eskaintzeko helburuarekin, CAF Produktuaren Iraunkortasun Funtzioa ezartzeko lanean barneratuta dago. Horretarako, ingeniaritza-prozesuetan, eko-diseinuko metodologiak txertatzen ari da bizitza-ziklo osoan produktuek izango dituzten ingurumeneko inpaktuak hasiera-hasieratik optimizatzeko eta kontrolatzeko asmoz. Jarduera horien ondorioz, Taldeko enpresa nagusiak, 2011n, tranbia baten egiaztatutako produktuaren ingurumeneko lehen adierazpena (EPD) egin zuen mundu mailan ISO 14025 arauaren arabera. Zaragoza hirirako Urbos tranbian izan zen. Gaur egun ere EPDen kopuru handiena erregistratuta duen material gurpildunaren fabrikatzaileetako bat da.

- Energia-eragingarritasuna hobetzea: Produktu eta zerbitzuen energia-eragingarritasuna hobetzea CAFentzako lehentasunezko erronka da eta horrekin lotuta bideratu diren ekimen batzuk dira hauek: balaztatzean energia berreskuratzea, eragingarritasun altuko trakzio-ekipoak garatzea, energiaren kontsumoa gutxitzea, ibilbidearen denboren arabera energia modu eragingarrian kudeatzea eta ibilbide-denborak gutxitzea.

- Material arinak eta birziklagarriak erabiltzea: CAFek kontu handiz hautatzen ditu fabrikazioan erabiltzen dituen material guztiak, haien birziklapenean arreta berezia jarrita. Izan ere, horiek erabiltzeak baliabide naturalak kontsumitzea saihesten du. Gainera, trenen diseinua masa eta pisua gutxitzera zuzenduta dago (energiaren eskaria optimizatzeko modu eragingarria da hori).

- Zarata eta bibrazioak gutxitzea: isurpen akustikoak (kanpoan zein barruan) gutxitzeko, CAFeko talde teknikoak xehetasun osoz aztertzen ditu hori eragiten duten kausak eta horiek minimizatzeko neurri eragingarrienak hartzen ditu: aurretiazko kalkulu eta entseguak, material isolatzaile eta xurgatzaileen erabilera, forma aerodinamikoak, gurpila-erraila kontaktuari eta elkarrekintzari buruzko ikerketak eta abar.

Bestalde, eta eragiketen ingurumen-inpaktua gutxitzeko moduari dagokionez, fabrikazio-zentro nagusienetan[3] ISO14001:2015 arauaren arabera ezarritako eta ziurtatutako Ingurumeneko Kudeaketa Sistema du. 2019. urtean, gainera, lantegi horietan ziurtagiria mantentzeko auditoriak egin dituzte.

*2. UNIFE (Association of the European Railway Industry). International Energy Agency.*

*3. CAF, SA eta Solaris Bus & Coach fabrikazio-zentroak.*

# INGURUMENAREKIN LOTUTAKO JARDUERA

Gainera, Ingurumeneko Kudeaketa Sistema zabaltzeari dagokionez, gainerako fabrikazio-lantegiak Taldeko Ingurumeneko Kudeaketa Eredua ezartzeko eta ziurtatzeko planean barneratuta daude (2020. urtean amaitzea dago aurrez ikusita) eta 2019an auditoriak egin dituzte haietan guztietan. Auditoria horietan, Ingurumeneko Kudeaketa Sistemaren ezarpenaren aurrerapena berrikusi dute. Beste zentro batzuek (CAF TE eta CAF Signalling-ek, adibidez) erreferentziazko nazioarteko arau beraren arabera ezarritako eta ziurtatutako Ingurumeneko Kudeaketa Sistema dute.

Gainera, 2019an, Ingurumeneko Foro Korporatiboa sortu dute hainbat helbururekin: alde batetik, politikak, lan egiteko moduak eta kudeaketa-tresnak bateratzea; eta, bestetik, Taldeko jarduera ugarien artean ingurumeneko irizpideak zehaztea eta jarraipena egitea.

Kudeaketa-sistema horien jarraipena eta hobekuntza egiteko, ingurumen-programak finkatu dira haien helburu, xede eta ekintzekin. Hala, zentroek modu espezifikoan kontrolatzen dituzte haien jardueratik eratorritako ingurumeneko alderdiak eta sortutako inpaktuak minimizatzen dituzte, etengabe hobetu ahal izateko.

Bestalde, CAFek kanpora irekita ditu komunikaziorako bideak komunikazioa modu arinean bideratzeko (besteak beste, administrazioarekin, komunitatearekin eta elkarteekin).

Jarraian, labur-labur azalduko ditugu Taldeko fabrikazio-lantegietan[4] ingurumeneko alderdi esanguratsuak kontrolatzeko ezarritako neurriak eta 2019an lortutako emaitzak.

**Lehengaiak**

Produkzio-prozesuetarako materialak erosteko garaian, ingurumen-irizpideak txertatu dira berrerabilgarriak eta birziklagarriak diren materiak aukeratzeko arreta berezia jarrita.

Egindako erosketa gehienenak prozesatutako materiak dira; hau da, osagaiak. Elementu ohikoena metala da. Dena den, osagaiak fabrikatzeko beste lehengai batzuk ere erosi izan dira (guztiak berriztagarriak). Horien artean, kontsumo handiagoa dutelako, nabarmendu beharrekoak dira metalak zehazki, altzairuzko eta aluminiozko txapa eta profilak (18.717 t)[5] eta altzairuzko lingoteak (57.086 t)[6].

Material horiek erosteaz gain, CAFek ingurumeneko iraunkortasuna lortzeko lagungarriak diren materialak txertatzen ditu bere prozesu teknikoetan. Gurpil eta ardatzak fabrikatzeko, adibidez, birziklatutako altzairua erabiltzen dute.

Horrez gain, produktuen ingurumeneko inpaktua gutxitzeko, horien birziklapenaren azterketa egiten da ISO 22628 arauaren arabera. CAF Sak fabrikatutako ibilgailuen birziklapen-ehunekoa %93[7] ingurukoa da.

Substantzia kimikoen erosketari eta erabilerari dagokionez, CAF Taldea REACH Araudiaren irismenaren barruan dago eta, aldi berean, hornitzaileei hori betetzea eskatzen die. Alde batetik, trena osatzen duten ekipoen hornitzaileei UNIFEren Railway Industry Susbstance List (RSIL) izenekoa betetzeko eskatzen zaie (modu espezifikoan trenen industriarako Europako eta nazioarteko legeriak debekatzen dituen

material eta substantziak biltzen ditu horrek). Bestalde, hornikuntza-kate osoan bideratzen da REACH Araudiaren helburu diren substantzien, prestakinen eta artikuluen inguruko informazioa.

Lehengaien erabilera iraunkorragoa izateko Taldeak bideratutako ekintza nagusiak dira hauek: diseinatzeko garaian, produktuen pisua gutxitzea, gutxiago kutsatzen duten materialak erabiltzea eta paketatzea berrerabiltzea.

**Energia**

"Energia Eraginkortasuneko Programa Estrategikoaren" baitan, Taldeak helburu nagusi hauek ezarri ditu: energia berriztagarriak bultzatzea, jardueraren ondorioz sortutako energia-kontsumoetan aurreztea eta Talde baitan eta lan egiten eta elkarlanean aritzen den trenbide-sare guztietan ingurumeneko politikak sustatzea.

Batez ere, eta energia-auditorien ekintza-planen ondorioz CAFeko lantegietan energiaren kontsumoa gutxitzeko 2019an hartutako neurriak honako hauek dira:

- Luminariak ekoeragingarriagoak diren beste batzuekin ordezkatzea. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da enpresa nagusian kanpoaldeko eta fabrikazio-tailerretako luminariak ordezkatzeko plana amaitu dela 2019an. Gainera, bulegoetako luminarien erdia ere ordezkatu dute. Bi ekintza horiek 2015. urteko energia-auditoriako ekintza-planetik eratorritakoak dira. Bestalde, energia arloko aldizkako auditoria egin da (2020-2024ko hurrengo ekintza-planerako oinarria izango da).

- Produkzio-prozesuetan, energia arloko eragingarritasunerako funtsezkoak diren elementuak (motorrak, bero-trukagailuak, haizegailuak…) ordezkatzea eta optimizatzea.

- Gainera, bulegoen kasuan, ekintzak aire girotuaren ekipoen funtzionamendua programatzera eta energia modu arrazoizkoan erabiltzeko ingurumen-sentsibilizazioa egitera bideratu dira.

- Horrez gain, urtez urte, bere instalazioen funtzionamenduan energia berriztagarrien, eta teknologia garbi eta ekologikoaren abantailak ahalik eta gehien aprobetxatu ahal izateko sistemak barneratu ditu CAFek (eguzki-panelak erabilita, adibidez). Hala, 2019an, enpresa nagusiak lantegiko urteko elektrizitate-kontsumoaren %10en baliokidea den energia berriztagarria sortzea ahalbidetu du. Energia hori tailerren estalkian instalatuta dauden eguzki-paneletatik eta CAF Taldearena den zentral hidroelektrikotik iritsi da.

- Autobusen jarduerari esker, energia-kontsumoa 185.385 Kwh/urtean gutxitu da 2018. urtean abian jarritako ekintza-planari esker. Horren bidez, hainbat ekintza bultzatu da: transformadoreak galera gutxiago dituzten beste batzuekin ordezkatzea eta luminariak ekoeragingarriagoak diren beste batzuekin ordezkatzea, adibidez. Hala, 2019rako ezarritako aurrezte-helburua gainditu ahal izan da.

*4. Fabrikazio-zentroen inguruko neurri eta emaitzak jaso dira; CAF Taldeko fabrikazio-zentroetako plantillaren %97 biltzen dute.*

*5. CAF, SA eta Solaris Bus & Coach fabrikazio-zentroei dagokien datua. 2018an, 10.221 t*

*6. MiiRAri dagokion datua. 2018an, 54.337 t.*

*7. Garatutako proiektuetan nahiz eskaintzetan, erakundeak egindako Bizitza Zikloaren Azterketan ateratako kalkuluen batezbestekoa.*

# INGURUMENAREKIN LOTUTAKO JARDUERA

| Zuzeneko eta zeharkako energia-kontsumoa (MWh) | 2019[8] |
|---|---|
| Gas naturala[9] | 129.302 |
| Gasolioa[10] | 306 |
| Energia elektrikoa | 59.339 |
| Energia termikoa | 4.077 |

### Isurpenak eta Negutegi Efektuko Gasak (GHG)

Enpresako Negutegi Efektuko Gasak (GHG) sortzen dituen zuzeneko isurpenen iturri nagusia energia-kontsumotik datorren $CO_2$ isurpena da. Gainera, ingurunearekiko begirunetsuagoak eta eragingarriagoak diren garraiobideak garatzeko egindako azterketek agerian uzten dute gure produktuen bizitza-zikloko inpaktu handiena erabilera-fasean zentratuta dagoela eta, bereziki, energiaren kontsumoari lotutakoan. Hori dela eta, Taldea GHGren isurpenen intentsitatea pixkanaka gutxitzeko ahalegin berezia egiten ari da bi bidetatik: Produkzio arloko jarduera eta instalazioetan energiaren eragingarritasuna hobetzea eta garraio-irtenbide iraunkorrak ikertzea eta garatzea.

Bestalde, Osagai Organiko Lurrunkorren (gaztelaniaz COV) isurpenari dagokionez, 2019an horien isurpenak gutxitzeko ahaleginean aurrera egin da. Hori lortzeko, pintaketa-prozesuan ur-pinturak erabiltzeko instalazioak mantendu dira eta, hala, estaltzeko jarduerarako COVak gutxitzeko helburua hobetu da.

Gainera, laneko zentroetara joan-etorria egiteko garaian sortutako isurpenak gutxitzeko eta mugigarritasun iraunkorra bultzatzeko asmoz, fabrikazio-zentro nagusiak autobus-zerbitzua eskaintzen du eta egunero ia 400 pertsona garraiatzen ditu horrek beren lan-zentroetara. Hala, urtean, 2.000 tona[11] $CO_2$ isurtzea saihesten da gutxi gorabehera. Horrez gain, laneko zentrora joateko garaian autoen erabilera partekatua sustatzeko asmoz, kolektibo horri zuzendutako aparkalekua egokitu da.

| Isurpenak (t $CO_2$ bal.)[12] | 2019 |
|---|---|
| Scope 1: Erregaien isurpenak | 26.322 |
| Scope 2: Elektrizitate-kontsumoarekin lotutako isurpenak | 24.329 |

### Hondakinak

Jarduerekin lotuta hondakinen kudeaketa arloan Taldeak duen helburua horiek gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklatzea da.

Horregatik, "ekonomia zirkularraren" aldeko apustua egin dugu eta 2017. urtetik Espainiako Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumena Ministerioko ekonomia zirkularraren Itunean sartuta gaude. Hondakinen kudeaketa arau hauen arabera egiten dugu:

- Jatorrian hondakinen sorrera gutxitzea, itzultzeko tresnak erabilita, adibidez.
- Hondakinen berrerabilera, birziklapena eta balorizazioa maximizatzea. 2019an, sortutako hondakin guztien (arriskutsuak zein ez arriskutsuak) %80 birziklatu egin da (2018an, tasa hori %54koa zen).

- Hondakinak bereizteari eta minimizatzeari buruzko sentsibilizazio-kanpainak bultzatzea.

- Hondakinak behar bezala tratatzea eta kudeatzea.

| Sortutako hondakinak (t) | 2019 |
|---|---|
| Arriskutsuen artean: | 1.226 |
| Balorizatutakoak | 660 |
| Hondakindegira | 566 |
| Ez arriskutsuen artean: | 9.223 |
| Balorizatutakoak | 7.749 |
| Hondakindegira | 1.474 |

### Ura

Fabrikazio-prozesuan CAFek erabiltzen duen ura, batez ere, ekipoak hoztera eta instalaziora bideratzen da trenen estankotasuna bermatzeko. Horretarako, sareko ura zein ibaikoa erabiltzen da tokiko mugak betez eta azken horren kontsumoa zirkuitu itxietan erabiltzera mugatuta. Taldeak badaki ura, baliabide naturalen artean, zaindu beharreko ondare urria dela eta, horregatik, horren erabilera iraunkorragoa bultzatzeko asmoz hainbat ekintza bideratu du. Horien artean, hauek nabarmendu behar dira:

- Uraren arrazoizko erabilera egitea eta sustatzea zirkuitu itxiak ezarrita edo langileei ingurumen arloko sentsibilizazioa eskainita.

- Baliabide hidriko guztien kontsumoa ezartzea eta kontrolatzea.

- Estres hidrikoko eremuetan, ur-kaptazioa saihestea.

- Instalazioetako mantentze egokia egitea kontsumo eta inpaktu txikiagoa lortzeko.

| Uraren kontsumoa (ML) | 2019 |
|---|---|
| Sareko uraren kontsumoa[13] | 93,17 |
| Ibaiko uraren kontsumoa | 54,12 |

Ingurumenari buruzko alderdiei buruzko informazio gehiago izateko, ikus CAF Taldearen webgunean eskuragarri dagoen "Erantzukizun Sozial Korporatiboko 2019ko txosteneko" 5. kapitulua: "Ingurumena zaintzen laguntzen".

*8. 2018ko datuak ez dira alderagarriak, Izan ere, urte horretan CAF Saren eta Solaris Bus & Coachen zuzeneko eta zeharkako energia-kontsumoaren datuen irismena CAF Taldeko fabrikazio-zentroetako langileen %97 ordezkatzen duten lokalizazioetara zabaldu zen (2018an). Hala ere, informazio gisa, 2018ko datuak jasota datoz jarraian. Gas naturalaren kontsumoa 114.631 MWh; Gasoila 25.173 l (262 MWh); Energia elektrikoa 51.762 MWh.*

*9. Instalazioak berotzeko erabilitako gas naturalaren kontsumoaren %, gutxi gorabehera, kontsumo osoaren %20 inguru da.*

*10. Lantegian materialak garraiatzeko ekipoari dagokion kontsumoa.*

*11. Langile bakoitzak bere auto partikularra erabiltzearen hipotesiaren arabera egindako estimazioa.*

*12. Igorpen horien kalkulua erregai eta elektrizitate kontsumoaren bihurketa bidez egiten da, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak argitaratutako igorpen-faktoreen arabera.*

*13. 2018ko datuak ez dira alderagarriak, Izan ere, urte horretan CAF Saren eta Solaris Bus & Coachen ur-kontsumoaren datuen irismena CAF Taldeko fabrikazio-zentroetako langileen %97 ordezkatzen duten lokalizazioetara zabaldu zen (2018an). Hala ere, informazio gisa, 2018ko datuak jasota datoz jarraian. Sareko ur-kontsumoa 70,208 ML.*

# GIZA BALIABIDEAK

CAF Taldea osatzen duten pertsonak funtsezkoak dira Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikan eta Jokabide Kodean modu esplizituan zehaztuta dagoen moduan proiektu iraunkorra garatzeko.

CAF Taldeak pertsonen garapen profesionala bultzatzen du, enpresaren helburuen eta langileen beharren nahiz itxaropenen arteko oreka posiblea aintzat hartuta. Gainera, gaitasun eta abileziak hobetzea eta etengabe egokitzea bultzatzen du. Pertsonen motibazioa, esperientzia eta ezagutza produktu eta zerbitzu guztietan islatuta daude.

Oreka hori eta etengabeko hobekuntza lortzeko, 2017an, giza baliabideen arloko jardunbideak berrikusi ziren, eta pertsonen kudeaketa-prozesu korporatiboa ekarri zuen horrek. Esparru horrek estandar propioa eta komuna zehazten du Taldeko sozietate guztietarako. Horren izaera integralak irismen zabala eskatzen du: antolaketa egokia bermatzea, sartzeko jarduerak eta barne-mugigarritasuna, profesionalen kualifikazioa eta ebaluazioa, prestakuntza eta garapena. Gainera, ordainsarien kudeaketarekin zein lan-harremanekin lotutako politikak berrikusi eta zehaztu ziren.

2019an, prozesu hori betetzen dela bermatzeko jardueren baitan, nabarmendu beharrekoa da Taldeko Estatu mailako zein nazioarteko filialetan egin den aurrerapena. Izan ere, beste hainbat ekintzaren artean, prestakuntza korporatiboko ebaluazio-, prestakuntza- eta kudeaketa-sistemak zein horren guztiaren oinarri den plataforma teknologikoa ezarri dira. Aurten, Estatuan eta nazioartean ibilgailuen jardueretan eta tren-zerbitzuetan ekintza-planeko aurrerapen maila altua lortu da eta hori guztia Taldeko gainerako jardueretara hedatuko da 2020 eta 2021 urteetan. Horrek bateratze-perimetro berria jasoko du.

Esparru horren baitan daude identifikatuta laneko arriskuen prebentzioarekin zein langileen garapen profesional egokiarekin lotuta dauden arrisku hauek: (i) langileen txandatzea, (iii) behar adinakoa ez den prestakuntza eta garapen profesionala, (iii) aniztasun-gabezia eta aukera-berdintasuna, (iv) istripu-indizea eta osasunarekiko eragina.

Arrisku horietatik eratorritako inpaktuek honako hauek eragin ditzakete: langileen produktibitatea gutxitzea, langileen osasuna eta motibazioa kaltetzea eta langileen lan-segurtasunarekin lotutako isunak. Arrisku eta inpaktu horiek pixkanaka gertatzen direnez, horien denbora mailako isla epe ertainera begira ikus dezakegu.

Arrisku horiek testuinguruan ezarrita, Taldeak langileekin lotutako gaiak erantzukizun sozialaren ikuspegitik lantzen eta gauzatzen ditu garapen iraunkorrari egindako ekarpena maximizatzeko asmoz. Horretarako, ISO 26000:2012 erreferentziazko araua da oinarri.

Arau hori eskuliburu eta politika hauetan barneratuta dago: Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politika, Lan Arriskuen Prebentzio Politika eta Pertsonen Kudeaketako Prozesu Korporatiboa (lehen aipatu duguna). Dokumentu horiek pertsonekin lotutako gaiak lantzeko beharrezko jarduerako, prozedurako eta kontroleko oinarrizko printzipioak zehazten dituzte.

Esparru hori osatuz, irismen korporatiboko arriskuen kudeaketa eta kontroleko sistema dago. Aurrez aipatutako arriskuak barneratzen ditu eta horiek kudeatzera modu esklusiboan zuzendutako jardueren sekuentzia eskaintzen du. Prozesu horrek erreferentziazko esparruaren aukeren eta arriskuen azterketa osatzeko eskakizuna betetzen du.

**Pertsonak dira gakoa**

2019an, baliabideak gehitzeko planarekin aurrera jarraitu dute jarduera ugarien hazte-ekimenei erantzun ahal izateko. 2019an, Taldeko batez besteko langile kopurua 12.484koa izan da, eta 2019ko abenduaren 31n, 13.179 pertsonakoa[14] zen. Beste era batera esanda, CAF Taldeko batez besteko langile kopurua 2.854 pertsonatan handitu zen 2019an, eta aldiaren amaieran, igoera 1.746 langilekoa zen. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da Euromaint Taldean sartu izanaren eragina; izan ere, ekitaldi-itxieran 990 laguneko plantilla zuen.

| CAF Taldeko langileak | 2019/12/31 | 2018/12/31 | Bilakaera |
|---|---|---|---|
| Unibertsitateko tituludunak | 4.015 | 3.634 | 381 |
| Tarteko arduradunak eta administrazioko langileak | 2.194 | 1.906 | 288 |
| Produkzioa eta zerbitzuak | 6.970 | 5.893 | 1.077 |
| **Guztira** | **13.179** | **11.433** | **1.746** |

**CAF Taldeak pertsonen garapen profesionala bultzatzen du, enpresaren helburuen eta langileen beharren nahiz itxaropenen arteko oreka posiblea aintzat hartuta. Gainera, gaitasun eta abileziak hobetzea eta etengabe egokitzea bultzatzen du.**

Aldiaren amaieran, sozietate nagusiko langile kopurua 4.314koa zen eta, batez besteko kopurua, aldiz, 4.301ekoa.

| CAF SAko langile kopurua | 2019/12/31 | 2018/12/31 | Bilakaera |
|---|---|---|---|
| Unibertsitateko tituludunak | 1.205 | 1.155 | 50 |
| Tarteko arduradunak eta administrazioko langileak | 657 | 589 | 68 |
| Produkzioa eta zerbitzuak | 2.452 | 2.531 | (79) |
| **Guztira** | **4.314** | **4.275** | **39** |

Plantillaren bilakaera negozio-zifraren bilakaeraren araberakoa da eta jarduera ugariek zorroan dituzten proiektuei aurre egiteko eta ezarritako planetan txertatutako erronkak bideratzeko beharrari erantzun dio.

Jarraian, aniztasuna adierazten duten irizpideen (generoa, adina eta eskualdea) araberako banaketa jaso dugu.

| Adinaren araberako banaketa | | |
|---|---|---|
| (Plantilla osoarekiko %, aldiaren itxieran) | 2019 | 2018 |
| 30 urte baino gutxiago | %15 | %15 |
| 30 eta 50 urte artean | %69 | %72 |
| 50 urte baino gehiago | %16 | %13 |
| **Guztira** | **13.179** | **11.433** |

| Generoaren araberako banaketa | | |
|---|---|---|
| (Plantilla osoarekiko %, aldiaren itxieran) | 2019 | 2018 |
| Gizonak | %85 | %85 |
| Emakumeak | %15 | %15 |
| **Guztira** | **13.179** | **11.433** |

| Herrialdeen araberako banaketa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| (Plantilla osoarekiko, aldiaren itxieran) | 2019 | | 2018 | |
| | Eskualdeen araberako % | Herrialdeen araberako % | Eskualdeen araberako % | Herrialdeen araberako % |
| Europa[15] | %88 | | %85 | |
| Espainia | | %50 | | %55 |
| Polonia | | %18 | | %20 |
| Suedia | | %8 | | - |
| Erresuma Batua | | %5 | | %5 |
| Europako gainerako herrialdeak | | %7 | | %5 |
| Amerika[16] | %9 | | %12 | |
| Mexiko | | %3 | | %4 |
| Brasil | | %2 | | %4 |
| Estatu Batuak | | %2 | | %3 |
| Amerikak o gainerako herrialdeak | | %2 | | %1 |
| Munduko gainerako tokiak | %3 | | %3 | %3 |
| **Guztira** | **%100** | **%100** | **%100** | **%100** |

Horrekin lotuta, Talde osoko pertsonen arteko borondatezko txandakatzea[17] %5,4koa izan da 2019 aldian.

*14. Sozietate bakoitzeko informazio-sistemetatik eskuratu dira datuak. Enpresaren arabera azpikontratatutako langileen bidez bere instalazioetan jarduerak egitea behar denean, CAFek zerbitzu-prestazioko kontratuak egiteko irizpidea erabiltzen du. Horietan zehazten da egin beharreko jarduera mota. CAFek gainbegiratzen ditu egindako azpikontratazio-jarduerak eta ez da beharrezkotzat jotzen azpikontratatutako langileen inguruko estatistikak mantentzea (ez da adierazgarria). Hori dela eta, dokumentu honetan ez dago jasota GRI estandarretako 102-8 eta 102-41 edukietan azpikontratatutako langileen inguruan eskatutako informazioa.*

*15. Europan, honako hauek dira herrialde nagusiak: Espainia, Polonia, Suedia eta Erresuma Batua (eskualdearen %93 biltzen dute).*

*16. Amerikan, herrialde esanguratsuenak Estatu Batuak, Mexiko eta Brasil dira (kontinentearen %83 biltzen dute).*

*17. Taldearen borondatezko baja kopuru osoa/plantilla, 2019an.*

# GIZA BALIABIDEAK

Kalitatezkoa eta egonkorra den enplegua da CAFek apustu egin duen ezaugarrietako bat. Pertsonen esperientzia eta ezagutza dira uneotan CAFek bere jarduera guztietan duen lehia arloko posizioa izatea ahalbidetu duten ardatzak. Aldiaren amaieran, CAF Taldeko langile finkoen ehunekoa %89koa zen. Emakumeen kolektiboan, ehuneko hori %87ra igotzen da. Geografiari dagokionez, CAF Taldeak presentzia esanguratsua duen herrialde guztietan dago langile finkoen %86 baino gehiago. Horrez gain, sailkapen profesionala (enplegatuak[18] eta langileak) kontuan hartzen badugu, langile finkoen ehunekoa %88 baino gehiagokoa da. 30 urte baino gutxiagokoen kolektiboko enplegu finkoa %71koa da; hau da, aurreko ekitaldikoa baino ehuneko 2 puntu handiagoa. Zifra horiek ikusita, Taldeko enplegu finkoa, azken ekitaldiotan, egonkorra dela esan dezakegu.

**Kontratu motaren araberako banaketa**

| (Plantilla osoarekiko %, aldiaren itxieran) | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Finkoa da. | %89 | %89 |
| Aldi baterako langilea | %11 | %11 |
| Guztira | 13.179 | 11.433 |

Bestalde, eta batez besteko plantilla eta kontratu mota[19], eta aniztasuneko irizpide adierazgarriak (generoa, adina eta talde profesionala) kontuan hartuta, datuak antzekoak dira eta atxikitako tauletan jasota daude.

**Batezbestekoaren banaketa, kontratu motaren eta adinaren arabera**

| | 2019 | | 2018 | |
|---|---|---|---|---|
| | Finkoa | Aldi baterakoa | Finkoa | Aldi baterakoa |
| 30 urte baino gutxiago | %71 | %29 | %68 | %32 |
| 30 eta 50 urte artean | %91 | %9 | %91 | %9 |
| 50 urte baino gehiago | %96 | %4 | %97 | %3 |

**Batezbestekoaren banaketa, kontratu motaren eta generoaren arabera**

| | 2019 | | 2018 | |
|---|---|---|---|---|
| | Finkoa | Aldi baterakoa | Finkoa | Aldi baterakoa |
| Gizona | %89 | %11 | %88 | %12 |
| Emakumea | %87 | %13 | %89 | %11 |

**Batezbestekoaren banaketa, kontratu motaren eta talde profesionalaren arabera**

| | 2019 | | 2018 | |
|---|---|---|---|---|
| | Finkoa | Aldi baterakoa | Finkoa | Aldi baterakoa |
| Enplegatuak | %90 | %10 | %90 | %10 |
| Langileak | %88 | %12 | %88 | %12 |

Urte-amaierako zifra horiek 2019an plantillako langileen artean izandako alta eta baja berrien emaitza garbia dira. Bajei dagokienez, borondatezkoak ez diren desloturak plantilla osoarekiko %2,5[20] izan dira. Datu horien banaketari dagokionez, %86 gizonezkoak dira, %67k 30 eta 50 urte artean dituzte, eta %60 langileak dira. Aniztasun-irizpideak kontuan hartuta, datu horiek Taldeko plantillaren banaketarekin bat datoz.

CAF Talde baitan, ordainsariak kudeatzeko eta ezartzeko tratamendua ordainsarien kudeaketa arloko politikan jasotakoaren arabera egiten da, eta Talde osoan da aplikagarria. Araudi korporatibo horren helburua da ordainsarien kanpoko lehiakortasunari eta barne-koherentziari dagokionez tratamendu egokia bermatzea eta horiek jardueren beharrekin eta erronkekin lerrokatzea. Horrekin lotuta, kontsultore espezializatuek prestatutako informazioa dugu erabilgarri.

Irizpide orokor horiek ordainsari maila egokietan zehaztuta daude eta, aldi honetan, langileen[21] batez besteko ordainsaria[22] 36.355,22 €-koa (2018an, 34.903,91 €) izan da. Talde profesionalak aintzat hartuta, ordainsarien batezbestekoarekiko aldea %20 handiagoa da enplegatuen talderako, eta %18 txikiagoa gainerako kolektiborako.

**Ordainsaria, talde profesionalaren arabera**

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Enplegatuak | (%20) | (%18) |
| Langileak | %18 | %17 |

Adinaren araberako CAF Taldeko batez besteko ordainsariak agerian uzte du adinaren eta jasotako ordainsariaren artean korrelazioa dagoela. 50 urte baino gehiagokoen kolektiboak batezbestekoa baino %20 handiagoa den ordainsaria jasotzen du batez beste; 30 eta 50 urte artekoen kolektiboak batezbestekoa %2,5ean gainditzen du; eta 30 urtez azpikoen kolektiboko ordainsaria batezbestekoa baino %32 txikiagoa da.

Bestalde, CAF Taldean lan egiten duten emakumeen batez besteko ordainsaria 36.247,12 €-koa (2018an, 34.678,25 €-koa) da, eta gizonezkoena baino %0,3 baxuagoa.

Datuak kolektiboen arabera aztertzen baditugu, generoaren araberako ordainsarietan dauden alde horien jatorria, CAF Taldean zein Europako bere jardueretan, antzinatasuneko faktorea dela esan dezakegu. Ikuspegi hori kontuan hartuta, kolektibo ugarietan, soldata mailako arraila txikitu egiten da.

**Soldata mailako arraila orokorra generoa, talde profesionalak eta antzinatasuna kontuan hartuta – CAF Taldea**

| | 2019 | | 2018 | |
|---|---|---|---|---|
| | Generoaren araberako soldata-arraila[23] | Antzinatasuneko aldea[24] | Generoaren araberako soldata-arraila | Antzinatasuneko aldea |
| Enplegatuak | %15 | %33 | %15 | %27 |
| Langileak | %20 | %25 | %23 | %28 |

**Soldata mailako arraila orokorra generoa, talde profesionalak eta antzinatasuna kontuan hartuta - Europa**

| | 2019 | | 2018 | |
|---|---|---|---|---|
| | Generoaren araberako soldata-arraila | Antzinatasuneko aldea | Generoaren araberako soldata-arraila | Antzinatasuneko aldea |
| Enplegatuak | %14 | %34 | %15 | %28 |
| Langileak | %12 | %29 | 12 | %33 |

Datuak adin-tarteen arabera aztertzen baditugu, emakumeen kolektiboaren ordainsaria handiagoa da tarte guztietan. Alde batetik, 50 urte baino gehiagokoen tartean, emakumeen kolektiboaren ordainsaria %1 handiagoa da; 30 eta 50 urte artekoen artean, %2 handiagoa; eta 30 urtez azpikoen taldean ere %5 handiagoa da.

**Generoaren eta adinaren araberako soldata-arraila**

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| 30 urte baino gutxiago | (%5) | (%14) |
| 30 eta 50 urte artean | (%2) | (%1) |
| 50 urte baino gehiago | (%1) | %6 |
| Guztira | 0,3% | 1% |

Edonola ere, soldata-arrailarekin lotutako datuak kolektibo eta geografia ugarietako generoaren araberako banaketaren asimetriak baldintzatzen ditu.

Indarrean dauden hitzarmen kolektiboek eta CAF Taldeko sozietateetan aplikagarriak diren ordainsariei buruzko arauek berdintasunezko tratamendua bermatzen dute, generoa aintzat hartu gabe soldata-baldintzak ezarrita.

Sozietate nagusiko kontseilari edo aholkularientzako ordainsarien tratamendua enpresa kotizatu gisa aplikagarriak diren gardentasuneko irizpideei lotuta dago. Aholkularien baldintzen banakako banakapena eta xehetasunak Ordainsariei buruzko Urteko Txostenean jasota daude. Helburu horrekin prestatzen da txostena eta indarrean dagoen araudiak xedatutakoa betez argitaratzen da. Bestalde, goi-zuzendaritzako[25] ordainsari guztiak (diruzkoak eta gauzaz egindakoak) Sozietate Anonimo Kotizatuen Gobernu Korporatiboko Urteko Txostenean daude jasota eta ezin daiteke batez bestekoaren datua generoaren arabera banakatu aipatutako kolektiboan emakume bakarra dagoelako.

Kalitatezko enplegua sortzeak lana derrigor herrialde bakoitzeko legeriaren, langileen estatutuen eta hitzarmen kolektiboen arabera antolatu beharra eskatzen du. Hala, Taldeko sozietate bakoitzak erabakitzen ditu gai hauekin

*18. Enplegatuen talde profesionalak unibertsitateko tituludunak, tarteko arduradunak eta administrazioko langileak biltzen ditu.*

*19. Kontratu-tipologiaren araberako batezbestekoa kalkulatzeko, aldi-amaierako banaketa hartu da erreferentziatzat, eta gero ekitaldiko batez besteko plantillaren arabera datua aplikatuta estrapolatu da. Ez dago jasota lanaldi partzialeko kontratuen batezbestekoa; izan ere, Taldeko plantilla barruan ez du ordezkaritza adierazgarririk.*

*20. Ehuneko horrek biltzen ditu kontratuak amaitzearen ondoriozko desbinkulazioak, batez ere Brasilen eta Txilen. 2018an, borondatezkoak ez diren desloturak plantilla osoaren %1,2koak izan ziren. Hortik kanpo geratzen dira jarduerak amaitu izanari lotutako irteera kolektiboak (batez ere Brasilen).*

*21. Aipamen espezifikoa egin zaien kontseilariak eta goi mailako zuzendariak salbuetsita.*

*22. Taldeko jarduera guztien gutxienez %99 biltzen dituzten eta eskuragarri dauden lanaldi osoko urteko kontzeptu finko guztiak hartu dira kontuan. Bihurketa egiteko, aldi horretako batez besteko kanbio-tasa hartu da kontuan.*

*23. (Taldeko gizonezkoen batez besteko ordainsaria - Taldeko emakumezkoen batez besteko ordainsaria) / Taldeko gizonezkoen batez besteko ordainsaria.*

*24. (Taldeko gizonezkoen batez besteko antzinatasuna - Taldeko emakumezkoen batez besteko antzinatasuna) / Taldeko gizonezkoen batez besteko antzinatasuna.*

*25. Aldi berean kontseilari exekutibo ez diren goi-zuzendaritzako kideak.*

lotutako alderdiak (besteak beste): lanaldia, atseden-aldiak, egutegia, oporrak, baimenak eta eszedentziak. Hala, horiek guztiak lan-harremanen arloko politikan jasotzen dira eta Talde osorako dira aplikagarriak. Gainera, sozietate bakoitzak kontziliazioa erraztera bideratutako neurriak finkatzen ditu eta haietako batzuk lanaldiaren erregulazioarekin lotuta daude. Horien jarraipena, oro har, sartzeko eta irteteko ordua erregistratuta egiten da.

**Elkarrizketa soziala**

Elkarrizketa sozialaren antolaketari dagokionez, nabarmendu beharrekoa da langileen, sindikatuen eta enpresaren etengabeko komunikazioa dagoela haien interes eta aurreikuspenak ezagutzeko. Horrek guztiak guztiontzako akordio onuragarriak lortzea ahalbidetu beharko luke. Langileei informazioa emateko eta kontsultak egiteko prozedurak ugariak dira Talde baitan. Horrek malgutasun handiagoa ematen du eremu geografiko eta lege-araudi bakoitzeko erabilera eta ohituren arabera egokienak diren bideak aukeratu ahal izateko.

Enpresa nagusiko eta Taldeko jarduera guztietako filial nazionaletako langile guztiak babesten dituzte sektoreko edo enpresako hitzarmen kolektiboek. Oro har, langile guztientzat dira aplikagarriak. Nazioartean, nabarmendu beharrekoak dira gai ugarirekin (ordainsariak, lanaldia eta laneko denbora) lotuta hainbat geografiatan (Aljeria, Brasil, Txile, Mexiko, Zeelanda Berria, Polonia, Erresuma Batua eta Italia) bideratzen ari diren negoziazio kolektiboak. CAF Taldeko langile guztien %84ra iristen dira haiek.

**Prestakuntza**

Prestakuntza-prozesua funtsezkoa da pertsonen kudeaketako jardueretan eta hala ikus daiteke sozietate nagusian zein jarduera nagusiei[26] lotutako Estatuko eta nazioarteko filial guztietan.

Prestakuntza-plan eragingarria eta eraginkorra bermatu ahal izateko, prozesuaren baitan hiru jarduera-bloke nagusi zehaztu dira. Horiek adierazle batzuen bidez monitorizatzen dira aldizkakotasunez. Hasierako fasean, prestakuntza-beharren diagnostikoa egiten da funtzio bakoitzaren ikuspegi bertikala zein prestakuntzako zeharkako gaietan (laneko segurtasuna eta osasuna, kalitatea, produktuaren segurtasuna, araudia betetzea eta abar, besteak beste) ikuspegi horizontala txertatuta. Prestakuntza-plan hori onartu eta jakinarazi ostean, hori gauzatzen eta hiru mailatan ebaluatzen (asebetetzea, eragingarritasuna eta urteko balantzea) hasi behar da jardueraren lehentasunekin lerrokatuta dagoela eta eragingarria dela sendotzeko.

2019. urtearen amaieran, prestakuntza-prozesuaren eragingarritasuneko eta jardueraren adierazleek zifra positiboak dituzte. Talde mailan, prestakuntzako 192.000 ordu baino gehiago jaso dira (2018an, 196.000 baino gehiago), eta pertsona bakoitzak, batez beste, prestakuntzako 17 ordu jaso ditu (hau da, aurreko aldian baino lau ordu gutxiago batez beste). Batezbesteko hori handiagoa da langileen kasuan; izan ere, batez beste, prestakuntzako 19 ordu jaso dituzte (hau da, enplegatuek baino lau ordu gehiago oro har). 2018an, enplegatuen eta langileen artean prestakuntza-orduak berdinberdin zeuden banatuta.

**Aukera-berdintasuna eta aniztasuna**

CAFeko Jokabide Kodeak, Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikak eta Aholkulariak Hautatzeko eta Aniztasuneko Politikak zehazten duten moduan, CAFeko pertsonekiko konpromisoaren zutabeetako bat da gizon eta emakumeen arteko tratu- eta aukera-berdintasunarekiko eskubidea eta aniztasunarekiko errespetua. Horretarako, Taldean bereizkeria mota oro, izan zuzena edo zeharkakoa, ez egotea sustatzen da modu aktiboan eta, bereziki, sexu-bereizkeriarekin lotuta; era berean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa lan-esparruan defendatzen eta eraginkortasunez aplikatzen dela bultzatzen dute, eta lan- eta familia-bizitza uztartzearen alde egiten duten neurriak ezartzean aurrera egiten dute.

Horrekin lotuta, CAF SAko Hitzarmen Kolektiboak (Beasaingo, Irungo eta Madrilgo zentroetarako) emakumeek enplegurako sarbidea izatea bultzatzeko eta gizon eta emakumeen artean lan-baldintzetarako diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasuneko printzipioa modu eragingarrian aplikatzeko helburua du ezarrita.

2019an, CAF Taldera sartutako emakumeen ehunekoa langile berri guztien %15,3koa izan da eta, horri esker, Taldeko langileen artean emakumeen presentzia handitu egin da. 2018an, ehuneko hori %17koa izan zen.

Taldea barne mailako politiken eta estrategien bidez berdintasuneko aukerak bultzatzearekin eta langileek beren potentziala garatzeko aukera berdinak dituztela bermatzearekin konprometituta dago. Ondorioz, dagozkion neurriak eta erabakiak hartuko ditu sexuagatiko bereizkeria den edo sortzen duen edozein jarduketa gertatzen bada.

Konpromiso horien eta haien ekimenen kontrol integrala egin ahal izateko, Taldeko sozietate guztiek betetzen dute berdintasun-planen[27] garapenarekin lotutako legezko araudia. Era berean, hainbat kudeaketa-mekanismo eratu da: sexu-jazarpeneko edo sexu-arrazoiengatiko jazarpeneko kasuen aurrean jarduteko protokoloa eta langileen eta enpresaren ordezkaritza biltzen dituzten berdintasuneko batzordeak, esate baterako. Sozietate nagusiaren barruan, haren neurria dela eta, aipatu beharrekoa da berdintasun-planak egiteaz, gauzatzeaz eta jarraipena egiteaz arduratzen den berdintasuneko batzorde bat dagoela. Laneko eta familiako bizitza kontziliatzen laguntzen duten neurri eta ekintza posibleak aztertzen ditu. Batzorde horrek berdintasuneko adierazleen urteroko diagnostikoa eta jarraipena egiten ditu. Horietan aztertzen dira, adibidez, alderdi hauek: hautaketa-prozesuen aldizkako jarraipena, kontziliazio-neurriak eskatu eta/edo hartu dituen langileen jarraipena sexuaren arabera banatuta, edo langileen eta enplegatuen promozio-sistemaren jarraipena.

Gainera, azken urteotan, enpresak berdintasun-plana eta sexuagatiko jazarpenaren eta sexu-jazarpenaren aurkako protokoloa barne mailan hedatzeko urrats gehiago eman du ohiko bideen bidez. Gainera, berdintasunezkoa eta inklusiboa den hizkuntza erabiltzea bultzatu du kanpoko eta barneko komunikazioetan.

CAF Taldean aplikatzen diren aukera-berdintasuneko eta bereizkeriarik ezaren printzipioak Jokabide Kodean daude jasota. Aurreko aldian bezalaxe, 2019ko ekitaldian ez da CAF Taldean bereizkeriako kasurik detektatu.

Aniztasuna bultzatu ahal izateko, CAFek irisgarritasun unibertsala errespetatzen du lan-inguruneak zein fabrikatutako produktuek giza aniztasuna errespetatzea eta seguruak, osasungarriak, funtzionalak, ulergarriak eta estetikoak izatea ahalbidetzen duten irizpideak aintzat hartuta.

CAFeko ingurune fisikoetako irisgarritasuna bultzatzeko, eraikin industrialetan eta zerbitzuetan egiten den edozein inbertsio berri zein zerbitzu orokorrekin lotutako instalazio eta hornikuntza guztietan egindako egokitzapen edo moldaketa guztiak tokiko irisgarritasuneko estandarren eta araudiaren arabera egiten direla bermatzen da.

Produktuen eta zerbitzuen irisgarritasunari dagokionez, CAFek, diseinu fasetik hasita, horietara irisgarritasuna izatea lehenesten du biztanleria osoarentzako erabilera unibertsala bermatu ahal izateko. Diseinuek gaitasun ezberdinetako pertsonentzat erabilgarriak izan behar dute, aldaketa edo egokitzapen berezirik gabeak.

CAFek fabrikatutako produktu guztiak lizitazioko herrialde bakoitzeko araudian jasotako irisgarritasuneko eskakizunak zein erreferentziazko Europako araudiak xedatutako baldintzak betetzeko (eta kasuren batean, gainditzeko) diseinatzen dira.

CAFek fabrikatutako tren arloko material gurpildunaren kasuan, 2014an Europar Batasunak onartutako mugigarritasun mugatuko pertsonentzako Interoperabilitateko eta Irisgarritasuneko Zehaztapen Teknikoan jasotako baldintzak betetzen dira. Hiri-autobusei dagokienez, motordun ibilgailuak homologatzeko esparrua sortzen duen 2007/46 Direktibako IV. eranskinean (duela gutxi, UE 2017/2400 Araudiak aldatu du) bildutako zehaztapenen arabera egiten dira eraikitze-lanak. Hornikuntza horiek Nazio Batuen Europarako Batzordeko Ekonomikoko (CEPE) 107. araudiak jasotako baldintzak biltzen dituzte M2 edo M kategoriako ibilgailuak homologatzeari buruzko xedapen uniformeei dagokienez. Baldintza horiek guztiak eraikuntzako ezaugarri orokorrei eta, zehazki, mugigarritasun mugatuko bidaiarientzako irisgarritasunari buruzkoak dira.

CAFek proiektu irisgarriak garatzen duen esperientzia zabalari esker, alderdi horrekin lotutako kalitate gorena eskain dezake

*26. Jarduera nagusiei lotutako Estatuko eta nazioarteko filial guztiek CAFeko plantilla osoaren %84 biltzen dute.*

*27. Enpresen %100ek araudian jasotako baldintzak bete eta hurrengo aldian garatu du.*

soiltasuna bermatuz. Izan ere, edozein bidaiari, aldez aurretiko esperientzia izan beharrik gabe, bere garraiobideetan bere kabuz moldatzeko gai izango da. Ibilgailuek behar bezala seinaleztatuta dituzte sarbideak eta mekanismoak edozein bidaiarik erabili ahal izatea bermatzeko. Gainera, erraztasuna ere bermatuta dago, gaitasun fisikoek ez dezaten baldintzatu erabiltzailearen esperientzia.

Informazioaren irisgarritasunari dagokionez, CAFek konpromiso irmoa du bere webgunearen irisgarritasunari dagokionez eta bere edukiak ahalik eta erabiltzaile gehienetara iristea nahi du, haien desgaitasuna edozein izanda ere. Horretarako, W3Ck ezarritako teknologia estandarrak erabiltzen ditu eta WAI 1.0 Irisgarritasuneko Arauei jarraitzen die. Diseinatzeko W3Ck ezarritako web-estandarrak zein baliozko markatze semantikorako XHTML 1.0 Trantsizionala eta goitik beherako estilodun orriak (CSS) erabiltzeak webgunea gailu eta plataforma ugaritan behar bezala bistaratzea eta edukia behar bezala inprimatzea ahalbidetzen du.

Azkenik, nabarmendu beharrekoa da CAF Taldeak desgaitasuna duten pertsonen eskubideekin eta haien gizarteratze-eskubideekin lotuta herrialde bakoitzeko legeriak xedatutakoa betetzen duela. Hori guztia ziurtatutako desgaitasuna[28] duten langileak zuzenean kontratatuta eta indarrean dagoen legerian jasotako neurri alternatiboak abian jarrita egiten da.

**Langileen osasuna eta segurtasuna**

CAFeko Zuzendaritzak onartutako Laneko Arriskuen Prebentzio Politikak espresuki aitortzen du prebentzio-sistema mantentzeko eta hobetzeko konpromiso irmoa, lan-arriskuen aurrean langileak babesteko helburua bere eginda.

Politika horrek prebentzioaren kudeaketa enpresako jarduera eta erabaki guztietan bateratzen du (prozesu teknikoetan zein lanaren antolaketan eta hori garatzen den baldintzetan), integrazioa maila hierarkiko guztietan sustatuta: Zuzendaritza, arduradunak, langileak eta sindikatuetako ordezkariak. Horretarako, aipatutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide materialak eta bestelako materialak jarriko dira erabilgarri.

Jarduera nagusietan[29] aplikatu beharreko ingurumeneko eta prebentzioko politika integratua bere horretan mantendu da eta gainerako filial nagusietako laneko arriskuen prebentzio-politikei[30] lotu zaie.

Istripurik ez izatea eta laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak hobetzea lortzeko, aipatutako politika horrez gain, CAFek lan-arriskuak prebenitzeko Kudeaketa Sistema bat du ezarrita eta hura hedatzea sustatzen du. Sistema hori hainbat jardueraren garapena, ezarpena eta jarraipena egiteko moduan dago egituratuta. Jarduera horiek, multzoan hartuta, laneko istripuen, gaixotasun profesionalen eta kalte materialen prebentzioaren sistematika osatzen dute. Kudeaketa-sisteman daude ezarrita prebentzio-jarduerak garatzen dituzten sistemako kudeaketaren, prozeduren eta prozesuen oinarriak.

Lan-arriskuen prebentzioaren arloan, Taldeak ebaluaziorako eta jarraipena egiteko ziurtagiriak eta mekanismoak ditu, Taldeak presentzia duen herrialde bakoitzean legez eska daitekeenetik haragokoak.

Ildo horretan, 2019an, Beasaingo, Irungo eta Zaragozako lantegietan, eta CAF T&E, CAF Signalling, CAF Txile eta CAF Italia filialetan, Kudeaketa Sistemaren ziurtagiriak mantentzeko auditoriak egin dituzte OHSAS 18001:2007 arauak ezarritako baldintzen arabera. Era berean, eta estandarraren baldintzen arabera ezarritako kudeaketa-sistemaren barneko jarraipena egin ahal izateko, haietako bakoitzean barne-auditoriak egin dira.

CAFeko laneko arriskuak prebenitzeko kudeaketa-sistema ibilgailuak eta autobusak fabrikatzen dituzten gainerako instalazioetara hedatzeari dagokionez, barneko auditoriak egin dira horietan guztietan eta auditorietan aztertu da kudeaketa-sistema ezartzeko lanak zertan diren eta ekintzak eta helburuak finkatu dira instalazio bakoitzean. Horietako batzuk izan dira hauek, adibidez: Ibilgailuen[31] jarduerarekin lotutako fabrikazio-lantegi guztietan eta Solaris Bus & Coach-en kudeaketa-sistemaren ziurtagiria lortzea ISO 45001:2018 arauaren arabera (2020. urterako).

Segurtasunaren eta osasunaren arloan ere abian da elkarrizketa soziala, langilea-enpresa batzorde formalen bidez

kudeatuta. Ibilgailuen, autobusen eta Rail Servicesen jarduerarekin lotutako fabrikazio-lantegi nagusiek zein CAF T&E eta CAF Signallingek laneko segurtasun- eta osasun-batzordea dute eta batzorde horretan hartzen dute parte zuzendaritzak, prebentzioko ordezkariek, prebentzio-zerbitzuak eta, hala dagokionean, jardueraren arduradunek. Batzorde horiek maila operatibo batzuetako eta besteetako informazioa jaso eta lan-arriskuen prebentziorako planak onartzen dituzte eta langileek ere plan horiek zehazteko lanetan parte hartzen dute. Gainera, une bakoitzean dagozkion erabakiak hartzen ditu eta jarraipena egiten die proposatutako ekintzei, finkatutako helburuak betetzeko. Beste sozietate batzuetan kontsultarako eta langileek parte-hartzeko foroak dituzte eta alderdi interesatuekin komunikatzeko bide gisa balio dute. Horien bidez proposamenak eta intereseko gai garrantzitsuak jasotzen dira. Mekanismo horiei esker, Taldeko langile guztien %90eko ordezkaritza dago laneko osasun eta segurtaun arloetan.

Taldeko egoitza eta jarduera nagusietako laneko arriskuen prebentzioko planek zehazten dituzte prebentzio-jardueraren plangintza eta lan-arriskuen prebentzio arloko urteko helburuak. Istripu-indizearekin lotutako helburuei dagokienez, hiru adierazle nagusi neurtzen dira: maiztasun-indizea, larritasun-indizea eta maiztasun-indize absolutua. Beheko taulan daude jasota CAF Taldearen[32] Estatu mailako eta nazioarteko lanen adierazleak eta identifikatutako gaixotasun profesionalei lotutako kasuen kopurua.

**Lan Arriskuen Prebentzioa zifratan**

| CAF Taldea | 2019 | | | 2018 |
|---|---|---|---|---|
| | Gizona | Emakumea | Guztira | Guztira |
| Maiztasun Indizea | 23,41 | 4,1 | 20,89 | 20,40 |
| Larritasun Indizea | 0,51 | 0,17 | 0,47 | 0,42 |
| Maiztasun Indize Absolutua | 86,74 | 28,69 | 79,16 | 78,69 |
| Gaixotasun Profesionalen Tasa | 11,74 | 0 | 10,19 | 10,28 |

Pertsonen arloari dagokionez, erakundeetan ohiko adierazlea izaten da absentismo-tasa. Adierazle horrek ordu teorikoekin lotuta galdutako orduak kalkulatzen ditu. Aurten, tasa hori %4,6koa[33] izan da maila korporatiboan. 2018an, aldiz, adierazle horren tasa hau zen: %4[34].

Giza Baliabideekin lotutako alderdiei buruzko informazio gehiago dago eskuragarri CAF Taldearen webguneko "Erantzukizun Sozial Korporatiboaren 2019ko Txostena" agiriko "Gure taldearen bikaintasuna" izeneko 4. kapituluan.

*28. Arlo horretan lege-betebeharrak bete ahal izateko, neurri alternatiboez gain, CAFek ziurtatutako desgaitasuna duten 100 lagun ditu plantillan.*

*29. Ibilgailuetako, Rail Servicesen eta MiiRAren jarduerak.*

*30. CAF T&E, CAF Signalling, CAF P&A eta Solaris Bus & Coach.*

*31. CAF France, CAF USA, CAF México, Trenasa eta CAF UK.*

*32. CAF Taldeko guztizko plantillaren %89ren adierazleak daude jasota. Aipatutako perimetroan lan egindako ordu kopurua 18.671koa izan da.821. Maiztasun-indizeak kalkulatzeko, lan egindako 1.000.000 ordu hartu dira kontuan; larritasun-indizea kalkulatzeko, lan egindako 1.000 ordu, eta gaixotasun profesionalen tasa kalkulatzeko, 10.000 langile. Plantillaren generoaren araberako banaketa kontuan hartuta, generoaren arabera lan egindako orduen estimazioa egin ahal izan da, beraz, adierazle horien estatistika banakatuak aurkezten dira.*

*33. Absentismo-tasa hori Taldeko plantillaren %82ari dagokio, eta laneko istripuari edo gaixotasun arruntari lotutako galdutako orduak hartzen ditu kontuan. Euromainten kasuan, enpresa Taldera uztailean sartu zenetik ditugun datuak sartu dira.*

*34. Absentismo-tasa hori 2018ko Taldeko plantillaren %82ari zegokion, eta laneko istripuari edo gaixotasun arruntari lotutako galdutako orduak hartzen zituen kontuan.*

# GIZA ESKUBIDEEKIKO ERRESPETUA

CAFek, bere jarduerak garatzen dituen lurralde guztietan indarrean dagoen antolamendu juridikoa zorrotz betetzeko konpromisoa bere gain hartzeaz gain, bere Jokabide Kodean eta Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikan jasotzen du oinarrizko eskubideak, tratu-berdintasuneko printzipioak eta ez bereizkeriakoak zein Nazio Batuen Munduko Itunean, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Enpresa Multinazionaletarako ELGAren ildo zuzentzaileetan jasotako gainerako printzipio guztiak modu zorrotzean errespetatuko direla bermatzen duten neurriak betetzeko bere konpromisoa.

CAF Taldeak bere jarduerak egiten dituen herrialde guztietan langileek elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa izateko eskubideak izango dituztela bermatzeko beharrezkotzat jotako neurriak hartzen ditu. Era berean, haurren lana, bortxazko lana, derrigorrezko lana edo gazteei lan arriskutsuak ematea eragozteko beharrezko neurriak jartzen ditu abian bere lanetan zein atzeraka egindakoetan bere hornitzaileen artean.

Hori guztia Gizarte Gaiekin lotutako gaian aipatutako Ecovadis-ekin duen lankidetzari esker egiten du. Gainera, Estatu mailan zein nazioartean CAFeko jarduera nagusiarekin lotuta Jokabide Kodea betetzen dela ziurtatzeko gainbegiratze-lanak egiten dituzte. Horrekin lotuta, 2015ean Erresuma Batuan onartu zuten Modern Slavery Act-eko pertsonen trafikoaren eta esklabotzaren aurkako aitorpena aplikatuz, CAFek urtero argitaratzen du halako jardunbideak CAFen zein bere hornikuntza-katean prebenitzeko eta, dagokionean, desagerrarazteko ezarritako konpromiso eta neurriei buruzko txostena.

Konpromiso horiek aintzat hartuta, betetzea zalantzan jar dezaketen arriskuak identifikatu dira: (i) lanean tratu-berdintasuneko eta/edo bereizketako printzipioa haustea; (ii) bere zentroetan eta/edo hirugarren batzuen zentroetan elkartzeko eta negoziazio kolektiborako askatasunik ez izatea; (iii) haurren esplotazioa bere zentroetan eta/edo hirugarren batzuen zentroetan; (iv) nahitaezko lana bere zentroetan eta/edo hirugarren batzuen zentroetan; (v) herri indigenen eskubideen urraketa; (vi) jazarpen psikologikoa; (vii) ezintasuna duten pertsonen gutxiegizko integrazioa.

Arrisku horietatik eratorritako inpaktuek laneko segurtasunarekin eta giza eskubideen urraketarekin lotutako isunak ekar ditzakete eta, gainera, CAF markaren irudia edo erreputazioa kaltetu, urraketa horien berri komunikabideetan emanez gero. Lehen inpaktu horrek epe laburrera begira du isla, baina beste inpaktuek epe ertainera begirako eragina izaten dute horiek gauzatzea pixkanakagoa delako.

Arrisku horiek testuinguruaren arabera finkatuta, Taldeak giza eskubideen errespetuarekin lotutako gaiak lantzen eta

**2019ko ekitaldian giza eskubideekin lotutako beharrezko eginbide-neurri batzuk hartu dira, baina txosten hau egin den datan ez da CAF Taldeak inolako proiektutan izandako partaidetzatik eratorritako giza eskubideen inguruko inolako urraketarik detektatu.**

gauzatzen ditu erantzukizun sozialeko ikuspegitik garapen iraunkorrari egiten dion ekarpena ahalik eta handiena izan dadin. Horretarako, ISO 26000:2012 erreferentziazko araua da oinarri.

Arau hori eskuliburu eta politika hauetan barneratuta dago: Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Politika, CAF Taldeko Jokabide Kodea, Hornitzaileen Jokabide Kodea, Jazarpen Psikologikoa Prebenitzeko Protokoloa eta Delituak Prebenitzeko Eskuliburua. Dokumentu horiek ezartzen dituzte giza eskubideen errespetuarekin lotutako gaiak lantzeko beharrezkoak diren oinarrizko jarduera-printzipioak, prozedurak eta kontrolak.

Bereziki, CAF Taldeko sozietateekin kontratatzen duten hirugarren guztiei eskatzen zaizkie, besteak beste, honako hauek zorrotz errespetatzea: legeak, oinarrizko giza eskubideak eta askatasun publikoak, tratu-berdintasuneko eta bereizkeriarik ezeko printzipioak, haurren lan-esplotazioaren aurreko babesa, eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean nahiz giza eskubideekin lotuta Nazio Batuen Munduko Itunean jasotako beste edozein printzipio.

Aurreko hori osatuz, irismen korporatiboko arriskuen kudeaketa eta kontroleko sistema dago. Aurrez aipatutako arriskuak barneratzen ditu eta horiek kudeatzera modu esklusiboan zuzendutako jardueren sekuentzia eskaintzen du. Prozesu horrek erreferentziazko esparruaren aukeren eta arriskuen azterketa osatzeko eskakizuna betetzen du.

Arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistema horren etengabeko garapenaren baitan, giza eskubideen arloko arriskuen kontrola eta kudeaketa sartuta daude.

Testuinguru honen barruan, 2019ko ekitaldian giza eskubideekin lotutako beharrezko eginbide-neurri batzuk hartu dira, baina txosten hau egin den datan ez da CAF Taldeak inolako proiektutan izandako partaidetzatik eratorritako giza eskubideen inguruko inolako urraketarik detektatu. Neurri horiek nazioarteko erreferentziazko arauen araberakoak dira.

Era berean, ekitaldi honetan, 2018an bezalaxe, ez da Taldearen negozio-harremanen bidez edo zuzenean enplegatutako langileen artean giza eskubideen urraketarekin lotutako kasurik izapidetu.

CAF Taldeak Taldeko plantilla osatzen duten pertsonen artean gai horren inguruan bere gain hartutako konpromisoen gaineko hedapeneko eta prestakuntzako jarduerak garatu ditu. Helburu horrekin jasotako prestakuntza-planean sartutako pertsonen %93k garatu du.

Azkenik, nabarmendu beharrekoa da Laneko Arriskuen Prebentzio Sisteman Jazarpen Psikologikoa Prebenitzeko Protokoloa dagoela jasota. Protokolo horren helburua laneko jazarpen psikologikoko egoerak zehaztea, egoera horiek prebenitu eta ekiditeko prebentzio-neurriak finkatzea eta, horiek gertatuz gero, enpresako langileek nola jardun behar duten jakin dezaten prozedurak finkatzea da.

Giza Eskubideekin lotutako alderdiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus CAF Taldeko webgunean eskuragarri dagoen "Erantzukizun Sozial Korporatiboko 2019ko txostena".

# USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKA

CAF Taldeak bere jarduera garatzeko garaian, ondo daki kudeaketa gardena eta egokia ezinbesteko faktorea dela balioa sortzeko, ekonomia mailako eragingarritasuna hobetzeko eta akziodunen eta inbertsiogileen konfiantza indartzeko. Hori guztia "Gobernu Korporatibo Onaren" kontzeptuan oinarritutako Gobernu Korporatiboaren Sistema bidez ezartzen da.

Gobernu Korporatiboko Sistema horren oinarria honako hauekiko konpromisoa da: printzipio etikoak, jardunbide egokiak eta gardentasuna. Horrez gain, CAF Taldearen intereseko taldeentzako balio iraunkorra sortzea eta interes soziala defendatzea dira lanaren funtsak. Era berean, printzipio eta jardunbide egoki horiek CAF Taldeko Barne mailako Araudi Sistema osorako zabaltzea ahalbidetzen du.

Testuinguru horren baitan, ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borroka Gobernu Onaren eta Erantzukizun Sozial Korporatiboaren arloko funtsezko helburuak dira, eta CAF Taldeak bere jarduerak garatzen dituen lurraldeetan indarrean dagoen antolamendu juridikoa zorrotz betetzen dela bermatzeko prebentziozko neurriak ezarri ditu. Neurri horietako batzuk dira Jokabide Kodea eta CAF Talderako Delituak Prebenitzeko Eskuliburu korporatiboa onartu eta ezarri izana.

2011. urtetik, CAF Taldearen Jokabide Kodeak ezartzen ditu Taldeko profesional guztien eta, bere jarduera profesionalaren baitan, Taldearekin harremana duen edo lankidetzan diharduen edozein elkarte edo pertsonaren kasuan aplikagarriak diren gobernu korporatiboko eta jokabide profesionaleko arau eta printzipio orokor guztiak. Gainera, lehenengo horren osagarri izan daitezkeen gai espezifikoen inguruko beste edozein jokabide-kodetarako oinarria da.

Jokabide Kodea eskuragarri dago CAF Taldearen webgunean (www.caf.net) eta CAF Taldeko Atariaren bidez langile guztiei zabaldu zaie.

Jokabide Kodea garatzearekin lotuta, delituak prebenitzeko programa ezarri eta CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburuan jaso zen. CAF SAko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2015eko apirilaren 29an (hasierako bertsioan) eta haren baitan dago jasota Jokabide Kodea haren funtsezko elementu gisa.

Bi dokumentu horiek CAFek filialak dituen herrialde bakoitzeko tokiko legedira egokitzen dira beharrak aintzat hartuta.

Eskuliburu horren, eta haren garapen eta eguneratzeen helburua enpresako prozedurak eta kontrolak nahikoa diren egiaztatzea eta horiek modu eragingarrian ezartzea da, CAF Taldearen jarduerekin eta haien ondorioekin lotuta delitu esanguratsuak egiteko arriskua ahal den neurrian prebenitzeko asmoz.

Helburu hori aintzat hartuta, besteak beste, CAF Taldeko legezko ordezkariek, profesionalek eta azken horren sozietateekin kontratuak hitzartzen dituzten hirugarren batzuek CAFeko Jokabide Kodeak ezartzen dituen printzipio orokorrak errespetatzeko betebeharra finkatu da.

Horrekin lotuta, CAFeko Jokabide Kodearen printzipio orokorrak derrigor bete beharreko jokabide-arauak eta estandar etikoak dira. Honako hauek zorrotz betetzearen ingurukoak dira: legeak, giza eskubideak, askatasun publikoak eta oinarrizko eskubideak, tratu-berdintasuneko eta ez-bereizkeriako printzipioak, haurren lan-esplotazioaren aurkako

**CAFeko Gobernu Korporatiboko Sistemaren oinarria honako hauekiko konpromisoa da: printzipio etikoak, jardunbide egokiak eta gardentasuna. Horrez gain, CAF Taldearen intereseko taldeentzako balio iraunkorra sortzea eta interes soziala defendatzea dira lanaren funtsak.**

babesa eta Giza Eskubideen inguruko Adierazpen Unibertsalean eta Giza Eskubideekin lotuta Nazio Batuen Munduko Itunean jasotako gainerako printzipioak, eta lanarekin, ingurumenarekin eta ustelkeriaren aurkako borrokarekin lotutakoak.

Era berean, CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburua aldizka berrikusten da (zehatzago esanda, berrikusketak 2016an eta 2018an egin ziren) eta CAF SAko Administrazio Kontseiluak onartutako azken aldaketa 2018ko abenduaren 18koa da. Aipatutako Eskuliburuaren bertsio berri bat edo haren garapen bat onartzen denean, hedatzeko eta prestatzeko dagozkion neurriak hartzen dira.

2019ko ekitaldian, zigor arloko Compliance-aren arriskuen birrebaluazioa jarri da abian.

**Ustelkeriaren, eroskeriaren eta kapitala zuritzearen aurkako borrokari lotutako arrisku eta jarduerak**

Delituak Prebenitzeko Eskuliburura prestatzeko asmoz, arrisku penalen azterketa prestatu zen eta, hari esker, pertsona juridikoek egin ditzaketen delituen katalogo osotik, "delitu nabarmenak" deitzen zaienak mugatu ahal izan genituen. CAF Taldearen jardueraren helburuarekin nolabait erlaziona ditzakegunak dira eta, horrenbestez, delituak egitea prebenitzeko ikuspegitik arreta handiena eskatzen duten jarduerak ezartzen dituztenak.

Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokari lotuta daude honako hauek: (i) partikularren arteko ustelkeria-delitua, (ii) eroskeria-delitua eta (iii) ustelkeria-delitua nazioarteko transakzioetan. CAF Talderako esanguratsuak diren delitu-katalogoan, era berean, sartuta dago kapital-zuriketa.

Aipatu ditugun eraginak direla eta, arreta berezia eskatzen duten CAF Taldearen jarduerak hauek dira: (i) lehiaketa publikoetako lizitazioak, (ii) kontratu publiko eta pribatuen exekuzioa, eta (iii) proiektu integralak. Dena den, Delituak Prebenitzeko CAF Taldeko Eskuliburuak eta, dagokionean haren garapenek, arrisku-jarduera horietako bakoitzaren eta horiek kudeatzeko moduaren inguruko azterketa zehatzagoa eskaintzen dute.

Bestalde, irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta fundazioei egindako ekarpenei buruzko informazioa emateko legezko betebeharrari dagokionez, 2019ko ekitaldian, aurreko aldian bezalaxe, CAF Taldeak ez du haien ekarpen esanguratsurik egin.

**Ustelkeriaren, eroskeriaren eta kapitalak zuritzearen aurkako borrokari lotutako arrisku espezifikoen kudeaketa**

CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburuan identifikatutako arriskuen kudeaketa espezifikoa honela egiten da: (i) jarduera-politikak aplikatuta eta kontrolak finkatuta, (ii) Eskuliburuaren eragina jasango duten CAF Taldeko pertsona guztiak kontzientziatuta prestakuntzako eta hedapeneko jardueren bidez, (iii) Jokabide Kodea edo aipatutako Eskuliburua hausten duten jokabideak detektatzea ahalbidetuko lukeen salaketen bidea kudeatuta, eta (iv) Eskuliburuaren ezarpena CAF Taldeko filialetara egokituta, irizpide orokor horiek Taldeko sozietate guztietan aplikagarriak izango direla bermatzeaz gain, araudi propioaren arabera arau espezifikoak ezartzea eskatzen duten herrialdeetan tokiko arauak betetzea bermatzeko.

Bestalde, Betetze Batzordea edo Unitatea zaintzarako eta kontrolerako ahalmenak dituen CAF Taldeko organoa da, eta

# USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKA

Eskuliburuaren bidez ezarritako delituen prebentzio-eredua gainbegiratzeaz arduratzen da.

CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburuaren arabera, Betetze Unitateak edo Batzordeak ordezkari bat izendatu ahal izango du eta Batzorde edo Unitate horren mende egongo da bere funtzioei dagokienez indarrean dagoen tokiko legeriak hala eskatzen duelako edo filial edo sukurtsalaren neurri edo ezaugarriak direla eta gomendagarria den jurisdikzioetan dauden CAF Taldeko filial edo sukurtsaletan.

Era berean, 2019ko ekitaldian, Betetze Batzordeari egitura berria emateko erabakia hartu zen Complianceren organoari diziplina anitzeko lanetarako alderdia emateko eta ikuskapeneko zatitik bereizteko beharra ikusi zelako. Horren arabera, ikuskapeneko lana Administrazio Batzordeak izendatutako Betetze Batzordeko zuzendariek bete beharko lukete.

Helburu horrekin sortu zen Compliance-aren Batzorde Operatiboa, Betetze Batzordearen antolaketako egitura funtzional gisa.

**Jarduera-politika zehatzak**

CAF Taldearen Delituak Prebenitzeko Eskuliburuak eta haren garapenek modu espezifikoan jasotzen ditute Taldeak garatzen dituen arrisku-jarduerak egin daitezkeen delituzko jokabideekin lotuta eta, delituak egitea ekiditeko errespetatu behar diren jarduera-politika eta kontrol jakin batzuk esleituta.

Jarduera bat "arriskutsutzat" jotzeak ez du esan nahi legez kontrakoa edo delituzkoa denik, baizik eta beharrezko neurriak hartu ezean, inplikazio penalak eragin ditzaketen egoera sor daitezkeela.

Bestalde, CAF Taldeak finkatutako protokoloak edo jarraitu beharreko prozedurak dira jarduera-politikak, arrisku-jardueretan delituzko portaerak saihesteko helburua dutenak.

Arrisku horietatik eratorritako inpaktuak araudi mailako ez-betetzeak dira eta horiek aurretik zehaztutako deliuekin lotutako isunak eta beste zehapen larriago batzuk eragin ditzaketen prozedura judizialak sor ditzakete. Gainera, horiek guztiek CAF markaren irudia edo entzutea kalte ditzakete. Aipatutako inpaktuek zuzeneko isla dute enpresaren jardueran epe ertainera-luzera begira.

**Delituen Prebentzioko Eskuliburuaren prestakuntza eta hedapena**

Langileek etengabeko sarbidea dute Delituak Prebenitzeko Eskuliburura CAFeko Atariaren bidez. Horrez gain, Eskuliburuaren edozein aldaketa onartu ostean argitaratutako bertsio berriak espresuki eta berehala jakinarazi ahal izango zaizkio.

Aurrekoari kalterik eragin gabe, Complianceari buruzko atal espezifikoa gaitu da CAF Taldeko app korporatiboan. Delituak Prebenitzeari eta Jokabide Kodeari buruzko azpiatala izango du, eta Lehia Defendatzek beste bat. Hala, CAF Taldeko langile guztiek gai horietako bakoitzarekin lotutako arau esanguratsuenetarako sarbidea dute toki komun bakarrean eta edozein gailutatik sar daitezke haietara.

Prestakuntza-jarduerekin lotuta, Delituak Prebenitzeko Eskuliburua aplikatzera, hedatzera eta sentsibilizatzera zuzendutako jarduerekin aurrera jarraitu dute 2019an. 2016an jarduera horiek hasi zituzten CAF Taldeko langileei zuzenduta dago.

Dokumentua prestatzeko garaian, gai horrekin lotutako prestakuntza-planean sartutako pertsonen %94,4k zuen prestakuntza amaituta enpresa nagusia eta filial nazionalak kontuan hartzen baditugu. 2019an nabarmen egin dugu aurrera nazioartean, eta bateratze-perimetroko %97an jarri dira prestakuntza-programak abian. Gai horrekin lotutako prestakuntza jaso dute 4.762 lagunek; hau da, aplikagarria den kolektiboko %93k (2018an, 3.800 lagunek baino gehiagok). Uneotan, programa lantzen ari dira 386 pertsona. Era berean, langile berriak trebatzeko sistematika mantendu da eta programa hori langile berrientzako harrera-planetan txertatu da. Eguneratuta daude prestakuntzako materialak. Zifra horietan ez da jaso Suediako Euromaint enpresa gehitu izana , CAF Taldeak duela gutxi egindako erosketa delako.

Era berean, CAF Taldeko negozioko bazkideen %100ek dakite, lan egiten duen eskualde guztietan, CAFeko Jokabide Kodeko printzipio orokorrak indarrean daudela eta derrigor bete beharrekoak direla.

**Salaketetarako bidea**

Delituak Prebenitzeko Eskuliburuak salaketen berri emateko salaketetarako bide bakarra finkatzen du. Betetze Batzordeak edo Unitateak gainbegiratzen du kanal hori. Organo horrek aldizka jasotako salaketak aztertzen ditu eta, egoki bada, salaketa bakoitzaren egoera zehatzen arabera dagozkion ekintzak bideratzen ditu. Salaketak arreta handiagoa behar duela uste izanez gero, Betetze Batzordeak edo Unitateak dokumentazioa dagokion sailera bidal dezake, harekin batera, gertakizunen balorazioa egiteko eta hartu beharreko neurriak zehazteko.

Betetze Batzordeak edo Unitateak Administrazio Kontseiluari, Auditoria Batzordeari edo Zuzendaritza Nagusiari ematen dio salaketen eta, oro har, Delituak Prebenitzeko Eskuliburuan eta Jokabide Kodean detektatutako arau-hauste guztien berri, detektatutako ustezko arau-hauste horien gorabeheren eta izaeraren arabera.

Jasotako salaketa guztietatik erregistro egokia egiten da, bidaltzailearen nahiz edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko.

Eskuliburuak, bestalde, tokiko legeriak hala eskatzen duen jurisdikzioetan salaketak jasotzeko beste baliabide edo bide batzuk egokitzeko aukera aurrez ikusten du.

2019ko ekitaldian, kanal horren bidez bi salaketa jaso dira, eta beste bat bide alternatibotik. Guztiak lan arloko gaiekin lotutakoak dira eta barneko ikerketa, tratamendua eta ebazpena egin zaizkie. 2018an ez zen kanal horretatik salaketarik jaso.

**CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburua filialetan egokitzea**

CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburua loteslea da Taldeko nazioarteko eta Estatu mailako filial guztietarako. Horrekin lotuta, nazioarteko filialen kasuan aplikagarria den antolamendu juridikoko berezitasunak eta eskakizunak moldatu behar dira. Horren guztiaren ondorioz, eta lehen aipatutako horren arabera, atzerriko filialen kasuan oinarrizko egokitzapena egiten da kasu guztietan, eta egokitzapen zehatza identifikatutako beharren arabera.

CAF Taldearen nazioarteko dimentsionamendua, 2019ko abenduaren 31n, honako hau zen: atzerriko 74 filial bost kontinentetako 38 herrialdetan.

Delituak Prebenitzeko Eskuliburuaren oinarrizko egokitzapena 2017 ekitaldian osatu zen guztiz garai hartan CAF Taldea osatzen zuten filial guztietarako eta honako hauek jaso zituen: (i) CAF Taldeko Delituak Prebenitzeko Eskuliburuarekin lotutako formalitate juridikoak, (ii) Betetze Batzordea edo Unitatea onartzea eta (iii) prestakuntza eta informazioa gobernu-organoei. Hemendik aurrera, oinarrizko egokitzapen hori modu sistematikoan egingo da filial berria sortzeko garaian zein integrazio-planaren baitan lehendik zegoen sozietate bat CAF Taldera gehitzen denean.

Bestalde, delituen prebentzio arloko nazioarteko egokitzapena herrialde jakin baterako (eta, kasu batzuetan, filial jakin baterako) egin daiteke honako hauen bidez: alde batetik, edukia Eskuliburuan jasotako irizpide korporatibo orokorretara egokituta; eta, bestetik, Betetzeko azpiprograma garatuta. Hori, neurri handi batean, dagokion herrialdeko lege-araudiaren eta eredu korporatibo komuna mantentzeko edo ez mantentzeko arau horiek uzten duten malgutasunaren (txikiagoa edo handiagoa izango da, kasu bakoitzaren arabera) mende egongo da.

Zehatzago esanda, 2019ko ekitaldian, zigor arloko Complianceko nazioarteko garapeneko araudi hau izan dugu indarrean: (i) Delituak Prebenitzeko Eskuliburuan jasotako ildo orokorrak egokitu diren 6 herrialde, (ii) zigor arloko Complianceko azpiprograma osoa irizpide espezifikoekin jasota duten 2 herrialde, eta (iii) ezaugarri horiek dituen azpiprograma ezartze-fasean duten 2 herrialde.

Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako borrokarekin lotutako alderdiei buruzko informazio gehiago dago eskuragarri CAF Taldearen webguneko "Erantzukizun Sozial Korporatiboaren 2019ko Txostena" agiriko "Gobernu Korporatibo Oneko" 2. kapituluan.

# GAI SOZIALAK

CAF Taldeak erantzukizun sozial korporatiboko printzipioak bultzatzen ditu bere Taldean txertatuta dauden sozietateetan eta jardueretan. Horrekin lotuta, bere misioaren garapena inguruko komunitatearen eta interes-talde ugarien interesekin uztartzen du epe luzera begira modu jarraituan.

Konpromiso hori hainbat bidetatik bultzatzen du: (i) lan egiten duen komunitateetan eta jarduerei dagokien ingurunean bizikalitatea hobetzera bideratutako ekimenak garatzea, (ii) baliokatean praktika arduratsuak sustatzea eta hornitzaileak hautatzeko prozesuen ezaugarri lehiakortasuna eta kalitatearen bilaketa izatea, (iii) bezeroak une bakoitzean dituen beharretara ondoen egokitzen diren proiektuak, produktuak eta zerbitzuak eskaintzea eta horietan kalitate onena eta segurtasuna eskaintzea, (iv) konfiantza sortzea eta bertako eta nazioarteko merkatuan balioa banatzea arduratsu jokatuz, batez ere zergaarloan, fede onean, leialtasunean eta gardentasunean oinarrituta lan egiten duten langile konprometituekin.

Hemen behean azalduko ditugu xehetasunez gai sozialekin lotutako arriskuak, arlo bakoitzari lotuta. Hala ere, Taldeak alderdi sozialak erantzukizun sozialaren ikuspegitik jorratzen eta gauzatzen ditu kasu guztietan, garapen iraunkorrari ahalik eta ekarpen handiena egiteko. Horretarako, ISO 26000:2012 erreferentziazko araua da oinarri.

Erantzukizun sozialeko esparru hau Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Politikak gauzatzen du. Politika horretan daude ezarrita, hain zuzen, jarduteko printzipioak, interes taldeekin hartutako konpromisoak eta jarraipena egiteko metodoak eta sistemak.

Esparru horren osagarri, arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistema bat dago, korporazio mailakoa, eta hor daude jasota aurrez identifikatutako arriskuak eta soil-soilik arriskuak kudeatzera bideratutako jardueren sekuentzia ere eskaintzen du.

Prozesu horrek erreferentziazko esparruaren aukeren eta arriskuen azterketa osatzeko eskakizuna betetzen du.

**Enpresak garapen iraunkorrari lotuta hartutako konpromisoak**

CAF Taldeak lan egiten dituen jarduerek ekarpena egiten diote lanean aritzen diren komunitateei eta hango ongizateari. Hobekuntza horietako batzuk CAFen jarduerek berezkoak dituzte; adibidez, garraio-sare iraunkorretan egiten diren inbertsioak eta beste batzuk lankidetzarako eta parte-hartzeko ekimenei lotuta, lau eremutan: ingurune ekonomikoa, ezagutza sortzea, hezkuntzako eta prestakuntzako erakundeekin lankidetza eta alderdi sozial zein kulturalak.

Konpromiso horiei lotuta, jarduera garatzen duen ingurune sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta linguistikoak errespetatzeaz gain, arrisku hauek identifikatu dira: (i) tokiko komunitateetan bere jarduerek duten eragin negatiboa; (ii) komunitate ugariei dagokienez, CAF Taldearen helburu sozialak ez daude lerrokatuta; (iii) harreman iraunkorrak eta tokiko komunitateetan mantentzeko helburua duten harremanak ezartzeko zailtasuna; (iv) lankidetza ez-eragingarria tokiko erakundeekin eta administrazio publikoekin; (v) errespeturik eza gizarte, ekonomia, kultura eta hizkuntza arloko inguruneekiko.

CAFek jarduerak garatzen dituen tokian kalitatezko enpleguari babesa emateko konpromisoa hartzen du bere gain (Estatu mailan zein nazioartean). Konpromiso horren arabera, zuzeneko enplegua sortzen eta mantentzen du CAFek bere jarduerak garatzen dituen eremu geografikoetan bertako langileak kontratatzea bultzatuta zein zeharkako enplegua sustatuta bertako hornitzaileek eskainitako produktu eta zerbitzuak kontratatuta.

**CAF Taldeak erantzukizun sozial korporatiboko printzipioak bultzatzen ditu bere Taldean txertatuta dauden sozietateetan eta jardueretan. Horrekin lotuta, bere misioaren garapena inguruko komunitatearen eta interes-talde ugarien interesekin uztartzen du epe luzera begira modu jarraituan.**

Horren erakusgarri da datu hau: 2018ko eta 2019ko ekitaldietan, langileen %90 baino gehiago bertakoak[35] dira eta Taldeko sozietateetan aplikagarriak diren Ordainsarien Politikekin eta Lan Harremanekin lerrokatutako baldintza orokorrak dituzte.

Zeharkako enplegua sortzeari eta mantentzeari dagokionez, nabarmendu beharrekoa da tokiko hornitzaileetan egindako gastuaren proportzioa %58koa[36] izan dela 2019an ( 2018an, %64koa[37] izan zen). Gainera, CAFek, bere erosketa-prozesuaren bidez, hornitzaile horiek Jokabide Kodean eta Hornitzaileen Jokabide Kodean jasotako printzipio etikoak errespetatzen laguntzen du.

CAF Taldeak lurraldeko lehiakortasuna eta industria-eraldaketa bultzatzen laguntzen du ekimen eta jarduera espezifikoekin intentsitate eta irismen ezberdina duen elkarlanaren bidez. Horiek guztiek toki mailan eta nazioartean lan egiten duen tokietako ekonomian izan dezakete eragina. Horien artean, aipagarria da duela 10 urtetik gora abiarazitako eskualde mailako lankidetza. Horren emaitza izan Goierri Valley delakoa sortzea. CAF ekimen horren enpresa gidaria eta zuzendaritzako kidea da. Beste intentsitate batekin eta irismen handiagoarekin, CAFek enpresa eta sektore mailako garrantzia duten mundu ekonomikoko erakundeen jardueretan partaide izaten jarraitzen du. Horien artean, hauek aipatu behar dira: ADEGI Gipuzkoako Enpresen Elkartea, Enpresaburuen Zirkulua, Espainiako Enpresaburu Elkarteen Konfederazioa (CEOE), UITP Union Internationale des Transports Publics, UNIFE Europako Tren arloko Industria edo trenen sektorerako Europako plataforma teknologikoa ("European Railway Research Advisory Council").

Aurreko ekitaldietan bezala, CAF Taldeak bere lanen ingurunean ezagutza sortzeko lanean jarraitzen du, ekimen ezberdinak bultzatuz. Horien artean, hauek dira nabarmentzekoak:

CAFek berrikuntzara zuzendutako elkarteen eta ezagutza-zentroen organo errektoreetan edo zuzendaritza-organoetan hartzen du parte eta, horien artean, hauek azpimarratu behar dira: CEIT, CiC Nanogune, Lortek eta Tecnalia Reseach & Innovation Fundazioa. Gainera, nabarmendu beharrekoa da Innobasquerekin egiten duen lankidetza (Zuzendaritza Batzordean parte hartuta) eta Donostia International Physics Center-ekin bideratzen duen elkarlana (patronatuko kide sortzailea da).

Horrez gain, ikerketako eta berrikuntzako hainbat batzordetako kidea da: CEOEk antolatzen duena edo Gipuzkoako Bazkundeak sustatutakoa, adibidez. Horietan, ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren egoeraren inguruko gogoeta egiten da eta administrazioarekin eta erakunde eta elkarte ugarirekin elkarrizketa egiten da I+G+b arloko jarduerak eta politikak hizpide hartuta.

Gainera, ikerketa-zentroekin eta unibertsitateekin elkarlanean aritzen da ikasleen eta ikerlarien artean ezagutza bultzatzeko asmoz. Horrekin lotuta, Estatu mailan, nabarmendu beharrekoa da CEIT zentro teknologikoarekin, Tecnum Ingeniarien Eskolarekin eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoarekin egiten

*35. Taldeko langileen kolektiboarekin lotuta eskuragarri dauden datuak biltzen ditu (tokikoa deitzen diogu jaiotze-herrialdean bertan kokatuta dagoenean).*

*36. Taldeko ezarpen esanguratsuetan egindako erosketen datuak daude jasota; CAFeko langileen %90 biltzen dute. Euromainten kasuan, enpresa Taldera uztailean sartu zenetik ditugun datuak sartu dira. Hornitzailea tokikotzat jotzen da herrialde berean kokatuta dagoenean.*

*37. 2018an Taldeko ezarpen esanguratsuetan egindako erosketen datuak zeuden jasota; CAFeko langileen %85 biltzen zuten. Autobusen jarduerarako irailean Taldean sartu izanetik jasotako datuak gehitu dira.*



duen elkarlana irakaskuntzako programak diseinatzen, horiek eskaintzeko lanean parte hartzen eta enpresan esperientziak diseinatzen edo proiektuak zehazten. Nazioarteari begira, Estatu Batuetan, adibidez, Boards of Cooperative Educational Services of New York delakoarekin aritzen da CAF lanean, profesionalek prestakuntzan eta gaitasunetan dituzten behar aldakorrak identifikatzen eta garatzen. Bestalde, aipagarria da Polonian Solaris Bus & Coach delakoak Krakoviako AGH University of Science and Technology delakoarekin garatutako doktoretza-tesien programa. Programa horren helburua zientzia-komunitatearen eta ingurune sozioekonomikoaren artean lankidetzarako baldintzak sortzea da. Horretarako, langileei doktoretza-tesiak egiteko aukera ematen zaie langileen, unibertsitatearen eta enpresaren artean hiru alderdien arteko akordioa sinatuta.

Era berean, etorkizuneko profesionalak trebatzearen aldeko apustua mantendu du eta, horretarako, lan egiten duen inguruneko gazteen enplegua bultzatzeko lankidetza-hitzarmenak ditu ezarrita hezkuntza arloko erakundeekin eta elkarteekin. Unibertsitate eta lanbide-eskola nagusiekin akordio aktiboak ditu. 2019an egindako nazioarteko lana nabarmendu behar da. Izan ere, CAF Taldeak herrialde hauetan dituen egoitzetan graduatuentzako bekak bultzatu dituzte: Suedia, Finlandia, Hungaria, Holanda, Txile, Mexiko, Alemania eta Arabia (besteak beste).

Azkenik, CAF Taldeak beste erakunde publiko eta/edo pribatu batzuekin batera egiten du lan kokatuta dagoen komunitateetan inpaktu positiboa izango duten gizarte, ezagutza eta kultura arloetako proiektuak babesteko.

Jarraian, 2019an CAFek modu aktiboan lan egin duen eta Estatu mailan zein nazioartean bere garapena lortzen lagundu duten erakunde nagusiak azaltzen dira: Goierri Eskola Fundazioa (tokiko garapen soziala eta kulturala lortzeko pertsonen prestakuntza integrala oinarri duen hezkuntza-proiektua); SuEskola Fundazioa (suteen prebentzioarekin eta suteak itzaltzearekin lotutako prestakuntzaz arduratzen da eta benetako suarekin egiten den teknologia berritzailea erabiltzen du); Green Dachshund Foundation (Solaris Bus&Coachek 2012an sortu zuen fundazio hori babesik gabe daudenei laguntzeko).

Gainera, CAFek babesletzako jarduerak egiten ditu (batez ere toki mailan) eta, horien artean, lan egiten duen jarduera sektoreekin lotutako ekimen eta azoken, kirol-jardueren (lasterketa herrikoiak, txirrindularitza eta abar), elikagaien bankuek antolatutako kanpainetako elkarlana eta bizimodu osasungarria bultzatzeko jardunaldien antolaketa azpimarratu behar dira.

Amaitzeko, jarduera horien artean, nabarmendu beharrekoa da Beasaingo eta Irungo lan-zentroetan euskararen erabilera bultzatzeko egindako lana. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da Bikain ziurtagiria lortu zuela zilarrezko kategorian. Ingurune profesionalean euskararen hizkuntza-kudeaketarekin lotuta erakutsitako kalitatearen ziurtagiria da aitorpen hori. Bestalde, urtero, Elhuyar Fundazioarekin batera, CAFek euskarazko kultura zientifikoa bultzatzeko CAF-Elhuyar saria ematen du. Sarien xedea da euskaraz egindako lan zientifikoen eta teknologikoen hedapena bultzatzea, saritzea eta aitortzea. 2019an, ekimenak 25 urte bete zituela eta, saribanaketako jaia CAFeko instalazioetan antolatu zuten.

**Hornikuntza-katearen kudeaketa-estrategian iraunkortasuna txertatzea**

Hornitzaileek, interes-talde nagusi gisa, rol esanguratsua betetzen dute bezeroei kalitatezko produktuak eta zerbitzuak entregatzeko garaian Taldeak duen gaitasunari dagokionez.

CAF Taldeak hornitzaile eta azpikontratista guztiei eskatzen die webgunean (www.caf.net) argitaratuta dagoen CAFeko Jokabide Kodean zehaztutako printzipio etikoak betetzeko. Horietan daude jasota gizarte mailako konpromisoak, genero-berdintasunarekin lotutakoak eta ingurumenekoak[38].

Gainera, 2019an, Hornitzaileen Jokabide Kodeak irismen korporatiboa lortu du Hornitzaileen Foroak onartu eta Batzorde Betearazleak berretsi ostean. CAFeko webgunean zein barne-komunikaziorako ohiko bitartekoetan eskuragarri dago. Kode

horrek jokabide-kodearen printzipio orokorrak betetzeko konpromisoak, laneko, osasuneko eta segurtasuneko baldintzak, ingurumenekoak, etika komertzialekoak eta isilpekotasunekoak garatzen ditu. Zuzeneko bere hornitzaileek Hornitzaileen Kode hau betetzen dutela egiaztatzeko eskubidea erreserbatuta du CAFek gainera. Egiaztatze-lan hori hainbat bitartekoren bidez egin ahal izango da; hornitzailearen instalazioetan auditoriak eginda edo autoebaluazioko galdetegien bidez, adibidez.

Arlo horren inguruan, gizarte, genero-berdintasun eta ingurumen gaiekin lotutako erosketen politikaren inguruko arrisku hauek identifikatu dira: (i) hornitzaileek enpresako etika urratzea; (ii) hornitzaileek ez betetzea araudiak eta legeak; (iii) giza eskubideak babestea baztertzea (iv) ekintza usteletan (eroskeriak) parte hartzea.

Arrisku horietatik eratorritako inpaktuak direla eta, CAF markaren irudia edo erreputazioa kaltetzea, bezeroekin hitzartutako kontratuak ez betetzea/zigorrak finkatzea eta hornitzaileak galtzea gerta daiteke. Bi inpaktu horiek zuzeneko eragina dute epe laburrera begira, baina inpaktu horiek eragina izan dezakete epe ertainera begira haiek ordezkatuko lituzketen hornitzaileak bilatu beharra dela eta.

Hornitzaileen iraunkortasuneko ebaluazioak lortzeko, ibilgailuen jarduerak lehentasuna ematen die produktuaren ingurumeneko inpaktu potentziala dela eta edo arrisku horiekiko esposizio handiagoa duten herrialdeetan kokatuta daudelako ingurumen, gizarte eta etika arloetako arrisku handiena dutenei.

Ebaluazioa esparru horretan mundu mailako liderra den Ecovadis enpresaren bidez egiten da. Ecovadis hornitzaileen Erantzukizun Sozial Korporatiboaren kudeaketa ebaluatzeko Railsponsible ekimeneko kideek aukeratutako iraunkortasunaren ebaluazio-plataforma da. Ecovadisek ebaluazio-galdetegia hornitzaile bakoitzaren arabera egokitzen du lan egiten duen tokiak, sektorea eta dimentsioa kontuan hartuta. Hala, nazioarteko arau, estandar eta araudi zorrotzenekin lerrokatuta dauden iraunkortasuneko 21 alderdi ebaluatzen ditu eta, horien artean, hauek aipa ditzakegu: Global Reporting Initiative (GRI), International Labour Organization (ILO), UN Global Compact eta ISO 26000. Hornitzaileek emandako erantzunak analista espezializatuek ebaluatzen dituzte eta arreta berezia jartzen dute ebidentzia dokumentalak koherenteak eta duela gutxikoak diren, eta gai ugarietako politiken, ekintzen eta emaitzen araberako berrikusketa-dinamika biltzen dutela aztertzeko. Azterketa horren emaitza 100 puntura arteko puntuazio orokorra da. Horrek Erantzukizun Sozial Korporatiboaren kudeaketa bikaina duela esan nahiko luke. Ebaluazio baten emaitzak CAFek ezarritako eskakizunak betetzen ez dituenean, hornitzaileari ekintza-plana ezartzeko eskatzen dio identifikatutako ahulezia horiek hobetu ahal izateko.

Jarraian, CAF Ibilgailuetako Erosketa Arduratsuko Programak 2019an izandako emaitza nagusiak azaltzen dira:

- Ebaluatutako hornitzaile kopurua 2018an 23 hornitzailekoa izatetik, 2019an 39koa izatera igaro da.
- Iraunkortasuneko ebaluazioen estaldura, materialen eta ekipoen erosketen zenbatekoarekin alderatuta, azken urtean %35etik %55era handitu da.
- Ibilgailuen jarduerako hornitzaileen iraunkortasuneko adierazle nagusia 52,9 puntukoa da; hau da, mundu mailan Ecovadisen ebaluatutako hornitzaile guztien batezbestekoa baino 10 puntu handiagoa.
- CAF Ibilgailuetako hornitzaileen %50ek ebaluazioa hobetu du 2019an, eta %20k egonkor mantendu.
- Material eta ekipoen erosketen %7 45 eta 25 arteko Ecovadis ebaluazioa duten hornitzaileei egin zaie. Haien emaitzak hobetzeko planak eskatu zaizkie.
- Ez da 25ez azpiko Ecovadis ebaluazioa duten (eta, horrenbestez, arriskukotzat jotakoak diren) hornitzaileei erosketarik egin.

**Bikaintasuna bezeroarekiko eta erabiltzaileekiko harremanean**

Taldearen Kudeaketa Eredua, arreta pertsonalizatua eta etengabeko hobekuntza direla eta, Taldeak bezeroen behar eta aurreikuspenak asebete ditzake eta entrega oro etorkizunean negozio bihurtzeko gomendio izan daiteke. Hori guztia agerian geratu da azken urteotan 48 herrialde baino gehiagotan esleitutako 180 proiektu edo eskari baino gehiagotan. Horiei guztiei esker, eskarien zorra errekorreko mailatan dago. Bezeroengandik gertu dagoenez, Taldeak produkzio eragingarriagoa garatu eta laguntza-zerbitzuen eta mantentze-lanen estaldura bikaina eskain dezake.

Esparru horren baitan daude identifikatuta produktuen kalitate eta segurtasun arloko politikarekin eta erabiltzaileen eta bezeroen erreklamazioekin lotutako arrisku hauek: (i) bezeroarekin hitzartutako kontratua ez betetzea eta bezeroak egin ditzakeen erreklamazioak eta (ii) bezeroa ez egotea gustura CAFen produktuarekin eta esperientziarekin.

*38. Datuak 2019ko ekitaldian jarduera nagusietako Estatu mailako eta nazioarteko filialetan egindako erosketen %65 adierazten du (material gurpilduna, tren-zerbitzuak, osagaiak, seinaleztapena, potentzia- eta trakzio-ekipoak eta ingeniaritza eta autobusa). Euromaint Rail AB-ren kasuan, uztailean Taldera sartu osteko datuak gehitu dira.*

# GAI SOZIALAK

Arrisku horietatik eratorritako inpaktuek bezeroekin hitzartutako proiektuekin lotutako erreklamazioak eta etorkizuneko proiektuetan bezeroarekin lotuta kontratua deslotzea eragin dezakete. Inpaktu horiek zuzeneko eragina izango dute epe laburrera eta ertain-luzera begira (hurrenez hurren).

**Produktuaren kalitatea eta segurtasuna**

Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politikan jasotako bezeroekiko konpromisoak oinarritzat hartuta, CAFeko Kudeaketa Ereduak, besteak beste, bezeroarekiko harremanaren bizitza-ziklo osoa deskribatzen du; estrategia komertziala ezartzeko modua, eskaintzak prestatzea, esleitutako proiektu edo eskarien kudeaketa eta bezeroarekiko etengabeko harremana, besteak beste.

Aipatutako Eredua Egitura Korporatiboaren bidez (prozesu eta foro korporatiboak) Taldeko jarduera nagusietara hedatzen dela definitzea eta bermatzea da Kudeaketa Ereduaren Batzordearen helburua. Kalitateko, Segurtasuneko eta Onarpenetako Zuzendaritzak bideratzen du eta Batzorde Betearazleko beste kide batzuek ere hartzen dut bertan parte.

Gero eta eskakizun maila altuagoko bezeroak dituen eta jarduera toki ezberdinetan egiten den ingurunean, Taldeak lehiakideengandik bereizi beharra dauka eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuei lotutako kalitatearen eta segurtasunaren bidez.

Helburu horretarako, Taldeko jarduerek Kalitate eta Segurtasuneko politika dute abian (oro har). Webgunean dago eskuragarri eta ardatz nagusia bezeroa da. Politikan ezarritako printzipio esanguratsuenetako batzuk honako hauek dira: ondasun eta zerbitzuen gainerako alderdien gainean, segurtasunak lehentasuna izatea, segurtasunaren kudeaketa eragingarria erakunde osoko produktu eta zerbitzu guztiei dagokienez proiektuaren edo eskariaren bizitza-ziklo osoan, eta lanak egiteko garaian segurtasun-arriskuak maila onargarri batera gutxitzea sektoreko estandarren eta aplikagarriak diren kontratu mailako segurtasuneko eskakizunek eta araudiek xedatutakoa betez.

Bizitza-ziklo osoan bezeroaren aurreikuspenei erantzuna emateko eta aplikagarriak diren legezko eskakizunak betetzen direla bermatzeko, kalitatea eta segurtasuna kudeatzeko sistema propioa ezarri da eta Taldeko produktu eta zerbitzu esanguratsuen kategoria guztietan egindako ebaluazioa jasotzen du.

Alde batetik, erakundearen eragingarritasunaren, eta produktu eta zerbitzuen kalitatearen jarraipena egitea ahalbidetzen du sistema honek. Horri esker, lortu nahi den kalitatea lor daiteke kostu ezin hobean, eta bezeroek CAFen produktu eta zerbitzuetan duten asebetetzea eta konfiantza handitu. Taldearen instalazio ugariek merkatu osoko teknologia modernoena dute eta produkzioa optimizatzeko teknika aurreratuenak erabiltzen dituzte arau hauek ezarritako estandarren arabera (Taldeko jarduera batzuk horien arabera ziurtatuta daude gainera): ISO 9001:2015 eta ISO TS 22163 (IRIS v3).

Bestalde, CAFeko jardueren Segurtasunaren Kudeaketa Sistemaren helburua da erakunde osoaren segurtasuna zaintzea proiektuaren bizitza erabilgarri osoan: lizitazio-prozesua, haren garapen eta fabrikazioa eta kontratu mailako berme-aldiaren amaiera (kontratistak eta hornitzaileak barne). CAFeko jarduera ugariek beren Segurtasuneko Kudeaketa Sistemaren araberako ziurtagiria dute. Segurtasunaren Kudeaketa Sistemaren ziurtagiri honek arriskuaren ebaluazio eta balorazioarako segurtasuneko metodo komuna hartzearekin lotutako (EU) 402/2013 eta 445/2011 arauen eta EN 50126 1:1999 segurtasun arloko erreferentziazko arauaren ("Tren arloko aplikazioak. Fidagarritasuna, eskuragarritasuna, mantentzeko gaitasuna eta segurtasuna erakustea eta zehaztea (RAMS)") arabera eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen du.

**Bezeroaren asebetetzea**

Bezeroaren asebetetzea erakunde osoan zabalduta dagoen adierazlea da. Lehen maila korporatiboko Aginte Koadroan txertatuta dago eta horrek Batzorde Betearazlearen eta Administrazio Kontseiluaren jarraipena egitea biltzen du.

Prozesuen araberako gure kudeaketa-ereduak bezeroaren aurreikuspen eta beharrak asebetetzera bideratzen du erakundea. Horren helburua da hura leial bihurtzea eta merkatuari eskainitako gure balio-proposamena areagotzea eta eskarien zorroaren bidez erakustea.

Kalitatearen eta segurtasunaren kudeaketa-sisteman barneratuta daude bezeroek kexak eta erreklamazioak egiteko prozedurak. Gainera, horiek konpontzeko eta haien jarraipena egiteko mekanismo eta adierazle espezifikoak ere zehaztuta daude.

Gainera, nabarmendu beharrekoa da asebetetze-inkestak banatzen direla CAFeko balio-eskaintza osatzen duten elementuen inguruan bezeroak duen zuzeneko iritzia neurtzeko eta gure lehiakortasuna hobetzea ahalbidetzen duten faktoreak identifikatzeko tresna gisa. 2019ko asebetetze-inkestatik nabarmen dezakegunez, asebetetze-indizeak egonkor jarraitzen du maila esanguratsuetan. Horrek agerian uzten du ekintzak ondo bideratuta daudela eta Taldeak modu positiboan erantzuten diela bezeroen aurreikuspen eta beharrei.

**Zerga arloko informazioa**

Zerga arloari dagokionez, eta Politika Fiskal Korporatiboan ikus daitekeen moduan, CAFen misioa da lan egiten duen lurralde bakoitzean indarrean dagoen zerga arloko araudia betetzen dela bermatzea, zerga arloko arriskuak ekidinez eta zerga arloko agintariekin harreman kooperatiboa bultzatuz.

CAFen azken helburua da konfiantza sortzea eta jarduera arduratsuaren bidez Estatuko eta nazioarteko merkatuan balioa banatzea eta, bereziki, zerga arloari dagokionez. Horrek, aldi berean, estrategia korporatiboa diseinatzea eta erakunde baitan zerga-portaera irmoa bermatzea ahalbidetu beharko luke. Horren bidez, azken finean honako hauek lortu beharko genituzke: (i) interes-taldeak asebetetzea, (ii) zerga arloko administrazioekin elkarrekiko konfiantza-harremana mantentzea eta (iii) komunitateak hobetzen laguntzea zergen ordainketa bidez.

CAFen Politika Fiskalean daude jasota CAFen zerga arloko jarduera-printzipioak eta horien guztien oinarria osatzen dute hauek: Jokabide Kodea, Erantzukizun Sozial Korporatiboko Politika eta Arriskuen Kontrol eta Kudeaketako Politika Orokorra. Horiek bihurtu behar dute aplikagarria zaien erakunde eta pertsona guztien gidalerro.

Oro har, Auditoria Batzordeari eta, azken buruan Administrazio Kontseiluari dagokio CAF Talde osoak Zerga Politika betetzen dela bermatzea. Horretarako, barne-kontroleko mekanismoak ezartzea dago aurrez ikusita espresuki eta, gainera, Ekonomia eta Finantza arloko Sailak Auditoria Batzordeari informazio-fluxuak bideratzea eskatzen da, gero Kontseilura bidali ahal izateko.

Irabazien gaineko zergari dagokionez, aipatu beharrekoa da 2018 ekitalditik Country by Country Report txostena ezarri dela CAF Taldeak lan egiten duen administrazio fiskalekin lotuta. Txosten horretan, presentzia duen jurisdikzioetako bakoitzeko finantza-egoerekin lotuta funtsezkoak diren elementuak azaltzen dira banakatuta eta, gainera, tokiko zerga arloko agintariei negozioaren jarduerarekin lotutako informazio esanguratsuari, irabaziei, ordaindutako zergei eta langileei buruzko ikusgarritasuna ematen zaie.

Jarraian, herrialde bakoitzean lortutako irabazien eta ordaindutako irabazien gaineko zergen inguruko informazio esanguratsua azaltzen da CAFek lan egiten duen kokapen nagusien arabera multzokatuta:

| | 2019 (Mila eurotan) | | 2018 (Mila eurotan) | |
|---|---|---|---|---|
| | Zerga aurreko emaitzak (1) | Irabazien gaineko zergekin lotutako ordainketak (kobrantzak) (2) | Zerga aurreko emaitzak | Irabazien gaineko zergekin lotutako ordainketak (kobrantzak) |
| Espainia | 25.088 | 4.928 | 17.534 | 1.880 |
| Mendebaldeko Europa | (1.682) | 3.117 | 1.138 | 2.379 |
| Ekialdeko Europa | 1.811 | 823 | (6.582) | 630 |
| Ekialde Ertaina | 1.663 | 745 | 4.191 | 894 |
| Afrika | 1.176 | 52 | 297 | 13 |
| Ipar Amerika | 44.190 | 15.446 | 47.791 | 27.526 |
| Hego Amerika | (12.477) | 8.182 | 15.731 | 6.625 |
| Asia eta Ozeania | 1.369 | 565 | 475 | 407 |
| **Guztira** | **61.138** | **33.858** | **80.575** | **40.354** |

*(1) Herrialde bakoitzeko zergen aurreko emaitzak, dibidenduak, barneko marjinak eta partaidetutako enpresen zuzkidurak (besteak beste) kentzearen kontsolidazio-doiketa osagarriak barne.*

*(2) 2019ko ekitaldiko zergengatiko ordainketak urteko kontu bateratuen eskudiruaren fluxuaren egoera bateratutik lortuta.*

Jasotako diru-laguntzei dagokienez, nabarmena da administrazio publikoek Taldearen jarduerari emandako babesa eta, batez ere, Ikerketa eta Garapena eta berrikuntza jarduera lantzeko garaian Kudeaketa Txosteneko atalean jasota dagoen moduan. Atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko ustiapeneko diru-laguntzen zenbatekoa 4.633 mila eurokoa izan da 2019ko ekitaldian (2018an, 4.495 mila eurokoa izan zen).

Gizarte gaiekin lotutako alderdiei buruzko informazio gehiago dago eskuragarri CAF Taldearen webguneko "Erantzukizun Sozial Korporatiboaren 2019ko Txostena" agiriko "Gure jardueraren balio soziala" izeneko 6. kapituluan.

## FINANTZA ARLOKOA EZ DEN INFORMAZIO EGOERAREN EDUKIEN ETA GRI EDUKIEN ERREFERENTZIAZKO TAULA

| | GRI | Or. |
|---|---|---|
| **SARRERA** | | |
| Taldeko negozio-eredua | (1) | Talde bateratuaren kudeaketa- txostena |
| Taldeak aplikatzen dituen politiken deskribapena | 103-2 Kapitulu bakoitzean zehaztutako Kudeaketa Ikuspegia (hemendik aurrera, "KI") | Ikus I-V atalak |
| Taldearen jarduerei lotutako gai horien inguruko arrisku nagusiak | 102-11, 102-15 | Talde bateratuko kudeaketa-txostena, "Arrisku eta zalantza nagusiak" |
| **INGURUMENAREKIN LOTUTAKO JARDUERA** | | |
| Enpresaren jarduerek ingurumenean eta, dagokionean, osasunean eta segurtasunean dituzten egungo eraginak eta aurrez ikus daitezkeenak | 102-15 | 42 |
| Ingurumeneko ziurtagiria edo ebaluazio-prozedurak | 307 GRIko 103-2 EG, 102-11 | 44 |
| Ingurumeneko arriskuak prebenitzera bideratutako baliabideak | (1) | 42 - 44 |
| Zuhurtzia-printzipioaren aplikazioa | 102-11 | 42 |
| Ingurumeneko arriskuetarako zuzkiduren eta bermeen zenbatekoa | 307-1 | 42 |
| **Kutsadura** | | |
| Ingurumenean eragin larria duten $CO_2$ igorpenak prebenitzeko, gutxitzeko edo konpontzeko neurriak | 302 eta 305 GRIko 103-2 EG | 43 - 47 |
| Edozein kutsadura atmosferikoko igorpenak prebenitzeko, gutxitzeko edo konpontzeko neurriak | 305 GRIko 103-2 EG | 43 - 47 |
| **Ekonomia zirkularra eta hondakinen prebentzioa eta kudeaketa** | | |
| Hondakinak prebenitzeko neurriak | 306 GRIko 103-2 EG | 46 - 47 |
| Hondakinak birziklatzeko neurriak | 306 GRIko 103-2 EG, 306-2 | 46 - 47 |
| Hondakinak berrerabiltzeko neurriak | 306 GRIko 103-2 EG | 46 - 47 |
| Hondakinak berreskuratzeko eta desagerrarazteko beste modu batzuk | 306 GRIko 103-2 EG | 46 - 47 |
| Elikagaiak alferrik xahutzeari aurre egiteko ekintzak[39] | | |
| **Baliabideen erabilera iraunkorra** | | |
| Uraren kontsumoa eta hornikuntza, tokiko mugen arabera | 303 GRIko 103-2 EG, 303-5 | 47 |
| Lehengaien kontsumoa | 301-1 | 44 - 45 |
| Lehengaien erabileraren eragingarritasuna hobetzeko hartutako neurriak | 301 GRIko 103-2 EG | 44 - 45 |
| Energiaren zuzeneko eta zeharkako kontsumoa | (1) | 45 - 46 |
| Energia-eragingarritasuna eta energia berriztagarrien erabilera hobetzeko hartutako neurriak | 302 GRIko 103-2 EG | 45 - 46 |
| **Klima-aldaketa** | | |
| Enpresako jardueren ondorioz sortutako negutegi-efektuko gasen isurpenekin lotutako elementu esanguratsuak | 305 GRIko 103-2 EG, 305-1, 305-2 | 46 |
| Klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko hartutako neurriak | 305 GRIko 103-2 EG | 42 - 47 |
| Negutegi-efektuko gasen isurpenak gutxitzeko epe ertainera eta luzera begira ezarritako murrizketa-helburuak | 305 GRIko 103-2 EG | 46 |
| Negutegi-efektuko gasen isurpenak gutxitzeko ezarritako neurriak | 305 GRIko 103-2 EG | 43 - 46 |
| **Bioaniztasunaren babesa[40]** | | |

| | GRI | Or. |
|---|---|---|
| **GIZA BALIABIDEAK** | | |
| **Enplegua** | | |
| Langileen guztizko kopurua eta banaketa generoa, adina, herrialdea eta sailkapen profesionala kontuan hartuta | 102-8 | 48 - 49 |
| Kontratu-modalitateen banaketa eta guztizko kopurua | 102-8 | 50 |
| Kontratu mugagabeen, aldi baterako kontratuen eta denboraldi partzialeko kontratuen urteko batezbestekoa generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera | 102-8 | 50 |
| Kaleratze kopurua generoa, adina eta sailkapen profesionala kontuan hartuta | (1) | 50 |
| Batez besteko ordainsariak generoaren, adinaren eta sailkapen profesionalaren arabera banakatuta | 102-36 | 50 - 51 |
| Soldata-arraila | (1) | 50 - 51 |
| Sozietateko Lanpostu berdinetako ordainsaria edo batez bestek ordainsaria | 405 GRIko 103-2 EG | 50 - 51 |
| Kontseilarien eta zuzendarien batez besteko ordainsaria | 102-35 | 51 |
| Laneko deskonexio-politikak ezartzea | 401 GRIko 103-2 EG | 51 - 52 |
| Desgaitasuna duten langileak | | 54 |
| **Lanaren antolaketa** | | |
| Laneko denboraren antolaketa | 401 GRIko 103-2 EG | 51 - 52 |
| Absentismo-orduen kopurua | (1) | 55 |
| Kontziliazioa izatea erraztera eta gurasoek horiek modu erantzukidean gauzatzea bultzatzera bideratutako neurriak | 401 GRIko 103-2 EG | 51 - 52 |
| **Osasuna eta segurtasuna** | | |
| Osasun- eta segurtasun-baldintzak lanean | 403 GRIko 103-2 EG | 54 - 55 |
| Laneko istripuak, bereziki haien maiztasuna eta larritasuna, eta gaixotasun profesionalak | (1) | 55 |
| **Harreman sozialak** | | |
| Elkarrizketa sozialaren antolaketa | 402 GRIko 103-2 EG | 52 |
| Herrialdeko hitzarmen kolektiboak estalitako langileen ehunekoa | 102-41 | 52 |
| Hitzarmen kolektiboen balantzea, batez ere laneko osasun eta segurtasun arlokoak | 403-1 | 54 - 55 |
| **Prestakuntza** | | |
| Prestakuntza arloan ezarritako politikak | 404 GRIko 103-2 EG | 52 |
| Prestakuntzako orduen guztizko kopurua, kategoria profesionalen arabera | (1) | 52 |
| **Irisgarritasuna** | | |
| Desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun unibertsala | 405 eta 406 GRIko 103-2 EG | 53 - 54 |
| **Berdintasuna** | | |
| Emakumeen eta gizonen artean aukera- eta tratu-berdintasuna bultzatzeko hartutako neurriak | 405 GRIko 103-2 EG | 52 - 53 |
| Berdintasun-planak | 405 eta 406 GRIko 103-2 EG | 53 |
| Enplegua bultzatzeko hartutako neurriak | 401 GRIko 103-2 EG | 52 - 53 |
| Sexu-jazarpenaren eta generoarekin lotutako jazarpenaren aurkako protokoloak | 405 eta 406 GRIko 103-2 EG | 53 |
| Desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun unibertsala eta integrazioa | 405 eta 406 GRIko 103-2 EG | 53 - 54 |
| Edozein diskriminazio motaren aurkako politika eta, dagokionean, aniztasunaren kudeaketarekin lotutakoa | 405, 406 eta 406-1 GRIko 103-2 EG | 52 - 54 |

| | GRI | Or. |
|---|---|---|
| **GIZA ESKUBIDEEKIKO ERRESPETUA** | | |
| Giza eskubideen arloko arreta egokiko prozedurak aplikatzea | 412 GRIko 103-2 EG, 102-16, 412-2, | 56 - 57 |
| Giza eskubideak urratzearekin lotutako arriskuen prebentzioa eta, dagokionean, eragindako abusuak arintzeko, kudeatzeko eta konpontzeko neurriak | 412 GRIko 103-2 EG | 56 - 57 |
| Giza eskubideak urratu izaneko kasuekin lotutako salaketak | (1) | 57 |
| Elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboko eskubidea errespetatzearekin lotutako Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko hitzarmenetan jasotako xedapenak bultzatzea ta betetzea | 407 GRIko 103-2 EG | 56 - 57 |
| Derrigorrezko edo bortxazko lana desagerraraztea | 409 GRIko 103-2 EG | 56 - 57 |
| Haurren lana modu eragingarrian deuseztatzea | 408 GRIko 103-2 EG | 56 - 57 |
| **USTELKERIAREN ETA EROSKERIAREN AURKAKO BORROKA** | | |
| Ustelkeria eta eroskeria prebenitzeko hartutako neurriak | 205, 102-16 GRIko 103-2 EG | 58 - 61 |
| Kapital-zuriketaren aurka borroka egiteko neurriak | 205, 102-16 GRIko 103-2 EG | 58 - 61 |
| Irabazi-asmorik gabeko erakundeei eta fundazioei egindako ekarpenak | (1) | 59 |
| **GAI SOZIALAK** | | |
| **Enpresak garapen iraunkorrarekin lotuta bere gain hartutako konpromisoak** | | |
| Sozietatearen jarduerak enpleguan eta tokiko garapenean duen eragina | 203, 203-2, 204-1 GRIko 103-2 EG | 62 - 64 |
| Tokiko udalerrietan eta lurraldean sozietatearen jarduerak duen inpaktua | 203, 203-2 GRIko 103-2 EG | 62 - 64 |
| Tokiko komunitateetako eragileekin izandako harremanak eta haiekiko elkarrizketa-modalitateak | 203, 203-2, 102-43 GRIko 103-2 EG | 38 - 39, 62 - 64 |
| Elkartzeko edo babesteko ekintzak | 102-13 | 64 |
| **Azpikontratistak eta hornitzaileak** | | |
| Erosketa-politikan gai sozialekin, genero-berdintasunarekin eta ingurumenarekin lotutako gaiak txertatzea | 308 eta 414 GRIko 103-2 EG | 64 - 65 |
| Bere gizarte eta ingurumen arloko erantzukizunaren pean dauden hornitzaileekin eta azpikontratistekin izaten diren harremanetarako oharrak | 308 eta 414 GRIko 103-2 EG | 64 - 65 |
| Gainbegiratze-sistemak eta auditoriak, eta haien emaitzak | 308 eta 414 GRIko 103-2 EG | 64 - 65 |
| **Kontsumitzaileak** | | |
| Kontsumitzaileen osasunerako eta segurtasunerako neurriak | 416 GRIko 103-2 EG | 65 - 66 |
| Jasotako erreklamazio eta kexen sistemak eta horien konponbidea | 416 GRIko 103-2 EG | 66 - 67 |
| **Zerga-informazioa** | | |
| Lortutako irabaziak, herrialdeka | (1) | 67 |
| Ordaindutako irabazien gaineko zergak | (1) | 67 |
| Jasotako diru-laguntza publikoak | (1) | 67 |

*(1) Eduki honen oinarriak honako lege hauek dira: 2018ko abenduaren 28ko 11/2018 Legea ( Merkataritza Kodea aldarazi zuena), 2010eko uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kapital sozietateen Legearen inguruko testu bategina, eta Kontuen Auditoriari buruzko 2015eko uztailaren 20ko 22/2015 Legea, finantza arlokoa ez den informazioari eta aniztasunari buruzkoa, GRI estandarrei erreferentzia egin gabe.*

*39. Eduki hau ez da CAF Taldearen jarduerarako materiala, 2016ko materialtasunaren Azterketak ondorioztatzen duen moduan.*

*40. Eduki hau ez da CAF Taldearen jarduerarako materiala; izan ere, Taldearen kokapen bat ere ez dago bioaniztasunean eragin berezia izan dezakeen babestutako eremuetan.*

# AUDITOREAREN TXOSTENAK

Deloitte, S.L.
Plaza Julio Caro Baroja, 2
20018 San Sebastián
España

Tel: +34 943267800
www.deloitte.es

*Jatorriz gaztelaniaz igorritako txostenaren itzulpena Espainian oro har onartzen diren ikuskaritza-arauen arabera eta Urteko Kontu Bateratuen inguruan egindako gure lana oinarri hartuta, jatorriz gaztelaniaz eta Europar Batasuneko finantza-informazioari buruzko nazioarteko araudiaren arabera igorriak. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniaz igorritako bertsioa lehenetsiko da.*

# AUDITORE INDEPENDENTE BATEK IGORRITAKO URTEKO KONTU BATERATUEN AUDITORIA TXOSTENA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA enpresako akziodunei:

## Urteko kontu bateratuei buruzko txostena

### Iritzia

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren (sozietate nagusia) eta haren mendeko sozietateen (Taldea) urteko kontu bateratuak auditatu ditugu. Guztiek 2019ko abenduaren 31ko balantzea, irabazi eta galeren kontua, onartutako sarrera eta gastuen egoera, ondare garbian izandako aldaketen egoera, eskudiruaren fluxuen egoera eta memoria biltzen dituzte, guztiak bateratuak dira eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkie.

Gure ustez, atxikitako urteko kontu bateratuek Taldeak 2019ko abenduaren 31n duen finantza-egoeraren eta ondarearen, zein haren eskudiruaren emaitzen eta fluxuen irudi leiala erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan. Guztiak bateratuak dira, data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkio eta honako hauek xedatutakoa betetzen dute: Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak, Europar Batasunak onartutakoak (NIIF-UE) eta Espainian aplikagarriak diren finantza-informazioko araudiko gainerako xedapenak.

### Iritziaren oinarria

Gure auditoria Espainian indarrean den kontuen auditoria-jardueraren araudi erregulatzailearen arabera egin dugu. Arau horien araberako gure erantzukizunak geroxeago datoz jasota, gure txosteneko *Urteko kontu bateratuen auditoriarekin lotuta auditorearen erantzukizunak* izeneko atalean.

Etikako eskakizunen arabera (independentziarekin lotutakoak barne), Taldearekiko independenteak gara. Eskakizun horiek Espainia mailan urteko kontu bateratuen gure auditoriarako aplikagarriak dira kontuen auditoria-jarduera xedatzen duen araudiak ezarritakoaren arabera. Horrekin lotuta, ez dugu kontuen auditoriarekiko ezberdina den zerbitzurik eskaini eta ez da araudi horretan ezarritakoaren arabera beharrezko independentzian eragina izan zezakeen eta hori ezbaian jar zezakeen egoera edo gorabeherarik gertatu.

Lortu dugun auditoretzaren ebidentziak gure auditoretzarako iritzia egiteko nahikoa oinarri eta oinarri egokia ematen digula uste dugu.

### Auditoriarekin lotutako oinarrizko gaiak

Auditoriako oinarrizko gaiak egungo aldiko urteko kontu bateratuen inguruan egin dugun auditorian gure ustez adierazgarritasun handiena izan duten gaiak dira. Gai horiek urteko kontu bateratuen gure auditoriaren testuinguruan eta horien inguruan dugun iritzia osatzeko garaian orotara landu ditugu, eta ez dugu gai horien inguruko iritzi bereizirik adierazten.

Deloitte, S.L. Inscrita en el Registro Mercantil de Madrid, tomo 13.650, sección 8ª, folio 188, hoja M-54414, inscripción 96ª. C.I.F.: B-79104469.
Domicilio social: Plaza Pablo Ruiz Picasso, 1, Torre Picasso, 28020, Madrid.

## Sarrerak eta marjinak aurrerapen mailaren arabera aitortzea

### Deskribapena

Taldeak, batez ere, bere jarduera tren-materialaren fabrikatzaile gisa garatzen du eta, epe luzera begirako eraikuntza-kontratuei dagokienez, atxikitako memoria bateratuko 3.f. eta 12. oharretan zehaztuta dagoen moduan, kontratu bakoitzari dagozkion emaitzak eta sarrerak haietarako aurrez ikusitako aurrerapen mailaren arabera erregistratzeko irizpide orokorra erabiltzen du. Hori guztia kontratuari egotzitako orduak aurrekontuan jasotako guztizko ordu kopuruarekin alderatuta lortu da. Aurrerapen maila aplikatuta 2019ko ekitaldian trenen kontratuetan aitortutako sarreren zenbatekoa 1.201 milioi eurokoa izan da.

Aurrerapen maila zehaztu ahal izateko, beharrezkoa da Zuzendaritzak konplexutasun eta estimazio maila altua izatea honako hauei dagokienez: kontratu bakoitzean barneratu beharreko guztizko kostuak, kontratu bakoitzean egotzitako ordu kopurua aurrekontuan jasotako guztizko ordu kopuruarekin alderatuta edo, aurrez ikusitako sarrerak eta barneratzeko aurrez ikusitako kostuak kontuan izanda, marjinaren aurreikuspena.

Horregatik guztiagatik, gure auditoriarako funtsezko gia izan da aurrerapen mailaren arabera erregistratutako marjinak eta sarrerak aitortzea.

### Auditorian aplikatutako prozedurak

Gure auditoria-prozeduretan, proiektuetako kostuen egozpenari lotutako arriskuak murrizteko kontrol adierazgarrien gaineko eraginkortasun operatiboko proben konbinazioa erabiltzen dugu. Horiek oraindik sortu ez diren kostuak estimatzeko oinarri gisa hartzen dira. Gainera, funtsezko eta xehetasunezko proba analitikoak ere egin ditugu Ildo horretan, besteak beste, kontrol horiek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzeko probak ere egin ditugu, informazio-sistemen kontrolak barne, eta horretarako, barne mailako gure adituak teknologia eta sistemetan sartu ditugu. Gainera, proiektu nagusien aukeraketa baten azterketa xehea eta banakatua egin dugu, faktore kualitatibo eta kuantitatiboetan oinarrituta, Taldeak egindako hipotesi eta onarpenen arrazoizkotasuna ebaluatzeko. Hori egiteko, Taldeko langileekin bildu gara. Era berean, Taldeak aurreko ekitaldian egindako estimazioek indarrean den ekitaldi honetako datu errealekin duten koherentzia berrikusi dugu. Beste funtsezko prozedura batzuk ere aintzat hartu ditugu, hala nola: kontratu garrantzitsuenen irakurketa xehea eta Zuzendaritzarekin horiek aztertzea, adostutako baldintzak behar bezala ulertzeko asmoz; sarrerak behar bezala erregistratuta dauden aztertzea, bezeroekin dauden kontratu mailako baldintzak eta betebeharrak aintzat hartuta; aukerako oinarrietan proba xeheak egitea, Zuzendaritzak egindako estimazioen arrazoizkotasuna ebaluatzeko, eta sentikortasun maila handiagoa duten hipotesiak berrikustea; eta eskuzko eta teknologia eta sistemetan adituek lagundutako probak egitea, sarreren kontuan erregistratutako idazpenak lortzeko eta egiaztatzeko.

Atxikitako urteko kontu bateratuetako 6. eta 12. oharrek Taldearen aurrerapen mailaren araberako sarrekin lotutako banakapenak eta informazioa jasotzen dituzte.

## Kontratu komertzialetatik eratorritako hornidurak eta pasibo kontingenteak

### Deskribapena

Ohikoa da Taldeak eragiten duen sektoreetan epe luzeko eraikuntza-kontratuek penalizazio garrantzitsuak jasotzea, batez ere entrega-epeak ez betetzeagatik edo kontratuko beste konpromiso batzuk ez betetzeagatik. Horrez gain, jarduerarekin lotutako eta pasiboen erregistroa eskatzen duten bestelako betebehar batzuk ere jasotzen dituzte.

Behar diren horniduren estimazioa auditoriaren giltzarrietako bat da; izan ere, normalean, ez-betetze mota hori exekuzioan onartutako baldintzak haustea edo atzerapenak eragiten dituzten aldaketa edo gorabeherak onartzeko bezeroarekin egindako negoziazioen testuinguruan azaleratzen dira.

Erantsitako memoria bateratuko 12. eta 20. oharretan deskribatzen den moduan, betebehar horiei aurre egiteko Taldeak erregistratutako horiduren zenbatekoa 137 milioi eurokoa da "Salmentengatiko eta zerbitzuen prestazioagatiko bezeroak" epigrafea murriztuz eta 38 milioi eurokoa "Hornidura ez-korronteak" epigrafean 2019ko abenduaren 31n. Gainera, 12., 20. eta 26. oharretan jasota daude Taldeak betebehar horien ondorioz izandako auzi eta erreklamazio nagusiak, banakatuta.

Testuinguru horretan, hala badagokio, betebehar horiek aitortzeko Zuzendaritzak egiten duen ebaluazio-prozesua zaila da, eta juzguaren erabilera handia eskatzen du; produktuaren eraikuntza-prozesuan izandako gertakizunen erantzukizuna hartzean oinarritzen da, eta baita Taldeari egotzi ezin zaizkion arrazoiak identifikatzean ere.

Horregatik guztiagatik, deskribatutako egoera funtsezko gaia da gure auditorian.

### Auditorian aplikatutako prozedurak

Gure auditoria-prozedurak, besteak beste, proiektu bakoitzeko egoerari buruz Zuzendaritzak egindako estimazioak eta erregistratutako hornidurak lortu ditugu eta horien azterketa zehatza egin dugu. Aukeraketako oinarrietan lortutako kontratuen lagin baterako, funtsezko prozedurak egin ditugu Zuzendaritzak egindako estimazioen arrazoizkotasuna balidatzeko asmoz. Estimazio horiek kontratuetan jasotako baldintzekin eta haien ondoriozko betebeharrekin alderatu ditugu. Esperientzia historikoa ere aintzat hartu dugu. Halaber, egindako estimazioak lege-euskarriekin alderatu ditugu (kontratua bera, epai juridikoak, abokatuen berreste-gutunak eta abar), baita bezeroekin izandako gutunekin ere, erregistratutako horniduren zuzentasunari lotuta aplikatutako iritzien arrazoizkotasuna ebaluatzeko. Prozedura analitikoak ere egin ditugu, Taldeak aurreko ekitaldian egindako estimazioek indarrean den ekitaldiko kontratuen datu errealekin duten koherentzia berrikusteko.

Azkenik, urteko kontu bateratuetan emandako informazioaren banakapenak egokiak diren aztertu dugu (ikus 12., 20. eta 26. oharrak).

## Kontratu komertzialetatik eratorritako hornidurak eta pasibo kontingenteak

| Deskribapena | Auditorian aplikatutako prozedurak |
| --- | --- |
| Memoriako 3.f oharrean deskribatuta dagoen moduan, Taldeak, autobusen segmentuko kontratuekin lotuta, aktiboaren kontrola bezeroari ematen zaion unean sarrerak aitortzeko irizpideari jarraitzen dio. Horrekin lotuta, entregatzeko eta horien kontrol-transferentziarako baldintzen klausulak ezartzen dira. Klausula horiek, normalean, jabetzaren transmisio-unea zehazten dute, baina transakzioaren sortzapena ezartzeko, horrez gain, arriskuen eta irabazien transmisioa ere aztertu behar da.<br><br>2019ko ekitaldian autobusen segmentuko kontratuetan aitortutako sarreren zenbatekoa 650 milioi eurokoa izan da.<br><br>Zuzendaritzak egindako interpretazioen ebaluazioa giltzarrietako bat izan da gure auditoretzan 2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko eragiketen ebaketa egokia zehazteko. | Auditoretzako gure prozedurak, besteak beste, aukeraketako oinarrietan 2019ko ekitaldiaren amaieran eta hurrengo ekitaldiko hasieran egindako salmentetako lagin bat aukeratzea bildu du. Bezeroarekin egindako transakzio bakoitzean ezarritako klausulak aztertu ditugu eta sarrerak aitortzeko baldintzak betetzen ziren ebaluatu dugu. Horrez gain, aukeraketa horretarako idatzizko berrespena eskatu dugu, ekitaldiaren amaieran salmenta benetan egin den bezeroekin alderatu ahal izateko.<br><br>Atxikitako urteko kontu bateratuetako 6. eta 12. oharrek Taldearen banakapenak eta informazioa jasotzen dituzte. |

## Beste informazio bat: Kudeaketa-txosten bateratua

Beste informazioa 2019 ekitaldiko kudeaketa-txosten bateratua da bakarrik. Txosten hori egitea sozietate nagusiko administratzaileen ardura da, eta ez da urteko kontu bateratuen barnean sartzen.

Urteko kontu bateratuei buruzko gure auditoria-iritziak ez du barnean hartzen kudeaketa-txosten bateratua. Kudeaketa-txosten bateratuan dagoen informazioari buruzko gure erantzukizuna kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen arautegian zehaztuta dago. Arautegi horretan bi maila desberdin zehazten dira informazio horretarako:

a) Berariazko maila bat, finantza arlokoa ez den informazioaren egoera bateratuari eta Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenean dagoen informazio jakin bati aplikatzeko, Kontu Auditoriari buruzko 22/2015 Legeko 35.2.b) artikuluan zehazten den bezala. Helburu bakarra da egiaztatzea aipatutako informazioa eman dela kudeaketa-txosten bateratuan, edo, hala badagokio, txosten horretan sartu dela finantza arlokoa ez den informazioari buruzko txosten bereiziari buruzko aipamena, araudian aurreikusitako moduan, eta, bestela, hori jakinaraztea.

b) Kudeaketa-txosten bateratuan dagoen gainerako informazioari aplikatzeko maila orokorra. Helburua da informazio hori urteko kontu bateratuekin bat datorren aztertu eta jakinaraztea (kontuan izanda kontu horien auditoria egitean lortu den Taldearen ezagutza, eta auditorian ebidentzia gisa eskuratu den informazioaz aparteko informaziorik sartu gabe) eta kudeaketa-txosten bateratuaren edukia eta aurkezpena aplikagarria den araudiarekin bat datorren aztertu eta jakinaraztea. Egin dugun lanean oinarrituta hutsegite materialak daudela ondorioztatzen badugu, horri buruz jakinarazteko betebeharra dugu.

Egindako lana oinarri hartuta, aurrez azaldutakoaren arabera, egiaztatu dugu aurreko a) atalean aipatutako informazioa kudeaketa-txosten bateratuan ematen dela, eta kudeaketa-txosten bateratuak duen gainerako informazioa bat datorrela 2019. ekitaldiko urteko kontu bateratuetako informazioarekin, eta haren edukia eta aurkezpena bat datorrela aplikagarria den araudiarekin.

## Sozietate nagusiaren administratzaileen eta auditoria-batzordearen erantzukizuna urteko kontu bateratuei dagokienez.

Sozietate nagusiaren administratzaileak dira atxikitako urteko kontu bateratuak adierazteko arduradunak; kontu horiek fidelki agertu behar dute Taldearen ondarea, finantza-egoera eta emaitza bateratuak, NIIF-EB arauak eta Taldeari Espainian aplikatzen zaion finantza-informazioaren araudi-esparruko gainerako xedapenak betez. Halaber, haien ardura da beharrezkoa irizten duten barne-kontrola ezartzea, iruzurragatik edo hutsegiteagatik akats materialik ez duten urteko kontu bateratuak prestatzeko.

Urteko kontu bateratuak prestatzean, Sozietate nagusiaren administratzaileen ardura da Taldeak funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko duen gaitasuna baloratzea; dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin lotutako alderdiak ezagutaraziko dira eta funtzionamenduan dagoen enpresa kontabilitate-printzipioa erabiliko da, salbu administratzaile horiek Taldea likidatzeko edo haren eragiketak eteteko asmoa badute, edo beste aukera errealistarik ez badago.

Sozietate nagusiaren auditoria-batzordearen ardura da urteko kontu bateratuak egin eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea.

## Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoriaren inguruan

Gure helburuak hauek dira: arrazoizko segurtasuna izatea urteko kontu bateratuek ez dutela, oro har, akats materialik (iruzurragatik edo hutsegiteagatik), eta gure iritzia jasotzen duen auditoria-txosten bat egitea.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen arautegiaren arabera egindako auditoria batek beti antzemango duenik akats material bat, akats hori dagoen kasuan. Akatsak iruzurragatik edo hutsegiteagatik izan daitezke, eta akats materialak direla irizten da, baldin eta modu arrazoituan aurrez ikus badaiteke eragina izango dutela, banaka edo batera, erabiltzaileek urteko kontu bateratuetan oinarrituta hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan.

Auditoria-txosten honetako Eranskinean, urteko kontu bateratuen auditoriarekin lotuta gure erantzukizunen deskribapen zehatzagoa agertzen da. Eranskinean ageri den deskribapen hori gure auditoria-txostenaren zati bat da.

## Beste lege-eskakizun eta arauzko eskakizun batzuei buruzko txostena

### Txosten osagarria sozietate nagusiaren auditoria-batzordearentzat

Txosten honetan agertzen den iritzia bat dator sozietate nagusiaren auditoria-batzordearentzat egindako gure txosten osagarrian adierazitakoarekin. Txosten osagarriaren data 2020ko otsailaren 27a da.

### Kontratazio-aldia

2019ko ekainaren 15ean izandako Akziodunen Ohiko Batzar Nagusiak Taldearen auditore izendatu gintuen bi urtetarako, 2018ko abenduaren 31n amaitu zen ekitalditik kontatzen hasita.

Aurretik, Akziodunen Batzar Nagusiak hartutako akordioaren/akordioen bidez urtebeteko aldirako izendatu gintuzten, eta kontu-auditoria egiten jardun dugu, modu jarraituan, 2001eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldirik, kontuan izanda EBko 537/2014 zenbakidun Arautegiaren 8. ataleko 17. artikuluaren edukia, interes publikoko erakundeen lege-auditoritzarako berariazko eskakizunei buruzkoa.

DELOITTE, S.L.
ROACen inskribatua, S0692 zenbakiarekin.

Pablo Mugica
ROACen inskribatua, 18694 zenbakiarekin.

2020ko otsailak 27

**Gure auditoria-txostenaren eranskina**

Gure auditoria-txostenean sartutakoaz gain, eranskin honetan sartu ditugu urteko kontu bateratuen auditoriaren inguruko gure erantzukizunak.

## Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoriaren inguruan

Espainian indarrean dagoen kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen arautegiarekin bat datorren auditoriaren parte denez, gure juzgu profesionala erabiltzen dugu, eta eszeptizismo profesionalari eusten diogu auditoria guztian barrena. Era berean:

- Urteko kontu bateratuetan akats materialen arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu (iruzurraren edo hutsegitearen ondorioz sortzen direnak), arrisku horiei erantzuteko auditoria-prozedurak diseinatu eta ezartzen ditugu, eta gure iritziaren oinarria ezartzeko nahikoa eta egokia den auditoria-ebidentzia lortzen dugu. Iruzurraren eraginez gertatzen den akats materiala ez antzemateko arriskua handiagoa da hutsegitearen ondorioz gertatzen den akats materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurrak berekin izan ditzake kolusioa, faltsutzea, nahitako ez betetzeak, nahita egindako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.

- Auditoriarako garrantzitsua den barne-kontrolari buruzko ezagutza lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren auditoria-prozedurak diseinatzeko helburuarekin, eta ez Taldearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.

- Aztertzen dugu ea egokiak diren ezarritako kontabilitate-politikak eta kontabilitateko kalkuluak eta sozietate nagusiko administratzaileek ezagutzera emandako dagokion informazioa arrazoizkoak diren.

- Erabakitzen dugu ea egokia ote den sozietate nagusiko administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresa kontabilitate-printzipioa erabiltzea, eta lortutako auditoria-ebidentzian oinarrituta, erabakitzen dugu ea ziurgabetasun materialik dagoen ala ez funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko Taldeak duen gaitasunari buruz zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertaera edo baldintzekin lotuta. Ziurgabetasun materiala dagoela ondorioztatzen badugu, beharrezkoa da gure auditoria-txostenean ohartaraztea urteko kontu bateratuetan ezagutzera ematen den horri buruzko informazioari buruz, edo, informazio horiek ezagutzera ematea egokia ez bada, iritzi aldatua agertzea. Gure ondorioen oinarria da gaurko egunera arte gure auditoria-txostenetik lortutako auditoria-ebidentzia. Hala ere, etorkizuneko gertakizun edo egoerak direla-eta, baliteke Taldeak funtzionamenduan dagoen enpresa izateari uztea.

- Urteko kontu bateratuen aurkezpen globala, egitura eta edukia aztertzen dugu, ezagutzera emandako informazioa barne, eta aztertzen dugu, era berean, urteko kontu bateratuetan transakzioak eta azpiko gertaerak adierazten diren moduak benetako irudia islatzen duen.

- Ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu Taldearen barneko erakundeen edo enpresa-jardueren finantza-informazioari buruz, urteko kontu bateratuei buruzko iritzia adierazteko. Taldearen auditoria gidatu, gainbegiratu eta gauzatzeko arduradunak gara. Gure auditoria-iritziaren erantzule bakarrak gara.

Sozietate nagusiaren auditoria-batzordearekin harremanetan jartzen gara, beste gai batzuen artean, hauen inguruan: auditoriaren norainokoa eta egiteko unea (aurretik planifikatuak) eta auditoriaren aurkikuntza esanguratsuak, bai eta auditorian barrena antzemandako barne-kontrolaren edozein gabezia esanguratsuetan ere.

Era berean, Sozietate nagusiaren auditoria-batzordeari adierazpen bat helarazten diogu, adieraziz aplikagarriak diren etika-eskakizunak bete ditugula, independentziaren arlokoak barne, eta batzorde hari jakinarazi dizkiogu gure independentziarentzat mehatxuak izan daitezkeen gaiak, eta, hala badagokio, haien aurreko babesak.

Sozietate nagusiaren auditoria-batzordeari jakinarazi dizkiogun gaien artean, zehazten ditugu egungo aldiko urteko kontu bateratuen auditorian esanguratsuenak izan direnak, eta, ondorioz, auditoriaren funtsezko gaiak direnak.

Gai horiek azaltzen ditugu gure auditoria-txostenean, lege-xedapenek edo arauzko xedapenek gai hori jendaurrean agertzea debekatzen ez badute.

Deloitte, S.L.
Plaza Julio Caro Baroja, 2
20018 San Sebastián
España

Tel: +34 943267800
www.deloitte.es

*Jatorriz gaztelaniaz igorritako txostenaren itzulpena. Desadostasunik egonez gero, gaztelaniaz igorritako bertsioa lehenetsiko da.*

# CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SA-REN ETA MENDEKO SOZIETATEEN FINANTZA ARLOKOA EZ DEN INFORMAZIO EGOERA BATERATUAREN EGIAZTAPEN TXOSTEN INDEPENDENTEA, 2019KO EKITALDIARI DAGOKIONA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA enpresako akziodunei:

Merkataritza Kodeko 49. artikuluak xedatutakoa betez, segurtasun mugatuko irismenarekin, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren eta mendeko sozietateen (hemendik aurrera, Taldea edo CAF) Finantza arlokoa Ez den eta atxikita dagoen Informazio Egoera Bateratuaren (FEIE) egiaztapena egin dugu 2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiarekin lotuta. Aipatutako hori Taldeko atxikitako kudeaketa-txostenaren baitan sartuta dago.

Kudeaketa-txostenaren edukiak, finantza arlokoa ez den informazioarekin lotuta indarrean dagoen merkataritzako araudiak eskatzen duenarekiko osagarria den eta egiaztatu ez dugun informazio osagarria jasotzen du. Horrekin lotuta, gure lana atxikitako kudeaketa-txostenean jasota dagoen "Finantza arlokoa ez den informazio egoeraren edukiak eta GRI edukiak biltzen dituen erreferentzia taula"ko informazioa egiaztatzera mugatu da modu esklusiboan.

## Administratzaileen erantzukizuna

Taldearen kudeaketa-txostenean jasotako FEIEren formulazioa zein haren edukia CAFeko administratzaileen erantzukizuna da. FEIE delakoa indarrean dagoen merkataritza-araudian jasotako edukien arabera eta aukeratutako *Sustainability Reporting Standards* de *Global Reporting Initiative* (GRI estandarrak) irizpideei zein kudeaketa-txostenean jasotako "Finantza arlokoa ez den informazio egoeraren edukiak eta GRI edukiak biltzen dituen erreferentzia taulan" gai bakoitzerako aipatutakoaren arabera zehaztutako beste irizpide batzuei jarraituz prestatu da.

Erantzukizun horrek, era berean, iruzurra edo akatsa dela eta FEIEa okertasun materialik gabe egotea ahalbidetzeko beharrezkotzat jotako barne-kontrola mantentzea, diseinatzea eta ezartzea jasotzen du.

Horrez gain, CAFeko administratzaileak izango dira FEIEa prestatzeko beharrezko informazioa lortzeko erabiltzen diren kudeaketa-sistemak zehaztearen, ezartzearen, egokitzearen eta mantentzearen arduradunak.

## Gure independentzia eta kalitate-kontrola

Kontularitzako Profesionalentzako Etikako Nazioarteko Arauen Kontseiluak (IESBA, ingelesez) emandako Kontularitzako Profesionalentzako Etika Kodeko independentzia arloko eskakizunak eta etika arloko gainerakoak bete ditugu. Horiek guztiak funtsezko printzipio hauetan oinarrituta daude: zuzentasuna, objektibotasuna, gaitasun profesionala, ardura, isilpekotasuna eta profesionaltasuna.

Gure enpresak 1. Kalitate Kontroleko Nazioarteko Araua (1. NICC) aplikatzen du eta, ondorioz, aplikagarriak diren etika arloko eskakizunak, arau profesionalak, legezko xedapenak eta aplikagarriak diren araudiak betetzeari buruzko politika eta prozedura dokumentatuak biltzen dituen kalitatearen kontroleko sistema orokorra mantentzen du.

Lantaldea Finantza arlokoa ez den Informazioa eta, modu espezifikoan, ekonomiarekin, gizartearekin eta ingurumenarekin lotura duen garapen informazioa berrikusten adituak diren profesionalek osatu dute.

## Gure erantzukizuna

Gure erantzukizuna gure ondorioak segurtasun mugatuko egiaztapen-txosten independentean adieraztea da, egindako lana oinarritzat hartuta.

Egiaztapeneko gure lana indarrean dagoen Berrikusitako 3000 Bermatze Enkarguen Nazioarteko Arauak, Kontularien Nazioarteko Federazioko (IFAC) Auditoriako eta Bermatzeko Nazioarteko Arauen Kontseiluak (IAASB) onartutako "Auditoriarekiko edo Finantza Informazio Historikoaren Berrikusketarekiko" (Berrikusitako NIEA 3000) ezberdinak diren bermatze-enkarguek eta Espainiako Kontuen Zinpeko Kontu-hartzaileen Institutuak emandako Finantza arlokoa ez den Informazio Egoera egiaztatzeko lanei buruzko Jarduera Gidak xedatutako baldintzen arabera egin dugu.

Bermatze-lan mugatuan, egindako prozedurak aldatu egiten dira izaeraren eta unearen arabera, eta arrazoizko segurtasuneko lanean egindakoek baino luzapen txikiagoa dute eta, horrenbestez, lortzen den segurtasuna nabarmen txikiagoa da.

Gure lana zuzendaritzari eta FEIE prestatzen, FEIEn aurkeztutako informazioa biltzeko eta balioztatzeko prozesuak berrikusten eta jarraian zehaztuta dauden laginen bidezko berrikusketa-probak eta prozedura analitiko jakin batzuk aplikatzen parte hartu duten CAFeko unitate ugariei galderak egitea izan da:

- Bilerak CAFeko langileekin aplikatutako negozio-eredua, politikak eta kudeaketa-ikuspegiak eta gai horiekin lotutako arrisku nagusiak ezagutzeko eta kanpoko berrikusketa egiteko beharrezko informazioa lortzeko.
- 2019ko ekitaldiko FEIEn txertatutako edukien irismena, garrantzia eta zuzentasuna aztertzea CAFek egindako eta FEIEko "Sarrera" atalean azalduta dagoen materialtasunaren azterketaren arabera. Horrekin lotuta, gainera, indarrean dagoen merkataritzako araudian eskatutako edukiak hartu behar dira kontuan.
- 2019ko ekitaldiko FEIEn aurkeztutako datuak biltzeko eta balioztatzeko prozesuak aztertzea.
- 2019ko ekitaldiko FEIEn aurkeztutako alderdi materialekin lotuta aplikatutako arriskuei, politikei eta kudeaketa-ikuspegiei buruzko informazioa berrikustea.
- Lagin baten aukeraketa oinarritzat hartuta, proba bidez, 2019ko ekitaldiko FEIEn sartutako edukiei buruzko informazioa eta bilketa egokiak direla egiaztatzea CAFeko informazio-iturriek emandako datuen arabera.
- Administratzaileen eta Zuzendaritzaren aitorpen-gutuna lortzea.

## Ondorioa

Gure egiaztatze-lanean egindako prozedurak eta lortu ditugun ebidentziak oinarritzat hartuta, ez da ikusi 2019ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagokion CAFeko FEIE, bere alderdi esanguratsu guztietan, indarrean dagoen merkataritzako araudian jasotako edukien, aukeratutako GRI estandarraren zein kudeaketa-txosteneko "Finantza arlokoa ez den informazio egoeraren edukiak eta GRI edukiak biltzen dituen erreferentzia taulan" gai bakoitzerako aipatutakoaren arabera azaldutako beste irizpide batzuen arabera prestatu izan ez denik sinestarazi digun inolako alderdirik.

## Erabilera eta banaketa

Txosten hau Espainian indarrean dagoen merkataritzako araudian ezarritako eskakizunari erantzunez prestatu da. Ondorioz, baliteke ez izatea beste jurisdikzio eta helburu batzuetarako egokia.

DELOITTE, S.L.

Pablo Mugica

2020ko otsailak 27

Queens Wharf

# TALDE BATERATUAREN URTEKO KONTUAK

## 2019KO EKITALDIA

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

# Egoera Balantze Bateratuak

## 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n (1, 2 eta 3 oharrak) (Mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

| Aktiboa | Oharra | 2019/12/31 | 2018/12/31 (*) |
|---|---|---|---|
| **Aktibo ez-korrontea:** | | | |
| **Ibilgetu ukiezina** | **7** | | |
| Merkataritza Funtsa | 2.f | 109.011 | 101.827 |
| Beste ibilgetu ukiezin batzuk | | 239.241 | 206.535 |
| | | **348.252** | **308.362** |
| **Ibilgetu materiala** | **6 eta 8** | **449.263** | **365.084** |
| **Partaidetza-metodoaren arabera zenbatutako inbertsioak** | **9** | **7.807** | **18.188** |
| **Finantza-aktibo ez-korronteak** | **9** | **538.303** | **537.061** |
| **Estaldurako eratorri ez-korronteak** | **17** | **45.001** | **10.720** |
| **Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak** | **18** | **146.134** | **148.548** |
| **Beste aktibo ez-korronte batzuk** | **21** | **7.208** | **2.684** |
| **Aktibo ez-korrontea, guztira** | | **1.541.968** | **1.390.647** |
| **Aktibo korrontea:** | | | |
| **Izakinak** | **11** | **487.833** | **375.426** |
| **Zordun komertzialak eta kobratu gabeko beste kontu batzuk** | | | |
| Salmentengatiko eta zerbitzuen prestazioagatiko bezeroak | 10 eta 12 | 1.372.394 | 1.311.835 |
| Beste zordun batzuk | 9, 10 eta 19 | 216.940 | 205.122 |
| Zerga korronteagatiko aktiboak | 19 | 12.417 | 13.633 |
| | | **1.601.751** | **1.530.590** |
| **Finantza-aktibo korronteak** | **13** | **95.151** | **94.293** |
| **Estaldurako eratorri korronteak** | **17** | **40.010** | **5.849** |
| **Beste aktibo korronte batzuk** | **21** | **17.130** | **6.343** |
| **Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide** | | **538.983** | **602.813** |
| **Aktibo korrontea, guztira** | | **2.780.858** | **2.615.314** |
| **Aktiboa, guztira** | | **4.322.826** | **4.005.961** |

| Pasiboa eta ondare garbia | Oharra | 2019/12/31 | 2018/12/31 (*) |
|---|---|---|---|
| **Ondare garbia:** | **14** | | |
| **Berezko funtsak** | | | |
| Eskrituratutako kapitala | | 10.319 | 10.319 |
| Jaulkipen-prima | | 11.863 | 11.863 |
| Birbalorizazio-erreserba | | 39.119 | 39.119 |
| Erakunde kontrolatzailearen eta sozietateen integrazio globalaren eta partaidetza-metodoaren bidez bateratutako beste erreserba batzuk | | 792.935 | 793.755 |
| Sozietate kontrolatzaileari egotzitako ekitaldiko emaitza | | 24.745 | 43.462 |
| | | **878.981** | **898.518** |
| **Beste emaitza integral bat** | | | |
| Estaldurako eragiketak | | (11.062) | (5.024) |
| Bihurketako aldeak | | (134.682) | (141.782) |
| | | **(145.744)** | **(146.806)** |
| **Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ondare garbia** | | **733.237** | **751.712** |
| **Partaidetza ez-kontrolatzaileak** | | **12.130** | **5.555** |
| **Ondare garbia, guztira** | | **745.367** | **757.267** |
| **Pasibo ez-korrontea:** | | | |
| **Hornidura ez-korronteak** | **20** | **47.789** | **6.877** |
| **Finantza-pasibo ez-korronteak** | **15 eta 16** | | |
| Zorrak kreditu-erakundeekin eta betebeharrak edo beste balio negoziagarri batzuk | | 868.072 | 766.464 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | | 90.792 | 47.774 |
| | | **958.864** | **814.238** |
| **Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak** | **18** | **159.145** | **177.191** |
| **Estaldurako eratorri ez-korronteak** | **17** | **45.777** | **11.206** |
| **Beste pasibo ez-korronte batzuk** | **3.f eta 21** | **86.637** | **82.186** |
| **Pasibo ez-korrontea, guztira** | | **1.298.212** | **1.091.698** |
| **Pasibo korrontea:** | | | |
| **Hornidura korronteak** | **20** | **237.378** | **224.970** |
| **Finantza-pasibo korronteak** | **15 eta 16** | | |
| Zorrak kreditu-erakundeekin eta betebeharrak edo beste balio negoziagarri batzuk | | 199.979 | 255.416 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | | 44.144 | 23.356 |
| | | **244.123** | **278.772** |
| **Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk** | | | |
| Hornitzaileak | 26 | 688.104 | 664.865 |
| Beste hartzekodun batzuk | 12, 15 eta 19 | 1.032.114 | 911.961 |
| Zerga korronteagatiko pasiboak | 19 | 9.113 | 6.447 |
| | | **1.729.331** | **1.583.273** |
| **Estaldurako eratorri korronteak** | **17** | **61.140** | **64.167** |
| **Beste pasibo korronte batzuk** | **21** | **7.275** | **5.814** |
| **Pasibo korrontea, guztira** | | **2.279.247** | **2.156.996** |
| **Pasiboa eta ondare garbia, guztira** | | **4.322.826** | **4.005.961** |

(*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e oharra).
Atxikitako 1etik 27ra arteko oharrak 2019ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuaren baitan daude.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

# Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharrak) (Mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

| (Zor)-Hartzekoak | Oharra | 2019 | 2018 (*) |
|---|---|---|---|
| **Eragiketa jarraituak:** | | | |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 6, 9 eta 10 | 2.597.655 | 2.048.419 |
| Amaitutako produktuen eta fabrikazio-fasean dauden izakinen aldaketa +/- | | 18.235 | 73.250 |
| Aktiborako enpresak egindako lana | | 13.901 | 14.488 |
| Hornidurak | 22 | (1.388.778) | (1.089.940) |
| Ustiapeneko beste sarrera batzuk | 22 | 27.518 | 21.339 |
| Pertsonalaren gastuak | 23 | (654.607) | (518.473) |
| Ustiapeneko beste gastu batzuk | 22 | (408.098) | (347.605) |
| Ibilgetuaren amortizazioa | 7 eta 8 | (80.667) | (46.738) |
| Ibilgetua besterentzeagatiko narriadura eta emaitza | 7, 8 eta 9 | (165) | (10.572) |
| **Ustiapenaren emaitza** | | **124.994** | **144.168** |
| Finantza-sarrerak | 9, 10, 13 eta 15 | 17.402 | 7.627 |
| Finantza-gastuak | 9, 16 eta 17 | (72.885) | (64.160) |
| Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketa | | 33 | 7 |
| Trukeko edo kanbioko aldeak | | (6.120) | (6.673) |
| Finantza-tresnen besterentzeengatiko narriadura eta emaitza | 9 | (337) | 9 |
| **Finantza arloko emaitza** | | **(61.907)** | **(63.190)** |
| Baloratutako erakundeen emaitza, partaidetza-metodoaren arabera | 9 | (1.949) | (403) |
| **Zergen aurreko emaitza** | | **61.138** | **80.575** |
| Irabazien gaineko zerga | 18 | (36.048) | (40.955) |
| **Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldiko emaitza** | | **25.090** | **39.620** |
| **Ekitaldiko emaitza bateratua** | | **25.090** | **39.620** |
| Honako hauei egotzitakoa: | | | |
| Erakunde kontrolatzailea | | 24.745 | 43.462 |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileak | | 345 | (3.842) |
| **Akzio bakoitzeko irabazia (eurotan)** | | | |
| Oinarrizkoa | | 0,72 | 1,27 |
| Diluitua | | 0,72 | 1,27 |

(*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e oharra).

Atxikitako 1etik 27ra arteko oharrak 2019ko ekitaldiko galera eta irabazi bateratuen kontuko zati dira.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

# Aitortutako Sarrera eta Gastuen Egoera Bateratuak

## 2019ko eta 2018ko ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharrak) (Mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

| | Oharra | 2019 | 2018 (*) |
|---|---|---|---|
| **A) Ekitaldiko emaitza bateratua:** | | **25.090** | **39.620** |
| **B) Aldiko emaitzaren arabera birsailkatzen ez diren kontu-sailak:** | | **(3.568)** | **10.917** |
| Irabazi eta galera aktuarialenak | 3.j | (5.816) | (2.403) |
| Beste emaitza integral batzuetan aldaketak dituzten ondare-tresnak | 9 | 2.248 | 13.320 |
| Zerga-eragina | 18 | - | - |
| **C) Aldiko emaitzaren ondoren birsailka daitezkeen kontu-sailak:** | | **970** | **(22.988)** |
| **Eskudiruaren fluxuen estaldurak:** | | **1.688** | **1.700** |
| Balorazioarekin lotutako irabaziak/galerak | 17 | 1.453 | 1.620 |
| Galera eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak | | 235 | 80 |
| **Bihurketako aldeak:** | | **6.953** | **(24.635)** |
| Balorazioarekin lotutako irabaziak/galerak | 14 | 6.953 | (24.635) |
| Galera eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak | | - | - |
| **Negozio bateratuetan eta elkartuetan egindako inbertsioak direla eta aitortutako beste era bateko emaitza orokorreko partaidetza:** | | **(7.266)** | **442** |
| Balorazioarekin lotutako irabaziak/galerak | | | |
| Eskudiruaren fluxuen estaldurak | 9 eta 17 | (7.641) | 31 |
| Bihurketako aldeak | | 55 | 91 |
| | | (7.586) | 122 |
| Galera eta irabazien kontura transferitutako zenbatekoak | | | |
| Eskudiruaren fluxuen estaldurak | 17 | 320 | 320 |
| Bihurketako aldeak | | - | - |
| | | 320 | 320 |
| **Zerga-eragina** | | **(405)** | **(495)** |
| **Aitortutako sarrerak eta gastuak, guztira (A+B+C)** | | **22.492** | **27.549** |
| Honako hauei egotzitakoa: | | | |
| Erakunde kontrolatzailea | | 22.074 | 31.391 |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileak | | 418 | (3.842) |

(*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e oharra).

Honi erantsitako 1etik 27ra arteko oharrak 2018ko ekitaldiko aitortutako sarrera eta gastu bateratuen egoeraren zati dira.

# Ondare Garbi Bateratuan Gertatutako Aldaketen Egoerak

## 2019 eta 2018 ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharrak) (Mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

| | Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ondare garbia | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Berezko funtsak | | | | | | | | |
| | Kapital soziala | Jaulkipen-prima | Egin gabeko aktibo eta pasiboen birrebaluazioagatiko erreserba | Beste erreserba batzuk | Ekitaldiko emaitza garbia | Estaldurako eragiketak | Bihurketako aldeak | Partaidetza ez-kontrolatzaileak | Ondare garbia, guztira |
| **2017ko abenduaren 31ko saldoak** | **10.319** | **11.863** | **39.119** | **770.489** | **42.406** | **(6.541)** | **(117.238)** | **9.783** | **760.200** |
| Kontularitzako irizpideetan egindako aldaketen ondoriozko doiketak (2.b eta 7 oharrak) | - | - | - | (7.432) | - | (39) | - | - | (7.471) |
| **2018ko urtarrilaren 1ean doitutako saldoak** | **10.319** | **11.863** | **39.119** | **763.057** | **42.406** | **(6.580)** | **(117.238)** | **9.783** | **752.729** |
| **Aitortutako sarrerak/gastuak, guztira** | **-** | **-** | **-** | **10.917** | **43.462** | **1.556** | **(24.544)** | **(3.842)** | **27.549** |
| **Bazkideekin edo jabeekin egindako eragiketak** | **-** | **-** | **-** | **-** | **(22.625)** | **-** | **-** | **(386)** | **(23.011)** |
| Dibidenduen banaketa | - | - | - | - | (22.625) | - | - | (1.555) | (24.180) |
| Negozio-konbinazioak | - | - | - | - | - | - | - | 97 | 97 |
| Kanpoko bazkideekin egindako eragiketak (2.f oharra) | - | - | - | - | - | - | - | 1.072 | 1.072 |
| **Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk** | **-** | **-** | **-** | **19.781** | **(19.781)** | **-** | **-** | **-** | **-** |
| Ondare garbiaren kontusailen arteko intsuldaketak (14. oharra) | - | - | - | 19.781 | (19.781) | - | - | - | - |
| **2018ko abenduaren 31ko saldoak** | **10.319** | **11.863** | **39.119** | **793.755** | **43.462** | **(5.024)** | **(141.782)** | **5.555** | **757.267** |
| **Aitortutako sarrerak/gastuak, guztira** | **-** | **-** | **-** | **(3.568)** | **24.745** | **(6.038)** | **6.935** | **418** | **22.492** |
| **Bazkideekin edo jabeekin egindako eragiketak** | **-** | **-** | **-** | **(36.429)** | **(4.285)** | **-** | **165** | **6.157** | **(34.392)** |
| Dibidenduen banaketa | - | - | - | (21.940) | (4.285) | - | - | (1.327) | (27.552) |
| Kanpoko bazkideekin egindako eragiketak (2.f oharra) | - | - | - | (14.489) | - | - | 165 | 7.484 | (6.840) |
| **Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk** | **-** | **-** | **-** | **39.177** | **(39.177)** | **-** | **-** | **-** | **-** |
| Ondare garbiaren kontusailen arteko intsuldaketak (14. oharra) | - | - | - | 39.177 | (39.177) | - | - | - | - |
| **2019ko abenduaren 31ko saldoak** | **10.319** | **11.863** | **39.119** | **792.935** | **24.745** | **(11.062)** | **(134.682)** | **12.130** | **745.367** |

(*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e oharra).

Atxikitako 1etik 27ra arteko oharrak 2019ko abenduaren 31ko ondare garbi bateratuko aldaketen egoeraren baitakoak dira.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

# Eskudiruaren Fluxuaren Egoera Bateratuak

## 2019 eta 2018 ekitaldietako (1, 2 eta 3 oharrak) (Mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

| | Oharra | 2019 | 2018 (*) |
|---|---|---|---|
| **Ustiapeneko jardueretako eskudiruaren fluxuak:** | | | |
| Zergen aurreko emaitza | | 61.138 | 80.575 |
| Emaitzaren doiketak | | | |
| Amortizazioak | 7 eta 8 | 80.667 | 46.738 |
| Narriaduraren ondoriozko balorazio-zuzenketa | 7, 8, eta 9. | 2.161 | 10.634 |
| Horniduren aldaketa | 3 eta 20 | 34.003 | 40.078 |
| Galera eta irabazien beste kontu-sail batzuk | | (33.870) | 22.389 |
| Aktibo ez-korronteak besterentzearen ondoriozko emaitza | 8 | 300 | (175) |
| Partaidetza-metodoaren arabera zenbatutako inbertsioak | 9 | 1.949 | 403 |
| Finantza-sarrerak | | (17.402) | (7.627) |
| Finantza-gastuak | | 72.885 | 64.160 |
| Kapital korronteko aldaketak | | | |
| Zordun komertzialak eta beste aktibo korronte batzuk | 3.d eta 12 | (79.412) | (57.630) |
| Izakinak | 11 | (65.658) | (105.264) |
| Hartzekodun komertzialak | 12 | 102.379 | 352.938 |
| Beste aktibo eta pasibo korronte batzuk | | (5.699) | (3.877) |
| Beste aktibo eta pasibo ez-korronte batzuk | | 12.312 | (11.087) |
| Ustiapeneko jardueretako eskudiruaren beste fluxu batzuk | | | |
| Irabazien gaineko zergekin lotutako kobrantzak/(ordainketak) | 19 | (33.858) | (40.354) |
| Ustiapeneko jardueren beste kobrantza/(ordainketa) batzuk | | (3.118) | (2.575) |
| **Ustiapeneko jardueretako eskudiruaren fluxu garbiak (I)** | | **128.777** | **389.326** |
| **Inbertsio-jardueretako eskudiruaren fluxuak:** | | | |
| Inbertsioen araberako ordainketak | | | |
| Taldeko eta elkartutako enpresak | | (206) | - |
| Negozio-unitateak | 2.f | (50.829) | (171.664) |
| Ibilgetu materiala, ukiezina eta inbertsio higiezinak | 7 eta 8 | (72.260) | (90.588) |
| Beste finantza-aktibo batzuk | 9 eta 13 | (12.278) | (17.387) |
| Desinbertsioengatiko kobrantzak | | | |
| Taldeko eta elkartutako enpresak | 9 | 1.036 | 9.081 |
| Ibilgetu materiala, ukiezina eta inbertsio higiezinak | 7 eta 8 | 333 | 921 |
| Beste finantza-aktibo batzuk | 9 eta 13 | 30.354 | 24.717 |
| Interesen kobrantzak | 9 eta 13 | 10.222 | 6.560 |
| **Inbertsio-jardueretako eskudiruaren fluxu garbiak (II)** | | **(93.628)** | **(238.360)** |
| **Finantza-jardueretako eskudiruaren fluxuak:** | | | |
| Ondare-tresnen jaulkipena - kanpoko bazkideak | 2.f | 7.484 | 1.072 |
| Ondare-tresnen erosketa - kanpoko bazkideak | 2.f | (7.646) | - |
| Finantza-pasiboko tresnen araberako kobrantzak/(Ordainketak) | | | |
| Jaulkipena | 15 eta 16 | 680.870 | 544.557 |
| Itzulketa eta amortizazioa | 15 eta 16 | (691.130) | (376.346) |
| Dibidenduengatiko ordainketak eta ondarearen beste tresna batzuen ordainketak | 14 | (27.552) | (24.180) |
| Finantzaketa-jardueretako eskudiruaren beste fluxu bazuk | | | |
| Interesen ordainketak | 16 | (64.448) | (64.539) |
| **Finantzaketa-jardueretako eskudiruaren fluxu garbiak (III)** | | **(102.422)** | **80.564** |
| **Eskudiruaren eta eskudiruaren baliokideen igoera garbia (I+II+III)** | | **(67.273)** | **231.530** |
| Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak aldiaren hasieran | | 602.813 | 371.625 |
| Truke-tasen aldaketen eragina altxortegian | | 3.443 | (342) |
| **Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak aldiaren amaieran** | | **538.983** | **602.813** |

(*) Konparazioa egiteko helburuetarako soilik aurkeztu da (2.e oharra).

Atxikitako 1etik 27ra arteko oharrak 2019ko ekitaldiko eskudiruaren fluxuaren egoera bateratuan sartuta daude.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

# Urteko Ekitaldiari Dagokion Memoria Bateratua

## 2019ko abenduaren 31n amaitutako

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten mendeko sozietateak

### 1. ERAKUNDE KONTROLATZAILEAREN IZAERA ETA JARDUERA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA (aurrerantzean CAF edo erakunde kontrolatzailea) Donostian (Gipuzkoa) sortu zen 1917an, mugarik gabeko izaerarekin eta helbide soziala Beasainen du (Gipuzkoa).

Helburu soziala Estatutu Sozialen 2. artikuluan deskribatuta dago.

Erakunde kontrolatzailearen oraingo jarduera nagusia trenbideetarako materiala fabrikatzea da.

Erakunde kontrolatzaileak, bere jarduera garatu ahal izateko, beste sozietate batzuetan partaidetzen gehiengoa du (2.f. oharra).

### 2. URTEKO KONTU BATERATUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

**a) Aurkezteko oinarriak**

CAF Taldearen 2019ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak administratzaileek formulatu dituzte:

– Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauen arabera (FINA, hemendik aurrera) egin dira kontuak. Europar Batasunak finkatuak dira arau horiek, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 Arauarekin (EB) bat etorriz, Nazioarteko Kontabilitate Arauak (NKA) eta Financial Reporting Interpretations Committee (IFRIC) eta Standing Interpretations Committee (SIC) erakundeen irizpideak barne direla. 3. oharrean daude laburbilduta atxikitako urteko kontu bateratuak prestatzeko aplikatu diren kontabilitateko printzipiorik eta balorazioko irizpiderik adierazgarrienak.

– Bestalde, aintzat hartu dira urteko kontu bateratuetan eragin nabarmena duten eta nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -arau eta balorazio-irizpide guztiak, baita araudiak horretarako baimentzen dituen alternatibak ere (3. oharrean daude zehaztuta).

– Hori dela eta, CAF Taldeak 2019ko abenduaren 31n duen ondare bateratuaren eta finantza-egoeraren araberako irudia erakusten dute. Horrez gain, data horretan amaitutako ekitaldian Taldean sortu diren lanen emaitzen, ondare garbi bateratuko aldaketen eta eskudiruaren fluxu bateratuen emaitzak ere jasotzen ditu.

– Kontuan izan dira, halaber, erakunde kontrolatzailearen eta Taldeko gainerako sozietateen kontabilitate-erregistroak. Dena dela, ikusirik Taldearen urteko kontu bateratuak prestatzeko erabili diren kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak (FINA) ez datozela bat Taldeko sozietate bakoitzak erabiltzen dituenarekin (tokian tokiko araudia), zenbait doiketa eta birsailkatze erantsi zaizkio bateratze-prozesuari, elkarrekin bateragarri egiteko aipatutako printzipioak eta irizpideak eta Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauetara egokitzeko.

2018ko ekitaldiari dagozkion CAF Taldearen urteko kontu bateratuak 2019ko ekainaren 15ean egindako CAFeko Akziodunen Batzar Orokorrak onartu zituen. Akziodunen Batzar Orokorrek onartu behar dituzte 2019ko ekitaldiko Taldearen urteko kontu bateratuak eta haren partaide diren sozietateen urteko kontuak. CAFeko Administrazio Kontseiluaren iritziz, inongo aldaketarik gabe onartuko dira urteko kontu horiek.

**b) Argitaratu diren arau eta interpretazio berriak geure egitea**

2019ko urtarrilaren 1ean, "Errentamenduak" 16. FINA kontularitzako araua sartu da indarrean, 17. NKAren ordez. Berrikuntza nagusia da maizterrentzat kontularitzako eredu bakarra dagoela, eta errentamendu guztiak balantzean biltzen dituela (mugatutako salbuespenen batekin), finantzatutako erosketak balira bezala, hau da, orain arte finantza-errentamenduek zuten antzeko eraginarekin. Aldiz, errentatzaileen kasuan, eredu dualarekin jarraitu da, 17. NKAn ezarritakoaren antzekoarekin.

16. FINAren trantsizioa egiteko, atzera begirako ikuspegi aldatua aplikatu da, beraz, Taldeak ez du berriz adierazi 2018ko ekitaldiaren edota aurreko ekitaldien konparaziozko informazioa.

Kontu-sail bakoitzerako eragina, 2019ko urtarrilaren 1eko finantza arloko egoeran, honako hau da, milaka eurotan adierazita:

| | 2019/01/01eko balantzea | 16. FINA trantsizioa | 2019/01/01eko balantze doitua |
|---|---|---|---|
| **Aktibo ez-korrontea** | **1.390.647** | **52.519** | **1.443.166** |
| Ibilgetu ukiezina | 308.362 | - | 308.362 |
| Ibilgetu materiala | 365.084 | 52.519 | 417.603 |
| Partaidetza-metodoa aplikatuta zenbatutako inbertsioak | 18.188 | - | 18.188 |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 537.061 | - | 537.061 |
| Estaldurako eratorri ez-korronteak | 10.720 | - | 10.720 |
| Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak | 148.548 | - | 148.548 |
| Beste aktibo ez-korronte batzuk | 2.684 | - | 2.684 |
| **Aktibo korrontea** | **2.615.314** | **-** | **2.615.314** |
| Izakinak | 375.426 | - | 375.426 |
| Zordun komertzialak eta kobratu gabeko beste kontu batzuk | 1.530.590 | - | 1.530.590 |
| Finantza-aktibo korronteak | 94.293 | - | 94.293 |
| Estaldurako eratorri korronteak | 5.849 | - | 5.849 |
| Beste aktibo korronte batzuk | 6.343 | - | 6.343 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 602.813 | - | 602.813 |
| **Aktiboa, guztira** | **4.005.961** | **52.519** | **4.058.480** |
| **Ondare garbia** | **757.267** | **-** | **757.267** |
| **Pasibo ez-korrontea** | **1.091.698** | **41.007** | **1.132.705** |
| Hornidura ez-korronteak | 6.877 | - | 6.877 |
| Finantza-pasibo ez-korronteak | 814.238 | 41.007 | 855.245 |
| Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak | 177.191 | - | 177.191 |
| Estaldurako eratorri ez-korronteak | 11.206 | - | 11.206 |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 82.186 | - | 82.186 |
| **Pasibo korrontea** | **2.156.996** | **11.512** | **2.168.508** |
| Hornidura korronteak | 224.970 | - | 224.970 |
| Finantza-pasibo korronteak | 278.772 | 11.512 | 290.284 |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk | 1.583.273 | - | 1.583.273 |
| Estaldurako eratorri korronteak | 64.167 | - | 64.167 |
| Beste pasibo korronte batzuk | 5.814 | - | 5.814 |
| **Pasiboa eta ondare garbia, guztira** | **4.005.961** | **52.519** | **4.058.480** |

Aurrez zehaztutako 16. FINA trantsizioaren eragina, laburbilduz, balantzean erabilera-eskubidea aktibo gisa eta dagokion finantza-pasiboa onartzea izango da. Erabilera-eskubidea linealki amortizatzen da errentamenduaren kontratu-aldian zehar, eta narriadura jasan dezake.

2019ko urtarrilaren 1ean, arau berri horren eraginak honako alderdi hauek hartu ditu kontuan:

– Taldeak identifikatu ditu ekitaldiaren amaieran "balio baxuko" kalifikazioa jaso ez zuten kontratu guztiak (FINAk emandako balioa erreferentzia gisa hartuta, hau da, 5.000 dolar amerikar). Azterketa batez ere aktibo bat kontrolatzeko eskubidea izan dezaketenetan oinarritu da. FINAK baimendutako kostu ( irabazi irizpidearen arabera, edo ondorio praktikoetarako ikuspegi sinplifikatuarekin, balio baxuko edo epe laburreko (hasi zenetik 12 hilabeteko edo gutxiagoko iraupena) errentamenduak aurreko kontularitza-irizpidea aplikatuta erregistratu dira, gastu gisa, eta errentamendu-aldian zehar modu linealean.

– Identifikatutako kontratuekin lotuta, errentamendu gisa aitortu ahal izateko arauak ezarritako baldintzak betetzen dituztela aztertu da, hau da:

  a) Aktibo bat identifikatuta egotea (banakatuta edo haren "zati bereizgarria"), eta haren gain, kontratuko klausulen arabera, erabilera bideratzeko eskubidea izatea.

  b) Aktibo horren erabileratik eratorrita, aktiboaren erabileraren ondoriozko irabazi ekonomiko guztiak eskuratzeko eskubidea izatea errentamendu-aldian zehar.

– Arau berri horri atxikitako errentamenduek, batez ere, eraikin komertzialei egiten diete erreferentzia, baita biltegian erabiltzeko makina batzuei ere.

– Pasiboaren hasierako aitorpenerako, ordainketa finkoak (dagokionean errentatzailearen pizgarriak kenduta) hartu dira kontuan. Horien batuketa deskontatu egiten da, Taldearen maileguen interes-tasa inkrementala kontuan hartuta, arauak aurrez ikusten duen moduan, errentamenduek berezkoa duten interes-tasa zehaztean dagoen zailtasuna dela eta. Tasa horri dagokionez, errentamendu-kontratu bakoitzerako tasa espezifikoa erabili da, kontratuaren jabe den sozietatea zer herrialdetan dagoen eta kontratuaren epeak kontuan hartuta Finantza-pasiboen eguneraketan erabilitako batezbesteko tasa haztatua % 4 ingurukoa da.

Errentamenduengatiko pasiboen itzulketa finantzaketa-jardueren fluxu gisa aurkeztu da, 16. FINAren arabera; lehen, aldiz, ustiaketa-jarduera gisa aurkezten zen.

16. FINAri lotuta eskatutako banakapen guztiak aurkeztu dira erantsitako memoria bateratuko 8. eta 15. oharretan.

Gainera, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera beste aldaketa eta interpretazio batzuk sartu dira indarrean eta horiek ez dute eragin garrantzitsurik izan aurtengo urteko kontu bateratuetan.

### Indarrean ez dauden eta jaulki diren arau eta interpretazioak

Urteko kontu bateratu hauek egin diren datan, IASBk argitaratuak zituen jada arau, aldaketa eta interpretazio hauek guztiak, baina artean indarrean sartu gabe zeuden, urteko kontu bateratuen data baino geroagokoa dutelako eragin-data, edo Europar Batasunak artean onartu gabe zituelako.

| **Arau berriak, aldaketak eta interpretazioak** | **Hasitako ekitaldietako nahitaezko aplikazioa** |
|---|---|
| **Europar Batasunean erabiltzeko onartutakoak** | |
| **Aldaketak eta/edo interpretazioak** | |
| 3. FINAn egindako aldaketak - Negozio-definizioaren azalpena (2018ko urrian argitaratua) | 2020ko urtarrilak 1 |
| 9. FINAn, 39. NKAn eta 7. FINAn egindako aldaketak - Erreferentziazko interes-tasen aldaketa (2019ko irailean argitaratua) | 2020ko urtarrilak 1 |
| **Europar Batasunean erabiltzeko oraindik onartu gabekoak** | |
| **Arau berriak** | |
| 17. FINA – Aseguruen kontratuak (2017ko maiatzean argitaratua) | 2020ko urtarrilak 1 |
| **Aldaketak eta/edo interpretazioak** | |
| 1. NKAn eta 8. NKAn egindako aldaketa - Materialtasunaren definizioa (2018ko urrian argitaratua) | 2020ko urtarrilak 1 |

2020ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartuko diren arauetarako eta hurrengoetarako, Taldeak aurretiazko ebaluazioa egin du arau horiek etorkizunean aplikatzeak finantza-egoera bateratuetan izango dituen eraginak aurretiaz aztertzeko. Taldeak ez du zenbatesten inpaktu garrantzitsurik izango denik finantza-egoera bateratuetan arau berrien aplikazioen ondorioz.

**c) Aurkezpenerako moneta**

Eurotan aurkeztu dira urteko kontu bateratu hauek, Taldeak lan egiten duen ingurune ekonomiko nagusiko moneta euroa baita. 2.f oharrak deskribatzen dituen politiken arabera erregistratzen dira atzerriko operazioak.

**d) Egindako estimazioak**

Batzuetan, estimazioak erabili dira CAF Taldearen 2019ko ekitalditako urteko kontu bateratuetan. Hitz gutxitan esanda, eskuragarri dagoen informazio onenaren arabera egindako estimazio horiek honako hauen ingurukoak dira:

– Aktibo batzuen narriaduragatiko galera posibleen ebaluazioa (7, 8, 9, 10, 11, 12 eta 13 oharrak).

– Pentsioen pasiboen eta langileekiko beste konpromiso batzuen aktuaritza-kalkuluan erabilitako hipotesiak (15. oharra).

– Aktibo material eta ukiezinen bizitza erabilgarria (3.a eta 3.b oharrak).

– Finantza-aktibo jakin batzuen arrazoizko balioa (3.d. oharra).

– Hornikuntzen kalkulua (20. oharra).

– Erregistratutako eta erabili gabeko kreditu fiskalak aplikatu ahal izateko etorkizuneko zerga-irabaziak erabilgarri izateko probabilitatearen ebaluazioa (18. oharra).

– Gauzatutako obra-proiektuen aurrekontuetan estimatutako kostuen bilakaera eta aurrerapen maila (3.f oharra).

Estimazio horiek aztertutako gertaeren inguruan 2019ko abenduaren 31n eskuragarri zegoen informaziorik onenaren arabera egin ziren arren, baliteke etorkizunean gerta daitezkeen jazoerek horiek aldaraztea (gorantz zein beherantz) hurrengo ekitaldietan; hori dela eta, 8. NKAk xedatutakoaren arabera egin beharko lirateke aldaketa horiek etorkizunera begira, estimazio-aldaketaren eraginak kontuan hartuta dagokion galera eta irabazien kontu bateratuan.

Urteko kontu bateratu hauetako 20 eta 26.a oharretan deskribatutakoez gain, ez da izan urteko kontu bateratu hauetan eragin garrantzitsua izan duen aldaketarik kontularitzako estimazioetan 2018 urtearekiko.

**e) Informazioa alderatzea**

1. NKAk xedatutakoa betez, 2019ko ekitaldiaren inguruko memoria honetan azaltzen den informazioa 2018ko ekitaldiko informazioarekin batera ageri da, alderatu ahal izateko.

Alderaketa egiteko erantsi ditugun 2018ko urteko kontu bateratuak ere Europar Batasunak finkatutako FINAen arabera egindakoak dira, 2019ko ekitaldikoekin aplikatutakoen antzera. Dena den, behar bezala ulertu ahal izateko, kontuan izan behar da Taldeak bere egin duela 16. FINA kontularitzako arau berrietarako trantsizioa egiteko garaian "berriro ez adierazteko" aukera. Eragina jasandako kontu-sail nagusiak memoria bateratuko 2.b oharrean daude zehaztuta.

Era berean, 2019 eta 2018 ekitaldietako urteko kontu bateratuen arteko alderaketa egokia egin ahal izateko, kontuan hartu behar dira 2.f oharrean zehaztutako perimetroko aldaketak.

**f) Talde bateragarria eta bateratze-printzipioak**

Bateratze-eremua

Erakunde kontrolatzailearenak eta haren kontrolpeko sozietateenak dira honi erantsita datozen urteko kontu bateratuak. Kontrola finantza arloko politikak zein politika operatiboak zuzentzeko ahalmena da, jarduera horietatik irabaziak lortu ahal izateko.

2019ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontu bateratu hauek Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren (Erakunde kontrolatzailea - 1. oharra) eta ondoren data haren arabera zerrendatu diren mendeko sozietateen eta lotutako sozietateen banakako kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira:

| Trenen segmentua | Kontrol edo eraginaren % | Helbide soziala | Jarduera |
|---|---|---|---|
| **Integrazio osoz bateratuak** | | | |
| Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles S.A. | Kontrolatzailea | Gipuzkoa | Trenbide-ekipo eta -osagaien merkataritza- eta industria-jarduera |
| Actren Mantenimiento Ferroviario, S.A. | % 51 | Madrid | Mantentze-lana |
| BWB Holdings Limited (**) | % 100 (*) | Nottingham | Ingeniaritza |
| CAF Arabia Company | % 100 | Riyadh | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Argelia (EURL) | % 100 | Aljer | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles Argentina, S.A. | % 100 | Buenos Aires | Konponketa eta mantentze-lanak |
| CAF Brasil Indústria e Comércio, S.A. | % 100 | Sao Paulo | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Belgium, S.P.R.L. | % 100 | Brusela | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Chile, S.A. | % 100 | Txileko Santiago | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles CAF Colombia, S.A.S. | % 100 | Medellín: | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Deutschland GmbH | % 100 | Munich | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Digital & Design Solutions, S.A.U. | % 100 | Jaen | Fabrikazioa eta ingeniaritza |
| CAF Diversified Business Development, S.A.U. | % 100 | Gipuzkoa | Akzioak edukitzea |
| CAF Engineered Modernizations, S.L.U. | % 100 | Gipuzkoa | Ingeniaritza |
| CAF France, SAS | % 100 | Paris | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Group UK Limited | % 100 | Coventry | Akzioak edukitzea |
| CAF Hungary Kft | % 100 | Budapest | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF I+D, S.L.U. | % 100 | Gipuzkoa | I+G |
| CAF Investment Projects, S.A.U. | % 100 | Gipuzkoa | Enpresa-sustapena |
| CAF India Private Limited | % 100 | Delhi | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF IP Colombia, S.A.S. | % 100 | Bogotá | Errentamendu-zerbitzuak |
| CAF Israel Rails Ltd. | % 100 | Tel Aviv | Eraikuntza, fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Italia, S.R.L. | % 100 | Erroma | Konponketa eta mantentze-lanak |
| CAF México, S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko DF | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Netherlands, B.V. | % 100 | Utrecht | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF New Zealand Limited | % 100 | Auckland | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Norway AS | % 100 | Oslo | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Power & Automation, S.L.U. | % 100 | Gipuzkoa | Potentziako ekipamenduak eta ekipamendu elektronikoak |
| CAF Rail Australia Pty Ltd | % 100 | Sydney | Eraikuntza, fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Rail Digital Services S.L.U. | % 100 | Gipuzkoa | Mantentze-lana |
| CAF Rail Luxembourg, S.À R.L. | % 100 | Luxenburgo | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Rail UK Limited | % 100 | Belfast | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Rolling Stock UK Limited | % 100 | Newport | Fabrikazioa |
| CAF Sisteme Feroviare S.R.L. | % 100 | Bukarest | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |

| Trenen segmentua | Kontrol edo eraginaren % | Helbide soziala | Jarduera |
|---|---|---|---|
| CAF Signalling, S.L.U. | % 100 | Gipuzkoa | Seinaleztapena |
| CAF Sinyalizasyon Sistemleri Ticaret Limited Sirketi | % 100 | Istanbul | Seinaleztapena |
| CAF Taiwan Ltd. | % 100 | Kaohsiung | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF Track Test Center, S.L.U. | % 100 | Nafarroa | Bideko probak |
| CAF Turnkey & Engineering, S.L.U. | % 100 | Bizkaia | Ingeniaritza |
| CAFTurk Tren Sanayí Ve Tícaret Límíted Sírketí | % 100 | Istanbul | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| CAF USA, Inc. | % 100 | Delaware | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| Centro de Ensayos y Análisis Cetest, S.L. | % 100 | Gipuzkoa | Probak |
| Ctrens - Companhia de Manutençao, S.A. | % 100 | Sao Paulo | Errentamendu-zerbitzuak |
| Construcciones Ferroviarias de Madrid, S.L.U. | % 100 | Madril | Mantentze-lana |
| Construcción, Mantenimiento, Ferrovías y Subsistemas, S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko DF | Eraikuntza eta mantentze-lanak |
| Corporación Sefemex, S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko DF | Zerbitzuen eskaintza |
| Corporación Trainemex, S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko DF | Zerbitzuen eskaintza |
| Ennera Kaihatsu CO., Ltd. | % 100 | Tokio | Energiaren sorkuntza |
| EuroMaint Bemanning AB | % 100 | Solna | Mantentze-lana |
| EuroMaint Components and Materials AB | % 100 | Solna | Mantentze-lana |
| EuroMaint Gruppen AB | % 100 | Solna | Mantentze-lana |
| EuroMaint Rail AB | % 100 | Solna | Mantentze-lana |
| EuroMaint Rail AS | % 100 | Oslo | Mantentze-lana |
| Geminys, S.L. | % 100 | Gipuzkoa | Operazio-eskuliburuak |
| Jarade, S.A. | % 100 | Montevideo | Seinaleztapena |
| Lander Simulation and Training Solutions, S.A. | % 64,13 | Gipuzkoa | Simulagailuak |
| Metro CAF (Mauritius) Ltd. | % 100 | Maurizio | Eraikuntza, fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| Provetren, S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko DF | Errentamendu-zerbitzuak |
| Rail Line Components, S.L.U. | % 100 | Gipuzkoa | Merkaturatzea |
| Regiotren, S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko DF | Errentamendu-zerbitzuak |
| Rifer SRL | % 100(*) | Milan | Osagaien mantentze-lana |
| Sermanbra - Serviços de Manutençao Brasil Ltda. | % 100 | Sao Paulo | Mantentze-lana |
| Sermanfer, S.A.U. | % 100 | Madril | Mantentze-lana |
| Sermantren, S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko DF | Zerbitzuen eskaintza |
| Tradinsa Industrial, S.L. | % 100 | Lleida | Konponketa eta mantentze-lanak |
| Tram Liège Maintenance S.A. | % 65 | Lieja | Mantentze-lana |
| Trenes CAF Venezuela, C.A. | % 100 | Caracas | Fabrikazioa eta mantentze-lanak |
| Trenes de Navarra, S.A.U. | % 100 | Nafarroa | Fabrikazioa |
| Vectia Mobility Research & Development, A.I.E. | % 100 | Nafarroa | I+G |
| **Partaidetza-metodoaren bidez bateratuak (9. oharra)** | | | |
| Arabia One for Clean Energy Investments PSC. | % 40 | Ma'an | Energiaren sorkuntza |
| Asiris Vision Technologies, S.A. | % 22,33 | Gipuzkoa | Produkzio automatikoa |
| CAF Tiansheng Power System Limited Company | % 49 | Changzhou | Potentziako ekipamenduak eta ekipamendu elektronikoak |
| Consorcio Traza, S.A. (***) | % 25 | Zaragoza | Akzioak edukitzea |

| Trenen segmentua | Kontrol edo eraginaren % | Helbide soziala | Jarduera |
|---|---|---|---|
| Ferrocarril Interurbano S.A. de C.V. | % 49,63 | Mexiko DF | Fabrikazioa eta ekipamendua |
| Ferrocarriles Suburbanos, S.A.P.I. de C.V. | % 43,35 | Mexiko DF | Garraio-zerbitzuen eskaintza |
| Great River City Light Rail Pty Ltd | % 30 | Sydney | Operazioa eta mantentze-lanak |
| Momentum Trains Holding Pty Ltd | % 25,50 | Sydney | Errentamendu-zerbitzuak |
| Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L. | % 50 | Gipuzkoa | Irtenbide teknologikoak |
| Orbital Sistemas Aeroespaciales, S.L. | % 30 | Nafarroa | Irtenbide aeronautikoak |
| Plan Metro, S.A. | % 40 | Gipuzkoa | Errentamendu-zerbitzuak |
| Purple Line Transit Operators LLC | % 20 | Delaware | Operazioa eta mantentze-lanak |
| TransJerusalem J-Net Ltd. | % 50 | Petah Tikva | Errentamendu-zerbitzuak |
| Tumaker, S.L. | % 21,11 | Gipuzkoa | Inprimatze-ekipoak |

(*) Urteko kontu bateratuetako 15. oharrean zehaztutako aukerak kontuan hartuta.

(**) Sozietate honek % 100eko partaidetza du Quincey Mason Practice, Ltd., BWB Consulting, Ltd. eta BWB Regeneration, Ltd sozietateetan.

(***) Sozietateak % 80ko partaidetza du sozietate honetan: Sociedad SEM Los Tranvías de Zaragoza SA.

| Autobusen segmentua | Kontrol edo eraginaren % | Helbide soziala | Jarduera |
|---|---|---|---|
| **Integrazio osoz bateratuak** | | | |
| Solaris Bus & Coach, S.A. | % 97,20 | Bolechowo | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Austria GmbH | % 97,20 | Viena | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Bus Iberica, S.L.U | % 97,20 | Nafarroa | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Bus Israel Ltd. | % 97,20 | Tel Aviv | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Bulgaria EOOD | % 97,20 | Sofia | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Bus & Coach Latvia Ltd. | % 97,20 | Riga | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Bus & Coach Romania S.R.L. | % 97,20 | Bukarest | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Czech spol. S.R.O. | % 97,20 | Ostrava | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Danmark Bus A/S | % 97,20 | Padborg | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Deutschland GmbH | % 97,20 | Berlin | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris France S.A.R.L. | % 97,20 | Ennery | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Hellas, S.A. | % 68,04 | Atenas | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Italia S.R.L. | % 97,20 | Erroma | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Norge AS | % 97,20 | Oslo | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Schweiz GmbH | % 97,20 | Hausen | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Slovakia S.R.O. | % 97,20 | Kosice | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Solaris Sverige AB | % 97,20 | Malmö | Hiri-garraiorako irtenbideak |
| Openaco Trading Co. Ltd. | % 100 | Zipre | Akzioak edukitzea |
| **Partaidetza-metodoaren bidez bateratuak (9. oharra)** | | | |
| JBM Solaris Electric Vehicles Private Limited | % 20 | Ballabhgarh, India | Hiri-garraiorako irtenbideak |

Aldaketak bateratze-eremuan

2019ko uztailaren 2an, erakunde kontrolatzaileak honako hauen kontrola eskuratu du: EuroMaint Gruppen AB eta haren mendeko sozietateak, filial hauek barne: Euro Maint Rail AB, EuroMaint Components and Materials AB, EuroMaint Bemanning AB eta EuroMaint Rail AS, (hemendik aurrera EuroMaint Taldea). Horiek guztiak CAF Taldearen bateratze-perimetrora sartu dira. Ohar honetako aurreko atalean dago zehaztuta sozietateen xehetasuna eta zein diren sozietate bakoitzeko partaidetza-ehunekoak.

Taldeak eragiketa hori dela eta sortutako kostuak 1.416 mila eurokoak izan dira eta atxikitako 2019ko ekitaldiko irabazi eta galeren kontu bateratuan gastu gisa erregistratu dira.

Deskribatutako eragiketan eskuratutako aktiboen eta pasiboen arrazoizko balioaren xehetasuna honako hau da:

| | **Mila eurotan** |
|---|---|
| **Aktibo ez-korrontea** | |
| Ibilgetu ukiezina | 23.918 |
| Ibilgetu materiala | 39.889 |
| Epe luzerako finantza-inbertsioak | 757 |
| Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak | 440 |
| **Aktibo korrontea** | |
| Izakinak | 38.236 |
| Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | 21.575 |
| Beste aktibo korronte batzuk | 4.249 |
| **Pasibo ez-korrontea** | |
| Epe luzerako hornikuntzak | (213) |
| Finantza-pasibo ez-korronteak | (26.141) |
| Errentamenduengatiko finantza-pasiboak | (13.413) |
| Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak | (7.366) |
| **Pasibo korrontea** | |
| Hornidura korronteak | (416) |
| Finantza-pasibo korronteak | (4.448) |
| Errentamenduengatiko finantza-pasiboak | (6.976) |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk | (28.604) |
| Beste pasibo korronte batzuk | (394) |
| **Aktibo garbiak, guztira** | **41.093** |
| Eskuratutako % | % 100% |
| Erositako aktibo garbiak, guztira | 41.093 |

2019ko abenduaren 31n, negozioen konbinazioa behin-behinean erabakita eta erregistratuta dago, eta eskuratutako aktibo eta pasiboen arrazoizko balioa zehazteko aplikagarri den araudian aurrez ikusitako urtebeteko epearen barruan dago. Epe hori bete aurretik, eskuratutako aktiboen eta pasiboen merkatuko balorazioa eskuratzeko beharrezko lanak amaituko dira. Jarraian, merkataritza-funtsaren behin-behineko kalkuluaren banakapena dator:

| | **Mila eurotan** |
|---|---|
| Kontraprestazioa | 50.829 |
| Erositako aktibo garbiak | 41.093 |
| Merkataritza Funtsa (7. oharra) | 9.736 |

Erosketa horrek indartu egiten du herrialde nordikoetan tren-jarduerek duten presentzia komertzial eta industriala, bereziki osagaien hornidura eta mantentze-lanen sailean (zerbitzuak).

Eragiketa horrek 2019ko abenduaren 31n sortutako kaxako fluxu garbia koadro honetan banakatuta dago:

| | Mila eurotan |
|---|---|
| Eragiketan ordaindutako eskudirua | 50.829 |
| Eragiketan eskuratutako eskudirua | - |
| Transferitutako eskudiru garbia | 50.829 |

Honako hau da EuroMaint Taldeak 2019ko ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuari egindako ekarpena: 567 mila euroko galera eta 71.336 mila euroko negozio-zifra garbia.

EuroMaint Taldearen erosketa ekitaldiko lehen egunean egin izan balitz, Taldeko negozio-zifraren zenbateko garbia 76.463 mila eurotan areagotuko zatekeen, eta emaitza, 141 mila eurotan.

Bestalde, CAF Diversified Business Development S.A.U. sozietateak 2019an % 7,06ko partaidetza gehigarria eskuratu du Lander Simulation and Training Solutions S.A. sozietatean, 1.125 mila euroko zenbatekoaren truke, eta hala, Taldeak % 64,13 parte-hartzea du orain.

Gainera, 2019 ekitaldian Talde barruan sozietatea berrantolatzeko bi eragiketa egin dira.

Lehenengoa CAF Turnkey & Engineering SU sozietateak Ennera Energy and Mobility SL xurgapen bidez bateratzeari dagokio.

2019ko ekainean 7 milioi euroren truke Vectia Mobility, SL eta Vectia Mobility Research & Development, AIE sozietateen bazkide minoritarioari partaidetzak erosi zaizkio (partaidetzaren % 30, hurrenez hurren), eta bazkide minoritario hori Solaris Bus & Coach, SA taldeko akziodunen artean sartu da % 2,8ko partaidetza eskuratuta eta 7 milioi euro ordainduta. 2019ko uztailaren 5ean, Solaris Bus Ibérica, SLU eta Vectia Mobility SL artean fusioa gertatu da. Ondare garbi bateratuan izandako eragina, gutxi gorabehera, 7 milioi euroko kargua izan da "Beste erreserba batzuk" atalean, "Partaidetza ez-kontrolatzaileak" epigrafera ordainduta.

2019 ekitaldian, sozietate hauek eratu dira: CAF Engineered Modernizations SLU, CAF Norway AS, CAF Rail Luxembourg, SÀ RL, Jarade, SA, CAF Rail Digital Services, SLU, CAF Israel Rails Ltd eta CAF IP Colombia SAS, % 100eko partaidetzarekin, baita beste hauek ere: Momentum Trains Holding Pty Ltd (honetan, CAF Investment Projects, SAU mendeko sozietateak % 25,50eko partaidetza du), TransJerusalem J-Net Ltd (honetan, erakunde kontrolatzaileak % 50eko partaidetza du) eta CAF Tiansheng Power System Limited Company (honetan, CAF Power & Automation, SLU mendeko sozietateak % 49ko partaidetza du).

Azkenik, NEM USA, Inc. sozietatea likidatu da.

2018ko ekitaldian, bateratze-perimetroaren aldakuntza adierazgarriena izan zen Erakunde kontrolatzaileak Solaris Bus and Coach, SA eta mendeko sozietateen (hemendik aurrera, Solaris) kontrola hartu zuela, horiek CAF Taldearen bateratze-perimetrora sartu ziren 2018ko irailaren 4an, 2018ko ekitaldiko urteko kontu bateratuetako 2.f oharrean deskribatuta dagoen moduan.

2019ko ekitaldian, araudiak xedatutako epeen barruan, aditu independente baten lankidetzari esker eskuratutako aktibo eta pasibo guztien balorazioa berrikusi da (2.e oharra). Aurreko hori kontuan hartuta, jarraian zehaztuta dago arrazoizko balioaren arabera baloratutako eta eragiketa horretan eskuratutako aktibo eta pasiboen xehetasuna:

| | Mila eurotan | | |
|---|---|---|---|
| | **Behin-behineko zenbatekoak** | **Doiketak (7. oharra)** | **Behin betiko zenbatekoak** |
| **Aktibo ez-korrontea** | | | |
| Ibilgetu ukiezina | 142.068 | 1.785 | 143.853 |
| Ibilgetu materiala | 106.207 | - | 106.207 |
| Taldeko enpresetan eta lotutakoetan egindako inbertsioak | 1.586 | - | 1.586 |
| Epe luzerako finantza-inbertsioak | 84 | - | 84 |
| Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak | 15.316 | - | 15.316 |
| Beste aktibo ez-korronte batzuk | 2.684 | - | 2.684 |
| **Aktibo korrontea** | | | |
| Izakinak | 165.824 | - | 165.824 |
| Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | 89.232 | (1.063) | 88.169 |
| Finantza-aktibo korronteak | 2.725 | - | 2.725 |
| Beste aktibo korronte batzuk | 3.764 | - | 3.764 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 31.939 | - | 31.939 |
| **Pasibo ez-korrontea** | | | |
| Epe luzerako hornikuntzak | (206) | - | (206) |
| Finantza-pasibo ez-korronteak | (111.891) | - | (111.891) |
| Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak | (27.016) | (339) | (27.355) |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | (40.976) | - | (40.976) |
| **Pasibo korrontea** | | | |
| Hornidura korronteak | (44.556) | - | (44.556) |
| Finantza-pasibo korronteak | (74.388) | - | (74.388) |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk | (149.177) | 803 | (148.374) |
| Beste pasibo korronte batzuk | (8.862) | - | (8.862) |
| **Aktibo garbiak, guztira** | **104.357** | **1.186** | **105.543** |
| Eskuratutako % | % 100 | % 100 | % 100 |
| Erositako aktibo garbiak, guztira | 104.357 | 1.186 | 105.543 |

Jarraian, merkataritza-funtsaren kalkuluaren banakapena dator (mila eurotan):

| | **Solaris** |
|---|---|
| Kontraprestazioa | 197.979 |
| Erositako aktibo garbiak | 105.543 |
| Merkataritza-funtsa | 92.436 |

2018ko ekitaldian, erakunde kontrolatzaileak % 30eko partaidetza eskuratu zuen Orbital Sistemas Aeroespaciales SL enpresan 5.500 mila euroko zenbatekoaren truke, eta sozietate hauek eratu zituen: Metro CAF (Mauritius) Ltd., CAF Belgium SPRL, CAF Track Test Center SLU, Tram Liège Maintenance SA eta Great River City Light Rail Pty. Ltd. Gainera, Tumaker SL sozietatearen partaidetza-ehunekoa aldatu zen eta % 21,11ko partaidetza lortu zuen.

Bateratze-metodoa

Erakunde kontrolatzaileak kontrolatzeko gaitasuna duen enpresei deitzen zaie "mendeko sozietate". Erakunde kontrolatzaileak partaidetutako sozietateen jardueretatik etekinak eskuratu ahal izateko haien finantza- eta eragiketa-politikak gidatzeko ahalmena izateak adierazten du gaitasun hori. Integrazio orokorreko metodoa aplikatuta bateratzen dira mendeko erakundeen urteko kontuak erakunde kontrolatzailearenarekin. Hori dela eta, bateratze-prozesutik kanpo utzi dira bateratutako sozietateen arteko transakzioetako saldo eta efektu guztiak.

"Sozietate elkartuak" dira, halaber, erakunde kontrolatzaileak haien gainean bere eragina nabarmen erabiltzeko gaitasuna duen guztiak, haiek kontrolatzeko (bere kasa edo beste batzuekin batera) gai izan ez arren. "Baterako negozioa" akordio bat da, horren bidez, sozietatearen gainean baterako kontrola duten alderdiek aktibo garbiekiko eskubideak bateratuta dituzte. Urteko kontu bateratuetan, "partaidetza-metodoaren" bidez baloratzen dira sozietate elkartuak; hau da, Taldeak haren kapitalean duen partaidetzaren ondare garbiaren zatikiaz, haietatik jasotako dibidendu-kenketak eta beste ondare batzuenak egin ondoren (sozietate elkarturen batekin transakziorik egin bada, Taldeak haren kapitalean duen partaidetza-ehunekotik kendu behar dira galerak edo irabaziak), ken banakako partaidetzetan izandako balio-narriadurak.

Baterako eragiketa baterako akordio bat da, eta haren bidez, akordioaren baterako kontrola duten alderdiek aktiboaren eskubideak eta pasiboekiko obligazioak dituzte, akordioarekin lotuta. Kontratuz erabakitako kontrolaren banaketa da baterako kontrola; jarduera garrantzitsuen gaineko erabakiek kontrola partekatzen duten alderdien aho bateko adostasuna behar dutenean soilik gertatzen da. Taldeko sozietate batek baterako eragiketen testuinguruan egiten dituenean jarduerak, Taldeak, baterako operadore den heinean, honako hauek aitortuko ditu, baterako eragiketan duen parte-hartzea dela eta:

– aktiboak eta pasiboak, mantendutako baterako aktibo eta pasiboetan duen partaidetza barne;

– baterako eragiketak egindako sarrera eta gastuetan duen partaidetza.

Atzerri-monetako finantza-egoeren bihurketa

Atzerri-monetako finantza-egoerak 'itxiera-kanbioko tasan' bihurtu dira eurotara. Hau da, itxiera-egunean indarrean zegoen kanbio-tasa erabili da ondasun, eskubide eta obligazio guztien balioak eurotara bihurtzeko, eta galera eta irabazien kontuko kontu-sailak bihurtzeko, berriz, ekitaldiko batez besteko kanbio-tasa.

Kanbio-tasa historikoa erabiliz bihurtutako atzerriko sozietatearen fondo propioen (galera eta irabazien kontuaren saldoa izan ezik, lehenago aipatutakoagatik) eta ondasunak, eskubideak eta obligazioak itxiera-eguneko kanbio-tasan bihurtzeagatik sortutako ondare-egoera garbiaren arteko diferentzia balantze bateratuko Ondare Garbiari dagokion kontu-sailean erregistratu da 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, diferentzia horretatik kontrolatzaileak ez diren partaidetzei dagokien zatia kendu ondoren. Kanpoko bazkideei dagokien zati hori "Ondare garbia – Partaidetza ez-kontrolatzaileak" kontuan erregistratu da.

**g) Akatsak zuzentzea**

Atxikitako urteko kontu bateratuak prestatzeko garaian ez da 2018ko urteko kontu bateratuetan bildutako zenbatekoak berriro adieraztea eragin duen akats aipagarririk detektatu.

## 3. ERABILI DIREN KONTABILITATE-PRINTZIPIO ETA -POLITIKAK, ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK

2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko urteko kontu bateratuak egiteko CAF Taldeak erabilitako balorazio-arau nagusiak honako hauek izan dira:

### a) Ibilgetu ukiezina

#### Merkataritza-funtsa

Merkataritza-funtsa aktiboan agertzen da baldin eta kostubidezko erosketa dela medio, negozio-konbinazio batean, haren balioa azaleratzen bada. Negozio-konbinazioaren etekinak bereganatzea espero den unitate eskudiru-sortzaile bakoitzari esleitzen zaio merkataritza-funtsa, eta ez da amortizatzen. Horren ordez, narriadura-testa egiten zaie unitate eskudiru-sortzaile horiei, urtean behin gutxienik, 3.c oharrean adierazitako metodologiaren arabera, eta, hala badagokio, balorazioaren zuzenketa ere egiten da.

#### Beste ibilgetu ukiezin batzuk

Aktibo ukiezinak erosketa-kostuaren edo aplikatutako fabrikazioko kostu pilatuaren arabera baloratzen dira izakinen balorazio-arauen arabera (3.e oharra) aplikazio informatikoen eta arrakasta tekniko eta komertzialaren inguruko zalantzarik ez dagoen garapeneko proiektuen barneko garapenen kasuan.

Harreman komertzialen, bezeroen zorroaren eta marken jatorria, batez ere, negozioen konbinazioa izan da (Solaris, Euromaint, BWB eta Rifer erosi izana) eta hasiera batean arrazoizko balioaren arabera aitortzen dira eta erosketa-datan duten kostua esleitzen zaie (2.f oharra).

"Beste ibilgetu ukiezin bat"eko elementuen amortizazioa egiteko metodo lineala erabiltzen da, kalkulatutako bizitza baliagarriaren urte hauetako ehunekoak aplikatuta:

| | **Bizitza erabilgarrirako estimatutako urteak** |
|---|---|
| Harreman komertzialak eta bezeroen zorroa | 1,5 - 18 |
| Patenteak, lizentziak eta markak | 20 - Mugagabea |
| Garapen-gastuak | 5 |
| Aplikazio informatikoak eta beste batzuk | 2 - 10 |

Ikerketa-proiektuak erosten direnean (edo amaitzen direnean) hasi eta bost urteko epean amortizatzen dira, linealki, edo denbora-epe horretan lortu diren garapenarekin erlazionatutako kontratuen kosturik handien gisa berreskuratzen dira. Azken kasuan, izakinetara igortzen dira (7. oharra).

### b) Ibilgetu materiala

'Ibilgetu materiala' epigrafeko elementuak eroste-kostuan baloratzen dira. Hala badagokio, zenbait lege-xedapenek aldatuta dago kostua (besteak beste, abenduaren 5eko 11/1996 Foru Araua, aktibo horien kostuaren zatitzat jo izan dena, FINAren arabera), baita 1. FINAko alternatibak ere; horren arabera kostu-baliotzat jotzen da zenbait aktibo jakinentzat trantsizio-datako arrazoizko balioa.

Ondasunen produktibitatea, ahalmena edo eraginkortasuna areagotu edo haien bizitza baliagarria luzatzen duten zabaltzearen, modernizatzearen edo hobetzearen kostuak ondasun horien kostu handiago gisa kapitalizatzen dira.

Sozietate bateratuek beren ibilgetuan egindako lanak ekoizpen-kostu metatu gisa erregistratzen dira, izakinak zenbatesteko arauak aplikatuta (3.e oharra).

Ibilgetu materialeko elementuak metodo lineala erabiliz amortizatzen dira, kalkulatutako bizitza baliagarriaren urte hauetako ehunekoak aplikatuta:

| | Bizitza erabilgarrirako estimatutako urteak |
|---|---|
| Eraikinak | 25 - 50 |
| Instalazio teknikoak eta makinak | 3 - 10 |
| Garraio-elementuak (leasing-a) | 5 - 10 |
| Beste zenbait instalazio, tresna eta altzariak | 3 - 10 |
| Gainerako ibilgetua | 5 - 20 |

Erabiltzeko moduan egoteko urtebetetik gora behar duten ibilgetuei dagokienez, oro har, ondasuna martxan jarri aurretik sortutako eta hornitzaileak igorritako finantza-gastuak ere sartzen dira kapitalizatutako kostuetan, baita haren fabrikazio edo erosketari zuzenean egotz dakiokeen kanpoko finantzaketari (berariazkoa edo generikoa) dagozkionak ere.

**c) Aktiboen balio-narriadura**

Itxiera-datan, bere aktibo ez-korronteen balioa aztertzen du CAF taldeak, narriaduragatik galera-aztarnarik baduten jakiteko. Aztarnarik baldin badago, aktiboaren zenbateko berreskuragarriaren kalkulua egiten da, saneamenduaren kostua zehazteko, baldin eta haren beharrik izaten bada. Berreskura daitekeen zenbatekoa merkatuko balioa salmentako kostuaren eta erabilera balioaren arabera minoratutakoaren arteko handiena izaten da. Hori dela eta, etorkizunerako estimatutako kutxako fluxuen egungo balioa izaten da:

Balio berreskuragarriak efektiboa sortzen duen unitate bakoitzerako kalkulatzen dira, baina ibilgetu materialen kasuan, ahal den guztietan, narriadura-kalkuluak elementuz elementu, banaka, egiten dira.

Merkataritza-funts oso bat edo haren zati bat esleitu zaion eta efektiboa sortzen duen unitate baten narriaduragatiko galera aitortu behar denean, lehenengo eta behin, unitate horri dagokion merkataritza-funtsaren kontularitzako balioa murrizten da. Narriadura horrek zenbatekoa gaindituko balu, bigarrenik, haren kontularitzako balioaren proportzioaren arabera, efektiboa sortzen duen unitateko gainerako aktiboena gutxitzen da hurrengo hauen artean balio handiena duenaren mugara arte: haren arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak, erabilera-balioa eta zero.

Balio-narriaduragatiko galera bat gero itzultzen denean (gorabehera hori ez dago baimenduta merkataritza-funtsaren kasu espezifikoan), aktiboko liburuetako zenbatekoa edo eskudirua sortzen duen unitatearen zenbatekoa zenbateko berreskuragarriaren arabera berrikusitako estimazioaren arabera areagotzen da, baina handitutako liburuetako zenbateko horrek ezingo du inola ere gainditu aurreko ekitaldietan narriaduragatiko galerarik aitortuta ez balego liburutan zehaztuko zatekeen zenbatekoa. Balio-narriaduragatiko galeraren bihurketa hori sarrera gisa aitortzen da.

**d) Finantza-tresnak**

Taldeak, 9. FINAk finkatutako sailkatze-irizpideen arabera, finantza arloko tresnak kategoria hauetan sailkatzen ditu:

**Finantza-aktiboak**

Taldearen finantza-aktiboak, finantza-aktiboaren kontratu mailako efektiboaren fluxuek dituzten ezaugarrien eta finantza-aktiboak kudeatzeko negozio-ereduaren arabera, kategoria hauetan sailkatzen dira:

1. Finantza-kostuak amortizatutako kostuan

Kategoria honetan jasota daude kontratua gauzatzetik eratorritako efektiboaren fluxuak eta, data espezifikoetan, printzipaleko kobrantzak eta printzipal horrekiko interesak bakarrik diren eskudiruaren fluxuak eragiten dituzten kontratu mailako baldintzak jasotzeko helburuarekin mantendu diren finantza-aktiboak.

Aktibo horien hasierako balioa arrazoizko balioa izaten da, baina gerora amortizatutako kostuaren arabera baloratzen dira.

Taldeak hurrengo 12 hilabeteetarako aurrez ikusitako galera erreferentziatzat hartuta espero dituen kreditu mailako galerengatiko balio-narriadura kalkulatzen du. Salbuespena da kreditu-arriskua nabarmen areagotu izana eta, kasu horretan, hornidura kalkulatzeko, Taldeak aktiboaren bizitza-denbora hartzen du erreferentziatzat.

Narriadura hori kalkulatzeko, zordunen kreditu-kalitatea hartzen da erreferentziatzat, merkatuan eskuragarri dagoen informazioaren arabera (rating-ak) kalkulatuta eta eskuragarri dauden kobrantza-bermeen banakako azterketa egin ostean doituta.

Bestalde, Taldeak finantza-aktiboei baja ematen die aktiboaren jabetzako onura eta arrisku guztiak beste erakunde batera transferitzen dituenean edo aktiboaren fluxuekin lotutako kontratu-eskubideak iraungitzen direnean. 2019ko abenduaren 31n, Taldeak 60.639 mila euroko zenbatekoa duten kobratu beharreko kontuei eman die baja atxikitako egoera-balantze bateratutik (28.108 mila euro 2018ko abenduaren 31n) baliabiderik gabeko factoring-eko eragiketak direla eta.

2. Beste emaitza integral batean aldaketak dituzten arrazoizko balioaren araberako finantza-aktiboak

Kategoria horretan jasota daude Taldeak beste emaitza integral batean aldaketak dituen arrazoizko balioaren araberako finantza-aktibo gisa tratatzeko erabaki atzeraezina hartu duen ondare mailako tresnak.

Kategoria honetan jasotako finantza-aktiboak hasiera batean arrazoizko balioaren arabera kalkulatzen dira, transakzio-kostuak barne. Ondoren, beste emaitza integral batean aldaketekin arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira. Metatutako irabazia edo galera ez da emaitzen kontura transferitzen ondare-tresna horiek baja ematean. Sortutako dibidenduak irabazien eta galeren kontu bateratuko "Finantza-sarrerak" epigrafean erregistratzen dira.

Taldeak ondare-tresnetako inbertsio guztiak beste emaitza integral batean aldaketak dituzten eta arrazoizko balioaren arabera baloratutako inbertsio gisa izendatu ditu (9. oharra).

3. Finantza-aktiboak arrazoizko balioaren arabera irabazi eta galeren kontu bateratuan aldaketekin.

Kategoria horretan aitortuta daude beste bi kategoria horietan sartzeko ezaugarriak betetzen ez dituzten aktiboak. Kategoria honetan jasotako finantza-aktiboak, hasiera batean, haien arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira. Aurkakoa agerian geratzen denean izan ezik, transakzio-prezioa izango da eta entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren baliokidea izango da. Zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak ekitaldiko irabazi eta galeren kontu bateratuan aitortzen dira. Hasierako aitorpenaren ostean, kategoria horretako aktiboak arrazoizko balioan baloratzen dira irabazi eta galeren kontu bateratuan aldaketekin.

**Finantza-pasiboak**

Hasieran, merkatu-balioaren arabera baloratzen dira ordaindu beharreko kontuak, eta, ondoren, amortizatutako kostuaren arabera, interes efektiboko tasarekin. Taldeak finantza-pasiboei baja ematen die sortu dituzten obligazioak iraungitzen direnean.

Finantza-zorrak, hasiera batean, arrazoizko balioa ken eragindako transakzio-kostuak eginda aitortzen dira. Ondoren, finantza-zorrak kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira; lortutako funtsen (lortzeko beharrezkoak diren kostuen garbiak) eta itzulketa-balioaren artean egon daitekeen edozein alde emaitza-kontuan aitortzen da zorraren bizitza osoan interes efektiboko tasaren metodoaren arabera.

Betebeharrak baliogabetzen, ezeztatzen edo iraungitzen direnean bakarrik ematen die finantza-pasiboei baja Taldeak.

Finantza-tresna eratorriak

Kontratatutako obretako eta partaidetutako sozietateetako zenbait inbertsiotako estaldura-eragiketetan erabiltzen ditu Taldeak tresna horiek, truke-tasak aldatzeko arriskutik babesteko, eta bestalde, emandako maileguetako interes-tasak aldatzeko arriskutik babesteko (5 eta 17 oharrak).

Eratorritako finantza-tresnen arrazoizko balioa kalkulatzeko, kreditu-arriskua sartu dugu: pasiboaren eratorriei dagokiena eta aurkako alderdiarena aktiboko eratorrietan.

Finantza-deribatuak estaldurakotzat jotzeko behar diren irizpideak aztertu ditu Taldeak, baldintza hauek bete ahal izateko: (1) Hiru arrisku mota hauek estaltzea ("arrazoizko balioen estaldura", "eskudiru-fluxuen estaldura" edo "atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura"); (2) Estalitako elementu edo posizioari dagokion arriskua egoki kentzea aurrez ikusitako estaldura-epe osoan, eta (3) Finantza-eratorriaren kontratazioa espezifikoki saldo edo transakzio jakin batzuk estaltzeko balia daitekeela eta estaldura egokia neurtzeko eta lortzeko moduaren inguruan dokumentatzea; betiere, modu hori Taldeak hartzen dituen arriskuen kudeaketarekin koherentea baldin bada.

Finantza-arriskuak kudeatzeko helburuak eta politikak finkatu ditu CAF Taldeak, baita idatziz zehaztu ere deribatuen kontratazio-politika eta estaldura-estrategia.

Hasieran, eroste-balioaren arabera baloratzen dira finantza-tresna horiek. Ondoren, honela erregistratzen dira estaldura gisara sortu eta gauzatu diren finantza-tresna deribatuetako arrazoizko balioaren aldaketak:

– Arrazoizko balioaren estalduran, estaldura-elementuetan eta estalitako elementuetan sortutako diferentziak (estaltzen den arrisku motari dagokionez) honi erantsitako galeren eta irabazien kontu bateratuaren "Finantza-emaitza" epigrafean sartzen dira. Taldeak arrazoizko balioaren estaldura gisa obretarako kontratatutako estaldurak erregistratu ditu estaldura horietarako beharrezko baldintzak betetzen direnean (konpromiso irmoa izatea).

– Eskudiru-fluxuen estalduretan, ondarearen "Beste emaitza integral bat – Estaldura-eragiketak" epigrafean erregistratzen dira, behin-behingoz, estaldura-elementuetako estaldura eraginkorreko aldean sortutako balorazio-diferentziak. Irizpide hori erabiltzen du Taldeak estalitako arriskua konpromiso irmoa eta sinatua izan beharrean, etorkizunerako oso probablea den transakzioa denean eta interes-tasaren estalduretan. Gertatzea oso litekeena den transakzioa konpromiso irmo bihurtu ahala, lehendik ondarean onartutako zenbatekoak emaitza bezala birsailkatzen dira.

– Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, ondarearen 'Bihurtze-diferentziak' epigrafean erregistratzen dira, behin-behingoz, estaldura-elementuetako estaldura eraginkorreko aldean sortutako balorazio-diferentziak.

Finantza-pasiboen eta -aktiboen balorazioa mailen arabera banakatuta dago haien arrazoizko balioaren arabera 13. FINAk zehaztutako hurrengo hierarkiaren arabera:

– 1. maila: kotizazio-prezioak merkatu aktiboetan aktiboko eta pasiboko tresna berdinetarako.

– 2. maila: 1. mailan sartutakoen kotizazio-prezioarekiko ezberdinak diren datuak eta aktiboko edo pasiboko tresnarako kontuan har daitezkeenak zuzenean (hau da, prezioak) edo zeharka (hau da, prezioetatik eratorritakoak).

– 3. maila: merkatuko datu behagarrietan oinarrituta ez dagoen tresna aktiborako edo pasiborako datuak.

CAF Taldearen aktiboen eta pasiboen 2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko banakapena honako hau da (mila eurotan) hierarkia mailen arabera duten arrazoizko balioaren arabera baloratuta:

**2019ko ekitaldia**

| | 1. maila | 2. maila | 3. maila | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Aktiboak** | | | | |
| Ondare-tresnak (9.b oharra) | - | - | 24.911 | 24.911 |
| Eratorriak edo deribatuak (17. oharra) | - | 85.011 | - | 85.011 |
| Beste finantza-aktibo batzuk (13. oharra) | 60.564 | - | - | 60.564 |
| **Aktiboa, guztira** | **60.564** | **85.011** | **24.911** | **170.486** |
| **Pasiboak** | | | | |
| Eratorriak edo deribatuak (17. oharra) | - | 106.917 | - | 106.917 |
| Beste finantza-pasibo batzuk (15. oharra) | - | - | 12.110 | 12.110 |
| **Pasiboa, guztira** | **-** | **106.917** | **12.110** | **119.027** |

**2018ko ekitaldia**

| | 1. maila | 2. maila | 3. maila | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Aktiboak** | | | | |
| Ondare-tresnak (9.b oharra) | - | - | 22.834 | 22.834 |
| Eratorriak edo deribatuak (17. oharra) | - | 16.569 | - | 16.569 |
| Beste finantza-aktibo batzuk (13. oharra) | 59.281 | - | - | 59.281 |
| **Aktiboa, guztira** | **59.281** | **16.569** | **22.834** | **98.684** |
| **Pasiboak** | | | | |
| Eratorriak edo deribatuak (17. oharra) | - | 75.373 | - | 75.373 |
| Beste finantza-pasibo batzuk (15. oharra) | - | - | 8.656 | 8.656 |
| **Pasiboa, guztira** | **-** | **75.373** | **8.656** | **84.029** |

Eratorritako finantza-tresnen arrazoizko balioa beha daitezkeen merkatuko datuetan oinarritutako aldagaiak erabilita kalkulatu da batez ere (itxierako kanbio-tasak eta interes-tasaren kurbak).

Ondare-tresnen arrazoizko balioa kalkulatzeko metodo gisa Taldeak partaidetza bakoitzerako eskuragarri dauden datuen bolumenaren eta gorabeheren arabera egokiak diren balorazio-teknikak erabiltzen ditu, behagarriak diren elementu esanguratsuen erabilera maximizatzen saiatuta. Inbertsio horiek arrazoizko balioan baloratu ahal izateko, haietako bakoitzaren negozio-ereduak eta kontratu mailako baldintzak hartu dira kontuan, testuinguru ezberdinak ebaluatuta eta aditu independenteekin alderatutako beherapen-tasak erabilita (9.b oharra).

Kostu amortizatuan baloratutako finantza-aktibo eta -pasiboetarako, Taldeak uste du arrazoizko balioa ez dela nabarmen aldatzen kostu amortizatuaren baliotik, haien ezaugarriak kontuan hartuta.

### e) Izakinen balorazioa

Lehengaien eta beste zenbait hornikuntzen eta merkataritza-produktuen izakinak batez besteko erosketa-prezioan edo, txikiagoa balitz, balio garbi bihurgarrian zenbatesten dira.

Fabrikazio-bidean dauden produktuak, produktu bukatuak eta erdibukatuak dagoeneko likidatuta dauden kostuak kenduta (3.f oharrean deskribatutako prozeduraren arabera) eta irizpide hauei jarraituz zenbatetsiko dira:

– Obra bakoitzari egotzitako materialak eta gastuak batez besteko erosketa-prezioan edo ekoizpen-kostuan.

– Eraldatze-gastuak, eskulanaren kostuak eta zeharkako eta zuzeneko ekoizpen-gastuak barne hartzen dituzten ordu-tasa estandarren arabera (ez dira ordu-tasa errealen oso desberdinak).

– Saldu ahal izateko baldintzetan egoteko urtebete baino gehiagoko denbora-tartea behar duten izakinetarako, kostuak finantza-gastuak biltzen ditu.

### f) Sarreren eta emaitzen onespena

Taldeak iturri nagusi hauetako sarrerak aitortu ditu:

#### Eraikuntzako eta ingeniaritzako kontratuak

Trenen eta trakzio-ekipoen eraikuntza-kontratuei dagokienez, kontratu bakoitzari dagozkion sarrerak eta emaitzak horien aurrerapen maila kalkulatuaren arabera erregistratzeko irizpidea erabiltzen du Taldeak, oro har. Aurrez ikusitako ordu guztiekiko kontratuari egotzitako orduen ehunekoaren arabera kalkulatzen da aurrerapen maila hori, eta bateragarria da sistema hori aurrerapen maila aurrekontuko kostuen arabera zehaztu beharrean eragindakoen arabera finkatzen duten beste metodo batzuekin.

Kontratu bakoitzeko aurrez ikusitako emaitza jakitean, Taldeak indize zuzentzaile hauek aplikatzen ditu emaitzak eta sarrerak zehazteko:

– % 0 eta % 10 arteko aurrerapen mailarekin, ez da irabazirik edo sarrerarik erregistratzen, epe luzerako kontratuetan dagoen hasierako ziurgabetasunaren marjina aztertzeko.

– Aurrerapen maila % 10ekoa baino handiagoa denean, aurrerapen-maila horren baliokidea den irabazien eta sarreren ehunekoa erregistratzen da.

Obra zibileko eraikuntzako, seinaleztapeneko eta ingeniaritza-zerbitzuetako kontratuetarako, sarrera eta emaitzak horien inguruan aurrez ikusitako aurrerapen mailaren arabera erregistratzen dira. Horretarako, kontuan hartzen dira sortutako kostuak eta aurrekontuan sartutako guztizkoak.

Kontratatutako proiektuetan sor daitezkeen galerak zenbateko osoaz erregistratzen dira, galera horiek ezagutzen direnean edo zenbatets daitezkeenean.

Taldeak erreklamazioengatiko sarrerak bezeroak erreklamazioa onartu duenean eta kontratu mailako aldaketaren edo antzeko legezko izaera duen dokumenturen baten bidez aldaketaren onarpenaren ebidentzia dagoenean bakarrik erregistratzen ditu.

Izandako diru-sarreren eta kontratu bakoitzean aurrez ikusitako emaitzaren arabera (aurreko paragrafoetan adierazi bezala kalkulatuta), eta aurrerapen maila kontuan hartuta, izakinei baja ematen zaie, likidatutako kostuen zenbatekoaren arabera. Zenbateko hori dagokion galeren eta irabazien kontu bateratuan zordundu eta egoera-balantze bateratuko aktiboaren "Izakinak" epigrafean ordainduko da (11. oharra).

Azkenik, kontratu horietan eskaintzen diren bermeak, sektorekoak baino altuagoak ez direnez eta berme osagarriak ez direnez), laneko betebehar bakartzat hartzen dira entregatu beharreko ondasunak bezalaxe.

### Autobusen salmenta, errodajeak, ordezkoak eta birgaitze txikiak

Autobusen, errodajeen eta ordezkoen salmentetan eta birgaitze txikiagoetan, sarrera aktiboaren kontrola bezeroari transferitzen zaion eta erakundeak exekuzioaren betebeharra asebetetzen duen unean aitortzen da. Betebehar hori ondasuna entregatzen den denbora-puntua izaten da.

Autobusen kontratu batzuetan, berrerosketako aukerak (buyback izenekoak) daude. Kasu horietan, kontrola bezeroari transferitu zaion kasuz kasu aztertzen da. Kasu horietako transferentzia-irizpidea bezeroak aukera hori gauzatzeko pizgarri ekonomiko esanguratsurik baduen ala ez ikustean datza. Bezeroak berrerosketa-aukera erabiltzeko pizgarri ekonomikoa duela ulertzen bada, sarrera errentamendu operatibo gisa aitortzen da transakziotik hasi eta berrerosketa-aukeraren datara arteko epe osoan (3.m eta 21. oharrak).

Bezeroarentzat pizgarri ekonomikorik badagoen ondorioztatzeko kontuan hartzen den faktore nagusia honako hauen arteko alderaketa izaten da: berrerosketako prezioa eta une horretako autobus-merkatuak egindako balio-estimazioa.

Bezeroak aukera hori erabiltzeko pizgarri ekonomikorik ez duela ondorioztatuz gero, sarrera itzulketa-eskubidearekin salmenta-ereduaren arabera aitortzen da. Kasu horretan, sarreraren proportzio handi bat autobusa entregatzearekin batera aitortzen da. Gainera, itzulketa-pasiboa eta itzulera-eskubideengatiko aktiboa aitortzen dira egoera-balantze bateratuan. Azkenean autobusa itzuliko ez balitz aukera erabiltzeko datan, pasiboa sarrera gisa aitortzen da, eta aktiboa gastu gisa (21. oharra).

### Mantentze-lanetako kontratuak

Mantentze-lanekin lotutako sarrerak kontratuaren bizitza osoan aitortzen dira. Irizpide orokor gisa, sarrerak aipatutako denbora-tarte osoan modu linealean aitortzen dira, beste metodo batek une bakoitzean egindako lanaren ehunekoa hobeto islatzen duela agerian geratzen denean izan ezik. Hau da, hileroko fakturazio iraunkorra duten urte askotako proiektuetan, zerbitzua egiteko baliabideak linealak direnean, egindako fakturazioa sarreren baliokidea dela ulertzen da.

Baina denbora-aldi espezifikoetan konponketa handiak egin behar izanez gero, kontratua egiteko maila atzeratu eta jasotako fakturazioekin lotutako sarreren erregistroaren zati bat konponketa handiak egiten direneko aldietara geroratzen da.

Kasu horietan, alde hori honi erantsitako irabazi eta galeren kontu bateratuko "Negozio-zifraren zenbateko garbia" epigrafean erregistratzen da, eta ordainketa honi atxikitako egoera-balantze bateratuko (21. oharra) "Beste pasibo ez-korronte batzuk" epigrafean.

Finantza-aktiboekin lotutako sarrerak

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak aitortzeko, interes-tasa efektiboaren eta dibidenduen metodoa erabiltzen da akziodunak horiek jasotzeko duen eskubidea onartzen denean. Nolanahi dela ere, erosketa ondoren sortutako finantza-aktiboen interesak eta dibidenduak galera eta irabazien kontu bateratuko diru-sarreratzat aitortzen dira.

**g) Sarrerak aitortzearekin lotutako balantze-saldoak**

Sarreren aitorpena ez bezala, bezeroari fakturatutako zenbatekoen oinarria kontratuan ezarritako mugarriak eta horien gainean bezeroak egiten duen aitorpena izaten da. Hala, ekitaldi batean sarrera gisa aitortutako zenbatekoek ez dute zertan bezeroak fakturatutako zenbatekoekin bat etorri. Onartutako sarreren (3.f. oharra) eta horregatik fakturatutako zenbatekoaren arteko aldea honela erregistratzen da:

– Positiboa bada, "Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk - Salmenten araberako bezeroak eta zerbitzuak ematea" (12. oharra) epigrafe baitako "Kontratuko aktiboak" gisa.

– Negatiboa bada, "Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk – Beste hartzekodun batzuk" eta "Beste pasibo ez-korronte batzuk" ataletako "Kontratuko pasiboak" gisa (12. oharra)

**h) Zorren sailkapena: epe laburrekoak ('korrontea') eta luzekoak ('ez-korrontea')**

Aktibo eta pasibo korronteetan, aplikagarri den araudian ezartzen den moduan, konpainiaren ziklo normalaren zati direnez, egikaritze-epea hamabi hilabete baino gehiagoko epean gauza daitezkeen kontu-sailak sailkatzen dira (kontratuko aktiboak, kontratuko pasiboak eta hornidura korronteak). Kontu-sailak oso-osorik kontuan hartuta, administratzaileen estimazioen arabera, aktibo korronteak epe laburrean egingo dira batez ere eta, edonola ere, hamabi hilabetera baino gehiagora egin beharreko pasibo korronteek 12 hilabetera baino gehiagora egingo liratekeen aktibo korronteak gaindituko dituzte (12. eta 20. oharrak).

**i) Diru-laguntza ofizialak**

Jasotako diru-laguntzak zenbatesteko, irizpide hauek erabiltzen dituzte Taldeko sozietateek:

– Itzultzekoak ez diren kapitaleko diru-laguntzak diruz lagundutako aktiboaren balio txikien gisa erregistratzen dira, behin betiko ematen direnean, dagokien zenbatekoarekin, eta emaitzen kontura eramaten dira, diruz lagundutako aktiboen amortizazio-erritmoaren arabera.

– Ustiapeneko diru-laguntzei dagokienez, behin betiko ematen dituztenean eramaten dira emaitzen kontura.

**j) Enplegu osteko prestazioak**

Sozietate bateratuek erretiro edo heriotzengatik beren langileetako batzuekin dituzten obligazioak mantentzen ditu Taldeak, aseguru-konpainia independenteetan gordailatutako edo gordailatze bidean diren kanpo-funtsetako prestazio eta ekarpen jakin batengatiko prima ordainduta hornitzen dira. 2019an eta 2018an langileen kolektibo ugarietarako jarritako zenbatekoa 8.466 mila eta 8.543 mila eurokoa izan da. 2019ko eta 2018ko ekitaldietako irabazi eta galeren kontu bateratuetan konpromiso horiek izandako inpaktua 3.410 mila eta 3.308 mila eurokoa izan da "Pertsonaleko gastuak" epigrafearen kargura. 2018an, hipotesi aktuarialetan izandako aldaketak direla eta 5.816 mila euroko galera erregistratu da zuzenean ondare garbian irabazi eta galera aktuarialak direla eta (hipotesi aktuarialetan izandako aldaketekin lotutako galera 2.403 mila eurokoa izan zen 2018ko ekitaldian).

Sortzapen-printzipioari jarraiki, 2019ko abenduaren 31n, Taldeak 105 mila euroko zenbatekoa duen aktibo korrontea eta 597 mila euroko pasibo korrontea du erregistratuta egoera-balantze bateratuan, aditu independente batek kalkulatuta. Zenbateko hori zehaztutako prestazio-konpromisoen oraingo balioaren eta "aktibo atxikitzat" jotzeko beharrezko baldintzak

betetzen dituzten aktiboen arrazoizko balioaren arteko aldea da (268 mila euroko aktiboa 2018ko abenduaren 31n). Dagokion ekitaldiko emaitzen kontu bateratuan erregistratu behar dira hartutako konpromisoari gerora egiten zaizkion aldaketak (15. eta 23. oharrak).

Hirugarren independente batek eginiko azterketa aktuarialeko hipotesietan, merkatu mota bati deskontatu zaizkio etorkizuneko konpromisoak, betiere iraganeko soldata-igoeren antzekoen arabera.

Kokapen jakin batzuetako langile guztien urteko oinarrizko soldataren % 2,3ko ekarpena egin du erakunde kontrolatzaileak gizarte-aurreikuspeneko erakunde batera, indarrean den hitzarmen kolektiboaren arabera (23., 24. eta 25. oharrak).

Azkenik, hainbat mendeko sozietatek langileekin beste konpromiso batzuk dituzte haien herrialdeko legeek hala behartuta. Arrazoi hori dela medio "Hornidura ez-korronteak" eta "Hornidura korronteak" epigrafeetan erregistratutako horniketa, 2019ko abenduaren 31n, 6.319 eta 3.953 mila eurokoa zen, hurrenez hurren (3.946 eta 3.456 mila euro 2018ko abenduaren 31n - 20. oharra).

**k) Erretiro aurreratuak eta lana uzteagatiko kalte-ordainak**

2019ko abenduaren 31n, egoera-balantze bateratuko (honi erantsia) "Finantza-pasibo ez-korronteak – Beste finantza-pasibo batzuk" eta "Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk – Beste hartzekodun batzuk" epigrafeek 3.153 mila eta 2.712 mila euroko, hurrenez hurren, zenbatekoak zituzten (2018an, 3.408 mila eta 2.799 mila euro). Bat datoz zenbateko horiek 2019ko abenduan errelebo-kontratuak sinatuta zituzten langileei egin beharreko etorkizuneko ordainketekin, erakunde kontrolatzaileko administratzaileek egindako kalkuluen arabera. 2019ko hornidura horretara bideratutako hornidura honi atxikitako irabazi eta galeren kontu bateratuko (23. oharra) "Pertsonaleko gastuak" epigrafean erregistratu da eta 3.050 mila euroko zenbatekoa izan du ("Pertsonaleko gastuetara" bideratutako zenbatekoa 575 mila eurokoa izan zen 2018ko ekitaldian).

**i) Sozietateen gaineko zerga**

Sozietateen Gaineko Zerga eta atzerriko sozietate bateratuetako antzeko gainerako zergak galeren eta irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, ondare garbian zuzenean erregistratzen den transakzio baten ondorio ez badira behintzat; hala badira, ondare garbian erregistratzen da dagokion zerga ere.

Geroratutako zergarengatiko pasiboak onartzen zaizkie denbora-alde aplikagarri guztiei, salbu eta, oro har, merkataritza-funtsaren hasierako onespenetik sortua bada denbora-aldea. Bestalde, zerga geroratuarengatiko aktiboak (oinarri zergagarri negatiboekin, konpentsatzeko dauden kenkariekin eta denbora-aldeekin identifikatuak) kasu bakarrean onartzen dira: uste baldin bada erakunde bateratuek gerora izango dutela behar adina zerga-irabazirik (eskari-zorroak estaltzen duenik, alegia) haien kontura diru bihurtzeko. CAF Talde Bateratuan, eskaera-zorroak estaltzen duena jotzen da irabazi nahikotzat.

FINAen arabera, zerga geroratuarengatiko aktibo eta pasibo guztiak aktibo eta pasibo ez-korrontetzat sailkatu dira.

**m) Errentamenduak**

Taldea errentari gisa:

Kontratu bat errentamendua den edo errentamenduren bat duen aztertzen du Taldeak kontratuaren hasieran. Taldeak errentamendu-kontratu guztietarako aktiboan erabilera-eskubidea aitortzen du, eta hari dagokion pasiboa, epe laburreko edo balio baxukoen kasuan izan ezik. Kasu horietan, Taldeak errentamenduaren ordainketak gastu operatibo gisa aitortzen ditu modu linealean kontratuak iraun bitartean.

Errentamenduagatiko pasiboa hasiera batean hasierako datan ordaintzeke dauden errentamenduagatiko ordainketen uneko balioaren arabera baloratzen da, Taldearen maileguen interes-tasa gorakorraren arabera deskontatuta.

Honako hauek dira kalkuluan sartutako errentamenduagatiko ordainketak:

– Errentamenduaren ordainketa finkoak.

– Hondar-balioaren bermeengatik ordaindu beharreko esperotako zenbatekoa.

– Erosketa-aukera exekutagarrien zenbatekoa, haien exekuzioak probabilitate handia baldin badu, betiere.

– Errentamendua bertan behera uzteagatiko zigorren ordainketak, erabilitako epeak baliogabetze-aukera erabili izana islatzen badu.

Errentamenduagatiko pasiboa gerora baloratzen da, haren kontularitzako balioa handituta pasibo horren finantza-karga islatzeko (benetan izan den interes-tasaren metodoa erabilita) eta egindako ordainketengatik kontularitzako balioa murriztuta.

Taldeak errentamenduagatiko pasiboa berriz ebaluatzen du (eta erabilera-eskubideagatik dagokion doiketa egin dio aktiboari) kasu hauetan:

– Erosketa-aukera baten exekuzioaren gaineko balorazioa edo errentamenduaren epea aldatzen denean. Kasu horretan, errentamenduagatik pasiboa berriz kalkulatzen da berrikusitako deskontu-tasa erabilita.

– Etorkizuneko ordainketak aldatzen direnean indize baten aplikazioaren ondorioz edo hondar-balioan izandako aldaketaren ondorioz. Kasu horietan, errentamenduagatiko pasiboa berriz kalkulatzen da dagoen deskontu-tasa erabilita.

– Errentamendu-kontratu bat aldatzen denean edo errentamendu berritzat hartzen ez denean. Kasu horretan, errentamenduagatiko pasiboa berriz kalkulatzen da epe berria eta berrikusitako deskontu-tasa erabilita.

Erabilera-eskubideagatiko aktiboa honela osatzen da: errentamenduagatik pasiboaren hasierako balorazioa eta errentamenduaren hasieran aurrez egindako ordainketak. Horri kentzen zaio jasotako edozein pizgarri eta hasierako edozein kostu. Aktibo hori gerora baloratzen da, kostuari metatutako amortizazioa eta narriadurak kenduta.

Erabilera-eskubideengatiko aktiboak kontratuaren aldian amortizatzen dira. Aktiboak erosketa-aukeraren balioa islatzen badu, amortizazio-aldia errentan dagoen ondasunaren bizitza erabilgarria izango da. Amortizazioa errentamenduaren hasiera-datan hasten da.

Taldea errentatzaile gisa:

Taldea errentatzaile da autobusen kontratu batzuetan (3.f oharra). Jabetzaren arrisku eta irabaziak errentariari transmititzen zaizkiola kontratuan ezarrita dagoen errentamenduak finantza-errentamendutzat hartzen dira, eta gainerako kasuak errentamendu operatiboak dira.

Errentamendu operatiboen kasuan izandako sarrerak modu linealean onartzen dira errentamenduaren aldian. Errentamendu operatiboaren negoziazioan eta kontratuaren sinaduran sortutako hasierako zuzeneko kostuak errentan dagoen ondasunaren kontularitzako balioari gehitzen zaizkio eta modu linealean aitortzen dira errentamenduaren aldian zehar.

**n) Emakida administratiboak**

Emakida-kontratuak emakida ematen duen erakunde publikoaren eta CAF Taldeko sozietateen arteko akordioak dira eta horien bidez, zerbitzu publikoak eskaintzen dituzte; hala nola tren-lineen prebentziorako mantentze-lanak, zuzentzeko-lanak eta berrikuspenak. Horretarako, azpiegitura ustiatzen da. Bestalde, zerbitzua eskaintzetik etorritako diru-sarrerak erabiltzaileen eskutik edo, batzuetan, emakida emailea den erakundearen eskutik jasotzen dira. Erakunde horrek arautzen ditu zerbitzua ematearen prezioak.

Emakida-eskubideak, normalean, denbora-tarte jakin batean zerbitzua ustiatzeko monopolioa izatea esan nahi du. Aldi hori igarotakoan, zerbitzua eskaintzeko beharrezkoa den eta emakidari dagokion azpiegitura emakida-emaileari itzultzen zaio, normalean, ordainik gabe. Emakida-kontratuak azpiegituraren kudeaketa edo jarduera bere baitan hartzea ezinbesteko baldintza da. Era berean, kontratuaren indarraldian emakidaren zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren elementu guztiak eskuratzeko edo eraikitzeko betebeharra ere izaten da.

Emakida-kontratu horiek "Zerbitzuen emakida egiteko akordioak" 12. FINAIBan xedatutakoaren bidez erregistratzen dira. Oro har, bi fase argi bereizi behar dira. Lehenengoan, emakida-emaileak eraikuntza- edo hobekuntza-zerbitzuak eskaintzen ditu eta "Bezeroekin egindako kontratuetatik etorritako sarrerak" 15. FINA araua aintzat hartuta duen aurrerapen mailaren arabera aitortzen dira, aktibo ukiezin edo finantza-aktibo batean kontrapartidarekin eta, bigarren fasean, berriz, aipatutako

azpiegituraren hainbat mantentze- edo ustiapen-zerbitzu eskaintzen dira, eta horiek arau berean ezarritako moduan aitortzen dira.

Aktibo ukiezin bat aitortzen da emakidadunak demanda-arriskua bere gain hartzen duenean eta finantza-aktibo bat aitortzen da demanda-arriskua emakida-emaileak hartzen duenean bere gain. Emakidadunak kontratu-eskubide baldintzarik gabea du, eraikuntza- edo hobekuntza-zerbitzuen kobrantzak jasotakoan. Kostu amortizatuko emakiden finantza-aktiboa neurtzearen ondoriozko finantza-sarrera galera eta irabazien kontu bateratuko "Negozio-zifraren zenbateko garbia" epigrafean erregistratuta dago. Taldeak bateratutako emakidak (9. oharra) finantza-aktibotzat hartzen dira, erregistratzeko modu horretarako beharrezko baldintzak betetzen direlako.

## 4. ERAKUNDE KONTROLATZAILEAREN EMAITZAREN BANAKETA

Ekitaldiko emaitza aplikatzeko proposamena, erakunde kontrolatzaileko administratzaileek egin dutena eta Akziodunen Batzar Orokorraren onarpenaren mende egongo dena, honako hau da:

| Banaketa | Mila eurotan |
|---|---|
| **Banaketaren oinarria** | |
| Galera eta irabazien kontuko saldoa | 1.950 |
| Borondatezko erreserbak | 26.914 |
| | **28.864** |
| **Aplikazioa** | |
| Dibidenduetara | 28.864 |

## 5. FINANTZA-ARRISKUEN KUDEAKETA

CAF Taldea egiten dituen jarduerei eta lan egiten duen herrialde eta merkatu ugariei atxikitako hainbat arriskuren mende dago, eta bere helburuak lortzea eragotz dezakete horiek.

Arrisku horien artean, finantza-arriskuak daude: merkatuko arriskua (kanbio-tasaren arriskua, interes-tasaren arriskua eta lehengaien prezioen arriskua barne), kreditu-arriskua, likidezia- eta finantzaketa-arriskua.

Finantza-merkatuen ziurgabetasuna kudeatzeari arreta berezia jarri dio CAF Taldeak, eta saiatzen da Taldearen helburuak lortzeari dagokionez horrek eragin ditzakeen aurkako kalteak murrizten.

Taldearen Finantza Sailak finantza-arriskuen jarraipena eta kontrola identifikatzen, aztertzen, ebaluatzen, tratamendua definitzen eta egiten du, Administrazio Kontseiluak ezarritako finantza-arriskua kudeatzeko politika espezifikoen eta arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko politika orokorraren arabera.

### a) Merkatuko arriskua

Merkatuko arriskua Merkatuko Arriskuen Politikan ezarritako printzipioen arabera kudeatzen da CAF Taldean.

#### a.1) Eskudiruaren fluxuen eta arrazoizko balioaren interes-tasaren arriskua

Interes-tasaren arriskua merkatuko interes-tasetan gertatzen diren mugimenduen ondorioz Taldearen finantza-aktiboen edo -pasiboen balioan aldaketak gertatzea izaten da. Politikaren arabera, finantzaketa-eragiketak kostuari, epeari eta arriskuari dagokienez egoera egokian egiten dira. Uneoro hartzen da kontuan finantzaketa-iturri edo -tresnen aprobetxamendu egokia. Zehatzago esanda, interes-tasa finkoaren eta aldakorraren (gehienetan Euriborra) artean zortzapen-egitura orekatua mantentzea ezartzen da helburu gisa (eta merkatuek ahalbidetzen duten tokiraino). Horrekin lotuta, ezarritako baldintza da finantzaketa-kostuaren eta interes-tasen aldaketa-arriskuaren arteko balantze egokia mantentzea.

Horrekin lotuta, 2019ko abenduaren 31ko finantza-zorpetzearen zati handia honako bi hauekin lotuta zegoen: Brasilen eta Mexikon lortutako emakidekin (9 eta 16 oharrak); eta Taldeko erakunde kontrolatzaileak bere jarduera finantzatzeko duen zorrarekin eta Taldeko beste sozietate batzuek dutenarekin.

Brasilgo trenak alokatzeko sozietatearekin lotutako zorra Project Finance modalitatean egituratutako zorra da, Taldearen gainerako sozietateekiko baliabiderik gabea eta TJLPrekin erreferentziatua (Brasilgo Banku Zentralaren epe luzerako tasa). Mexikoko trenen alokairuko sozietateari lotutako zorrari dagokionez, berriz, Taldeak interes-tasaren swap bat kontratatu du maileguaren interes-tasaren erreferentzia aldakorra erreferentzia finko bihurtzeko, maileguaren zenbatekoaren % 80rekin eta zenbateko horren % 80ri eraginez.

Erakunde kontrolatzaileak 2019ko abenduaren 31n duen zorrari dagokionez, merkatuko interes-tasen aldaketaren mende 219 milioi euroko pasiboaren esposizioa du (205,8 milioi eurokoa zen 2018ko abenduaren 31n), eta 457,3 milioi eurokoa tasa finkoan (410,2 milioi eurokoa 2018ko abenduaren 31n). Zenbateko horietatik, 25 milioi euro finko bihurtu dira interes-tasaren eratorrien bidez (31,7 milioi euro 2018ko abenduaren 31n) (16. eta 17. oharrak). CAF Investment Projects SAU eta Solaris Taldea mendeko sozietateen zorra merkatuko interes-tasei erreferentziatuta dago (16. oharra).

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n zegoen saldoa kontuan hartuta, kanpoko baliabideen erreferentziatutako interes-tasen batez bestekoa oinarrizko 100 puntu handiagoa izan balitz gainerako aldagaiei bere horretan eutsita eta deskribatutako estaldura-politikak kontuan hartuta, finantza-zorretik etorritako finantza-gastua 5.937 eta 5.283 mila euro handituko zen hurrenez hurren eta gutxi gorabehera.

### a.2) Truke-tasaren arriskua

Nazioartean dihardute CAF Taldeko sozietateek eta, horrenbestez, truke-tasaren arriskupean daude, dibisekin eragiketak egiteagatik (une honetan, Amerikako dolarra, Brasilgo erreala, libera esterlina, Poloniako zloty-a, Suediako koroa, Australiako dolarra, Saudi Arabiako riala, Mexikoko pesoa, Japoniako yena, Kolonbiako pesoa, Zeelanda Berriko dolarra eta Hungariako florina, besteak beste).

Nazioarteko bere lanak direla eta Taldeak aurre egin behar dion kanbio-tasaren arriskua Merkatuko Arrisku Politikaren arabera kudeatzen da. Arrisku hori murriztera bideratutako hainbat estrategia aurrez ikusten du eta, horien artean, adibidez, hauek: finantza-estaldurak edo estaldura naturalak zehaztea, kanbio-tasen fluktuazio edo gorabeherak etengabe monitorizatzea eta beste neurri osagarri batzuk.

Politika horren printzipioek xedatutakoa betez, oro har, Taldeak hirugarren batzuei bideratzen die (kostua arrazoizkoa denean) Taldearen moneta funtzionalarekiko ezberdina den dibisatan artikulatutako kontratuetako kanbio-tasaren arriskua. Estaldura horien helburua sinatutako kontratuetan dibisen gorabeheren eragina saihestea da. Horri esker, Taldearen emaitzak bere jarduera industrialaren eta zerbitzuen isla zehatza izatea lortu nahi da. 2019ko abenduaren 31ko itxieran kanbio-tasa dela eta Brasilgo errealak % 10eko debaluazioa izan du euroaren aurrean eta horrek 2019ko ekitaldiko emaitzen kontu bateratuan izan duen eragina 5.554 mila euro galtzekoa izango litzateke (3.297 mila euro 2018ko abenduaren 31n). Era berean, libera esterlinak % 10eko debaluazioa izan du euroaren aurrean, eta itxierako kanbio-tasa dela eta, horrek 4.400 mila euroko irabazia eragin du.  Bestalde, Solaris Bus & Coach SA Taldeko sozietateak 6.381 mila euroko irabazia eskuratuko zukeen bere moneta funtzionalak (Poloniako zlotya) % 10eko debaluazioa jasango balu euroaren aurrean 2019ko abenduaren 31ko itxierako kanbio-tasa oinarritzat hartuta (4.429 mila eurokoa izan zen 2018ko abenduaren 31n). Aipatutako kanbio-tasaren aldaketa horrek aurkako eragina izango luke Poloniako zlotyetan adierazitako atzerriko inbertsio garbiaren gainean. Gainerako dibisek emaitza-kontuan duten eragina ez da esanguratsua.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, Taldea moneta funtzionala euroa ez den filialetako inbertsio garbiaren gaineko kanbio-tasaren arriskuaren mende dago Estatu Batuetako dolarraren kasuan izan ezik, harekiko esposizioa partzialki estalita baitago.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n euroa ez den beste moneta funtzionalen bat duten mendeko sozietateetako aktiboen eta pasiboen kontrabalioa, milaka eurotan, banakapen honen araberakoa da:

| | Kontrabalioa mila eurotan | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2019/12/31 | | | 2018/12/31 | | |
| **Dibisa** | **Aktiboak** | **Pasiboak** | **Esposizio garbia** | **Aktiboak** | **Pasiboak** | **Esposizio garbia** |
| Txileko pesoa | 16.502 | 13.536 | 2.966 | 27.615 | 24.547 | 3.068 |
| Mexikoko pesoa | 248.779 | 226.582 | 22.197 | 145.372 | 124.414 | 20.958 |
| Argentinako pesoa | 628 | 275 | 353 | 980 | 492 | 488 |
| Brasilgo erreala | 430.845 | 262.100 | 168.745 | 451.589 | 265.408 | 186.181 |
| Estatu Batuetako dolarra (3.d oharra) (*) | 535.861 | 288.320 | 49.843 | 557.795 | 304.907 | 47.284 |
| Britainiar libera | 131.930 | 75.939 | 55.991 | 91.805 | 35.972 | 55.833 |
| Aljeriako dinarra | 5.868 | 3.179 | 2.689 | 4.540 | 2.641 | 1.899 |
| Turkiako lira | 3.691 | 1.856 | 1.835 | 4.139 | 2.578 | 1.561 |
| Bolivarra | 65 | 62 | 3 | 59 | 59 | - |
| Indiako errupia | 9.115 | 689 | 8.426 | 8.509 | 83 | 8.426 |
| Australiako dolarra | 21.375 | 20.738 | 637 | 1.091 | 964 | 127 |
| Kolonbiako pesoa | 1.335 | 946 | 389 | 2.126 | 1.589 | 537 |
| Saudi Arabiako riyala | 18.976 | 13.858 | 5.118 | 12.134 | 8.388 | 3.746 |
| Zeelanda Berriko dolarra | 10.792 | 8.381 | 2.411 | 5.675 | 3.896 | 1.779 |
| Errumaniako leua | 320 | 194 | 126 | 307 | 187 | 120 |
| Taiwaneko dolar berria | 12.641 | 6.518 | 6.123 | 13.224 | 7.409 | 5.815 |
| Hungariako florina | 602 | 330 | 272 | 625 | 380 | 245 |
| Japoniako yena | 110 | 7 | 103 | 1.141 | 1.056 | 85 |
| Maurizioko errupia | 4.240 | 4.015 | 225 | 1.491 | 1.476 | 15 |
| Poloniako zlotya | 727.233 | 491.445 | 235.788 | 659.046 | 419.945 | 239.101 |
| Suitzako frankoa | 10.116 | 6.952 | 3.164 | 4.275 | 1.689 | 2.586 |
| Norvegiako koroa | 7.016 | 9.656 | (2.640) | 5.545 | 8.606 | (3.061) |
| Suediako koroa | 215.929 | 163.282 | 52.647 | 7.047 | 6.070 | 977 |
| Uruguaiko pesoa | 1 | - | 1 | | | |
| **Guztira** | **2.413.970** | **1.598.860** | **617.412** | **2.006.130** | **1.222.756** | **577.770** |

(*) 2019ko abenduaren 31n, atzerriko inbertsio garbiaren estaldurak (17. oharra) 197.698 mila euroko zenbatekokoak dira ekitaldiaren amaierako kanbio-tasa aplikatuta (205.604 mila eurokoak 2018ko abenduaren 31n).

Dibisa guztien % 10eko guztizko igoera edo murrizketa dela eta, Taldearen ondare garbiko eragina 61.741 mila eurokoa izan da 2019ko abenduaren 31n (57.777 mila eurokoa 2018ko abenduaren 31n), zerga-inpaktua kontuan hartu aurretik.

Hona hemen atzerriko moneta duten mendeko sozietateen saldo nagusien banakapena, kontu-sailen ezaugarrien arabera:

| | Kontrabalioa mila eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2019/12/31 | | 2018/12/31 | |
| **Saldoen izaera** | **Aktiboak** | **Pasiboak** | **Aktiboak** | **Pasiboak** |
| Merkataritza-funtsa | 108.804 | - | 101.620 | - |
| Beste ibilgetu ukiezin batzuk | 165.940 | - | 156.466 | - |
| Ibilgetu materiala | 233.290 | - | 184.733 | - |
| Finantza-ibilgetua eta zerga geroratu aktiboak | 551.017 | - | 513.249 | - |
| Beste aktibo ez-korronte batzuk | 7.208 | - | 2.684 | - |
| Izakinak | 384.954 | - | 314.042 | - |
| Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | 711.857 | - | 544.254 | - |
| Beste finantza-aktibo korronte batzuk | 88.966 | - | 50.703 | - |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | 161.934 | - | 138.379 | - |
| Pasibo ez-korrontea | - | 639.069 | - | 503.645 |
| Pasibo korrontea | - | 959.791 | - | 719.111 |
| **Guztira** | **2.413.970** | **1.598.860** | **2.006.130** | **1.222.756** |

a.3) Lehengaien prezioen arriskua

Lehengai nagusiei dagokienez, proiektu berri bakoitza indarrean sartzean egiten ditu eskariak eta hitzartzen du prezioa Taldeak. Horri esker, lehengaien prezioek izan dezaketen goranzko bilakaerak kontratuko marjinetan modu negatiboan eragina izateko arriskua estal dezake.

**b) Kreditu-arriskua**

Kobratu beharreko kontu eta egiten ari garen lanik gehienak hainbat herrialdetako bezeroei dagozkie. Kasu gehienetan, proiektuak aurrera egin ahala hainbateko ordainketak agintzen dituzte kontratuek.

Ohiko jarduera da Taldeak esportazio-kontratuak bertan behera uzteko edo ez ordaintzeko zenbait arrisku bermatzea. Horretarako, esportaziorako aseguru-polizak kontratatzen dira, ELGAko Hitzarmenak gai horietarako dituen arauen arabera. Estaldura egiteko edo ez egiteko erabakia, bezero motaren eta lan egiten duen herrialdearen arabera hartzen da.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, Taldeak kreditu-aseguruen bidez kobratu beharreko bezeroen kontuen zati bat bermatua du; atzerriko hainbat herrialdetako lanei dagozkie kobrantza horiek eta haietako bakoitzaren arriskua kontuan hartuta dago (12. oharra).

**c) Likidezia-arriskua eta finantzaketa**

Likidezia eta Finantzaketa Politikak xedatzen duen moduan, likidezia- eta finantzaketa-arriskuaren kudeaketak bere gain hartutako betebeharretatik eratorritako ordainketa-konpromisoak bermatzea, finantzaketa-egitura optimizatzea eta Taldearen soberakinen behar bezala kudeaketa babestea eskatzen du epe luzerako estrategiaren baitan (14.h eta 16 oharrak).

Likidezia- eta finantzaketa-arriskua mekanismo hauen bidez kudeatzen da CAF Taldean:

– Autofinantzaketako ahalik eta maila handieneko negozio-aukerak bilatzea eta hautatzea merkatuetako baldintzen barruan kontratu bakoitzerako. Ibilgailuen fabrikazio-proiektuetan (haiek gauzatzeko batez besteko aldia, gutxi gorabehera, hiru urtekoa izaten da), fakturazioko eta lanak gauzatzeko helburuak baliteke ez egotea denborari dagokionez lerrokatuta eta horrek beti finantza-baliabideen kontsumoa ekartzen du.

– Zirkulatzailearen kudeaketa aktiboa ezartzea eta mantentzea kontratatutako proiektu bakoitzeko fakturazioko helburuen betetze mailari modu iraunkorrean jarraituta.

– Epe laburrera, likidezia-posizio sendoari eustea.

– Erabili gabeko finantzaketa-ahalmen soberakinari eutsiz

**d) Brexita, finantza-arriskuetan duen eragina**

2016ko ekainean Brexita bat-batean sartu zenean Taldearen negozio-lerro ugarietan horrek izango lituzkeen ondorio eta eraginen inguruko azterketa egiteko beharra sortu zen. Azterketa haren ondoren, eraginak kudeatzea eta haiei aurre hartzea ahalbidetu duten mekanismoak aktibatu ziren.

Inpaktu handieneko ondorioen artean, zorroan dauden kontratuetako operazio-arriskuak (2019ko abenduaren 31n, horien balioa 1.600 milioi euro baino handiagoa zen) eta etorkizuneko lizitazioak identifikatu ziren. Bloke jakin horren kasuan, aduanekin eta/edo muga-zergekin lotutako izapidetzeetan gertatutako aldaketak eta Brexitarekin lotutako denbora mailako epemuga eta agertoki ugarietarako pertsonen mugimenduak zirela eta eragina izan zezaketen proiektuak identifikatu eta aztertu zituzten eta, ondorioz, une bakoitzerako jarduera-neurri egokiak finkatu.

Era berean, CAFek lan egiten duen gainerako herrialdeetan bezalaxe, finantza-arriskuekin lotutako inpaktuak aztertu zituzten. Libra esterlinarako truke-tasaren arriskuari dagokionez, izan dezakeen inpaktua aurreko a.2) atalean dago jasota eta, LIBOR interes-tasaren arriskuari dagokionez, ez dago esposiziorik.

Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da Brexitaren ondorioak arintzeko sortutako ekintza-planak eta neurriak etengabeko jarraipen eta kontrolarekin ari direla lantzen.

## 6. SEGMENTAZIOA

**a) Segmentazio-irizpideak**

Hona hemen urteko kontu bateratuetan CAF Taldeak informazio segmentatua aurkezteko irizpideak:

– Segmentazioa negozio-unitateen arabera egin zen, "Trenen arloa" eta "Autobusak" bereizita. Azken hori Solaris erosi izanaren (2.f oharra) ondorio da.

– Gainera, irizpide geografikoen, eta produktuen eta zerbitzuen taldearen araberako informazioa ere bildu da.

**b) Segmentukako informazioaren oinarriak eta metodologia**

Segmentuari zuzenean dagozkionak dira haren ohiko sarrera eta gastuak; hortaz, ez da sartu inbertsio-salmenten, berreskuratze-eragiketen edo zor-amaierako eragiketen interes, dibidendu, irabazi eta galerarik. Segmentuen aktiboek eta pasiboek lotura zuzena dute haren ustiapenarekin edo jarduera horretara zuzendutako sozietateetako partaidetzarekin.

Segmentazio nagusirako oinarriak Nazioarteko Araudiaren (8. FINA "Segmentu operatiboak") arabera aztertu ondoren, segmentu nagusitzat sailkatu ditu CAF Taldeak izan dituen bi negozio-unitateak, haien antolakuntza-egitura, kudeaketa eta administrazio- eta zuzendaritza-organoetarako barne-informazioko sistema direla eta, eragiketak negozio-unitate batean edo bestean (produktuen eta lotura duten zerbitzuen multzoa) egitearen araberakoak baitituzte arriskuak eta emaitzak. Azken batean, segmentazioaren bidez identifikatzen dira CAF Taldeko zenbait osagai identifikagarri, beste ingurune batzuetan diharduten eragiketa-osagaiek ez bezalako arrisku eta errendimenduak dituztenak hain justu ere.

Hurrengo segmentu nagusien sorreran eragina izan du Taldeak. CAFen iritziz, segmentu horiek betetzen dituzte barneko homogeneotasuneko arauak baldintza ekonomiko edo politikoen kidetasunari dagokionez, baita aplikagarri diren erregulazioek, truke-tasak edo jardueren hurbiltasunak eragiten dituzten arriskuei dagokienez ere.

– Trenak

– Autobusak

Jarraian, informazio hori negozio-segmentuen arabera azaltzen da:

| | 2019 (mila eurotan) | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Negozio-unitatearen araberako segmentazioa** | **Trenak** | **Autobusak** | **Orokorra** | **Segmentuen artekoak** | **Guztira** |
| Kanpoko salmentak | 1.947.550 | 650.105 | - | - | 2.597.655 |
| Segmentuen arteko salmentak | 3.433 | - | - | (3.433) | - |
| **Salmentak, guztira** | **1.950.983** | **650.105** | **-** | **(3.433)** | **2.597.655** |
| **Doitutako EBITDA** | **204.193** | **39.505** | **-** | **-** | **243.698** |
| Ibilgetuaren amortizazioak (7 eta 8 oharrak) | (54.991) | (25.676) | - | - | (80.667) |
| Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta eragina (Gastua) (7, 8 eta 9 oharrak) | (51) | (114) | - | - | (165) |
| **Doitutako ustiapen-emaitza** | **149.151** | **13.715** | **-** | **-** | **162.866** |
| Kontu-sail ez-errepikakorrak (26. oharra) | (37.872) | - | - | - | (37.872) |
| **Ustiapenaren emaitza** | **111.279** | **13.715** | **-** | **-** | **124.994** |
| Finantza arloko emaitza | (32.739) | (12.100) | (17.068) | - | (61.907) |
| Enpresa elkartuen partaidetza irabazi garbietan | (1.921) | (28) | - | - | (1.949) |
| **Zergen aurreko emaitza** | **76.619** | **1.587** | **(17.068)** | **-** | **61.138** |
| Irabazien gaineko zerga | | | | | (36.048) |
| **Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldiko emaitza garbia** | | | | | **25.090** |
| Partaidetza ez-kontrolatuei egotzitako emaitza | | | | | 345 |
| **Erakunde kontrolatzaileari egotzitako emaitza** | | | | | **24.745** |
| | | | | | |
| **AKTIBOAK** | **3.035.005** | **740.167** | **547.645** | **9** | **4.322.826** |
| **PASIBOAK** | **2.216.639** | **494.649** | **865.471** | **700** | **3.577.459** |
| | | | | | |
| Ibilgetu ukiezineko eta materialeko gehikuntzak (7. eta 8. oharrak) | 69.343 | 10.194 | - | - | 79.537 |

| | 2018 (Mila eurotan) | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Negozio-unitatearen araberako segmentazioa** | **Trenak** | **Autobusak** | **Orokorra** | **Segmentuen artekoak** | **Guztira** |
| Kanpoko salmentak | 1.887.731 | 160.688 | - | - | 2.048.419 |
| Segmentuen arteko salmentak | - | - | - | - | - |
| **Salmentak, guztira** | **1.887.731** | **160.688** | **-** | **-** | **2.048.419** |
| **Doitutako EBITDA** | **192.916** | **8.562** | **-** | **-** | **201.478** |
| Ibilgetuaren amortizazioak (7 eta 8 oharrak) | (38.583) | (8.155) | - | - | (46.738) |
| Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta eragina (Gastua) (7, 8 eta 9 oharrak) | (10.703) | 131 | - | - | (10.572) |
| **Doitutako ustiapen-emaitza** | **143.630** | **538** | **-** | **-** | **144.168** |
| Kontu-sail ez-errepikakorrak | - | - | - | - | - |
| **Ustiapenaren emaitza** | **143.630** | **538** | **-** | **-** | **144.168** |
| Finantza arloko emaitza | (47.184) | (4.551) | (11.455) | - | (63.190) |
| Enpresa elkartuen partaidetza irabazi garbietan | (488) | 85 | - | - | (403) |
| **Zergen aurreko emaitza** | **95.958** | **(3.928)** | **(11.455)** | **-** | **80.575** |
| Irabazien gaineko zerga | | | | | (40.955) |
| **Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldiko emaitza garbia** | | | | | **39.620** |
| Partaidetza ez-kontrolatuei egotzitako emaitza | | | | | (3.842) |
| **Erakunde kontrolatzaileari egotzitako emaitza** | | | | | **43.462** |
| **AKTIBOAK** | **2.734.913** | **674.343** | **596.694** | **11** | **4.005.961** |
| **PASIBOAK** | **2.033.208** | **421.995** | **793.486** | **5** | **3.248.694** |
| Ibilgetu ukiezineko eta materialeko gehikuntzak (7. eta 8. oharrak) | 78.220 | 2.771 | - | - | 80.991 |

Erabilera orokorreko aktiboak eta pasiboak eta haiek sortutako emaitzak (horien artean, aipatu beharrekoak dira erakunde kontrolatzailearen finantza-zor garbiaren kontu-sailak eta zerga geroratuekin eta korronteekin lotutako aktibo eta pasiboak) ez dira gainerako segmentuetara esleitu. Era berean, ez dira esleitu berdinkatze-sailak ere, negozio-unitateetako finantza-egoerak (kudeaketa-irizpideekin eginak) CAF Taldeko finantza-egoera bateratuekin elkartzearen emaitzek sortzen dituztenak alegia.

Eskainitako zerbitzu moten eta produktu-taldearen araberako salmenten banaketa honako hau da (mila eurotan):

| | **2019** | **2018** |
|---|---|---|
| Abiadura handia | 11.905 | 33.121 |
| Eskualdekoak eta aldirietakoak | 549.743 | 738.456 |
| Metroak | 202.760 | 317.307 |
| Tranbiak eta metro arinak | 408.131 | 174.743 |
| Bogieak, birgaitze-lanak eta beste batzuk | 28.549 | 51.541 |
| **Trenak** | **1.201.088** | **1.315.168** |
| **Zerbitzuak** | **454.939** | **362.096** |
| **Autobusak** | **650.105** | **160.688** |
| **Errodajeak eta osagaiak** | **91.678** | **83.821** |
| **Gainerakoak (*)** | **199.845** | **126.646** |
| **Guztira** | **2.597.655** | **2.048.419** |

(*) Batez ere, obra zibileko eraikuntzako, seinaleztapeneko eta ingeniaritzako kontratuekin lotutako sarrerak.

Hauxe da informazioa irizpide geografikoen arabera banatuta:

a) 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, eremu geografikoen araberako salmenten banaketa honako hau da (milaka eurotan), herrialde esanguratsuenak barne (guztizko salmenten % 5 baino gehiago biltzen dutenak):

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Erresuma Batua | 358.755 | 480.198 |
| Espainia | 285.628 | 236.646 |
| Holanda | 242.327 | 249.780 |
| Alemania | 183.603 | 60.142 |
| Polonia | 165.155 | 40.950 |
| Belgika | 144.017 | 78.789 |
| Suedia | 139.490 | 2.365 |
| Europar Batasuneko gainerako tokiak | 316.888 | 125.622 |
| **Europar Batasuna** | **1.835.863** | **1.274.492** |
| Mexiko | 90.494 | 239.690 |
| Beste batzuk | 671.298 | 534.237 |
| **Munduko gainerako tokiak** | **761.792** | **773.927** |
| **Guztira** | **2.597.655** | **2.048.419** |

2019ko ekitaldian, bezero batek ere ez zuen Taldearen negozio-zifraren zenbateko garbiaren % 10 bildu. 2018ko ekitaldian, bi bezerok bildu zuten Taldearen negozio-zifraren zenbateko garbiaren % 11 eta % 10.

b) Ibilgetu materialean egindako inbertsio garbiak, eremu geografikoen arabera, 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n (mila eurotan):

| Eremu geografikoa | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Espainia | 203.670 | 171.378 |
| Polonia (*) | 100.122 | 101.389 |
| Munduko gainerako tokiak | 145.471 | 92.317 |
| **Guztira** | **449.263** | **365.084** |

(*) Herrialde hartan operazioan ez dauden errentamendu operatiboko autobusak biltzen ditu.

## 7. IBILGETU UKIEZINA

### a) Merkataritza-funtsa

Merkataritza-funtsaren mugimendua honako hau izan da 2019ko eta 2018ko ekitaldietan:

**2019ko ekitaldia**

| | Mila eurotan | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Saldoa 2018/12/31n** | **Aurretiazko merkataritza-funtseko doiketak - (2.f oharra)** | **Saldoa 2019/01/01ean doituta** | **Bateratze-perimetroko aldaketak (2.f oharra)** | **Narriadurak** | **Bihurketako aldeak** | **Saldoa 2019/12/31n** |
| BWB Holdings Limited | 8.038 | - | 8.038 | - | (2.680) | 335 | 5.693 |
| Solaris | 93.582 | (1.186) | 92.396 | - | - | 955 | 93.351 |
| Euromaint | - | - | - | 9.736 | - | 24 | 9.760 |
| Gainerakoa | 207 | - | 207 | - | - | - | 207 |
| **Guztira** | **101.827** | **(1.186)** | **100.641** | **9.736** | **(2.680)** | **1.314** | **109.011** |

Euromainteko merkataritza-funtsa oso-osorik trenen segmentuari esleitu zaio (2.f eta 6. oharrak).

**2018ko ekitaldia**

| | Mila eurotan | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Saldoa 2017/12/31n** | **Aurretiazko merkataritza-funtseko doiketak - Transferentziak (2.f oharra)** | **Saldoa 2018/01/01ean doituta** | **Bateratze-perimetroko aldaketak (2.f oharra)** | **Narriadurak** | **Bihurketako aldeak** | **Saldoa 2018/12/31n** |
| Rifer, S.R.L. | 4.265 | (2.887) | 1.378 | - | (1.186) | - | 192 |
| BWB Holdings Limited | 19.844 | (11.497) | 8.347 | - | - | (309) | 8.038 |
| Solaris | - | - | - | 93.622 | - | (40) | 93.582 |
| Gainerakoa | 15 | - | 15 | - | - | - | 15 |
| **Guztira** | **24.124** | **(14.384)** | **9.740** | **93.622** | **(1.186)** | **(349)** | **101.827** |

Solarisen merkataritza-funtsa oso-osorik autobusen segmentuari esleitu zaio (2.f eta 6. oharrak).

2019ko ekitaldian, BWB Holdings Ltd eta Solaris sozietateen merkataritza-funtsak berreskuratzeko aukerari buruzko testa egin da. Berreskuragarritasuneko test horretarako erabilitako parametro nagusiak honako hauek dira:

| | **Solaris** | **BWB Holdings Limited** |
|---|---|---|
| 2019/01/01ean doitutako kontularitzako balio garbia (mila eurotan) | 92.396 | 8.038 |
| Balio berreskuragarria zehazteko adierazgarritzat hautatutako balioa | Erabiltzen den balioa | Erabiltzen den balioa |
| Eskudiruaren fluxuetan kalkulatutako urte kopurua | 6 | 5 |
| Erabilitako epe luzerako hazkunde-tasa | % 1,5 | % 2 |
| Aplikatutako beherapen-tasa (*) | % 8,6 | % 10,4 |

(*) Zergen ondorengo beherapen-tasa.

Proiekzioak efektiboa sortzen duen unitate bakoitzerako prestatzen dira iraganeko esperientzia eta eskuragarri dauden estimazio onenak aintzat hartuta. Sozietatearen negozio-planen araberakoak izaten dira horiek. Honako hauek dira elementu nagusiak:

– Emaitzen proiekzioak.

– Inbertsioen eta kapital zirkulatzailearen proiekzioak.

Hona hemen bi sozietate horien enpresa-balioaren araberako sentsibilitate-azterketa ereduan erabilitako onarpen nagusietan izandako aldaketak aintzat hartuta:

| **Datuak mila eurotan** | **Solaris** | | **BWB Holdings Limited** | |
|---|---|---|---|---|
| | -100 p.b. | +100 p.b | -100 p.b | +100 p.b. |
| Hazkunde-tasa: | -6.658 | 8.857 | -1.405 | +1.783 |
| Beherapen-tasa: | +88.998 | -67.042 | +3.048 | -2.377 |

Azterketa horren ostean, BWB Holdings Limited-en merkataritza-funtsetik 2.680 mila euro narriatu dira honi atxikitako irabazi eta galeren kontuko "Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta eragina" epigrafean zordunduta. Solarisen kasuan, zenbatetsitako enpresaren balioa handiagoa da liburuetako balioarekin alderatuta, baita aurrez erakutsitako sentikortasunaren analisiaren egoera okerrenean ere.

**b) Beste ibilgetu ukiezin batzuk**

Hona hemen 2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian "Beste ibilgetu ukiezin bat" epigrafeko kontuetan eta dagozkien metatutako amortizazioetan izandako mugimendua:

| | **Mila eurotan** | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Harreman komertzialak eta bezeroen zorroa** | **Patenteak, lizentziak eta markak** | **Garapen-gastuak** | **Aplikazio informatikoak eta beste batzuk** | **Guztira** |
| **Kostuaren saldoa, 2018/12/31n** | **26.356** | **113.042** | **170.549** | **36.861** | **346.808** |
| Aldaketak Bateratze-perimetroan | 18.466 | - | 308 | 5.144 | 23.918 |
| Sarrerak edo hornidurak | - | - | 20.242 | 10.975 | 31.217 |
| Transferentziak | - | - | 2.210 | 1.145 | 3.355 |
| Izakinetara egindako transferentziak | - | - | (344) | - | (344) |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | - | - | (1) | (24) | (25) |
| Bihurketako aldeak | 803 | 1.220 | 197 | 229 | 2.449 |
| **Kostuaren saldoa, 2019/12/31n** | **45.625** | **114.262** | **193.161** | **54.330** | **407.378** |
| **Amortizazio metatuaren saldoa, 2018/12/31n** | **(2.642)** | **(1.926)** | **(89.244)** | **(20.516)** | **(114.328)** |
| Sarrerak edo hornidurak | (2.569) | (5.589) | (13.682) | (4.678) | (26.518) |
| Transferentziak | - | - | 90 | (1.145) | (1.055) |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | - | - | - | 10 | 10 |
| Bihurketako aldeak | (120) | (74) | (36) | (55) | (285) |
| **Amortizazio metatuaren saldoa, 2019/12/31n** | **(5.331)** | **(7.589)** | **(102.872)** | **(26.384)** | **(142.176)** |
| **Balioaren narriadura-saldoa, 2018/12/31n** | **-** | **-** | **(25.932)** | **(13)** | **(25.945)** |
| 2019ko hornidura | - | - | - | (16) | (16) |
| 2019ko transferentziak | - | - | - | - | - |
| **Balioaren narriadura-saldoa, 2019/12/31n** | **-** | **-** | **(25.932)** | **(29)** | **(25.961)** |
| **Garbia, 2019/12/31n** | **40.294** | **106.673** | **64.357** | **27.917** | **239.241** |

Hona hemen 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian "Beste ibilgetu ukiezin bat" epigrafeko kontuetan eta dagozkien metatutako amortizazioetan izandako mugimendua:

| | Mila eurotan | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Harreman komertzialak eta bezeroen zorroa** | **Patenteak, lizentziak eta markak** | **Garapen-gastuak** | **Aplikazio informatikoak eta beste batzuk** | **Guztira** |
| **Kostuaren saldoa, 2017/12/31n** | **-** | **68** | **133.387** | **25.030** | **158.485** |
| Aldaketak Bateratze-perimetroan | 9.537 | 111.215 | 13.931 | 7.385 | 142.068 |
| Sarrerak edo hornidurak | - | - | 23.655 | 4.513 | 28.168 |
| Transferentziak | 16.962 | 1.821 | 80 | (12) | 18.851 |
| Izakinetara egindako transferentziak | - | - | (497) | - | (497) |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | - | - | - | (13) | (13) |
| Bihurketako aldeak | (143) | (62) | (7) | (42) | (254) |
| **Kostuaren saldoa, 2018/12/31n** | **26.356** | **113.042** | **170.549** | **36.861** | **346.808** |
| **Amortizazio metatuaren saldoa, 2017/12/31n** | **-** | **(59)** | **(77.249)** | **(18.115)** | **(95.423)** |
| Aldaketak Bateratze-perimetroan | (698) | - | - | - | (698) |
| Sarrerak edo hornidurak | (1.962) | (1.868) | (12.585) | (2.427) | (18.842) |
| Transferentziak | - | - | 589 | 2 | 591 |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | - | - | - | - | - |
| Bihurketako aldeak | 18 | 1 | 1 | 24 | 44 |
| **Amortizazio metatuaren saldoa, 2018/12/31n** | **(2.642)** | **(1.926)** | **(89.244)** | **(20.516)** | **(114.328)** |
| **Balioaren narriadura-saldoa, 2017/12/31n** | **-** | **-** | **(16.621)** | **(20)** | **(16.641)** |
| 2018ko hornidura | - | - | (9.311) | - | (9.311) |
| 2018ko transferentziak | - | - | - | 7 | 7 |
| **Balioaren narriadura-saldoa, 2018/12/31n** | **-** | **-** | **(25.932)** | **(13)** | **(25.945)** |
| **Garbia, 2018/12/31n** | **23.714** | **111.116** | **55.373** | **16.332** | **206.535** |

2019ko ekitaldian egindako ikerketako eta garapeneko gastuen zenbatekoa 36.501 mila eurokoa izan da (16.259 mila euroko zenbatekoa erregistratu da galera eta irabazien kontuan, eta 20.242 mila euroko zenbatekoa aktibatu egin da). 2018an egindako ikerketako eta garapeneko gastuen zenbatekoa 40.983 mila eurokoa izan zen (17.328 mila euroko zenbatekoa erregistratu zen galera eta irabazien kontuan, eta 23.655 mila euroko zenbatekoa aktibatu zen). Zenbateko horiek ez dituzte jasotzen kontratuei lotutako oinarrizko ingeniaritzako kostuak.

Garapen gisa erregistratutako 2019ko eta 2018ko ekitaldietako gehigarriak produktu berriak garatzeko garaian sortutako kostuei dagozkie eta, horien artean, honako hauen garapena nabarmendu behar da: automatizazioko prestazio altuko seinaleztapen-sistemak, tren digitaleko erregistro ontziratuaren garapena, Big Data arkitekturaren garapena eta segurtasun kritikoko funtzioak ezartzeko TCMS plataformen garapena.

2019ko ekitaldian, 3.a oharrean azaldutakoaren arabera, gutxi gorabehera, 344 mila euro intsuldatu ditu Taldeak, garatutako teknologia biltzen zuten eta eskuratutako hainbat kontraturen proiektu ugariri egotzitako garapeneko gastuetatik bideratuta (497 mila euro 2018an).

"Aplikazio informatikoei" dagokienez, 2019 ekitaldian zehar Taldeak ERP berria ezartzeko prozesua abiatu du. Prozesu horri dagozkio ekitaldiaren gehigarri gehienak. 2019ko abenduaren 31n, Taldeak 16.200 mila euroko zenbatekoa duen inbertsio-konpromisoa zuen, batez ere, sistema informatiko berriagatik. Hori 2021 urtean martxan jartzea dago aurrez ikusita.

Azkenik, 2018ko ekitaldian, Solaris erosi izanaren ondorioz, 9.311 mila euroko narriadura aitortu zuen atxikitako irabazi eta galeren kontu bateratuko "Ibilgetua besterentzearen ondoriozko okerragotzea eta eragina" epigrafean sartuta. Proiektuen

ekonomia eta finantza arloko bideragarritasuna eta berreskuragarritasuna bermatuta ez zegoen eta aurreko ekitaldietan aktibatutako garapen-gastuekin lotuta dago.

## 8. IBILGETU MATERIALA ETA ERABILERA-ESKUBIDEAGATIKO AKTIBOAK

Ibilgailu materialaren epigrafea honela banaka daiteke (mila eurotan):

| | 2019/12/31 | 2018/12/31 |
|---|---|---|
| Ibilgetu materiala | 382.136 | 365.084 |
| Erabilera-eskubideagatiko aktiboak | 67.127 | - |
| **Guztira** | **449.263** | **365.084** |

### a) Ibilgetu materiala

Hona hemen 2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian "Ibilgetu materiala" epigrafeko kontuetan eta dagozkien metatutako amortizazioetan izandako mugimendua:

| | Mila eurotan | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Lursailak eta eraikinak** | **Instalazio teknikoak eta makinak** | **Garraio-elementuak (leasing-a) (3.m oharra)** | **Beste zenbait instalazio, tresna eta altzariak** | **Gainerako ibilgetua** | **Aurrerakinak eta martxan direnak** | **Guztira** |
| **Kostuaren saldoa, 2018/12/31n** | **352.627** | **309.737** | **39.897** | **34.105** | **39.523** | **1.330** | **777.219** |
| 16. FINAren arabera erabilera-eskubideekin lotutako aktibo gisa birsailkatzea | - | (1.896) | - | (1.221) | - | - | (3.117) |
| **2019/01/01ean doitutako hasierako saldoa** | **352.627** | **307.841** | **39.897** | **32.884** | **39.523** | **1.330** | **774.102** |
| Bateratze-perimetroko aldaketak (2.f oharra) | - | 17.089 | - | 2.360 | 290 | 17 | 19.756 |
| Sarrerak | 6.731 | 16.797 | 1.740 | 2.296 | 1.918 | 11.011 | 40.493 |
| Transferentziak | 323 | (3.644) | 4.272 | 635 | 2.437 | (2.972) | 1.051 |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | (24) | (2.875) | (5.902) | (597) | (203) | (43) | (9.644) |
| Bihurketako aldeak | 2.746 | 563 | 413 | 153 | 128 | 13 | 4.016 |
| **Kostuaren saldoa, 2019/12/31n** | **362.403** | **335.771** | **40.420** | **37.731** | **44.093** | **9.356** | **829.774** |
| **Amortizazio metatuaren saldoa, 2018/12/31n** | **(108.976)** | **(242.284)** | **(2.508)** | **(20.186)** | **(27.398)** | **-** | **(401.352)** |
| 16. FINAren arabera erabilera-eskubideekin lotutako aktibo gisa birsailkatzea | - | 1.556 | - | 332 | - | - | 1.888 |
| **2019/01/01ean doitutako hasierako saldoa** | **(108.976)** | **(240.728)** | **(2.508)** | **(19.854)** | **(27.398)** | **-** | **(399.464)** |
| Sarrerak edo hornidurak | (9.764) | (14.663) | (6.511) | (3.204) | (3.416) | - | (37.558) |
| Transferentziak | (334) | 271 | (4.272) | (98) | 287 | - | (4.146) |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | 4 | 1.577 | 2.424 | 281 | 156 | - | 4.442 |
| Bihurketako aldeak | (162) | (90) | (109) | (38) | (63) | - | (462) |
| **Amortizazio metatuaren saldoa, 2016/12/31n** | **(119.232)** | **(253.633)** | **(10.976)** | **(22.913)** | **(30.434)** | **-** | **(437.188)** |
| **Balioaren narriadura-saldoa, 2018/12/31n** | **(6.205)** | **(4.142)** | **-** | **(423)** | **(13)** | **-** | **(10.783)** |
| 2019ko ekitaldiko hornidura | - | - | - | (272) | (155) | - | (427) |
| Transferentziak | - | - | - | - | (342) | - | (342) |
| Bajak | - | 1.107 | - | - | - | - | 1.107 |
| Bihurketako aldeak | - | - | - | - | (5) | - | (5) |
| **Balioaren narriadura-saldoa, 2019/12/31n** | **(6.205)** | **(3.035)** | **-** | **(695)** | **(515)** | **-** | **(10.450)** |
| **Garbia, 2019/12/31n** | **236.966** | **79.103** | **29.444** | **14.123** | **13.144** | **9.356** | **382.136** |

Hona hemen 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian "Ibilgetu materiala" epigrafeko kontuetan eta dagozkien metatutako amortizazioetan izandako mugimendua:

**Mila eurotan**

| | Lursailak eta eraikinak | Instalazio teknikoak eta makinak | Garraio-elementuak (leasing-a) (3.m oharra) | Beste zenbait instalazio, tresna eta altzariak | Gainerako ibilgetua | Aurrerakinak eta martxan direnak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Kostuaren saldoa, 2017/12/31n** | **272.406** | **291.516** | **-** | **26.077** | **44.528** | **10.695** | **645.222** |
| Bateratze-perimetroko aldaketak (2.f oharra) | 46.347 | 13.507 | 39.914 | 3.092 | 2.349 | 998 | 106.207 |
| Sarrerak | 25.855 | 17.120 | - | 5.190 | 2.432 | 2.226 | 52.823 |
| Transferentziak | 10.521 | (443) | - | 595 | (9.641) | (12.584) | (11.552) |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | (681) | (10.914) | - | (792) | (117) | - | (12.504) |
| Bihurketako aldeak | (1.821) | (1.049) | (17) | (57) | (28) | (5) | (2.977) |
| **Kostuaren saldoa, 2018/12/31n** | **352.627** | **309.737** | **39.897** | **34.105** | **39.523** | **1.330** | **777.219** |
| **Amortizazio metatuaren saldoa, 2017/12/31n** | **(102.623)** | **(242.912)** | **-** | **(16.923)** | **(27.735)** | **-** | **(390.193)** |
| Sarrerak edo hornidurak | (7.837) | (11.332) | (2.508) | (3.390) | (2.829) | - | (27.896) |
| Transferentziak | 363 | 167 | - | (23) | 3.025 | - | 3.532 |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | 647 | 10.896 | - | 99 | 116 | - | 11.758 |
| Bihurketako aldeak | 474 | 897 | - | 51 | 25 | - | 1.447 |
| **Amortizazio metatuaren saldoa, 2018/12/31n** | **(108.976)** | **(242.284)** | **(2.508)** | **(20.186)** | **(27.398)** | **-** | **(401.352)** |
| **Balioaren narriadura-saldoa, 2017/12/31n** | **(6.231)** | **(4.141)** | **-** | **(131)** | **(13)** | **-** | **(10.516)** |
| 2018ko ekitaldiko hornidura | - | - | - | (292) | - | - | (292) |
| Bihurketako aldeak | 26 | (1) | - | - | - | - | 25 |
| **Balioaren narriadura-saldoa, 2018/12/31n** | **(6.205)** | **(4.142)** | **-** | **(423)** | **(13)** | **-** | **(10.783)** |
| **Garbia, 2018/12/31n** | **237.446** | **63.311** | **37.389** | **13.496** | **12.112** | **1.330** | **365.084** |

2019 ekitaldian zehar, inbertsio garrantzitsuenak Taldearen ekoizpen-gaitasuna hobetzera bideratu dira. Horien artean, nabarmenenak hauek izan dira: Frantzian akaberako nabe berriari dagozkionak, Polonian Solaris ekoizpen-lantegietan instalazioak autobusen ekoizpen-igoerara egokitzeko egiten ari diren inbertsioak eta Mexikoko lantegiko ekoizpen-hobekuntzak.

Aurreko ekitaldietan, Taldeak ibilgetu materialera transferitu zuen bezero batentzat fabrikatutako lokomotorrengatik kalkulatutako balio errekuperagarria. Azkenean bezero horrekin kontratua eten zuen. 2018 ekitaldi amaieran 9 tren-makinetatik 8ren jabetza transmititu zen. Azken unitatea 2019 ekitaldi amaieran transmititu zen, hirugarren batzuei errentan egon ondoren.

2019ko nahiz 2018ko ekitaldien amaieran, "Garraio-elementuak (leasing-a)" epigrafean errentamendu operatiboaren mende dauden autobusak sartu dira (3.f oharrean aipatutakoaren arabera). Horren kontularitzako balio garbia 29.444 mila eurokoa izan da (37.389 mila eurokoa 2018ko ekitaldian). Memoria bateratuko 21. oharrean daude zehaztuta berrerosketarako ezarritako datara arte modu linealean aitortuko diren geroratutako sarrerak.

2019ko abenduaren 31n, Taldeak gutxi gorabehera 7.805 mila euro inguruko inbertsio-erosketen konpromiso irmoak zituen, batez ere Polonian kokatuta (10.376 mila euro Espainian 2018ko abenduaren 31n).

2019ko abenduaren 31n, Taldeak 7.594 mila euroko zenbatekoa duen ibilgetua du hornitzaileekin (9.572 mila eurokoa zen zenbatekoa 2018ko abenduaren 31n) atxikitako egoera-balantze bateratuko "Finantza-pasibo ez-korronteak – Beste finantza-pasibo batzuk" epigrafean.

Sozietate bateratuek ibilgetuko elementuak behar bezala estaltzeko aseguru-polizak kontratatzeko irizpideari jarraitzen diote. 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, aseguru-polizek egun horretan ibilgetuak zuen kontabilitate-balio garbia estaltzen zuten.

Erabat amortizatuta dauden eta oraindik erabiltzen diren aktiboen kostu gordina 327.569 eta 283.271 mila euro ingurukoa zen 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n.

2019ko ekitaldian, gutxi gorabehera, 300 mila euroko galera eman du ibilgetu materialaren besterentzeak eta honi erantsitako galera- eta irabazi-kontu bateratuaren "Ibilgetua besterentzearen narriadura eta eragina" epigrafean erregistratu dira (2018ko ekitaldiko irabaziak 175 mila eurokoak izan ziren). 2019ko ekitaldian, ibilgetu materialaren salmentaren zenbatekoa 319 mila eurokoa izan da (921 mila eurokoa 2018an).

Aktiboaren kontabilitate-baliotik kendu du Taldeak hura erosteko jasotako diru-laguntzen zenbatekoa. Jasotako diru-laguntzetatik amortizatzeke dagoen zenbateko garbia 2.832 mila eurokoa da 2019ko abenduaren 31n (1.055 mila euro 2018ko abenduaren 31n). 2019ko ekitaldian emaitzetara eramandako zenbatekoa 211 mila eurokoa izan da (212 mila euro 2018an) eta erantsitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Ibilgetuaren amortizazioa" epigrafean erregistratuta dago.

Administratzaileen ustez, 2019ko abenduaren 31n ez dago ohar honetan deskribatutakoez gain, narriaduraren zantzurik Taldeak dituen aktiboetan.

**b) Erabilera-eskubideagatiko aktiboak**

Erabilera-eskubideei dagozkien kontuen artean 2019 ekitaldian zehar izandako xehetasun eta mugimendua honako hau da:

| | Mila eurotan | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | **Lursailak eta eraikinak** | **Instalazio teknikoak eta makinak** | **Beste zenbait instalazio, tresna eta altzariak** | **Gainerako ibilgetua** | **Guztira** |
| **Kostuaren saldoa, 2018/12/31n** | **-** | **-** | **-** | **-** | **-** |
| 16. FINAren lehen aplikazioa | 44.716 | 3.805 | 3.049 | 949 | 52.519 |
| 16. FINAren arabera egindako finantza-errentamenduen birsailkapena | - | 1.896 | 1.221 | - | 3.117 |
| **2019/01/01ean doitutako hasierako saldoa** | **44.716** | **5.701** | **4.270** | **949** | **55.636** |
| Bateratze-perimetroko aldaketak (2.f oharra) | - | 24.091 | 2.059 | - | 26.150 |
| Sarrerak | 5.922 | 194 | 1.574 | 137 | 7.827 |
| Transferentziak | 1.061 | (529) | 48 | - | 580 |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | (18) | (1.027) | (154) | (5) | (1.204) |
| Bihurketako aldeak | 265 | 68 | 30 | 12 | 375 |
| **Kostuaren saldoa, 2019/12/31n** | **51.946** | **28.498** | **7.827** | **1.093** | **89.364** |
| **Amortizazio metatuaren saldoa, 2018/12/31n** | **-** | **-** | **-** | **-** | **-** |
| 16. FINAren arabera egindako finantza-errentamenduen birsailkapena | - | (1.556) | (332) | - | (1.888) |
| **2019/01/01ean doitutako hasierako saldoa** | **-** | **(1.556)** | **(332)** | **-** | **(1.888)** |
| Bateratze-perimetroko aldaketak (2.f oharra) | - | (4.180) | (1.837) | - | (6.017) |
| Sarrerak | (9.543) | (4.814) | (1.807) | (427) | (16.591) |
| Transferentziak | - | 1.426 | 201 | - | 1.627 |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | 4 | 615 | 107 | - | 726 |
| Bihurketako aldeak | (54) | (20) | (13) | (7) | (94) |
| **Amortizazio metatuaren saldoa, 2019/12/31n** | **(9.593)** | **(8.529)** | **(3.681)** | **(434)** | **(22.237)** |
| **Garbia, 2018/12/31n** | **-** | **-** | **-** | **-** | **-** |
| **Garbia, 2019/12/31n** | **42.353** | **19.969** | **4.146** | **659** | **67.127** |

Taldeak zenbait aktibo ditu errentan, horien artean lursailak, eraikinak, garraio-elementuak eta makinak. Errentamenduaren batez besteko aldia ez da datu adierazgarria, banaketa handia baitago lursail eta eraikinen errentamenduetarako aintzat hartutako aldiaren eta errentamenduan dauden gainerako subjektu aktiboen artean. Errentamendu-aldi gisa, oro har, baliogabetu ezin den gutxienekoa hartu da aintzat, kontratu bakoitzerako tasa espezifikoa aplikatuta, urteko kontu bateratu hauetako 2.b. oharrean deskribatuta dagoen moduan.

Ohar horretan deskribatuta dagoen moduan, Taldeak epe laburreko kontratuen salbuespenak erabili ditu, eta sortutako gastua atxikitako urteko galera eta irabazien kontu bateratuko "Ustiapeneko beste gastu batzuk" epigrafean erregistratu da. Ez dago errenta aldakorraren mende dagoen errentamendu-kontratu adierazgarririk.

Euromaint Taldearen perimetrora sartzearen ondoriozko makinen eta instalazio teknikoen alokairuari dagozkio gehigarri nagusiak (2.f oharra). Gainera, ez dago Taldearen kanpoko hirugarrenei egindako berralokatze-eragiketarik edota "sale & leaseback" kontraturik.

Errentamenduengatiko esku-diruaren irteera guztien zenbatekoa 15.794 mila eurokoa izan da 2019an.

Galera eta irabazien kontuan aitortutako zenbatekoak

| | 2019 |
|---|---|
| | **Mila eurotan** |
| Erabilera-eskubideengatiko aktiboen amortizazioa | 16.591 |
| Finantza-pasiboaren eraginezko finantza-gastua | 3.017 |
| Epe laburreko edo balio baxuko errentamenduengatiko gastua | 6.380 |

## 9. PARTAIDETZA-METODOA APLIKATUTA KONTABILIZATUTAKO INBERTSIOAK ETA FINANTZA-AKTIBO EZ-KORRONTEAK

### a) Partaidetza-metodoa aplikatuta kontabilizatutako inbertsioak

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan honi erantsitako egoera-balantze bateratuko "Partaidetza-metodoa aplikatuta kontabilizatutako inbertsioak" epigrafean izandako mugimendua honako hau izan da:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| **Hasierako saldoa** | **18.188** | **19.752** |
| Galera eta irabazien kontura bideratutako emaitzak | (1.949) | (403) |
| Estaldura-eragiketak (17. oharra) | (7.321) | 351 |
| Aldaketak bateratze-perimetroan | - | 1.586 |
| Altak | 196 | 5.500 |
| Bajak eta dibidenduak | (1.362) | (8.689) |
| Bihurketako aldeak | 55 | 91 |
| **Amaierako saldoa** | **7.807** | **18.188** |

2019ko ekitaldian, Consorcio Traza SA eta Orbital Sistemas Aeroespaciales SL sozietate partaidetuek 650 mila euroko eta 245 mila euroko zenbatekoa duten dibidenduak banatu dituzte, hurrenez hurren.

Enpresa elkartu esanguratsuetako partaidetzen inguruko informazio esanguratsua azaltzen da jarraian (milaka eurotan), partaidetza-metodoaren arabera baloratuta:

**2019ko ekitaldia**

| Izena | Oinarrizko finantza-datuak (1) | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aktibo ez-korronteak | Aktibo korronteak | Pasibo ez-korronteak | Pasibo korronteak | Erakunde kontrolatzaile aren ondarea | Partaidetza ez-kontrolatzaileak | Salmentak | Erakunde kontrolatzaile aren emaitza | Aitortutako beste sarrera eta gastu batzuk |
| Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L. | 5.238 | 2.871 | 653 | 979 | 6.477 | - | 3.516 | (2.550) | - |
| Plan Metro, S.A. (2) | 286.343 | 8.031 | 314.976 | 32.948 | (53.550) | - | 57.202 | 2.697 | - |
| Consorcio Traza, S.A. (3) | 216.220 | 42.286 | 231.752 | 8.559 | 17.061 | 1.134 | 25.309 | (2.975) | 1.281 |
| Ferrocarriles Suburbanos, S.A.P.I. de C.V. | 101.122 | 76.183 | 122.388 | 54.917 | - | - | 47.628 | - | - |
| Arabia One for Clean Energy Invest. PSC. | 19.327 | 2.468 | 17.091 | 902 | 3.802 | - | 3.098 | 43 | 71 |
| Orbital Sistemas Aeroespaciales, S.L. | 19.420 | 4.201 | 3.449 | 525 | 19.647 | - | 4.950 | 1.330 | - |
| Momentum Trains Holding Pty Ltd | 105.252 | 1.375 | 104.650 | 32.873 | (30.896) | - | 95.027 | (919) | (29.967) |

| Izena | Ondarea | Kapitalaren % | CAF Taldeari egotz dakiokeen ondarea | Ekibalentzian jarritako partaidetza | Aitortutako emaitzak |
|---|---|---|---|---|---|
| Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L. | 6.477 | 50 | 3.238 | 3.238 | (1.275) |
| Plan Metro, S.A. (2) | (53.550) | 40 | (21.420) | - | - |
| Consorcio Traza, S.A. (3) | 17.061 | 25 | 4.265 | 4.265 | (744) |
| Ferrocarriles Suburbanos, S.A.P.I. de C.V. | - | 43,35 | - | - | - |
| Arabia One for Clean Energy Investments PSC. | 3.802 | 40 | 1.521 | 1.521 | 17 |
| Orbital Sistemas Aeroespaciales, S.L. | 19.647 | 30 | 5.894 | 5.894 | 399 |
| Momentum Trains Holding Pty Ltd | (30.896) | 25,50 | (7.878) | (7.878) | (234) |
| Beste partaidetza batzuk (4) | - | - | 767 | 767 | (112) |
| | | | **(13.613)** | **7.807** | **(1.949)** |

(1) Baterakuntzako doikuntzak eta homogeneizatzeak egin ondoren (mila euro).
(2) Sozietate honen akzioak hainbat finantza-entitateren alde pignoratuta daude.
(3) Consorcio Traza SA sozietateak % 80ko partaidetza sendotu du sozietate honetan: S.E.M. Los Tranvías de Zaragoza SA.
(4) Jarduerarik gabeko edo jarduera esanguratsurik gabeko sozietateak

**2018ko ekitaldia**

| Izena | Oinarrizko finantza-datuak (1) | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aktibo ez-korronteak | Aktibo korronteak | Pasibo ez-korronteak | Pasibo korronteak | Erakunde kontrolatzailearen ondarea | Partaidetza ez-kontrolatzaileak | Salmentak | Erakunde kontrolatzailearen emaitza | Aitortutako beste sarrera eta gastu batzuk |
| Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L. (2) | 5.862 | 5.338 | 725 | 1.448 | 9.027 | - | 4.875 | 85 | - |
| Plan Metro, S.A. (3) | 306.043 | 10.303 | 339.305 | 33.288 | (56.247) | - | 55.676 | (3.020) | - |
| Consorcio Traza, S.A. (4) | 218.595 | 36.014 | 225.964 | 5.353 | 21.355 | 1.937 | 24.678 | (3.882) | 1.406 |
| Ferrocarriles Suburbanos, S.A.P.I. de C.V. | 94.955 | 60.098 | 112.327 | 42.726 | - | - | 42.998 | 58.606 | 159 |
| Arabia One for Clean Energy Invest. PSC. | 20.026 | 2.395 | 17.890 | 843 | 3.688 | - | 3.050 | 339 | 167 |
| Orbital Sistemas Aeroespaciales, S.L. | 18.894 | 3.867 | 3.018 | 610 | 19.133 | - | 3.376 | 800 | - |

| Izena | Ondarea | Kapitalaren % | CAF Taldeari egotz dakiokeen ondarea | Ekibalentzian jarritako partaidetza | Aitortutako emaitzak |
|---|---|---|---|---|---|
| Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L. (2) | 9.027 | 50 | 4.513 | 4.513 | 43 |
| Plan Metro, S.A. (3) | (56.247) | 40 | (22.499) | - | - |
| Consorcio Traza, S.A. (4) | 21.355 | 25 | 5.339 | 5.339 | (970) |
| Ferrocarriles Suburbanos, S.A.P.I. de C.V. | - | 43,35 | - | - | - |
| Arabia One for Clean Energy Investments PSC. | 3.688 | 40 | 1.475 | 1.475 | 136 |
| Orbital Sistemas Aeroespaciales, S.L. | 19.133 | 30 | 5.740 | 5.740 | 240 |
| Beste partaidetza batzuk (5) | - | - | 1.121 | 1.121 | 148 |
| | | | **(4.311)** | **18.188** | **(403)** |

(1) Baterakuntzako doikuntzak eta homogeneizatzeak egin ondoren (mila euro).
(2) Nuevas Estrategias de Mantenimiento SL sozietateak % 100eko partaidetza sendotu du hemen: NEM Solutions USA, Inc.
(3) Sozietate honen akzioak hainbat finantza-entitateren alde pignoratuta daude.
(4) Consorcio Traza SA sozietateak % 80ko partaidetza sendotu du sozietate honetan: S.E.M. Los Tranvías de Zaragoza SA.
(5) Jarduerarik gabeko edo jarduera esanguratsurik gabeko sozietateak.

Partaidetzak sendotzean, beharrezko arrazoizko balioaren araberako doiketak kontuan hartu eta Taldearen trenbide-materialaren salmentako marjinak kendu dira partaidetzarekiko proportzioan. Lege-betebeharrik edo betebehar espliziturik ez denez izan, eta CAF Taldearen elkartutakoen izenean ordainketarik egin ez denez, ez da beharrezkoa zeron baloratuta dauden elkartu horiek egindako galera gehigarriak integratzea. 2019ko abenduaren 31n, aitortu gabeko partaidetza-kostuarekiko osagarriak diren galerak 21.420 mila eurokoak izan dira (22.499 mila eurokoak 2018ko abenduaren 31n).

2.f oharrean deskribatzen den moduan, 2019ko ekitaldian, Taldea Momentum Trains Holding Pty Ltd sozietatearen kapitalean sartu da, % 25,50eko partaidetzarekin. Akziodunen akordioan, 30 milioi dolar australiarreko zenbatekoa duen etorkizuneko ekarpena egitea aurrez ikusi da 2024an, sozietate elkartu horretan Taldearen partaidetzarekiko modu proportzionalean (26. oharra).

**b) Finantza-aktibo ez-korronteak**

Atxikitako egoera-balantze bateratuko "Finantza-aktibo ez-korronteak" epigrafearen xehetasuna da hau:

| | Mila eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **2019/12/31** | | **2018/12/31** | |
| | **Partaidetzaren %** | **Saldoa** | **Partaidetzaren %** | **Saldoa** |
| **Ondare-tresnak** | | | | |
| Alquiler de Trenes, A.I.E | %5 | 3.885 | % 5 | 3.587 |
| Ferromovil 3000, S.L. | % 10 | 11.152 | % 10 | 9.660 |
| Alquiler de Metros, A.I.E. | - | - | 5% | 107 |
| Plan Azul 07, S.L. | % 5,20 | 3.273 | % 5, 20 | 3.158 |
| Arrendadora de Equipamientos Ferroviarios, S.A. | % 15 | 5.012 | % 15 | 4.542 |
| Iniciativa FIK, A.I.E. | % 14,18 | 776 | % 14,18 | 838 |
| Albali Señalización, S.A. | % 3 | 561 | % 3 | 641 |
| Beste batzuk | | 252 | | 301 |
| **Ondarearen tresnak, guztira** | | **24.911** | | **22.834** |
| **Beste finantza-aktibo batzuk** | | | | |
| **Amortizatutako kostua** | | | | |
| Beste finantza-aktibo eta finantza batzuk | | 16.663 | | 16.250 |
| Langileei emandako maileguak | | 3.908 | | 4.238 |
| Epe luzerako administrazio publikoak (19. oharra) | | 41.295 | | 42.231 |
| Epe luzerako kredituak eta bezeroak | | 435.044 | | 439.761 |
| Enpresa elkartuei emandako maileguak (10. oharra) | | 28.753 | | 26.823 |
| | | **525.663** | | **529.303** |
| **Hornidurak** | | | | |
| Administrazio publikoen hornidura (19. oharra) | | (9.237) | | (12.176) |
| Narriaduragatiko balio-zuzenketak | | (3.034) | | (2.900) |
| | | **(12.271)** | | **(15.076)** |
| **Beste finantza-aktibo batzuk, guztira** | | **513.392** | | **514.227** |
| **Guztira** | | **538.303** | | **537.061** |

Honako hau da 2019ko eta 2018ko ekitaldietako finantza-aktibo ez-korronteen mugimendua:

| | Mila eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Ondare-tresnak | Beste finantza-aktibo batzuk | | |
| | | Amortizatutako kostua | Hornidurak | Guztira |
| **Saldoa 2017/12/31n** | **9.506** | **564.820** | **(13.666)** | **560.660** |
| 9. FINAren hasierako doiketa | - | - | (3.054) | (3.054) |
| **Saldoa 2018/01/01ean doituta** | **9.506** | **564.820** | **(16.720)** | **557.606** |
| Aldaketak Bateratze-perimetroan | - | 84 | - | 84 |
| Aldaketak arrazoizko balioan erreserbetara zordunduta | 13.320 | - | - | 13.320 |
| Bihurketako aldeak | 2 | (24.745) | 1.522 | (23.221) |
| Altak | 6 | 105.020 | - | 105.026 |
| Hornidurak ekitaldiko emaitzara zordunduta | - | - | (62) | (62) |
| Intsuldaketak (3.n oharra) | - | (114.647) | - | (114.647) |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | - | (1.229) | 184 | (1.045) |
| **Saldoa 2018/12/31n** | **22.834** | **529.303** | **(15.076)** | **537.061** |
| Aldaketak bateratze-perimetroan | - | 757 | - | 757 |
| Aldaketak arrazoizko balioan erreserbetara zordunduta | 2.248 | - | - | 2.248 |
| Bihurketako aldeak | 2 | (247) | 161 | (84) |
| Altak | - | 106.704 | - | 106.704 |
| Hornidurak/Itzulketak emaitzan zordudunduta/ordainduta | - | - | 2.644 | 2.644 |
| Intsuldaketak (3.n oharra) | - | (109.247) | - | (109.247) |
| Irteerak, bajak edo murrizketak | (173) | (1.607) | - | (1.780) |
| **Saldoa 2019/12/31n** | **24.911** | **525.663** | **(12.271)** | **538.303** |

**c) Beste finantza-aktibo batzuk**

Hona hemen "Beste finantza-aktibo batzuk" epigrafeko partiden xehetasunak, epemugaren arabera sailkatuta (mila eurotan):

**2019ko ekitaldia**

| | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 eta hurrengoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Amortizatutako kostuaren araberako aktiboak | 138.841 | 125.665 | 126.799 | 122.087 | 513.392 |
| **Guztira** | **138.841** | **125.665** | **126.799** | **122.087** | **513.392** |

**2018ko ekitaldia**

| | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 eta hurrengoak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Amortizatutako kostuaren araberako aktiboak | 105.533 | 136.587 | 117.410 | 154.697 | 514.227 |
| **Guztira** | **105.533** | **136.587** | **117.410** | **154.697** | **514.227** |

### Beste finantza-aktibo eta finantza batzuk

Batez ere Ctrens Companhia Manutençao, SA mendeko sozietatearen finantza-zorraren zabaltzearekin lotutako fidantzak dira (16. oharra). Fidantza horien zenbatekoa 12.179 mila eurokoa da (13.194 mila eurokoa 2018ko abenduaren 31n). Fidantza horrek merkatuko interes-tasa bat sortzen du eta maileguaren sei hileko ordainketak dagozkio. Maileguaren azken sei kuotetan askatuko da 2025eko azarotik 2026ko apirilera.

### Langileei emandako maileguak

Erakunde kontrolatzaileak, langileekin sinatutako hitzarmenei jarraiki, zenbait mailegu ematen ditu, merkatuko interes-tasaren azpitik, 10-15 urteko epemugarekin. Taldeak ez ditu eguneratzen zenbateko horiek, horien eragina handia ez dela baiteritzo.

### Epe luzerako administrazio publikoak

2019ko abenduaren 31n, Taldeak 41.295 mila euroko zenbatekoa du erregistratuta "Finantza-aktibo ez-korronteak - Beste finantza-aktibo batzuk" epigrafean atzerriko administrazio publikoekin kobratu beharreko kontuen kontzeptua dela eta. Balio erantsiaren baliokidea den zergari (42.231 mila euro 2018ko abenduaren 31n) dagokio eta bihurketa-aldeek, 2019ko ekitaldian, 650 mila euroko jaitsiera eragin dute.

Zerga hori berreskura daiteke bezeroei jasanarazitakoarekin konpentsatuz gero edo hirugarren batzuei salduz gero ogasunaren aurrean egiaztatu ondoren. Gaur egun, Taldea akreditatzeko beharrezko ekintzak egiten ari da eta batez ere hirugarren batzuei salduta zenbatekoa berreskuratzea espero du. 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, Taldeak kreditu horien balio nominala haien balio berreskuragarriaren arabera doitzeko 9.237 mila euroko eta 12.176 mila euroko hornidura du. Horrekin lotuta, 2019ko ekitaldian, 2.814 mila euroko zenbatekoa itzuli da (42 mila euro 2018ko ekitaldian hornitu ziren) atxikitako irabazi eta galeren kontu bateratuko "Ibilgetua besterentzearen narriadura eta eragina" epigrafean zordunduta. Bihurketa-aldeen eragina dela eta, hornidura 125 mila eurotan murriztu da 2019ko ekitaldian.

### Epe luzerako kredituak eta bezeroak

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, epigrafe horren xehetasuna honako hau zen (mila eurotan):

| | 2019/12/31 | 2018/12/31 |
|---|---|---|
| Emakidak – Finantza-aktiboa | 413.057 | 433.642 |
| Epe luzerako kredituak eta beste bezero batzuk | 21.987 | 6.119 |
| **Guztira** | **435.044** | **439.761** |

### Emakidak – Finantza-aktiboa

2010eko martxoaren 19an, Taldearen Ctrens-Companhía de Manutençao SA sozietateak eta Companhia Paulista de Trens Metropolitanos (CPTM) enpresak 20 urterako emakida-kontratu bat sinatu zuten 36 tren fabrikatzeko eta alokairu-zerbitzuak emateko, prebentziorako mantentze-lanak, zuzenketak eta berrikuspenak egiteko eta Sao Pauloko (Brasil) 8. lineako (Diamante) flota modernizatzeko.

Hona hemen akordioaren ezaugarriak, aipatutakoez gain:

– Kuotak CPTMk bermatzen ditu hilean 11,6 milioi errealeko zenbatekoa duen banku-kontuan egindako gordailutze bidez (2009ko baldintza errealetan, eta Sao Pauloko Estatuko inflazio-indize orokorraren arabera egokitu zen, eta 2019ko abenduaren 31n, zenbatekoa 19,4 milioi errealetara igo zen). Kontu hori Bermearen agente batek administratzen du eta CPTMk ordainketa-betebeharrak beteko ez balitu, emakidadunari ordaintzeko erabil daiteke.

– Sozietate emakidadunak gutxieneko kapitala izateari buruzko baldintzak bete beharko ditu, balio absolutuan eta aktiboaren portzentajea aintzat hartuta.

– Sozietate emakidadunak bankuko fidantza bidez CPTMrekin dituen betebeharrak behar bezala betetzen dituela bermatzen du (26.a oharra); horretarako, 2019ko abenduaren 31n 39.667 mila errealetara igo du (8.784 mila euro).

– Emakidari lotutako eta emakidadunak kontratuko zerbitzuak eskaintzeko eskuratutako, ekoitzitako edo ezarritako ondasun guztiak, ondasun kapitalak izan ezik, CPTMri itzuliko zaizkio emakida amaitzean eta ez da ordainik emango.

2010eko maiatzaren 31n, Grupo Provetren SA de CV eta Garraio Kolektiboaren Sistemak (STC) 15 urterako kontratu bat sinatu zuten Mexiko Hiriko metroko 12. linearako 30 tren eraikitzeko eta horien alokatze-zerbitzua emateko, mantentze-lanak eta azterketa orokorrak egiteko.

Hona hemen akordioaren ezaugarriak, aipatutakoez gain:

– Komunikazio eta Garraio Idazkaritzak ordaindu beharreko kuotak fideikomiso-sistema baten bidez subsidiarioki bermatuta daude, Partaidetza Federalen soberakinetatik eratorritako funtsekin (Distritu Federaleko Gobernuaren ordainketa-arriskua). 2019ko ekitaldian, berme horrek nabarmen gainditu ditu aurtengo STCren ordainketa-konpromisoak.

– Sozietate emakidadunak abian den urtean jasotzea aurreikusitako ordainketen % 10eko banku-fidantza bidez bermatzen du STCren aurrean dituen betebeharrak beteko dituela (26.a oharra).

– Emakidari lotutako eta emakidadunak kontratuko zerbitzuak eskaintzeko eskuratutako, ekoitzitako edo ezarritako ondasun guztiak, ondasun kapitalak izan ezik, Komunikazio eta Garraio Idazkaritzari itzuliko zaizkio emakida amaitzean eta ez da ordainik emango.

Emakida horien erregistroa 12. FINAIB "Zerbitzuak emateko akordioak" araua aplikatuta egiten da, horretarako baldintzak betetzen baitira. Arau horrek xedatutakoari jarraiki, eskainitako jarduerak bereizi ditugu: eraikuntza, operazioa/mantentze-lanak eta finantzaketa.

Ondorioz, Taldeak aktibo ez-korronteko "Beste finantza-aktibo batzuk" eta aktibo korronteko "Beste zordun batzuk" epigrafeetan 413.057 mila eta 112.084 mila euroko saldoak erregistratu ditu hurrenez hurren 2019ko abenduaren 31n (433.642 mila euro eta 110.211 mila euro 2018ko abenduaren 31n) ordura arte egindako zerbitzuen prestazioari eta eraikuntza-jarduerarekin lotuta (egindako fakturazioarekiko zenbateko garbia). Ez da 2019an eta 2018an inbertsio-jarduerarik egin.

2011ko lehen seihilekoan hasi ziren, batez ere, alokairuaren eta mantentze-lanen zerbitzuak eskaintzen 8. linearen (Brasil) kasuan eta 2012ko bigarren seihilekoan 12. lineakoak (Mexiko).

Bi kontratu horietan, kuoten araberako etorkizuneko fluxuak erabat zehaztuta eta bermatuta daude hasiera hasierako sinadura-unetik. Kuotetan aldakorra izan daitekeen zenbateko bakarra bezeroen esku jarritako tren-materialaren betekizun teknikoarekin lotuta gerta daitezkeen zigorrena da modu esklusiboan. Alderdi hori kontuan izan dugu jaso beharreko fluxuak zehazteko garaian. Ez dago kontratu horietan CAF Talderako demanda-arriskurik; izan ere, ez daude bidaiarien afluentziaren arabera jaso beharreko finantza-fluxuekin lotuta.

### Epe luzerako kredituak eta beste bezero batzuk

2019ko eta 2018ko ekitaldian, Autobusen segmentuan bost bezerorekin epe luzerako kobrantza-egutegiak ezarri dira. Atxikitako egoera-balantze bateratuan atal honetan kontzeptu horregatik 14.159 mila euroko zenbatekoa erregistratu da. Kreditu horiek merkatuko interesa sortzen dute eta linealki amortizatzen dira bi eta hamar urte arteko epean.

Horrez gain, epe luzera kobratu beharreko 2.507 mila euroko eta epe laburrerako 1.407 mila euroko kontu bat sartuta dago (3.765 mila euro eta 1.324 mila euro, hurrenez hurren, 2018ko abenduaren 31n), material mugikorraren finantza-errentamenduko kontratu bati dagokiona. Guztira, 10.570 mila euro kobratu behar dira eta Taldeak errentamenduari dagozkion hileroko kuotak jasoko ditu, modu iraunkorrean, 120 hilabetez, hain zuzen ere, 2012ko ekitaldian hasita. 2019ko ekitaldian 1.500 mila euro fakturatu dira eta 326 mila euro erregistratu dira honi atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Finantza-sarrerak" epigrafean, eragiketako interes-tasa inplizituarekin (2018ko ekitaldian, 1.500 mila eta 411 mila euro hurrenez hurren).

## 10. ALDERDI ELKARTUEKIN DITUGUN SALDOAK ETA ERAGIKETAK

Hau da sozietate elkartuekin egin diren eta bateratze-prozesuan kendu ez diren transakzioen xehetasuna (2.f. oharra):

**Mila eurotan**

| Sozietatea | 2019 | | | 2018 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Emandako zerbitzuak edo erregistratutako salmentak | Jasotako zerbitzuak edo erregistratutako erosketak | Finantza-sarrerak | Emandako zerbitzuak edo erregistratutako salmentak | Jasotako zerbitzuak edo erregistratutako erosketak | Finantza-sarrerak |
| Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L. | 19 | 2.065 | - | 17 | 2.382 | - |
| Plan Metro, S.A. | 13.330 | 4 | 1.998 | 13.611 | 3 | 1.848 |
| Ferrocarriles Suburbanos, S.A.P.I. de C.V. | 12.660 | 31 | - | 11.363 | 127 | - |
| Ferrocarril Interurbano, S.A. de C.V. | 14.024 | - | - | 88.747 | - | - |
| Gainerakoa | 3.356 | 285 | 44 | 247 | 2.083 | 38 |
| **Guztira** | **43.389** | **2.385** | **2.042** | **113.985** | **4.595** | **1.886** |

Sozietate elkartuekin egindako eragiketetan sortutako marjinak behar bezala kendu dira bateratze-prozesuan, haien partaidetza-ehunekoaren proportzio berean (9.a oharra).

Ekitaldi honetako eragiketen, aurreko urteetan egindakoen eta emandako aurrerakinen ondorioz, Taldeak integrazio osoaren arabera bateratu gabeko partaidetutako sozietateekin zituen saldo nagusiak hauek ziren 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

**Mila eurotan**

| Sozietatea | 31.12.19 | | | | 31.12.18 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kobratu beharreko kontuak/ kredituak epe laburrera begira | Ordaindu beharreko kontuak | Pasiboak (aktiboak) kontratuko | Epe luzerako kredituak (9.c oharra) | Kobratu beharreko kontuak | Ordaindu beharreko kontuak | Pasiboak (aktiboak) kontratuko | Epe luzerako kredituak (9.c oharra) |
| Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L. | 54 | 370 | - | - | 23 | 337 | - | - |
| Plan Metro, S.A. | 456 | - | (1.238) | 27.858 | 1.294 | - | (1.054) | 25.860 |
| Ferrocarriles Suburbanos, S.A.P.I. de C.V. | 947 | 6 | (53) | - | 2.043 | 21 | (800) | - |
| Ferrocarril Interurbano, S.A. de C.V. | - | - | (31.427) | - | 26.272 | 856 | (42.362) | - |
| Gainerakoa | - | 129 | - | 895 | 525 | 159 | - | 963 |
| **Guztira** | **1.457** | **505** | **(32.718)** | **28.753** | **30.157** | **1.373** | **(44.216)** | **26.823** |

2011ko ekitaldian, CAF Investment Projects SAU mendeko sozietateak Plan Metro SA sozietateari 15.104 mila euro aurreratu zizkion, hark aldi bateko hainbat finantza-konpromisori aurre egin ziezaien azken bezeroak ordainketen profilean aldaketa egin zuelako. Kreditu hori ez dago inbertsio garbian sartuta; izan ere, epemuga du ezarrita eta kobratu ahal izateko behar adinako bermeak ditu. Plan Metroren ekonomia eta finantza arloko egungo ereduak jasaten du CAF Taldeak

aurreratutako zenbatekoak eta pilatutako interesak berreskuratzea. Era berean, Taldeak kredituagatik sortutako interesengatik 1.998 mila euroko finantza-sarrera erregistratu du atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Finantza-sarrerak" epigrafera ordainduta (2018ko ekitaldian, 1.848 mila euro).

## 11. IZAKINAK

Hauxe da izakinen osaera 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| Lehengaiak eta beste hornikuntza batzuk, bidean, amaituta eta erdi amaituta dauden produktuak (22. oharra) | 450.973 | 339.093 |
| Hornitzaileei emandako aurrerakinak | 36.860 | 36.333 |
| **Guztira** | **487.833** | **375.426** |

2019ko ekitaldiaren amaieran, Taldeak 32.660 mila euroko narriaduragatiko hornidura du (31.184 mila eurokoa 2018ko abenduaren 31n).

2019ko abenduaren 31n, Taldeak lehengaiak erosteko 748.373 mila euroko zenbatekodun konpromiso irmoak zituen gutxi gorabehera (792.375 mila eurokoak 2018ko abenduaren 31n).

Sozietate bateratuek, izakinak behar bezala estaltzeko, aseguru-polizak kontratatzeko irizpideari jarraitzen diote. 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, egun horretan izakinek zuten kontabilitate-balio garbia estaltzen zuten aseguru-polizek.

## 12. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK

Honako hau da 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n "Zerbitzuen prestazioekin eta salmentekin lotutako bezeroen" epigrafearen osaera:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| Bezeroak, eurotan | 806.897 | 793.698 |
| Bezeroak, atzerriko monetan | 584.627 | 534.509 |
| Narriaduragatiko hornidurak | (19.130) | (16.372) |
| **Guztira** | **1.372.394** | **1.311.835** |

Epigrafearen osaera, honako hau da, fakturatutako bezeroen eta kontratuaren arabera aktibo daudenen artean banakatuta:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| Kontratuaren arabera aktibo (3.f oharra) | 812.742 | 856.258 |
| Fakturatutako bezeroak | 578.782 | 471.949 |
| Narriaduragatiko hornidurak | (19.130) | (16.372) |
| **Guztira** | **1.372.394** | **1.311.835** |

### Aktiboak eta pasiboak kontratuaren arabera

Kontratuaren araberako aktiboen eta pasiboen xehetasuna honako hau da:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| Kontratuaren araberako aktibo korronteak (3.f oharra) | 812.742 | 856.258 |
| Kontratuaren araberako pasibo korronteak (3.f oharra) | (852.532) | (763.104) |
| Kontratuaren araberako pasibo ez-korronteak (21. oharra) | (51.059) | (41.228) |
| **Garbia** | **(90.849)** | **51.926** |

2018ko abenduaren 31ko "Kontratuaren araberako pasibo korronteak" ataleko zenbatekotik, 2019ko ekitaldiko sarrera gisa aitortu dira 400.707 mila euro (425.248 mila euro 2018ko ekitaldian). Gainera, ez da aurreko aldietan betetako betebeharrekin lotutako sarrera esanguratsurik aitortu.

Ekitaldiaren itxieran exekutatu gabeko laneko betebeharrekin lotuta aitortu gabe dauden sarrerei dagokienez, kontu-sail hori bat dator gehienetan eskarien zorroa deitzen zaionarekin (ikus Kudeaketa Txostenaren baitako Errendimenduko Neurri Alternatiboak ataleko definizioa) (27. oharra). Zifra hori 2020ko ekitaldian % 28an sarreratan, 2021ekoan % 22an eta gainerakoa 2022an eta hurrengo urteetan gauzatuko dela aurrez ikusi da.

Hala, "Kontratuaren araberako aktiboak" atala minoratu duten erantzukizunekin lotutako hornidurak, 2019ko abenduaren 31n, 53.865 mila eurokoak izan dira (30.342 mila euro 2018ko abenduaren 31n).

### Fakturatutako bezeroak

Fakturatutako bezeroen zifra kontratu mailako erantzukizunekin lotutako hornidurarik gabe aurkeztu da. Hala, 2019ko abenduaren 31n fakturatutako bezeroen saldoa minoratzen duen zenbatekoa 83.080 mila eurokoa da (86.193 mila euro 2018ko abenduaren 31n).

2019ko abenduaren 31n, fakturatutako saldoek 58.601 mila euroko zenbatekoa biltzen dute aurreko ekitaldietan Caracaseko metroarekin sinatutako kontratua dela eta. Saldo hori iraungita eta exekutatuta dago, eta bezeroari fakturatuta dagoen lanari dagokio (kontratu mailako horniduretan zenbateko garbia). Horren berreskuragarritasuna efektiboa da indarrean dagoen hitzartutako aseguru-polizaren bidez.

UTE CSMk, hartzaile gisa, hornitzailearen kreditu-poliza, kreditu-arriskuaren estaldurarekin, kontratatuta du Caracaseko Metroko 1. linea birgaitzeko proiekturako. Poliza horren arabera aseguratutakoak aipatutako aldi baterako enpresa-elkarteko (UTE, gaztelaniaz) kideak dira eta horien artean dago CAF. CAFi egotz dakiokeen kalte-ordaina eragin dezakeen gehieneko zenbatekoa 59 milioi eurokoa da 2019ko abenduaren 31n. Urteko kontuak formulatu ziren datan, ezbehar bat aipatutako aseguru-polizaren arabera aitortzeko baldintza objektu guztiak betetzen ziren eta ez zen hura gauzatzea eskatu. Ezbeharra aitortzeko erabakia UTE CSMko gobernu-organoen esparruaren baitan geratzen da. Kreditu-aseguruaren baldintzek kalte-ordain potentziala ordaintzeko epea sei hilabetetan finkatzen dute.

Caracaseko Metroko kontratuarekin lotuta, Taldearen kontularitza-politika probabletzat jotako kobrantzak dituzten sarrerak bakarrik erregistratzea izan da; horiek dira dagoeneko kobratuta daudenak, kreditu-polizen bidez aseguratutakoak eta bezero berarekin adostutako beste pasibo batzuekin konpentsa daitezkeenak. Horrez gain, 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, CAF Taldeak fakturatutako saldoak ditu (gaur egun iraungitakoak) 37 milioi euroko zenbatekoaren truke Caracaseko Metroarekin. Horiek ez dute kontularitzako aitorpenik izan lotutako lanak gauzatu zirenik horiek kobratzeko aukeraren inguruko ziurgabetasunak daudelako.

2019ko abenduaren 31n, kobratu gabe zeuden fakturatutako saldoen % 39 bost bezero nagusiei zegokien (2018ko abenduaren 31n, % 39). Bezeroen saldoak atxikipenak zituen kobrantzetan 2019ko abenduaren 31n: 6.144 mila eurokoak (7.734 mila euro 2018ko abenduaren 31n).

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, Caracaseko Metroarekin iraungitako saldoez gain, "Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk" kontu-sailean mugaeguneratutako saldoen zenbatekoa honako hau da:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| Mugaeguneratuak > 90 egun | 71.377 | 12.445 |
| Mugaeguneratuak > 180 egun | 134.267 | 161.448 |
| **Guztira** | **205.644** | **173.893** |

Saldo horren % 56 inguru bi herrialdetan eta sei kontratutan pilatuta dago. Taldea kobrantzen kudeaketa aktiboa egiten ari da, baina ez da aurrez ikusi hornitu gabeko galerarik gertatuko denik.

CAF Taldeak partaidetza du Brasilen partzuergo batean eta haren helburua da tranbia linea berri bat eraikitzeko kontratua exekutatzea eta lineara horretarako ontzidia hornitzea. Partzuergoan, CAFen irismena batez ere ibilgailuen hornidurari eta seinaleztapenari dagokio. Gaur egun, partzuergoa eta bezeroa zenbait prozeduratan sartuta daude eta, besteak beste, batez ere obra zibileko lanekin lotuta, bi alderdiek kontratua ez ote duten bete eta kontratua deusezta daitekeen aztertzen ari dira. Lehenik eta behin, gaur egungo datan, Partzuergoa kontratua deuseztatzearen aurka judizialki defenditzen ari da. Kontratua ez betetzearekin lotuta, CAFeko lege-aholkulariek uste dute Partzuergoak elementu sendoak dituela defentsa justifikatzeko eta obrak ez amaitzea bezeroak betebeharrak bete ez dituelako gertatu dela ondorioztatzeko. Edonola ere, ez betetzeagatik Partzuergoari zigorra jarriz gero, batez ere Partzuergoko beste kide batzuei egotz dakizkiekeen ez-betetzeak direnez, CAFek arduradun horiei galera potentzialak erreklamatu ahal izango lizkieke. 2019ko abenduaren 31n, kontratu horri lotutako "Zerbitzuen prestazioekin eta salmentekin lotutako bezeroen" epigrafean erregistratutako zenbatekoa, 180 egun baino gehiagoz mugaeguneratuta dagoena, jasotako aurrerakinen garbia, 13,1 milioi eurokoa da, erregistratutako narriadurak eta hornidurak kontuan izan gabe; horiek zenbateko osoa estaltzen dute.

### Narriaduragatiko hornidurak

2019ko eta 2018ko ekitaldietako narriaduragatiko hornidura-mugimendua honako hau da:

**2019ko ekitaldia**

| | Mila eurotan |
|---|---|
| **Saldoa 2018/12/31n** | **16.372** |
| Aldaketak Bateratze-perimetroan | 345 |
| Bihurketako aldeak | 21 |
| Horniduraren aplikazioa | (22) |
| "Ustiapeneko beste gastu batzuk" epigrafera zordundutako hornidurak | 2.164 |
| Birsailkapenak | 250 |
| **Saldoa 2019/12/31n** | **19.130** |

**2018ko ekitaldia**

| | Mila eurotan |
|---|---|
| **Saldoa 2017/12/31n** | **8.584** |
| 9. FINAren hasierako doiketa | 3.626 |
| **Saldoa doituta 2018/01/01ean** | **12.210** |
| Aldaketak Bateratze-perimetroan | 5.961 |
| Bihurketako aldeak | (309) |
| Horniduraren aplikazioa | (758) |
| "Ustiapeneko beste gastu batzuk" epigrafera ordaindutako horniduren bihurketa | (732) |
| **Saldoa 2018/12/31n** | **16.372** |

Bateratze-perimetroan izandako aldaketetatik eratorritako horniduren igoera 2018an, batez ere, Solaris Bus & Coach SAri zegokion.

## 13. BESTE FINANTZA-AKTIBO KORRONTE BATZUK

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, hau zen epigrafe honen zehaztapena:

**2019ko ekitaldia**

| | Mila eurotan | | |
|---|---|---|---|
| **Finantza-aktiboak: izaera/kategoria** | **Amortizatutako kostua** | **Arrazoizko balioa emaitzetan aldaketekin** | **Guztira** |
| Beste finantza-aktibo batzuk | 34.587 | 60.564 | 95.151 |
| **Epe laburra / korronteak** | **34.587** | **60.564** | **95.151** |

**2018ko ekitaldia**

| | Mila eurotan | | |
|---|---|---|---|
| **Finantza-aktiboak: izaera/kategoria** | **Amortizatutako kostua** | **Arrazoizko balioa emaitzetan aldaketekin** | **Guztira** |
| Beste finantza-aktibo batzuk | 35.012 | 59.281 | 94.293 |
| **Epe laburra / korronteak** | **35.012** | **59.281** | **94.293** |

"Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan" atalean daude jasota, batez ere, zor publikoko diruzaintzako soberakinak, birjarpenak, epe laburrerako gordailuak eta epe finkoko ezarpenak. "Finantza-aktiboak emaitzetan aldaketak dituzten arrazoizko balioan" atalean daude jasota errenta finkoko inbertsio-funtsak. Epe laburrerako inbertsioak dira biak; horien emaitzak honi atxikita azaltzen den galera eta irabazien kontu baterako "Finantza-sarrerak" epigrafean ordainduta erregistratzen dira. 2019ko eta 2018ko ekitaldietan, Taldeak 6.703 mila eta 5.077 mila euroko sarrerak erregistratu ditu kontzeptu horregatik eta eskudiru-soberakinengatik hurrenez hurren.

## 14. ONDARE GARBIA

### a) Erakunde kontrolatzailearen kapital soziala

2019ko abenduaren 31n eta 2018ko abenduaren 31n, 0,301 euroko balio nominaleko 34.280.750 akzioz osatuta zegoen erakunde kontrolatzailearen kapital soziala. Akzio horiek kontu-idazpen bidez ordezkatuta eta guztiak harpidetuta eta ordainduta zeuden (guztiek Burtsan kotizatzen dute).

Honako hauek dira 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari Sozietatearen kapital sozialaren % 3ko baino gehiagoko boto-eskubideak dituztela jakinarazi dioten sozietateak edo erakundeak:

| | 2019ko % | 2018ko % |
|---|---|---|
| Cartera Social, S.A. (1) | 24,87% | 25,16% |
| Kutxabank, S.A. (2) | 14,06% | 14,06% |
| Indumenta Pueri S.L.(3) | 5,02% | 5,02% |
| EDM Gestión, S.A. S.G.I.I.C. (4) | 3,02% | 3,02% |
| Templeton Investment Counsel, LLC. (5) | - | 3,01% |

(1) Sozietateko akziodunak erakunde kontrolatzaileko langileak dira.
(2) Kutxabank SAk zuzeneko partaidetza du, baina zeharkako titularra Kutxabank SAren kontrola duen Bilbao Bizkaia Kutxa Banku Fundazioa da.
(3) Indumenta Pueri SL zeharkako titularra da. Zuzeneko titularra Global Portfolio Investments SL da, Indumenta Pueri SL-k kontrolatzen duen sozietatea.
(4) EDM Gestión, SA SGIIC zeharkako titularra da. Taldeko sozietate ugariren boto-eskubideak kontrolatzen ditu.
(5) Templeton Investment Counsel LLC zeharkako titularra da. Inbertsioen kudeaketa-sozietate gisa T Global Smaller Co Fd, eta beste batzuen aktiboak kudeatzen ditu.

2015eko ekainaren 13an egindako Akziodunen Batzar Orokorrak data horretatik aurrera bost urteko epean akzio propioak erosteko ahalmena eman zion Administrazio Kontseiluari. Urteko kontu bateratu hauek egin diren datan, ez da akordio horrez geroztik akzio propiorik erosi.

Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak, 2017ko ekainaren 10ean egindakoak, erabaki zuen erakunde kontrolatzailearen Administrazio Kontseiluari eskuordetuko ziola, ordezkapeneko-gaitasun espresuarekin, eta data horretatik aurrera bost (5) urteko epean, Erakunde kontrolatzaileko edo taldeko beste sozietate batzuetako akzio bihur zitezkeen obligazioak eta gainerako errenta finkoko edo bestelako baloreak (warrantak barne) jaulkitzeko gaitasuna, akziodunen lehentasunezko harpidetza-eskubidea kanpo uzteko gaitasuna barne, baimenaren unean kapital sozialaren zenbatekoaren % 20ko zenbatekoagatik gehienez. Akordio horrek eraginik gabe utzi zuen Sozietatearen Ohiko Batzar Orokorrak, 2014ko ekainaren 7an egindakoak, hartutakoa. Urteko kontu bateratu hauek egin diren datan, ez da balore bihur daitezkeen jaulkipenik egin akordio horrez geroztik.

2018ko ekainaren 2an, Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrean ahalmena eman zitzaion Administrazio Kontseiluari kapital soziala behin edo gehiagotan handitzeko akzio berriak jaulkita eta diru-ekarpenetan zordunduta bost urteko eperako eta baimendutako unean kapital sozialaren erdira arte. Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko garaian, ez da akordio horretatik inolako kapital-gehikuntzarik egin.

### b) Jaulkipen-prima

Jaulkipen-primaren saldoa eskuragarri dago hura erabiltzeko muga espezifikorik ez dagoen neurrian.

**c) Birbalorizazio-erreserba**

Hau da erreserba horrek 2019ko eta 2018ko ekitaldietan izan duen zenbatekoa:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| Aktibo materialen birbalorizazioa: | | |
| Lurrak (FINA) | 30.418 | 30.418 |
| 11/1996 Foru Arauaren araberako eguneratzea | 8.701 | 8.701 |
| **Guztira** | **39.119** | **39.119** |

11/1996 Foru Arauaren araberako eguneratzea

Saldo hau kontabilitate-emaitza negatiboak berdintzeko, kapital soziala zabaltzeko edo bana ezin daitezkeen erreserbetara eramateko erabil daiteke, aplikatu gabeko kontuaren saldoari dagokionez. Kontu horren saldoa 11/1996 Foru Arauan aurrez ikusita ez bezala erabiliko balitz, saldo horri dagozkion zergak ordaindu egin beharko lirateke.

**d) Legezko erreserba**

Kapital Sozietateen Legearen Testu Bateratuaren arabera, ekitaldiko irabaziaren % 10 eraman behar da legezko erreserbetara, horiek kapital sozialaren % 20 izan arte. Legezko erreserba dagoeneko gehitu den kapitalaren % 20tik gora dagoen saldoari dagokion kapitala handitzeko erabil daiteke. Aipatutako helburu horretarako izan ezik eta kapital sozialaren % 20 gainditzen ez duen bitartean, erreserba hori galerak berdintzeko bakarrik erabili ahal izango da, eta betiere horretarako erabil daitezkeen behar adinako beste erreserbarik ez badago. 2019ko eta 2018ko ekitaldien itxieran, erreserba hori erabat eratuta zegoen.

**e) Erreserba mugatuak eta eskuraezinak**

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, 91.601 mila eta 89.943 mila euroko erreserbak zeuden, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren, bateratutako sozietateen banakako urteko kontuetan, legezko erreserban, balantzeak eguneratzeagatiko erreserban, produkzio-inbertsioetarako erreserban (2/2014 Foru Araua), kapitala amortizatzeagatiko erreserban eta abarretan, eta horiek ezinbesteko eta mugatutako izaera dute hurrenez hurren. Halaber, sozietate batzuek finantzaketa-kontratuetatik eratorritako mugak dituzte (16. oharra).

Era berean, garapen-gastuen kontu-saila erabat amortizatu arte, debekatuta dago dibidenduak banatzea, erreserba erabilgarrien zenbatekoa amortizatu gabeko saldoen adinakoa, gutxienez, ez bada behintzat. 2019ko ekitaldiaren amaieran, beraz, 70.642 mila euroko erreserbak ez zeuden erabilgarri aipatutako arrazoiagatik (2018ko ekitaldiaren itxieran, 59.473 mila euro).

**f) Bihurketako aldeak**

Hona hemen "Bihurketa-diferentziak" kontuaren banaketa, sozietate bakoitzaren arabera, 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| CAF México, S.A. de C.V. | (1.532) | (1.998) |
| CAF Brasil Indústria e Comércio, S.A. | (45.093) | (45.800) |
| Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles Argentina, S.A. | (2.946) | (2.768) |
| CAF USA, Inc. | 1.632 | 816 |
| Construcción, Mantenimiento, Ferrovías y Subsistemas, S.A. de C.V. | (1.579) | (2.282) |
| CAFTurk Tren Sanayí Ve Tícaret Límíted Sírketí | (1.672) | (1.510) |
| CAF Argelia (EURL) | (498) | (519) |
| CAF India Private Limited | (1.008) | (1.008) |
| Ctrens Companhia de Manutençao, S.A. | (89.140) | (86.565) |
| Trenes CAF Venezuela, C.A. | (647) | (650) |
| Provetren, S.A. de C.V. | 1.897 | 1.480 |
| Solaris Bus & Coach, S.A. | 2.324 | - |
| CAF Rolling Stock UK Limited | 1.583 | (184) |
| Euromaint Gruppen AB | 1.474 | - |
| BWB Holdings Limited | 615 | - |
| Beste sozietate batzuk | (92) | (794) |
| **Guztira** | **(134.682)** | **(141.782)** |

**g) Partaidetza ez-kontrolatzaileak**

Honekin batera doan egoera-balantze bateratuko "Ondare garbia – Partaidetza ez-kontrolatzaileak" epigrafearen mugimendua eta osaera, 2019ko eta 2018ko ekitaldietan, hau izan zen:

| | Mila eurotan |
|---|---|
| **2017ko abenduaren 31ko saldoa** | **9.783** |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileei egotz dakizkiokeen irabaziak | (3.842) |
| Negozio-konbinazioa | 97 |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileekin egindako eragiketak | 1.072 |
| Dibidenduak | (1.555) |
| **2018ko abenduaren 31ko saldoa** | **5.555** |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileei egotz dakizkiokeen irabaziak | 345 |
| Bihurketako aldeak | 73 |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileekin egindako eragiketak | 7.484 |
| Dibidenduak | (1.327) |
| **2019ko abenduaren 31ko saldoa** | **12.130** |

**h) Kapitalaren kudeaketa**

Taldeko kapital-kudeaketaren xedea da kapital-kostua optimizatzeko finantza-egitura eraikitzea, betiere finantza-egoera sendoari eutsita. Politika horri esker, bateragarriak dira akziodunentzat balioa sortzea eta finantza-merkatuen kostu lehiakorrean jardutea, bai zorra birfinantzatzeko, bai negozio-funtsak estaltzen ez duen inbertsio-plana finantzatzeko.

CAF Taldeko administratzaileen iritziz, jarritako helburuak betetzearen adierazle da ahalik eta txikiena izatea matrizearekiko palanka-efektuaren maila. 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, zorraren zatirik handiena Brasilgo eta Mexikoko emakidari eta antzeko jarduerei zegokien (9.c oharra). Finantza-zor garbiaren zenbatekoaren eta ondare garbiaren arteko erlazioari deitzen zaio palanka-efektuaren maila:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| Finantza-zor garbia: | | |
| Itzuli beharreko aurrerakinak interesekin (15. oharra) | 11.363 | 12.451 |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak – Pasibo ez-korrontea (16. oharra) | 868.072 | 766.464 |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak eta betebeharrak – Pasibo korrontea (16. oharra) | 199.979 | 255.416 |
| Finantza-inbertsioak – Aktibo ez-korrontea (9.c oharra) | (12.144) | (13.194) |
| Aldi baterako finantza-inbertsioak (13. oharra) | (94.709) | (94.230) |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | (538.983) | (602.813) |
| | **433.578** | **324.094** |
| Ondare garbia: | | |
| Erakunde kontrolatzaileari egotzitakoa | 733.237 | 751.712 |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileak | 12.130 | 5.555 |
| | **745.367** | **757.267** |

## 15. BESTE FINANTZA-PASIBO KORRONTE ETA EZ-KORRONTE BATZUK, ETA BESTE KONPROMISO BATZUK

Hona hemen Taldeak 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n zituen finantza-pasiboen banakapena, bakoitzaren izaeraren arabera sailkatuta, hobeto baloratzeko:

| | Mila eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **2019/12/31** | | **2018/12/31** | |
| | **Epe luzera** | **Epe laburrera** | **Epe luzera** | **Epe laburrera** |
| Itzuli beharreko aurrerakinak | 33.151 | 10.002 | 32.929 | 11.620 |
| Langileekiko konpromisoak (3.k eta 23. oharrak) | 3.153 | - | 3.408 | - |
| Partaidetzak erosteagatiko pasiboak | 4.591 | 7.519 | 8.465 | 1.137 |
| Ibilgetuaren hornitzaileak (8. oharra) | - | 7.594 | - | 9.572 |
| Errentamentuengatiko hartzekodunak (8.b oharra) | 49.024 | 18.939 | 2.037 | 980 |
| Beste pasibo batzuk | 873 | 90 | 935 | 47 |
| **Guztira** | **90.792** | **44.144** | **47.774** | **23.356** |

Beste finantza-pasibo ez-korronte batzuen hurrengo urteetarako epemugaren araberako xehetasuna honako hau da (mila eurotan):

| | **2019** | | **2018** |
|---|---|---|---|
| 2021 | 28.970 | 2020 | 19.726 |
| 2022 | 18.070 | 2021 | 7.873 |
| 2023 | 14.668 | 2022 | 6.553 |
| 2024 | 8.176 | 2023 | 4.804 |
| 2025 eta hurrengoak | 20.908 | 2024 eta hurrengoak | 8.818 |
| **Guztira** | **90.792** | **Guztira** | **47.774** |

### Itzuli beharreko aurrerakinak

Ikerketa eta Garapeneko Programengatik zenbait diru-laguntza jaso ditu Taldeak. Diru-laguntza horiek benetan kobratzean erregistratzen dira edo, hala badagokie, baterako proiektuaren koordinatzaileak kobratzen dituenean. Hauek izan dira laguntzak:

– Proiektu horien gastuen eta kostuen zati bat ordaintzeko diru-laguntzak.

– Itzuli beharreko aurrerakinak, interesik gabeko maileguetan (gehienetan). Hiru urteko gabealdia dute hasieran, eta hamar urtetik gorako epean amortizatzen dira.

Epe luzerako zatirako aipatu ditugun programa horiek 2019ko eta 2018ko ekitaldietan sortu dituzten mugimenduak (egungo balioaren arabera) hauek izan dira:

| | Mila eurotan |
|---|---|
| | **Epe luzera itzulgarriak diren aurrerakinak** |
| **Saldoa 2017/12/31n** | **34.753** |
| Aldaketak Bateratze-perimetroan | 16 |
| Gehigarriak | 5.444 |
| Erregularizazioak eta bestelakoak | 244 |
| Epe laburrerako intsuldaketak | (7.528) |
| **Saldoa 2018/12/31n** | **32.929** |
| Gehigarriak | 8.293 |
| Erregularizazioak eta bestelakoak | 331 |
| Bihurketako aldeak | 3 |
| Epe laburrerako intsuldaketak | (8.405) |
| **Saldoa 2019/12/31n** | **33.151** |

### Langileekiko konpromisoak

Taldeak etorkizuneko konpromisoak erregistratuta ditu aurre-erretiroko planak harpidetuta dituzten langileekin (3.k oharra). Epe laburrerako konpromisoak atxikitako egoera-balantze bateratuko "Beste hartzekodun batzuk" epigrafean erregistratuta daude eta 2019ko abenduaren 31n 2.712 mila euroko zenbatekoa du (2.799 mila eurokoa 2018ko abenduaren 31n).

Era berean, Taldeak enplegu osteko prestazioen eta epe luzerako beste ordainketa batzuekin eta horiei estaldura ematera bideratutako aktibo atxikiekin lotuta bere gain hartutako konpromisoen egungo balioaren xehetasuna hauxe da 2019ko eta 2018ko ekitaldien itxieran (3.j oharra):

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| Hartutako konpromisoen uneko balioa | 51.374 | 44.738 |
| Ken - Aktibo atxikien arrazoizko balioa | (50.882) | (45.006) |
| **Beste (aktibo) pasibo korronte batzuk** | **492** | **(268)** |

Hartutako konpromisoek egun duten balioa aktuario independente adituek zehaztu dute. Zenbatekoak kuantifikatzeko, irizpide hauek aplikatu dituzte:

– Kalkulatzeko metodoa: "Proiektatutako kreditu-unitatea". Zerbitzu-urte bakoitza prestazioetarako eskubidea ematen duen unitate osagarriaren sortzailetzat hartzen du, unitate bakoitza bereizita aztertuta.

– Erabilitako aktuaritza-hipotesiak: inpartzialak eta elkarrekin bateragarriak. Oro har, kalkuluetan erabili dituzten aktuaritza-hipotesirik aipagarrienak hauek izan dira:

| **Aktuaritza-hipotesiak** | **2019** | **2018** |
|---|---|---|
| Interes teknikoko tasa | % 0,99-% 1,05 | % 1,75 - % 2,47 |
| Heriotza-tasaren taulak | PERM/F/2000P | PERM/F/2000P |
| Soldaten edo pentsioen berrikusketako urteko tasa | % 1-2 | % 1-2 |
| Erretiro adina | 65-67 | 65-67 |

Aktibo atxikien arrazoizko balioa ekitaldiaren itxieran kalkulatu da. Horretarako, proiektatutako kreditu-unitatearen kalkulu-metodoa erabili da.

### Partaidetzak erosteagatiko pasiboak

Epigrafe honetan, Rifer SRL (gainerako kapitalaren % 25), BWB Holdings Limited (gainerako kapitalaren % 26) sozietateetako gainerako kapitalaren salerosketako aukera gurutzatuengatik ordaintzea aurrez ikusita dauden zenbatekoak daude sartuta, baita Lander Simulation and Training Solutions, S.A enpresako txikizkako akziodunen salmenta-aukerak ere. Eragiketa horien prezioa aldakorra da, bi konpainien finantza-parametro jakin batzuen arabera aukerak egiteko datan. 2019ko ekitaldian, Taldeak, atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Finantza-sarrerak" epigrafean 3.721 mila eurok sarrera erregistratu du, aukeren prezioaren estimazioak behera egin baitu

Lander Simulation and Training Solutions, S.A. enpresako gainerako kapitalarengatiko salmenta-aukerak 2020an egin daitezke bere kapitalaren % 7,06rako eta 2021era arte gainerako % 28,81erako. Irteerako aukerek ezartzen duten prezioa aditu independente batek ekitaldiko datan egin beharreko Sozietatearen balorazioan oinarritzen da. Balio hori 5.716 mila eurotan baloratuta dagoela kalkulatzen da.

### Errentamentuengatiko hartzekodunak

Epigrafe honetan, 2019ko ekitaldian, Taldeak errentadun gisa dituen ondasunengatik pasibo guztiak barne hartzen dira (8.b oharra).

Datozen urteetan errentamentuengatikh artzekodunen mugaegunen xehetasuna honako hau da, epegemugaren arabera sailkatuta (milaka eurotan):

| | **2019** | | **2018** |
|---|---|---|---|
| 2021 | 15.590 | 2020 | 989 |
| 2022 | 10.956 | 2021 | 275 |
| 2023 | 9.440 | 2022 | 296 |
| 2024 | 3.823 | 2023 | 477 |
| 2025 eta hurrengoak | 9.215 | 2024 eta hurrengoak | - |
| **Guztira** | **49.024** | **Guztira** | **2.037** |

## 16. ZORRAK ETA BETEBEHARRAK KREDITU-ERAKUNDEEKIN EDO BESTE BALIO NEGOZIAGARRI BATZUK

Honekin batera doan egoera-balantze bateratuko epigrafearen osaera honako hau da:

**Mila eurotan**

| | | 2019/12/31 | | | 2018/12/31 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Moneta nominala** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** | **Guztira** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** | **Guztira** |
| Maileguak eta kreditu-kontuak | | | | | | | |
| Ctrens – BNDES | BRL | 107.159 | 15.826 | 122.985 | 124.343 | 14.689 | 139.032 |
| Provetren – Banku-sindikatua | USD | 61.976 | 16.371 | 78.347 | 76.539 | 22.298 | 98.837 |
| Erakunde kontrolatzailea (CAF SA) | EUR | 585.658 | 9.631 | 595.289 | 463.618 | 76.259 | 539.877 |
| CAF Investment Projects SAU | EUR | 19.866 | - | 19.866 | 19.832 | - | 19.832 |
| Solaris Taldea | PLN/EUR | 92.710 | 75.459 | 168.169 | 81.319 | 63.847 | 145.166 |
| Taldeko gainerako sozietateak | EUR | 703 | 223 | 926 | 813 | 391 | 1.204 |
| | | **868.072** | **117.510** | **985.582** | **766.464** | **177.484** | **943.948** |
| Betebeharrak edo beste balio negoziagarri batzuk: | | | | | | | |
| Paper komertzialean egindako jaulkipenak | EUR | - | 80.000 | 80.000 | - | 75.000 | 75.000 |
| Sortutako eta ordaintzeke dauden interesak | | - | 2.469 | 2.469 | - | 2.932 | 2.932 |
| **Guztira** | | **868.072** | **199.979** | **1.068.051** | **766.464** | **255.416** | **1.021.880** |

Honako hau da "Zorrak eta betebeharrak kreditu-erakundeekin edo beste balio negoziagarri batzuk" epigrafeko saldoak ekitaldian izandako mugimendua (mila eurotan):

| | |
|---|---|
| **2018ko abenduaren 31ko saldoa** | **1.018.948** |
| **Kaxako fluxuak** | |
| Xedapen berriak | 679.170 |
| Ordainketak epemugan | (658.013) |
| | **21.157** |
| **Beste mugimendu batzuk (kaxako fluxurik gabe)** | |
| Eremuan izandako aldaketak (2.f oharra) | 23.280 |
| Bihurketako aldeak | 1.767 |
| Amortizatutako kostuaren doiketak eta beste batzuk | 430 |
| | **25.477** |
| **2019ko abenduaren 31ko saldoa** | **1.065.582** |

Kreditu-erakundeekiko zorren zenbatekoak zuzenduta aurkeztu behar dira balantzean, maileguen irekiera eta formalizazioak eragindako kostuak jarrita, alegia.

**Ctrens – BNDES**

9.c oharrean deskribatutako CPTMren trenen alokairu-eragiketari dagokionez, 2011ko maiatzaren 10ean egindakoan, Ctrens-Companhia de Manutençao, SA (Ctrens) sozietate filialak Banco Nacional de Desenvolvimiento Econômico e Social (BNDES) bankuarekin finantzaketa-kontratu bat sinatu zuen. Kontratuaren zenbatekoa, gehienez, Brasilgo 946.890 mila errealekoa zen. Maileguak sortzen duen interes-tasa TJLP (Taxa de Juros de Longo Prazo) gehi diferentzial bat da. Mailegu nagusia elkarren segidako 160 hilabetetan amortizatuko da eta lehen mugaeguna 2013ko urtarrila da.

Kontratu horrek Ctrens-Companhia de Manutençao SA sozietatea mugatzen duten hainbat murriztapen-klausula ditu; besteak beste, banku-mailegu berriak eskuratzea, bermeak ematea, kapital-ordainketak egitea, dibidenduak banatzea eta 2013ko urtarriletik aurrera finantza-baldintza jakin batzuk betetzeko betebeharra. Baldintza horien artean dago Zor Zerbitzuaren Estalduraren Indizea (1,2tik gorakoa izan behar du) eta Gutxieneko Kapitalaren Egitura Formula (0,24tik gorakoa izan behar du). Klausula horiek 2019ko eta 2018ko ekitaldietan bete dira.

Era berean, 2011ko ekainaren 15ean, sozietate filialak BNDESekin lagapen fiduziarioko kontratu bat sinatu zuen. Kontratu horren arabera, bermean lagatzen ditu CTRESNek CPTMrekin dituen kobrantza-eskubideak eta CPTMk filialarentzat emandako bermeak eta filialak CPTMri, erakunde kontrolatzaileari eta CAF Brasil Indústria e Comércio, S.A. enpresari eska diezaiokeen beste edozein zenbateko.

**Provetren – Banku-sindikatua**

9.c oharrean deskribatutako trenak epe luzera alokatzeko zerbitzuen kontratuari (PPS – 12. Linea) dagokionez, 2012ko abenduaren 7an, Provetren SA de CV sozietate filialak BBVA Bancomer SA, Banco Nacional de México SA, Banco Santander (México) SA, Sumitomo Mitsui Banking Corporation eta Caixabank SAk osatutako banku-sindikatu batekin epe luzerako finantzaketa-kontratu bat sinatu zuen, Estatu Batuetako 300 milioi dolarrekoa. Maileguak sortutako interes-tasa LIBORen araberakoa da. Interes-tasaren kurban gorabeherarik izan ez dadin, eta finantzaketa mota hauetan ohikoa den moduan, Provetrenek interes-tasaren estaldura-kontratu bat sinatu du finantzaketaren % 80rako eta epearen % 80rako (17. oharra).

Maileguaren zati nagusia hiru hilez behingo ondoz ondoko 39 kuotatan amortizatuko da eta kobrantzen profila PPSaren arabera doituko da. Lehen epemuga 2013ko urrikoa izango zen.

Kontratuak hainbat murriztaile ditu eta mugatu egiten dute Provetren SA de CV; besteak beste, bankuko mailegu gehiago lortzeko, bermeak emateko, kapital-ordainketak egiteko, ratio jakin batzuetara iristen ez bada dibidenduak banatzeko eta 2013ko urritik aurrera finantza-baldintza jakin batzuk (horien artean Zor Zerbitzuaren Estaldura Indizea 1,15 baino altuagoa izatea) izateko mugak jartzen ditu. Klausula horiek 2019ko eta 2018ko ekitaldietan bete dira.

Era berean, 2012ko abenduaren 7an, sozietate filialak Banco Invexekin fideikomiso-kontratu bat sinatu zuen. Fiduziazio gisa jokatu zuen eta BBVA Bancomer SAk lehen fideikomisario gisa. Kontratu horren bidez, bermean lagatzen ditu Provetrenek PPSren pean dituen kobrantza-eskubideak, Interes Tasa Estaltzeko kontratutik eratorritako kobrantza-eskubideak, fabrikazio- eta mantentze-lanetako kontratuen kobrantza-eskubideak, BEZa berreskuratzeko edozein diru-sarrera eta aseguru-polizatik eratorritako zenbatekoak.

Ctrens-Companhia de Manutençao SA eta Provetren SA de CV filialen akzioak BNDESen eta lehen aipatutako banku-sindikatuaren alde pignoratuta daude, hurrenez hurren. Aipatutako epe luzerako bi finantzaketa-kontratuetan maileguemaileek ez dute CAF Taldea osatzen duten sozietateetarako baliabiderik, baliabide teknikoetatik haragokorik behintzat.

**Erakunde kontrolatzailearen maileguak**

2019ko ekitaldian, erakunde kontrolatzaileak sei mailegu berri kontratatu ditu finantza-erakundeekin, guztira 135 milioi euroko zenbatekoarekin. Mailegu horiek 90 mila euroko zenbatekoarekin erabilita zeuden 2019ko abenduaren 31n.

Era berean, 2019ko ekitaldian, Erakunde kontrolatzaileak 15 milioi euroko zenbatekoa duten epemugei egin die aurre eta 25 milioi euroko zenbatekoa duten bi mailegu balioagabetu dira aldez aurretik.

Bestalde, Erakunde kontrolatzaileak lehendik dauden sei maileguren baldintza berriak negoziatu ditu kreditu-erakundeekin 138 milioi euroko zenbatekoarekin eta itzuli beharreko zenbatekoa 8 milioi eurotara zabaldu da, merkatuko interes-tasa finkoan eta epemuga hiru eta sei urte artean zabaldu da.

Kreditu-erakundeekin zituen zorren zenbateko osotik, 2019ko abenduaren 31n, 377,3 milioi euro interes-tasa finkora erreferentziatuta zeuden (25 milioi artikulatuta interes-tasaren swap bidez, 17. oharra).

2018ko ekitaldian, erakunde kontrolatzaileak sei mailegu berri kontratatu ditu finantza-erakundeekin, guztira 175 milioi euroko zenbatekoarekin. Mailegu horiek guztiz erabilita zeuden 2018ko abenduaren 31n. 2018ko ekitaldian zehar 6,5 milioi

euro amortizatu ziren. 2018ko abenduaren 31n, 410,2 milioi euro interes-tasa finkora erreferentziatuta zeuden (31,7 milioi artikulatuta interes-tasaren swap bidez, 17. oharra).

**Solaris**

2016ko urriaren 28an, Solaris Bus & Coach SAk (Solaris) bankuen kontsortzioak emandako finantzaketa jaso zuen. Finantzaketa horrek bi lerro (A eta B) jasotzen ditu. A lerroak Poloniako zlotytan egindako 400 milioiko finantzaketa-muga biltzen du, eta B lerroak, aldiz, 100 milioi zlotykoa. Bi lerroen epemuga 2021eko urrikoa da, eta 2019ko abenduaren 31n, Poloniako 394 milioi zlotytan erabilgarri zeuden (ekitaldiko itxierako kanbio-tasaren arabera, 93 milioi euro). Finantzaketa-lerro horrek Solarisek entregatutako bermeak biltzen ditu eta batez ere eskubide eta ondasunekin lotuta daude (aktibo materialak, markak, kontu korronteak eta kobratu beharreko kontuak besteak beste).

Zor hori merkatuko interes-tasei erreferentziatuta eta finantza-baldintza jakin batzuk mantentzearen mende dago. Horien artean jasota dago honako hauek mantentzea: 4 baino gutxiagoko sortzapen-ratioa (edo 4,5 sortzapenean factoringa errekurtsoarekin aintzat hartuta), zorraren zerbitzu-estalduraren ratioa 1,25ean edo gehiagoan, aktiboen gaineko ondarea % 10koa edo handiagoa, emaitza garbi positiboa eta inbertsioen gehieneko zenbatekoa; baldintza horiek 2019ko abenduaren 31n beteko dira.

2018ko abenduaren 21ean, 2016ko urriaren 28an adostutako akordioa aldatu zen. Haren arabera, bankuek sozietatea salbuetsi egin zuten 2018ko ekitaldi-itxierako datan finantza-baldintzak betetzetik.

Gainera, Solarisek Poloniako 287 milioi zlotyko epe laburrerako zorra du (67.332 milioi euro ekitaldi-itxierako kanbio-tasaren arabera) efektu deskontatuekin lotutako zorrak direla eta (merkatuko tasetara erreferentziatuta).

Azkenik, epe laburreko zorrarekin lotuta 8 milioi euroko zenbatekoa dute Solaris Norge AS, Solaris France SARL eta Solaris Sverige AB sozietateek batez ere. Horiek guztiak merkatuko interes-tasara erreferentziatuta eta Solaris Bus & Coach Sak bermatuta daude.

**CAF Investment Projects SAU eta gainerakoak**

2016ko uztailean, CAF Investment Projects SAU mendeko sozietateak 20.000 mila euroko zenbatekoa zuen mailegua erabili zuen. Mailegu hori erakunde kontrolatzaileak bermatu du eta zortzi urteko iraupena du. Sei urteko gabealdia du, eta Euriborrari erreferentziatutako interesa sortzen du. Mailegu horrek mailegu-emailearengandik jasotako ekarpenaren eta CAF Investment Projects SAUk atzerriko sozietateetan duen inbertsio-bolumenaren artean gutxieneko ratioa mantentzeko betebeharra finkatzen du. Ratio hori betetzen zen 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n.

Finantza-zorraren gainerakoa merkatuko interes-tasa batean erreferentzia duten mendeko sozietateek jasotako maileguei dagokie.

**Paper komertzialean egindako jaulkipena**

2017ko abenduaren 21ean, erakunde kontrolatzaileak epe laburreko paper komertziala jaulkitzeko programa formalizatu zuen ("Euro-Commercial Paper Programme"), hasierako 200 milioi euroko gehieneko saldo nominal erantsiarekin ("Programa"), eta hori Irlandako Burtsan erregistratu zen (Irish Stock Exchange). Programa 12 hilabeteko aldietarako berritu da 2018ko abenduan, eta ondoren 2019ko abenduaren 19an. Azken berritze horretan, gehieneko saldo nominala 250 milioi eurotan handitu da. 2019ko ekitaldian, programa horren kargura 392,95 milioi euroko balioa zuten jaulkipenak egin zituzten. Epemugan amortizatu dira. Programari esker CAFek, Programari dagokion informazio-dokumentuko (Information Memorandum) baldintzetan eta 12 hilabeteko aldian, ohiko errenta finkoko baloreak jaulki ahal izango ditu 364 egun baino gutxiagoko mugaegunarekin. Horiek negoziazioan onar litezke Irlandako Balore Burtsako merkatu arautuan (Irish Stock Exchange) edo beste edozein balore-burtsatan edo negoziazio-sistematan. 2019ko abenduaren 31n, epemugaren zain dago 80 milioi euroko zenbatekoa, 2020ko lehen hilabeteetako epemugarekin egindako jaulkipenei dagokiena (75 milioi ziren 2018ko abenduaren 31n).

**Erabili gabeko kredituak eta mugaegunak**

Taldeko sozietateek erabili gabeko 280.100 mila euroko (246.525 mila euro 2018ko abenduaren 31n) kreditu-erraztasunak dituzte. Horiek erabili gabeko factoring, kreditu-lerro eta mailegu gisa instrumentatuta daude eta batez ere Euriborrari gehi merkatuko diferentzial bati erreferentziatuta daude.

Epe luzera begira, kreditu-erakundeekin aurrez ikusitako zorrekiko amortizazioak jarraian daude zehaztuta (mila eurotan):

| | 2019/12/31 | | 2018/12/31 |
|---|---|---|---|
| 2021 | 213.457 | 2020 | 142.152 |
| 2022 | 146.821 | 2021 | 173.723 |
| 2023 | 89.107 | 2022 | 138.249 |
| 2024 | 181.754 | 2023 | 77.149 |
| 2025 eta hurrengoak | 236.933 | 2024 eta hurrengoak | 235.191 |
| **Guztira** | **868.072** | **Guztira** | **766.464** |

## 17. FINANTZA-TRESNA ERATORRIAK

Finantza-tresna deribatuak erabiltzen ditu CAF taldeak bere etorkizuneko jarduerek, eragiketek eta eskudiru-fluxuek jasaten duten arriskuez babesteko. Truke-tasen eta interes-tasaren gorabeheretatik eratorritako arriskuak dira batik bat (5.a oharra). Truke-tasarekiko babes moduan erabiltzen ditu CAF Taldeak deribatuak, haien aldaketek etorkizuneko kutxa-fluxuetan izan lezaketen ondorio negatiboa leuntzeko, salerosketak eta maileguak sozietate bakoitzak erabili ohi duen moneta ez den beste batean egiten direnean.

Era berean, integrazio globalaren metodoaren bidez integratutako hainbat sozietatek interes-tasen estaldura-kontratuak dituzte (5.a oharra).

Hona hemen 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n bateratutako egoera-balantzean zeuden deribatuen (arrazoizko balioko estaldurakoak, batik bat) balorazio-saldo garbien osaera:

**2019ko ekitaldia**

| | Epemuga nozionalak (dibisan) | | |
|---|---|---|---|
| **Dibisatan egindako salmenten eratorriak 2019/12/31n** | **2020** | **2021** | **2022 eta hurrengoak** |
| **Arrazoizko balioaren estaldurak** | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak (*) | 354.790.102 | 68.655.183 | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 264.369.800 | 54.448.371 | 243.824.029 |
| Euroaren truke-aseguruak | 2.318.940 | - | - |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | 70.870.207 | - | - |
| Koroa suediarretara trukatzeko aseguruak | 856.207.895 | - | - |
| Australiako dolarren truke-aseguruak | 16.842.010 | 45.922.439 | 645.802.427 |
| Taiwaneko dolarretako truke-aseguruak | 77.422.500 | - | - |
| Saudi Arabiako rialen truke-aseguruak | 81.139.390 | - | - |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | 1.842.418.091 | 15.934.685 | - |
| Kanadako dolarraren truke-aseguruak | - | - | - |
| Turkiako liren truke-aseguruak | 2.410.882 | - | - |
| Japoniako yenen truke-aseguruak | 6.791.754.460 | 6.975.456.165 | - |
| Argentinako pesoen truke-aseguruak | 122.000.000 | - | - |
| Hegoafrikako rand-etan egindako truke-aseguruak | - | - | - |
| Zeelanda Berriko Dolarraren truke-aseguruak | 3.500.687 | - | - |
| Hungariako Florinen truke-aseguruak | 215.790.000 | - | - |

(*) CAF USA Inc.-ko inbertsio garbiaren estaldura partziala biltzen du 22.300 mila euroko zenbatekoarekin, eta Provetren-en egindako inbertsio garbiaren estaldura 199.782 mila USDren truke.

| | Epemuga nozionalak (dibisan) | | |
|---|---|---|---|
| **Dibisatan egindako erosketen eratorriak 2019/12/31n** | **2020** | **2021** | **2022 eta hurrengoak** |
| **Arrazoizko balioaren estaldurak** | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak | 44.344.161 | 6.632.384 | - |
| Euroaren truke-aseguruak | 39.289.240 | - | - |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | 6.439.468 | - | - |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | 1.021.333.911 | - | - |
| Japoniako yenen truke-aseguruak | 1.265.916.000 | - | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 110.208.756 | 39.792.125 | - |
| Australiako dolarren truke-aseguruak | - | 7.682.932 | 28.078.510 |
| **Eskudiruaren fluxuen estaldurak** | | | |
| Kolonbiako pesoetan egindako truke-aseguruak | 48.000.000.000 | - | - |
| Japoniako yenen truke-aseguruak | 1.759.692.274 | - | - |

| | Maileguen epemuga nozionalak (dibisatan) | | |
|---|---|---|---|
| **Interes-tasetatik eratorritakoak** | **2020** | **2021** | **2022 eta hurrengoak** |
| Swap Euribor | - | - | 25.000.000 |
| Swap LIBOR | 16.150.923 USD | 58.988.067 USD | - |

| | Mila eurotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **Arrazoizko balioa** | | **Eskudiru-fluxuak** | |
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| **Estaldurak:** | | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak | (6.769) | (23.945) | - | 31 |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | (4.845) | (19.552) | - | - |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | (9.677) | (14.962) | - | - |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | (2.005) | (2.766) | - | - |
| Euroaren truke-aseguruak | (143) | (1.071) | - | - |
| Truke-aseguruak koroa suediarretan | (1.009) | (2.331) | - | - |
| Saudi Arabiako rialen truke-aseguruak | 2.621 | 1.218 | - | - |
| Taiwaneko dolarren truke-aseguruak | (460) | 798 | - | - |
| Japoniako yenen truke-aseguruak | 2.702 | 4.295 | 901 | - |
| Australiako dolarren truke-aseguruak | (3.369) | | - | |
| Beste dibisa batzuen truke-aseguruak | (140) | 35 | 977 | (29) |
| Interes-tasen truke-aseguruak | - | - | (690) | (525) |
| **Balorazioa, itxieran (*)** | **(23.094)** | **(58.281)** | **1.188** | **(523)** |

(*) Zerga mailako eragina kontuan hartu aurretik.

**2018ko ekitaldia**

| | Epemuga nozionalak (dibisan) | | |
|---|---|---|---|
| **Dibisatan egindako salmenten eratorriak 2018/12/31n** | **2019** | **2020** | **2021 eta hurrengoak** |
| **Arrazoizko balioaren estaldurak** | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak (*) | 471.705.519 | 13.714.275 | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 244.987.890 | 183.117.700 | 249.852.362 |
| Euroaren truke-aseguruak | 3.218.940 | 159.470 | - |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | 158.048.888 | - | - |
| Koroa suediarretara trukatzeko aseguruak | 583.657.791 | 86.664.170 | - |
| Australiako dolarren truke-aseguruak | 50.561.761 | 10.516.460 | 106.827.784 |
| Taiwaneko dolarretako truke-aseguruak | 103.345.637 | - | - |
| Saudi Arabiako rialen truke-aseguruak | 100.632.687 | - | - |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | 2.940.465.872 | 15.934.685 | - |
| Kanadako dolarraren truke-aseguruak | 47.047 | - | - |
| Turkiako liren truke-aseguruak | 11.565.720 | - | - |
| Japoniako yenen truke-aseguruak | 13.589.382.335 | 4.081.705.774 | - |
| Argentinako pesoen truke-aseguruak | 76.866.717 | - | - |
| Hegoafrikako rand-etan egindako truke-aseguruak | 3.984.534 | - | - |

(*) CAF USA Inc.-ko inbertsio garbiaren estaldura partziala biltzen du 22.300 mila euroko zenbatekoarekin, eta Provetren-en egindako inbertsio garbiaren estaldura 213.106 mila USDren truke.

| | Epemuga nozionalak (dibisan) | | |
|---|---|---|---|
| **Dibisatan egindako erosketen eratorriak 2018/12/31n** | **2019** | **2020** | **2021 eta hurrengoak** |
| **Arrazoizko balioaren estaldurak** | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak | 40.544.900 | 31.873.000 | - |
| Euroaren truke-aseguruak | 77.998.398 | - | - |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | 7.020.251 | - | - |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | 59.767.000 | 1.382.694.596 | - |
| Japoniako yenen truke-aseguruak | - | 3.297.090.500 | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 1.389.063 | 76.400.000 | - |
| **Eskudiruaren fluxuen estaldurak** | | | |
| Kolonbiako pesoetan egindako truke-aseguruak | - | 48.000.000.000 | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 24.397.052 | - | - |

| | Maileguen epemuga nozionalak (dibisatan) | | |
|---|---|---|---|
| **Interes-tasetatik eratorritakoak** | **2019** | **2020** | **2021 eta hurrengoak** |
| Swap Euribor | 6.666.667 EUR | - | 25.000.000 EUR |
| Swap LIBOR | 20.494.634 USD | 16.150.923 USD | 58.988.067 USD |

2019ko eta 2018ko ekitaldien amaieran, SEM Los Tranvías de Zaragoza SA sozietate elkartuak (9.a oharra) hainbat finantza-truke ditu kontratatuta, finantza-zorren nominalarekin lotuta. Finantza-truke horiek eskudiru-fluxuen estaldurarako tresna gisa izendatu dira interes-tasaren arriskuagatik eta Taldeari dagokion balorazioa efektu fiskalaren 4.322 mila euro garbikoa zen 2019ko abenduaren 31n (4.643 mila euro 2018ko abenduaren 31n). Era berean, Momentum Trains Holding Pty Ltd (9.a oharra) sozietate elkartuak interes-tasaren swap bat du kontratatuta Deribatu hori eskudiru-fluxuen estaldura tresna gisa izendatu da. Taldeari dagokion balorazio negatiboa 7.642 mila eurotara iritsi da 2019ko abenduaren 31n. Zenbateko horiek 2019ko abenduaren 31ko balantze bateratuko "Ondare garbia - beste emaitza integral bat - Estaldurako eragiketak" epigrafean erregistratu dira

Estaldura-tresnen epemuga bat dator eskudiru-fluxuak gertatzea aurrez ikusitako ekitaldiarekin.

Jarraian, ekitaldi bakoitzeko itxierako balorazioaren eta egoera-balantzean azaltzen diren saldoen arteko bateratzea azaltzen da (mila eurotan):

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Aktibo ez-korrontea | 45.001 | 10.720 |
| Aktibo korrontea | 40.010 | 5.849 |
| Pasibo ez-korrontea | (45.777) | (11.206) |
| Pasibo korrontea | (61.140) | (64.167) |
| **Balantzearen guztizko garbia** | **(21.906)** | **(58.804)** |
| Arrazoizko balioa | (23.094) | (58.281) |
| Eskudiru-fluxuak | 1.188 | (523) |
| **Deribatu edo eratorrien balorazioa, guztira** | **(21.906)** | **(58.804)** |

2019ko ekitaldian, galera eta irabazien kontuan zordundutako eta egindako estaldura-eragiketen eraginkortasunik gabeko zatiari dagokion eragina 1.731 mila eurokoa izan da (3.618 mila euroko gastua 2018an). Batez ere, estalitako kontu-sailen estimazioen zenbatekoan izandako aldaketek eragin dute hori.

Horrez gain, arrazoizko balioaren deribatuen balioak izan duen likidazioak 34.456 mila euroko eta 4.861 mila euroko gastua eragin dute 2019ko eta 2018ko ekitaldietan hurrenez hurren; zenbateko horiek estalitako kontu-sailen balioak jasan duen aldaketaren antzekoak dira.

Taldean estalitako kontu-sailak (Merkatuko Arriskuei buruzko 5.a oharrean zehaztutakoaren arabera) kontratu komertzial bakoitzean bildutako dibisan egindako eragiketak izan dira. Estalduren kontratazioko hasierako unean, eragiketa horiek konpromiso irmo (kasu horretan, arrazoizko balioa duten estaldura gisa erregistratzen dira) edo gertatzeko probabilitate maila altuko transakzio gisa (kasu horretan, eskudiru-fluxuaren estaldura gisa erregistratzen dira) osatzen dira, edo atzerrian egindako inbertsio garbi gisa.

## 18. ZERGA KORRONTEAK ETA GERORATUAK

Taldeak, indarrean dagoen zerga-araudia aplikatuta, Sozietateen gaineko Zergaren horniduraren kalkulua egin du 2019ko abenduaren 31n. 2018ko maiatzaren 10ean, Sozietateen gaineko Zergaren 1/2018 Foru Araua onartu zuten Gipuzkoan, eta erakunde kontrolatzailea buru duen Talde Fiskalari aplikagarria zaion zerga-esparrua nabarmen aldarazi du horrek. Hala, zerga-tasa gutxitu izanaren (aurretik % 28koa zen eta 2018an % 26koa izatetik 2019an % 24koa izatera igaro zen) eta zerga-oinarri negatiboen dedukzioak eta konpentsazioa aplikatzearekiko mugaketan egindako aldaketak direla eta, zerga geroratuengatiko aktiboen eta pasiboen zenbatekoa erregularizatu egin zen eta horrek 2018ko ekitaldiko irabazien gaineko zergetan 13.753 mila euroko gastua eragin du. Dena den, zerga arloko erreformen ondorioz egungo araudiak aurrez ikusitakoekiko ezberdinak diren zerga-tratamenduak egingo balira, onarpenaren ondoren aurkezten diren hurrengo finantza-egoeretan aplikatuko lirateke.

Erakunde kontrolatzaileak, 2007ko ekitalditik, Gipuzkoako lurralde historikoan ordaintzen ditu zergak Kontsolidazio Fiskaleko Erregimenean mendeko sozietate jakin batzuekin batera.

Taldearen kontabilitateko emaitzaren eta Sozietateen gaineko Zergari dagokion gastuaren arteko berdinkatzea hauxe da:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019** | **2018** |
| **Zergen aurreko kontabilitateko emaitza** | **61.138** | **80.575** |
| Matrizearen zerga-tasa | % 24 | % 26 |
| **Sozietateen gaineko zerga, matrizearen zerga-tasaren arabera kalkulatuta** | **14.672** | **20.950** |
| Filialen zerga-tasa ezberdinak eragindako efektua | 2.602 | 3.168 |
| Salbuetsitako sarrerek eta fiskalki deduzigarriak ez diren gastuek eragindako efektua | 24.630 | 4.069 |
| Ekitaldian erregistratutako dedukzioen eta zerga mailako beste laguntza batzuek eragindako efektu fiskala | (5.162) | (2.269) |
| Aurreko ekitaldietan onartu edo erregistratu gabeko geroratutako zergek edo zerga-kredituek eragindako efektu fiskala | (2.312) | 1.027 |
| Ekitaldian onartutako doikuntzak aurreko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergarekin lotuta | 1.616 | 257 |
| Aldaketak zerga-tasan | 2 | 13.753 |
| **Galera eta irabazien kontu bateratuan aitortutako zergak eragindako gastua, guztira (sarrera)** | **36.048** | **40.955** |
| **Zerga korronteak eragindako gastua (sarrera) (*)** | **37.577** | **36.130** |
| **Zerga geroratuak eragindako gastua (sarrera)** | **(1.529)** | **4.825** |

(*) Aurreko ekitaldietako sozietateen gaineko zergak eta doikuntzak biltzen ditu.

Erakunde kontrolatzaileak Sozietateen gaineko Zergari buruzko 7/1996 Foru Arauko 39. artikuluan aurrez ikusitako pizgarri fiskala jaso zuen 2013an. 2018ko abenduaren 31n, Sozietateak pizgarri harekin lotutako inbertsio-konpromiso guztiak gauzatuta ditu (14. oharra).

Erakunde kontrolatzaileak, 2016an, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauko 36. artikuluan aurrez ikusitako erregimenari heldu zion 6.337 mila euroko zenbatekoarekin. Berrinbertsio-konpromisoa, 13.500 mila eurokoa, batez ere 2016ko ekitaldian sozietate nagusiak eta zerga-kontsolidazioko erregimena osatzen zuten gainerako erakundeek ibilgetu materialeko eta ukiezineko elementuetan egindako inbertsioetan gauzatu zen.

Egotzitako zerga-kargaren eta, ekitaldi horretan, atxikitako egoera-balantze bateratuko aktiboaren edo pasiboaren "Zerga geroratuengatiko aktiboak" eta "Zerga geroratuengatiko pasiboak" epigrafeetan dago erregistratuta.

| | Mila eurotan | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2018/12/31 | Perimetrora sartutakoak | Gehigarriak | Bajak | Bihurketako aldeak | 2019/12/31 |
| **Geroratutako zerga aktiboak:** | | | | | | |
| Oraindik aplikatu gabe dauden dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak (3.l oharra) | 70.084 | - | 116 | (9.784) | 3 | 60.419 |
| Denboran deduzigarriak ez diren hornidurak | 70.796 | 440 | 25.263 | (18.466) | 19 | 78.052 |
| NF 1/2013 balantzeen eguneraketa-eragina | 2.451 | - | 1 | (193) | - | 2.259 |
| Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk | 5.217 | - | 427 | (184) | (56) | 5.404 |
| | **148.548** | **440** | **25.807** | **(28.627)** | **(34)** | **146.134** |
| **Geroratutako zerga pasiboak:** | | | | | | |
| Zorro-hornidurak, amortizazio-askatasuna eta amortizazio azkartua (7, 8 eta 9 oharrak) | 135.939 | 221 | 4.625 | (27.668) | 766 | 113.883 |
| Ibilgetu ukiezinaren eta materialaren balio-handitzea (2.f. eta 14. oharrak) | 39.134 | 7.145 | 242 | (4.109) | 373 | 42.785 |
| Trukeko edo kanbioko aldeak | 74 | - | 542 | (68) | 1 | 549 |
| Merkataritza-funtsa | 16 | - | - | - | - | 16 |
| Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk | 2.028 | - | (107) | - | (9) | 1.912 |
| | **177.191** | **7.366** | **5.302** | **(31.845)** | **1.131** | **159.145** |

| | Mila eurotan | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017/12/31 | Hasierako doiketak (2.b, 2.f eta 7 oharrak) | 2018/01/01 ean doitutako hasierako saldoa | Perimetrora sartutakoak | Gehigarriak | Bajak | Bihurketako aldeak | Erregularizazioak eta tasa-aldaketak | 2018/12/31 |
| **Geroratutako zerga aktiboak:** | | | | | | | | | |
| Oraindik aplikatu gabe dauden dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak (3.l oharra) | 86.560 | - | 86.560 | 2.366 | 22.046 | (27.157) | (1.060) | (12.671) | 70.084 |
| Denboran deduzigarriak ez diren hornidurak | 50.486 | 2.795 | 53.281 | 12.728 | 23.510 | (12.801) | (1.399) | (4.523) | 70.796 |
| NF 1/2013 balantzeen eguneraketa-eragina | 3.109 | - | 3.109 | - | - | (215) | - | (443) | 2.451 |
| Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk | 4.834 | - | 4.834 | 222 | 885 | (29) | (348) | (347) | 5.217 |
| | **144.989** | **2.795** | **147.784** | **15.316** | **46.441** | **(40.202)** | **(2.807)** | **(17.984)** | **148.548** |
| **Geroratutako zerga pasiboak:** | | | | | | | | | |
| Zorro-hornidurak, amortizazio-askatasuna eta amortizazio azkartua (7, 8 eta 9 oharrak) | 140.160 | - | 140.160 | 363 | 5.153 | (6.380) | (842) | (2.515) | 135.939 |
| Ibilgetu ukiezinaren eta materialaren balio-handitzea (2.f. eta 14. oharrak) | 11.829 | 3.684 | 15.513 | 26.515 | - | (1.167) | (37) | (1.690) | 39.134 |
| Trukeko edo kanbioko aldeak | 58 | - | 58 | 138 | 12 | (135) | 1 | - | 74 |
| Merkataritza-funtsa | 28 | - | 28 | - | - | (2) | - | (10) | 16 |
| Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk | 1.730 | - | 1.730 | - | 324 | - | (10) | (16) | 2.028 |
| | **153.805** | **3.684** | **157.489** | **27.016** | **5.489** | **(7.684)** | **(888)** | **(4.231)** | **177.191** |

Taldeak, 2019ko ekitaldian, 16.285 mila euroko zenbatekoa duten dedukzioak egiaztatzea aurrez ikusi du (13.279 mila euro 2018ko ekitaldian). Horiek, batez ere, I+G arloko dedukzioen eta zerga bikoitzagatiko kenkarien ingurukoak dira. 2019ko Zergaren aurreikuspenaren ostean aplikatzeke dauden dedukzioen zenbatekoa 120.583 mila eurokoa da (113.250 mila eurokoa 2018ko ekitaldian). Zenbateko horretatik, 27.320 mila euroko zenbatekoa (batez ere erakunde kontrolatzailearen zerga-taldetik jasotakoa) epigrafe honetan dago erregistratuta: "Zerga geroratuengatiko aktiboak - Aplikatu gabe dauden dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak" (32.293 mila euro 2018ko ekitaldian). Aktibatutako eta konpentsatu gabeko zerga-oinarri negatiboen zenbatekoa 33.099 mila eurokoa da 2019ko abenduaren 31n (2018ko ekitaldian, 37.791 mila eurokoa zen). Zerga-oinarri negatiboak, batez ere, erakunde kontrolatzeailearen zerga-taldeari dagozkio eta 32.185 mila eurokoak dira (36.708 mila eurokoak 2018ko abenduaren 31n). Era berean, Provetren SA de CVk, 2019ko abenduaren 31n, pasibo geroratuaren zergagatik 68.569 mila euroko zenbatekoa du erregistratuta, finantza-egoeretan aktiboen liburuetako zenbatekoaren eta Mexikon indarrean den araudiaren arabera % 30eko tasarekin kalkulatutako haien balio fiskalaren arteko aldi bateko diferentzia dela eta (72.148 mila eurokoa 2018ko abenduaren 31n).

Azkenik, Ctrens mendeko sozietateak 41.734 mila euroko zenbatekoa duen zerga geroratuagatiko pasiboa du erregistratuta 2019ko abenduaren 31n liburuetan duen balioarekiko emakidaren finantza-aktiboaren amortizazio fiskalak erritmo ezberdina duelako (38.820 mila euro 2018ko abenduaren 31n).

Oro har, aipatutako dedukzioen helburu diren aktiboek edo ondare-elementuek Taldean funtzionamenduan jarraitu behar dute aurrez ikusitako helburuekin lotuta gutxienez bost urteko epean edo, hiru urteko epean, ondasun higigarriak direnean, horien bizitza erabilgarria txikiagoa denean izan ezik. Hori dela eta, ez dira transmisioaren, errentamenduaren edo erabiltzeko hirugarren batzuei egindako lagapenaren helburu bihurtuko, justifikatutako galeretan izan ezik.

Geroratutako zerga dela eta aktiboak berreskuratzearekin lotutako ziurgabetasuna kontuan hartuta, Taldeak eskaeren zorroaren ebaluazioan oinarritutako aktibazio-irizpidea mantentzen du. Irizpide horrek zehaztutakoaren arabera, Taldeak, gutxi gorabehera, aktibatu gabe ditu 154.196 mila euroko zenbatekoa duten dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak (133.760 mila euro 2018ko ekitaldian). Dedukzio horiek hurrengo ekitaldietan aplikatzeko aukera dagoen heinean aktibatuko dira indarrean dagoen araudiak zehaztutako mugen eta epeen arabera. Horrez gain, Taldeak erregistratu gabeko aktiboaren geroratutako zergak ditu. Horiek ez dute epemuga zehatzik eta haien zenbatekoa 12.785 mila eurokoa da (11.182 mila eurokoa 2018an).

Taldearen zerga mailako dedukzioen, aktiboaren geroratutako zergen eta zerga-oinarri negatiboen zenbatekoa eta aplikatzeko epea honako hau da:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| Epemuga 2020an | 316 | 7 |
| Epemuga 2021ean | 1.988 | 1.994 |
| Epemuga 2022an | 666 | 8 |
| Epemuga 2023an | 430 | 712 |
| Epemuga 2024an | 380 | 788 |
| Epemuga 2025ean | 557 | 380 |
| Epemuga 2026an | 1.604 | 352 |
| Epemuga 2027an | 825 | 1.399 |
| Epemuga 2028an | 657 | 817 |
| Epemuga 2029an eta hurrengoetan | 106.093 | 88.625 |
| Epemugarik gabe | 53.465 | 49.860 |
| | **166.981** | **144.942** |

Era berean, 2018ko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren estimazioaren eta azkenean aurkeztutako aitorpenaren arteko aldeak direla eta, 1.616 mila euroko gastua sortu da (2018ko ekitaldian, 257 mila euroko gastua izan zen).

Indarrean dagoen legeriaren arabera, zergak ezin dira behin betikoz ordaindutakotzat hartu aurkeztutako aitorpenak zerga arloko agintariek ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio-epea amaitu arte. 2019ko ekitaldia ixtean, Taldeak 2015eko eta hurrengo ekitaldiak Sozietateen gaineko Zerga ikuskapenerako irekita zituen. Gainera, 2016ko ekitaldikoak eta hurrengoetakoak irekita ditu zergak Espainian ordaintzen dituzten sozietateen eta atzerriko sozietateen kasuan aplikagarriak diren gainerako zergetarako, aplikagarria den tokiko araudiaren arabera. Erakunde kontrolatzaileko administratzaileen ustez, aipatutako zergak behar bezala ordaindu dira; hori dela eta, eragiketei emandako zerga mailako trataeragatik indarrean dagoen araudiaren interpretazioan desadostasunak gertatuta ere, bertatik erator daitezkeen pasiboek (gauzatuko balira) ez lukete eragin aipagarririk izango honi atxikita azaltzen diren urteko kontuetan.

2013ko maiatzaren 14an, Beasaingo Udalak erakunde kontrolatzaileari jakinarazi zion 2009-2013 aldietako hainbat udal-zergaren inguruko egiaztapeneko eta ikerketako jarduerak hasiko zituela. Horri dagokionez, erakunde kontrolatzaileak alegazioak aurkeztu zituen Aldundiko Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean. 2019an Aldundiko Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren ebazpena jaso da, Erakunde kontrolatzailearentzat kalterik eragin gabe, 145 mila euroko sarrerak izango dituela kalkulatuta.

Horrez gain, 2017ko ekainaren 20an, Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde kontrolatzaileari jakinarazi zion irismen partzialeko ikerketa eta egiaztapeneko jarduerak hasiko zituztela, Sozietatearen beraren eta 03/07/G Talde Fiskalaren 2012 eta 2015 arteko aldietako Sozietateen gaineko Zergaren inguruan. Sozietateak jarduera horietarako eskatutako informazioa aurkeztu du, baina orain arte ikuskapen-organoek ez dute horren inguruko adierazpenik egin. Taldeko administratzaileek ez dute uste jarduera horietatik pasiborik eratorriko denik.

## 19. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Administrazio publikoekin ditugun saldoen osaera honakoa da 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n:

**Mila eurotan**

| | 2019/12/31 | | | | 2018/12/31 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aktiboa | | Pasiboa | | Aktiboa | | Pasiboa | |
| **Kontzeptua** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** | **Ez-korrontea** | **Korrontea** |
| Gizarte Segurantza | - | 11 | - | 22.102 | - | 3 | - | 15.260 |
| Ogasun Publikoa | | | | | | | | |
| Balio erantsiaren gaineko zerga (9.b. oharra) | 32.058 | 79.247 | - | 38.441 | 30.055 | 80.802 | - | 45.785 |
| Beste batzuk | - | 4.705 | - | 72 | - | 3.335 | - | 382 |
| Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikipenak | - | - | - | 13.192 | - | - | - | 11.358 |
| Sozietateen gaineko Zerga (3.l oharra) | - | 12.417 | - | 9.113 | - | 13.633 | - | 6.447 |
| Diru-laguntzengatik zordun den ogasun publikoa | - | 12.991 | - | - | - | 1.729 | - | - |
| **Guztira** | **32.058** | **109.371** | **-** | **82.920** | **30.055** | **99.502** | **-** | **79.232** |

2011ko ekitaldian, Balio Erantsiaren Zergaren Entitate Taldeen Erregimen Berezia eskuratu genuen eta erakunde kontrolatzailea horko partaide da mendeko beste sozietate batzuekin batera.

## 20. HORNIDURA KORRONTEAK ETA EZ-KORRONTEAK

Epigrafe horien mugimendua hau izan da 2019an eta 2018an (mila eurotan):

| | | Hornidura korronteak | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Hornidura ez-korronteak | Kontratuaren arduradunak | Bermea eta laguntza teknikoa | Auziak | Beste hornikuntza batzuk | Hornidura korronteak, guztira |
| **Saldoa 2017/12/31n** | **7.071** | **128.531** | **93.288** | **1.900** | **4.220** | **227.939** |
| 15. FINA doiketak | - | (83.612) | - | - | - | (83.612) |
| **Saldoa doituta 2018/01/01ean** | **7.071** | **44.919** | **93.288** | **1.900** | **4.220** | **144.327** |
| Aldaketak Bateratze-perimetroan | 206 | 478 | 42.018 | 284 | 1.776 | 44.556 |
| Hornidura garbia (3.j oharrak) | 1.834 | 13.703 | 73.473 | 1.550 | 1.751 | 90.477 |
| Zordunketak | (2.574) | (236) | (50.309) | (848) | (1.180) | (52.573) |
| Bihurketako aldeak | (1) | (258) | (552) | (88) | (300) | (1.198) |
| Transferentziak | 341 | (294) | (279) | - | (46) | (619) |
| **Saldoa 2018/12/31n** | **6.877** | **58.312** | **157.639** | **2.798** | **6.221** | **224.970** |
| Aldaketak Bateratze-perimetroan | 213 | - | 135 | - | 281 | 416 |
| Hornidura garbia (3.j oharrak) | 44.474 | 15.868 | 69.316 | 274 | 6.311 | 91.769 |
| Zordunketak | (3.117) | (20.537) | (57.943) | (1.131) | (317) | (79.928) |
| Bihurketako aldeak | (761) | (60) | 671 | 3 | 12 | 626 |
| Transferentziak | 103 | (656) | 816 | - | (635) | (475) |
| **Saldoa 2019/12/31n** | **47.789** | **52.927** | **170.634** | **1.944** | **11.873** | **237.378** |

### Hornidura ez-korronteak

26. oharrean deskribatutako lehiaren aurkako ustezko praktiketan tren-fabrikatzaile ugariren parte-hartzearekin lotuta, 2013ko ekitaldian hasitako ikerketatik eratorritako 2019ko uztaileko administrazio-erabakiaren ondorioz, Taldeak 38 milioi euroko hornidura erregistratu du.

Era berean, Taldeak laneko izaera duten hornidurak zuzkitzen ditu, "Hornidura ez-korronteak" epigrafean, iraganeko gertakariak direla eta sortutako betebehar bat dela medio. Betebeharra amaitzen denean, zenbait baliabide uztekoa da Taldea, hura kitatzeko. Erakunde kontrolatzaileko administratzaileek data horretarako eginiko kalkulurik onena da zenbatekoa, eta egungo balioarekin erregistratzen da, finantza-eragina nabarmena bada, betiere.

### Kontratu mailako erantzukizunak, eta bermea eta laguntza teknikoa

Kontratu mailako erantzukizunekin lotutako hornidurak, batez ere, kostubidezko kontratuengatik egindako hornidurei dagozkie. Bermearekin eta laguntza teknikoarekin lotutako hornidurak konprometitutako etorkizuneko kontsumoen estimazioarekin lotuta daude (historikoetan eta azterketa teknikoetan oinarrituta) kontratuetan aurrez ikusitako berme aldia kontuan izanda. Hornidurak likidatzeko aurrez ikusitako egutegia aldatu egiten da kontzeptuaren arabera. Honako hauek dira betez besteko gutxi gorabeherako epeak:

– Kontratu mailako erantzukizunak: 1-2 urte

– Bermea: 1-4 urte (dagokion kontratu-akordioaren arabera, aldatu egiten da)

Honi erantsitako 2019ko galera eta irabazien kontu bateratuko "Beste zenbait ustiapen-gastu" epigrafean 10.756 mila euroko gastua erregistratu da (2018ko ekitaldian 37.904 mila euroko gastua). Ekitaldia ixtean beharrezkoak diren kontzeptu horien horniduren eta aurreko ekitaldiaren itxieran erregistratutakoen arteko diferentziari dagozkio zenbateko horiek.

Kontratuak bermatzeko 2019ko eta 2018ko ekitaldietan emandako zerbitzuen gastuak (57.943 eta 50.309 mila euro, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren) erantsitako 2019ko eta 2018ko galera eta irabazien kontu bateratuko "Hornidurak" eta "Pertsonal-gastuak" epigrafeetan erregistratu ziren.

## 21. BESTE AKTIBO ETA PASIBO EZ-KORRONTE ETA KORRONTE BATZUK

Honako hau da 2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko Taldearen "Beste aktibo batzuk" atalaren xehetasuna:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| Itzulketa-eskubideengatiko aktiboak (3.f oharra) | 7.208 | 2.684 |
| **Beste aktibo ez-korronte batzuk** | **7.208** | **2.684** |
| Aurreratutako ordainketak | 17.130 | 6.203 |
| Itzulketa-eskubidearengatiko aktiboak (3.f oharra) | - | 140 |
| **Beste aktibo korronte batzuk** | **17.130** | **6.343** |

Honako hau da 2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko Taldearen "Beste pasibo batzuk" atalaren xehetasuna:

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019/12/31** | **2018/12/31** |
| Zerbitzuen salmentak edo prestazioak direla eta jasotako aurrerapenak (12. oharra) | 51.059 | 41.228 |
| Errentamendu operatiboengatik jasotako aurrerapenak (8. oharra) | 28.935 | 37.993 |
| Itzulketengatiko pasiboak | 6.643 | 2.965 |
| **Beste pasibo ez-korronte batzuk** | **86.637** | **82.186** |
| Errentamendu operatiboengatik jasotako aurrerapenak (8. oharra) | 4.257 | 4.964 |
| Aurreratutako sarrerak | 1.666 | 631 |
| Itzulketengatiko pasiboak | 1.352 | 219 |
| **Beste pasibo korronte batzuk** | **7.275** | **5.814** |

3.f oharrean ikus daitekeen moduan, autobusen salmenta-kontratu batzuetan, bezeroek horiek itzultzeko aukerak daude jasota. Errentamendu operatiboa dela erabakiz gero, aurrerapen gisa jasotako fakturazioa epigrafe honetan aitortzen da: "Errentamendu operatiboengatik jasotako aurrerapenak". Aldiz, itzultzeko eskubidea duen salmenta dela ondorioztatuz gero, "Itzulketa-eskubideengatiko aktiboak" epigrafean jasoko da enpresak berrerosi beharreko aktiboaren balioa, eta "Itzulketengatiko pasiboak" epigrafean aktibo hori berreskuratzeko ordaintzeko aurrez ikusitako zenbatekoa.

## 22. SARRERAK ETA GASTUAK

### a) Hornidurak

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019** | **2018** |
| Kontsumoak (*) | 1.157.466 | 948.354 |
| Beste enpresa batzuek egindako lanak | 231.312 | 141.586 |
| **Guztira** | **1.388.778** | **1.089.940** |

(*) % 66 euroguneko monetetan, eta gainerakoa, batez ere, honako hauetan: Amerikako dolarrak, libra esterlinak eta Poloniako zlotyak (% 78koa zen euroguneko monetetan egindakoa 2018an).

**b) Ustiapeneko beste gastu batzuk**

| | Mila eurotan | |
|---|---|---|
| | **2019** | **2018** |
| Kanpoko Zerbitzuak | 371.072 | 305.499 |
| Zergak | 4.710 | 4.739 |
| Trafikoko eragiketen eta beste batzuen hornidurek eragindako aldaketa (12. eta 20. oharrak) | 23.605 | 35.279 |
| Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk | 8.711 | 2.088 |
| **Guztira** | **408.098** | **347.605** |

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren eta mendeko sozietateen auditoria-zerbitzuei dagozkin ordainsariak 1.263 mila eurokoak izan dira (2018an 1.112 mila eurokoak). Zenbateko horretatik, Deloitte izeneko mundu mailako erakundeko enpresek ikuskatutako sozietateen urteko auditoriei 659 mila euro dagozkie (2018ko ekitaldian 726 mila euro). Horrez gain, beste zerbitzu profesional batzuengatik beste zerbitzu-sari batzuk ere fakturatu dira: 165 mila eurokoak auditore nagusiak (230 mila euro 2018ko ekitaldian). Zenbateko horretatik, 144 mila euro auditoriarekin lotutako egiaztapen-zerbitzuei dagozkie, sei hilez behin egiten diren berrikusketak barne (146 mila euro 2018ko ekitaldian), 7 mila euro zerga-zerbitzuekin lotutakoei (38 mila euro 2018ko ekitaldian) eta gainerakoa, aldiz, beste zerbitzu batzuei.

**c) Ingurumenari buruzko informazioa**

2019ko ekitaldian, ingurumena babestera eta hobetzera bideratuta sistemetan, ekipamenduetan eta instalazioetan egindako inbertsioak 2.256 mila eurokoak izan dira (2018ko ekitaldian 0 mila eurokoak izan ziren).

2019ko ekitaldian, Taldeak ez du ingurumen-izaerako diru-laguntzak jaso.

2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, Taldeak ez zuen ingurumena babestu eta hobetzearekin lotutako auzirik edo kontingentziarik. Taldeko Sozietateen Administratzaileen ustez, ez da enpresaren ingurumen-jarduera dela-eta pasibo aipagarririk sortuko. Horregatik, egoera-balantze bateratu honetan ez dago hornidurarik kontzeptu horretarako.

2019ko ekitaldian, Taldeak 825 mila euroko gastuak egin zituen ingurumen arloan (2018ko ekitaldian 436 mila eurokoak).

**d) Ustiapenerako laguntzak**

2019an eta 2018an emaitzetara bideratutako diru-laguntza gehienak deialdi ezberdinetan ministerioko hainbat programetatik eta Europako programetatik lortutako diru-laguntzei dagozkienak dira eta justifikatu beharreko kostuak sortu dituzte.

Laguntza horiek itzuli egin behar dira (merkatuan indarrean dagoen interes-tasa eta guzti) proiektu horietan aurrez ikusitako I+Gko inbertsioak egiten ez badira.

Atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Ustiapeneko beste sarrera batzuk" epigrafean 2019ko eta 2018ko ekitaldietan erregistratutako ustiapeneko diru-laguntzen zenbatekoak 4.633 mila eta 4.495 mila eurokoak izan dira, hurrenez hurren.

## 23. BATEZ BESTEKO LANGILE KOPURUA ETA PERTSONAL-GASTUAK

2019ko eta 2018ko batez besteko langileen kopurua hau izan da:

| | Batez besteko langile kopurua | |
|---|---|---|
| **Kategoria profesionala** | **2019** | **2018** |
| Kontseilariak | 2 | 2 |
| Goi mailako zuzendaritza | 11 | 10 |
| Enplegatuak | 5.894 | 4.590 |
| Langileak | 6.577 | 5.028 |
| **Guztira (*)** | **12.484** | **9.630** |

(*) 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, langileen kopurua 13.179 eta 11.433 pertsonakoa zen, hurrenez hurren.

Gizonezko langileen eta emakumezko langileen batez besteko kopuruak hauek izan dira 2019an eta 2018an:

| | 2019 | | 2018 | |
|---|---|---|---|---|
| **Kategoria profesionala** | **Gizonak** | **Emakumeak** | **Gizonak** | **Emakumeak** |
| Kontseilariak | 1 | 1 | 1 | 1 |
| Goi mailako zuzendaritza | 10 | 1 | 9 | 1 |
| Enplegatuak | 4.364 | 1.530 | 3.364 | 1.226 |
| Langileak | 6.282 | 295 | 4.852 | 176 |
| **Guztira** | **10.657** | **1.827** | **8.226** | **1.404** |

2019ko abenduaren 31n, erakunde kontrolatzaileko Administrazio Kontseilua 7 gizonezkok eta 3 emakumezkok osatzen zuten. 2018ko abenduaren 31n, erakunde kontrolatzaileko Administrazio Kontseilua 7 gizonezkok eta 3 emakumezkok osatzen zuten.

Bestalde, hauek dira pertsonal-gastuak, zehaztuta (mila eurotan):

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Soldatak (3.k oharra) | 490.537 | 389.987 |
| Gizarte Segurantza | 138.050 | 107.248 |
| Beste zenbait gastu (3.j oharra) | 26.020 | 21.238 |
| **Guztira** | **654.607** | **518.473** |

## 24. ADMINISTRAZIO KONTSEILUARI BURUZKO INFORMAZIOA

### a) Administrazio Kontseiluari egindako ordainketak eta beste zenbait prestazio

2019an eta 2018an, 3.j oharrean deskribatutakoari legokiokeenaren osagarri, erakunde kontrolatzaileko Administrazio Kontseiluko kideen ordainsari orokorra 1.907 mila eta 1.902 mila euro ingurukoa izan da honako kontzeptu hauekin lotuta: soldatak, bizitza-aseguruak, asistentzia-dietak eta ordainsari finkoak. 2019an, erakunde kontrolatzaileak epe luzerako aurrezki-sistemetara ekarpenak egin ditu epe luzerako aurrezkiko aseguru kolektiboaren bidez instrumentatuta ekarpen mugatuaren sistema erabilita. Erakunde kontrolatzailea da horren hartzaile eta onuraduna eta horren zenbatekoa 1.300 mila eurokoa izan da (1.000 mila eurokoa 2018ko ekitaldian). 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n, erakunde kontrolatzaileko Administrazio Kontseiluak eta gainerako filialek ez zuten egungo edo garai bateko Administrazio Kontseiluko kideei zuzendutako aurrerakinik bermerik edo krediturik emanda.

2019an, ekintzek edo ez-egiteek eragindako kalteekin lotuta administratzaileen erantzukizun zibileko aseguru-prima dela eta ordaindutako zenbatekoa 59 mila eurokoa izan da (59 mila eurokoa, 2018an).

**b) Administratzaileen aldetik izan daitezkeen interes-gatazka egoerekin lotutako informazioa**

2019ko eta 2018ko ekitaldietan, Kapital Sozietateen Legean definitutakoaren arabera Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAko Administrazio Kontseiluko kideetako edota haiei lotutako inork ez die jakinarazi Administrazio Kontseiluko gainerakoei Sozietatearen interesekin izan zitzaketen zeharkako edota zuzeneko gatazka-egoerarik.

## 25. GOI MAILAKO ZUZENDARITZARI EGINDAKO ORDAINKETAK

Erakunde kontrolatzaileko Zuzendaritza Gorenaren edo Goi mailako Zuzendaritzaren ordainsariak, 3.j. oharrean zehaztutakoarekiko osagarriak izan daitezkeenak, 3.008 mila eurokoak izan dira 2019ko ekitaldian (2.613 mila eurokoak 2018ko ekitaldian) Gobernu Korporatiboaren Txostenaren arabera "Zuzendaritza Gorena" denari dagokionez modu loteslean zehazten den moduan.

2019ko eta 2018ko ekitaldietan ez da negozioaren jardun arruntaz besteko eragiketarik egin zuzendariekin.

## 26. BESTELAKO INFORMAZIOA

**a) Abalak, bermeak eta bestelako aktibo eta pasibo kontingente batzuk**

2019ko abenduaren 31n, finantza-erakundeek eta aseguru-konpainiek hirugarren batzuen alde emandako bermeen eta abalen zenbatekoa 3.330.658 mila eurokoa izan da (3.259.219 mila eurokoa 2018ko abenduaren 31n). Batez ere, jasotako eskariak betetzeko abal teknikoak izan dira. Zenbateko horretatik, 10.556 mila euro Zientzia eta Teknologia Ministerioak (15. oharra) eta beste zenbait erakunde publikok emandako diru-laguntzen eta itzuli beharreko aurrerakinen abalei eta bermeei dagozkie (12.973 mila euro 2018ko abenduaren 31n). Gainera, 17,5 milioi euro dagozkio etorkizuneko 2024 ekitaldian Taldeak Momentum Trains Holding Pty Ltd sozietate partaidetuan egingo duen ekarpenagatiko abalari.

2014ko martxoan, Brasilgo Defentsa Ekonomikoko Administrazio Kontseiluak (CADE), tren-fabrikatzaile ugariren parte-hartzearekin lotuta (Brasilgo CAF Taldearen filiala barne) 2013ko maiatzean hasitako administrazioko ikerketa burututakoan, lehiaren aurkako ustezko praktiketatik eratorritako administrazio-prozedurak abiarazi zituen. Mendeko sozietateak bere defentsa aurkeztu zuen eta agintariekin elkarlanean aritu da etengabe eskatutako informazioa ematen. 2019ko uztailean, CADE auzitegiak eman duen erabaki administratiboaren arabera, mendeko sozietatea zigortu du Brasilgo 167.057.982,53 errealeko isuna ordaintzera (37.872 mila euroko baliokidea) eta eskumena duten agintariei gomendatu die onura fiskal jakin batzuk ez emateko mendeko sozietateari bost urteko epean. Taldeak zenbateko hori hornitu du atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Ustiapeneko beste gastu batzuk" epigrafean zordunduta eta atxikitako egoera-balantze bateratuko "Hornidura ez-korronteak" epigrafean ordainduta (20. oharra). Isunaren zenbatekoa Brasilgo SELIC iteres-tasaren arabera eguneratzen da, eta 2019ko ekitaldian 958 mila euro erregistratu dira atxikitako emaitzen kontu bateratuko "Finantza-gastuak" epigrafean zordunduta. Urteko kontu bateratu hauen formulazio datan, CADEren erabakia ez da eraginkorra, ebazpenaren zain dauden alderdi administratibo ugari amaitzeke baitaude; Administratzaileek ez dute aldaketarik espero CADE auzitegiak hartutako azken ondorioan.

Mendeko sozietateak ukatu egin du CADEk aipatutako isuna jartzean egindako gertakarien balorazioa, eta argudiatu du ikertutako gertakariekin lotuta, bere jarduera beti aplikagarri den legedia zorrotz betez egin duela. CADEren erabakia eraginkorra bihurtzen denean, mendeko sozietateak dagokion helegitea aurkeztuko du Brasilgo auzitegietan. Mendeko sozietatearen lege-aholkulariek uste dute badagoela arrazoizko aukera bat ezarritako isunaren zenbatekoa nabarmen murrizteko, betiere, isuna erabat baliogabetzea ere baztertu gabe. Bestalde, urteko kontu bateratu hauek idatzi diren datan, ez dago Taldearen sozietateekin lotuta arlo horietan urteko kontu bateratu hauetan deskribatuta ez dagoen bestelako erreklamazio gehigarririk. Era berean, prozesu horretan lortutako informazioaren ondorioz, kontu korrontea blokeatzea

agindu zuten 203 mila euroko zenbatekoarekin. Data honetan, blokeo hori altxatzea ahalbidetzeko errekurtso bereziaren ebazpenaren zain daude.

Era berean, CADEk eta beste agintari batzuek (horien artean, Sao Pauloko Ministerio Público Estadual-MP/SP) egindako ikerketen ondorioz, prozedura judizialak abiarazi zituzten. Horiekin lotuta, Taldeak dagoeneko aurkeztu ditu dagozkion defentsak. Era berean, eta CADEk egindako ikerketen ondorioz, Kontuen Auzitegiak administrazioko prozedura ireki zuen. Hori dela eta, mendeko sozietateak 2016ko lehen hiruhilekoan aurkeztu zuen bere atariko defentsa. Kontuen Auzitegiak adierazitakoaren arabera inolako irregulartasunik zegoenik frogatutzat eman ez duenez, prozesua ixteko eta artxibatzeko eskatu da. Eskaera hori ebazpenaren zain dago. Amaitzeko, CADEk egindako ikerketa horien ondorioz, Tribunal de Cuentas Estadual de Sao Paulo izeneko kontuen auzitegiak administrazioarekiko prozedura bat izapidetu zuen. Mendeko sozietateak 2018ko bigarren seihilekoan aurkeztu zituen hasierako alegazioak horren inguruan.

CAF Taldeak prozesu horietan bere interesek defendatzen jarraitzen du. Hala ere, gaur egunera arte ezin da zehaztu zein izango den emaitza, ezta aurkako epaia ateraz gero Taldearen urteko kontu bateratuetan izango lukeen eragina ere, beraz, ez da haien pasiborik erregistratu.

2019ko abenduaren 31n, Taldeak auzia zuen irekita bezero batekin obra batean, eta CAF kide den partzuergoak sinatutako kontratuko mugarriak betetzean atzerapenak izateagatik gurutzatutako erreklamazioak daude tartean. Auzia bidean da, beraz, zaila da izan ditzakeen eraginak ebaluatzea. Edonola ere, erakunde kontrolatzaileko administratzaileen ustez egoera horrek Taldearentzat arazoak eragiteko probabilitatea txikia da; izan ere, inola ere partzuergoari egotz ezin dakizkiokeen atzerapenak sortu dituzten arrazoiak daude, bezeroak jasandako kalteak erreklamatutako zenbatekoak baino txikiagoak dira eta partzuergoak egindako eta bezeroari egotz dakizkiokeen gainkostuengatiko erreklamazioak daude. 2019ko ekitaldiaren itxieran, atzerapenak justifikatzeko txostena egin du peritu independente batek, eta urteko kontu bateratu hauek idazteko datan ebazpen judizialaren zain daude.

2018ko abuztuaren 27an, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ("CNMC") prozedura zehatzailea hasi zuen hainbat enpresaren aurka eta horien artean daude hauek: CAF Signalling SLU eta bere enpresa nagusia, Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA, erantzule solidario gisa, lehiaren aurkako ustezko jardunbide batzuk direla eta.

CAF legezko ekintzak gauzatzen ari da bere interesak defendatu ahal izateko. Orain arte, ez ditu ezagutzen CAF Signalling SLUri eta Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAri egotzitako jokabide eta jardunbideak zein diren. Ikerketa zabalik dago 2019ko abenduaren 31n.

**b) Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiari buruzko informazioa**

Jarraian, 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legeko Hirugarren Xedapen Osagarriak eskatutako informazioa azaltzen da (aipatutako legea 2014ko abenduaren 3ko 31/2014 Legeko bigarren azken xedapenak aldatu zuen). Urteko kontuak biltzen dituen memorian eragiketa komertzialetan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia zehaztearekin lotuta 2016ko urtarrilaren 29an ICACek emandako ebazpenaren arabera prestatu da aipatutako informazioa.

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| | **Egun kopurua** | **Egun kopurua** |
| Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia | 86,18 | 80,77 |
| Ordaindutako eragiketen ratioa | 86,90 | 84,41 |
| Ordaintzeke dauden eragiketen ratioa | 83,94 | 69,95 |
| | **Mila eurotan** | **Mila eurotan** |
| Egindako ordainketak, guztira | 905.557 | 731.817 |
| Burutzeke dauden ordainketak, guztira | 234.650 | 246.651 |

ICACek emandako Ebazpenak xedatutakoa betez, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko, 2014ko abenduaren 3ko 31/2014 Legea indarrean sartu zen datatik hasita sortutako zerbitzuen prestazioei edo ondasunen entregari dagozkien eragiketa komertzialak hartu dira kontuan.

Ebazpen horretan aurrez ikusitako informazioa emateko helburu soiletarako, hornitzailetzat hartuko dira ondasunen edo zerbitzuen hornitzaileekin izandako zorrengatiko hartzekodun komertzialak, egoera-balantzeko pasibo korronteko "Hornitzaileak" eta "Beste hartzekodun batzuk" kontu-sailean sartutakoak.

Merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legearen eta 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legean ezarritako xedapen iragankorren arabera, Estatu mailako sozietateei aplikagarri zaien legezko gehieneko epea 60 egunekoa da 2019ko ekitaldian, ordaintzeko epea edo data adostu denean izan ezik (kasu horretan, 30 egunekoa izango da).

## 27. ITXIERA ONDORENGO GERTAERAK

2019ko abenduaren 31n, 9.446.468 mila euro inguruko eskaera-zorroa zuen kontratu irmoarekin eta konturako egindako fakturazioen zenbatekoak kenduta (7.716.487 mila euro 2018ko abenduaren 31n) (11. oharra).

Horrez gain, 2020ko urtarrilean, Euromaint filialak VY operadorearekin Bergensbananeko flota (Norvegia) mantentzeko akordioa itxi du. Gainera, erakunde kontrolatzaileak Helsinkiko metrorako beste bost unitate hornituko ditu. Kontratu horien batura 100 milioi euro baino gehiagokoa da.

## 28. EUSKARAZKO ITZULPENERAKO GEHITUTAKO AZALPENA

Taldearen finantza-egoera bateratu hauek Taldeari aplikagarri zaion finantza-informazioa emateko araudi esparruan oinarrituta aurkeztu dira (ikus 2.a oharra). Taldeak aplikatutako kontularitzako praktika batzuk, araudi esparrua betetzen dutenak, baliteke ez bat etortzea oro har onartutako kontularitzako beste printzipio eta arau batzuekin.

# Administrazio Kontseiluaren Onarpena

| | |
|---|---|
| ANDRÉS ARIZKORRETA GARCÍA jauna | Presidentea |
| JUAN JOSÉ ARRIETA SUDUPE jauna | Kontseilaria |
| CARMEN ALLO PÉREZ andrea | Kontseilaria |
| JAVIER MARTÍNEZ OJINAGA jauna | Kontseilaria |
| LUIS MIGUEL ARCONADA ECHARRI jauna | Kontseilaria |
| ANE AGIRRE ROMARATE andrea | Kontseilaria |
| JOSE ANTONIO MUTILOA IZAGUIRRE jauna | Kontseilaria |
| JULIÁN GRACIA PALACÍN jauna | Kontseilaria |
| IGNACIO CAMARERO GARCÍA jauna | Kontseilaria |
| MARTA BAZTARRICA LIZARBE andrea | Idazkari Kontseilaria |

Administrazio Kontseiluko idazkariak egin du eginbide hori CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SAren eta CAF Taldea (bateratua) osatzen duten mendeko sozietateen Kudeaketa Txosten bateratua eta Urteko Kontu bateratuak formulatu ondoren, bertako kideek dokumentu hau sinatu dutela jakinarazteko. Aipatutako kontuak eta txostena 2019ko abenduaren 31n itxitako urteko ekitaldikoak dira eta 2020ko otsailaren 27an egindako saioan Administrazio Kontseiluko kideek egin dituzte. Elkarren segidan zenbakitutako 204 orri ditu agiriak, 1 zenbakitik 204 zenbakira arte (biak barne), eta testuaren amaieran administratzaileetako bakoitzak sinatu ditu.

Donostian, 2020ko otsailaren 27an.

| | |
|---|---|
| O.E. | Sin. |
| PRESIDENTEA | KONTSEILUKO IDAZKARIA |
| ANDRÉS ARIZKORRETA GARCÍA jauna | MARTA BAZTARRICA LIZARBE andrea |

# Administrazio Kontseiluak Batzar Nagusiaren onarpenaren mende jarritako akordioak

**Akziodunen Ohiko Batzar Nagusia, Egoitza sozialean, Beasainen (Gipuzkoa), egingo da 2020ko ekainaren 13an, 12:00etan lehen deialdian eta, hala badagokio, hurrengo egunean, toki eta ordu berean, bigarren deialdian:**

**GAI ZERRENDA**

**Lehenengoa:** Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, SAren 2019ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, sozietateen talde bateratuko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, eta Administrazio Kontseiluaren kudeaketa-txostena aztertzea eta, dagokionean, onartzea.

**Bigarrena:** 2019ko ekitaldiari dagokion finantza arlokoa ez den informazioaren egoera bateratua onartzea.

**Hirugarrena:** 2019ko ekitaldiari dagokion emaitza aplikatzeko proposamena onartzea; hau da, akzio bakoitzeko 0,842 euroko zenbateko gordinarekin dibidenduak banatzea.

**Laugarrena:** 2021, 2022 eta 2023 ekitaldietarako kontu-auditoreak izendatzea.

**Bosgarrena:** kontseilariak berriro hautatzea, izendatzea eta kopurua zehaztea:

5.1 Idoia Zenarrutzabeitia Beldarrain andrea izendatzea aginduzko kontseilari.
5.2. Carmen Allo Pérez andrea berriz izendatzea kontseilari independente.
5.3. Marta Baztarrika Lizarbe andrea berriz izendatzea kontseilari exekutibo.
5.4. Manuel Domínguez de la Maza jauna aginduzko kontseilari izendatzea.
5.5. Batzar Nagusirako proposatutako izendapenak eta berraukeraketak 5.1etik 5.4ra bitartean jasotako puntu gisa onartuko balira (bi puntuak barne), kontseilari kopurua hamaika (11) kidetan finkatzea.

**Seigarrena:** Sozietateko Administrazio Kontseiluari baimena ematea akzioetatik eratorritako erosketa egiteko Kapital Sozietateen Legeko 146. eta 509. artikuluek ezarritako muga eta esakizunen arabera.

**Zazpigarrena:** Kontseilarien Ordainketen Politika, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietan aplikagarria dena, onartzea.

**Zortzigarrena:** 2019ko ekitaldiari dagokion kontseilarien ordainketei buruzko urteko txostenaren gaineko kontsultarako bozketa.

**Bederatzigarrena:** Administrazio Kontseiluari eskumenak eskuordetzea aurreko akordioak formalizatzeko eta exekutatzeko.

**Hamargarrena:** Bilerako akta irakurtzea eta onartzea, egoki bada.

## Emaitza aplikazio proposamena

Dibidenduen banaketara aplikatzea 28.864 mila euroko zenbatekoa. Banaketaren oinarria honako hau da: galera eta irabazien kontuko 1.950 mila euro, eta borondatezko erreserbetako 26.914 mila euro.

## Administrazio Kontseilua

| | |
|---|---|
| ANDRÉS ARIZKORRETA GARCÍA jauna | Presidentea |
| JUAN JOSÉ ARRIETA SUDUPE jauna | Kontseilaria |
| CARMEN ALLO PÉREZ andrea | Kontseilaria |
| JAVIER MARTÍNEZ OJINAGA jauna | Kontseilaria |
| LUIS MIGUEL ARCONADA ECHARRI jauna | Kontseilaria |
| ANE AGIRRE ROMARATE andrea | Kontseilaria |
| JOSE ANTONIO MUTILOA IZAGUIRRE jauna | Kontseilaria |
| JULIÁN GRACIA PALACÍN jauna | Kontseilaria |
| IGNACIO CAMARERO GARCÍA jauna | Kontseilaria |
| MARTA BAZTARRICA LIZARBE andrea | Idazkari Kontseilaria |

Informazio hau 2020ko otsailaren 27an Sozietateko Administrazio Kontseiluaren konposizioari dagokio, data horretan formulatu baitziren Sozietatearen eta haren talde bateratuaren Urteko Kontuak, 2019ko ekitaldiari dagozkionak. Data horretan, Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kideek kapital sozialaren % 0,005 zuten.

# INFORMAZIO OSAGARRIA 2015-2019

**Egoera Balantze Bateratuak**
**Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak**



# Egoera Balantze Bateratuak

## 2019, 2018, 2017, 2016, 2015eko abenduaren 31ko (Mila eurotan)

| Aktiboa | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Aktibo ez-korrontea:** | | | | | |
| **Ibilgetu ukiezina** | | | | | |
| Merkataritza Funtsa | 109.011 | 101.827 | 24.124 | 15 | 15 |
| Beste ibilgetu ukiezin batzuk | 239.241 | 206.535 | 46.421 | 40.129 | 34.719 |
| | **348.252** | **308.362** | **70.545** | **40.144** | **34.734** |
| **Ibilgetu materiala** | **449.263** | **365.084** | **244.513** | **229.309** | **240.787** |
| **Partaidetza-metodoaren arabera zenbatutako inbertsioak** | **7.807** | **18.188** | **19.752** | **18.572** | **14.308** |
| **Finantza-aktibo ez-korronteak** | **538.303** | **537.061** | **560.660** | **653.558** | **590.829** |
| **Estaldurako eratorri ez-korronteak** | **45.001** | **10.720** | **15.842** | **12.861** | **22.068** |
| **Geroratutako zergaren ondoriozko aktiboak** | **146.134** | **148.548** | **144.989** | **159.176** | **161.108** |
| **Beste aktibo ez-korronte batzuk** | **7.208** | **2.684** | **-** | **-** | **-** |
| **Aktibo ez-korrontea, guztira** | **1.541.968** | **1.390.647** | **1.056.301** | **1.113.620** | **1.063.834** |
| **Aktibo korrontea:** | | | | | |
| **Izakinak** | **487.833** | **375.426** | **71.654** | **60.287** | **86.253** |
| **Zordun komertzialak eta kobratu gabeko beste kontu batzuk** | | | | | |
| Salmentengatiko eta zerbitzuen prestazioagatiko bezeroak | 1.372.394 | 1.311.835 | 1.277.243 | 1.306.363 | 1.120.483 |
| Beste zordun batzuk | 216.940 | 205.122 | 198.470 | 204.033 | 169.306 |
| Zerga korronteagatiko aktiboak | 12.417 | 13.633 | 10.030 | 13.426 | 8.451 |
| | **1.601.751** | **1.530.590** | **1.485.743** | **1.523.822** | **1.298.240** |
| **Finantza-aktibo korronteak** | **95.151** | **94.293** | **84.838** | **95.098** | **89.559** |
| **Estaldurako eratorri korronteak** | **40.010** | **5.849** | **41.864** | **45.382** | **32.864** |
| **Beste aktibo korronte batzuk** | **17.130** | **6.343** | **3.229** | **3.206** | **5.939** |
| **Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide** | **538.983** | **602.813** | **371.625** | **392.022** | **297.440** |
| **Aktibo korrontea, guztira** | **2.780.858** | **2.615.314** | **2.058.953** | **2.119.817** | **1.810.295** |
| **Aktiboa, guztira** | **4.322.826** | **4.005.961** | **3.115.254** | **3.233.437** | **2.874.129** |

| Pasiboa eta ondare garbia | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ondare garbia:** | | | | | |
| **Berezko funtsak** | | | | | |
| Eskrituratutako kapitala | 10.319 | 10.319 | 10.319 | 10.319 | 10.319 |
| Jaulkipen-prima | 11.863 | 11.863 | 11.863 | 11.863 | 11.863 |
| Birbalorizazio-erreserba | 39.119 | 39.119 | 39.119 | 39.119 | 39.119 |
| Erakunde kontrolatzailearen eta sozietateen integrazio globalaren eta partaidetza-metodoaren bidez bateratutako beste erreserba batzuk | 792.935 | 793.755 | 770.489 | 758.268 | 734.288 |
| Sozietate kontrolatzaileari egotzitako ekitaldiko emaitza | 24.745 | 43.462 | 42.406 | 35.013 | 41.041 |
| | **878.981** | **898.518** | **874.196** | **854.582** | **836.630** |
| **Beste emaitza integral bat** | | | | | |
| Saltzeko eskuragarri dauden finantza-aktiboak | - | - | 39 | - | - |
| Estaldurako eragiketak | (11.062) | (5.024) | (6.580) | (5.908) | (5.142) |
| Bihurketako aldeak | (134.682) | (141.782) | (117.238) | (76.703) | (127.748) |
| | **(145.744)** | **(146.806)** | **(123.779)** | **(82.611)** | **(132.890)** |
| **Erakunde kontrolatzaileari egotzitako ondare garbia** | **733.237** | **751.712** | **750.417** | **771.971** | **703.740** |
| **Partaidetza ez-kontrolatzaileak** | **12.130** | **5.555** | **9.783** | **11.706** | **11.187** |
| **Ondare garbia, guztira** | **745.367** | **757.267** | **760.200** | **783.677** | **714.927** |
| **Pasibo ez-korrontea:** | | | | | |
| **Hornidura ez-korronteak** | **47.789** | **6.877** | **7.071** | **4.646** | **4.526** |
| **Finantza-pasibo ez-korronteak** | | | | | |
| Zorrak kreditu-erakundeekin eta betebeharrak edo beste balio negoziagarri batzuk | 868.072 | 766.464 | 625.645 | 648.145 | 662.168 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | 90.792 | 47.774 | 52.039 | 47.854 | 51.833 |
| | **958.864** | **814.238** | **677.684** | **695.999** | **714.001** |
| **Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak** | **159.145** | **177.191** | **153.805** | **172.137** | **156.817** |
| **Estaldurako eratorri ez-korronteak** | **45.777** | **11.206** | **18.131** | **13.574** | **23.091** |
| **Beste pasibo ez-korronte batzuk** | **86.637** | **82.186** | **55.821** | **58.039** | **63.996** |
| **Pasibo ez-korrontea, guztira** | **1.298.212** | **1.091.698** | **912.512** | **944.395** | **962.431** |
| **Pasibo korrontea:** | | | | | |
| **Hornidura korronteak** | **237.378** | **224.970** | **227.939** | **227.937** | **228.766** |
| **Finantza-pasibo korronteak** | | | | | |
| Zorrak kreditu-erakundeekin eta betebeharrak edo beste balio negoziagarri batzuk | 199.979 | 255.416 | 46.262 | 103.075 | 203.722 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | 44.144 | 23.356 | 40.725 | 23.059 | 18.202 |
| | **244.123** | **278.772** | **86.987** | **126.134** | **221.924** |
| **Hartzekodun komertzialak eta ordaindu gabeko beste kontu batzuk** | | | | | |
| Hornitzaileak | 688.104 | 664.865 | 423.385 | 376.531 | 352.153 |
| Beste hartzekodun batzuk | 1.032.114 | 911.961 | 646.593 | 657.056 | 355.596 |
| Zerga korronteagatiko pasiboak | 9.113 | 6.447 | 5.009 | 969 | 647 |
| | **1.729.331** | **1.583.273** | **1.074.987** | **1.034.556** | **708.396** |
| **Estaldurako eratorri korronteak** | **61.140** | **64.167** | **52.313** | **116.468** | **35.498** |
| **Beste pasibo korronte batzuk** | **7.275** | **5.814** | **316** | **270** | **2.187** |
| **Pasibo korrontea, guztira** | **2.279.247** | **2.156.996** | **1.442.542** | **1.505.365** | **1.196.771** |
| **Pasiboa eta ondare garbia, guztira** | **4.322.826** | **4.005.961** | **3.115.254** | **3.233.437** | **2.874.129** |

# Galera eta Irabazien Kontu Bateratuak

## 2019, 2018, 2017, 2016, 2015eko abenduaren 31ri dagozkion (Mila eurotan)

| (Zor)-Hartzekoak | 2019 | 2018 | 2017 | 2016 | 2015 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Eragiketa jarraituak:** | | | | | |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia | 2.597.655 | 2.048.419 | 1.477.039 | 1.318.200 | 1.283.591 |
| Amaitutako produktuen eta fabrikazio-fasean dauden izakinen aldaketa +/- | 18.235 | 73.250 | (77.035) | (15.474) | (126.137) |
| Aktiborako enpresak egindako lana | 13.901 | 14.488 | 8.977 | 9.778 | 6.490 |
| Hornidurak | (1.388.778) | (1.089.940) | (542.771) | (608.669) | (435.014) |
| Ustiapeneko beste sarrera batzuk | 27.518 | 21.339 | 7.886 | 15.792 | 4.245 |
| Pertsonalaren gastuak | (654.607) | (518.473) | (446.381) | (397.634) | (402.164) |
| Ustiapeneko beste gastu batzuk | (370.226) | (347.605) | (247.463) | (186.723) | (164.996) |
| **Doitutako Ebitda** | **243.698** | **201.478** | **180.252** | **135.270** | **166.015** |
| Ibilgetuaren amortizazioa | (80.667) | (46.738) | (34.690) | (34.669) | (38.399) |
| Ibilgetua besterentzeagatiko narriadura eta emaitza | (165) | (10.572) | 148 | 11.239 | (833) |
| **Doitutako ustiapen-emaitza** | **162.866** | **144.168** | **145.710** | **111.840** | **126.783** |
| Kontu-sail ez-errepikakorrak | (37.872) | - | - | - | - |
| **Ustiapenaren emaitza** | **124.994** | **144.168** | **145.710** | **111.840** | **126.783** |
| Finantza-sarrerak | 17.402 | 7.627 | 7.309 | 13.643 | 10.476 |
| Finantza-gastuak | (72.885) | (64.160) | (68.551) | (72.819) | (56.632) |
| Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldaketa | 33 | 7 | 35 | 870 | 3 |
| Trukeko edo kanbioko aldeak | (6.120) | (6.673) | (17.591) | 5.916 | (19.632) |
| Finantza-tresnen besterentzeengatiko narriadura eta emaitza | (337) | 9 | 4 | (594) | (589) |
| **Finantza arloko emaitza** | **(61.907)** | **(63.190)** | **(78.794)** | **(52.984)** | **(66.374)** |
| Baloratutako erakundeen emaitza, partaidetza-metodoaren arabera | (1.949) | (403) | 594 | 473 | - |
| **Zergen aurreko emaitza** | **61.138** | **80.575** | **67.510** | **59.329** | **60.409** |
| Irabazien gaineko zerga | (36.048) | (40.955) | (24.993) | (22.049) | (17.795) |
| **Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldiko emaitza** | **25.090** | **39.620** | **42.517** | **37.280** | **42.614** |
| **Doitutako ekitaldiko emaitza bateratua** | **62.962** | **39.620** | **42.517** | **37.280** | **42.614** |
| **Ekitaldiko emaitza bateratua** | **25.090** | **39.620** | **42.517** | **37.280** | **42.614** |
| **Honako hauei egotzitakoa:** | | | | | |
| Erakunde kontrolatzailea | 24.745 | 43.462 | 42.406 | 35.013 | 41.041 |
| Partaidetza ez-kontrolatzaileak | 345 | (3.842) | 111 | 2.267 | 1.573 |
| **Akzio bakoitzeko irabazia (eurotan)** | | | | | |
| Oinarrizkoa | 0,72 | 1,27 | 1,24 | 1,02 | 1,20 |
| Diluitua | 0,72 | 1,27 | 1,24 | 1,02 | 1,20 |

# BULEGOAK


**EGOITZA NAGUSIA**
Jose Miguel Iturrioz, 26
20.200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Espainia
Tel.: +34 943 880 100
Faxa: +34 943 881 420
caf@caf.net

**MADRILGO BULEGOAK**
José Ortega y Gasset, 29 - 5º
28006 MADRIL
Espainia
Tel.: +34 91 436 60 00
Faxa: +34 91 436 03 96
caf@caf.net

**AKZIODUN SAILA**
Jose Miguel Iturrioz, 26
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Tel.: +34 943 189 262 (arreta-zerbitzurako telefonoa)
Faxa: +34 943 189 226
accionistas@caf.net

**CAF ALEMANIA**
Seidlstraße 26
80335 Munich
Alemania
Tel.:+49 (0)89 544 790 100
Faxa:+49 (0)89 544 790 250

**CAF FRANTZIA**
16 rue Friant
75014 Paris
Frantzia
Tel.: + 33 1 82 73 01 00
Faxa: + 33 5 62 91 05 77

**CAF RAIL ERRESUMA BATUA**
The TechnoCentre Puma Way
Coventry, CV1 2TT
Rail Erresuma Batua
Tel.: +44(0)2476 158195

**CAF ITALIA**
Vía G. Parini, 2
20121 Milano
Italia
Tel.: +39 02 4975 9575
Fax: +39 02 4975 9575

**CAF HERBEHEREAK**
Graadt van Roggenweg 328 – 334
(Regus Business Centre)
3531 AH Utrecht
Herbehereak
Tel.: +31 (0)30 298 2290

**CAF POLONIA**
Emilii Plater 53/1116
00113 Warsaw
Polonia
Tel.: +48 22 5286788
Faxa: +48 22 5286701

**CAF ESTATU BATUAK**
1401 K Street, N.W. Suite 1003
20.005-3418 - WASHINGTON DC
Estatu Batuak
Tel.: +1 202 898 4848
Faxa: +1 202 216 8929

**CAF MEXIKO**
Eje 1 Norte (Mosqueta) Edificio Oriente 1ª piso
Col. Buenavista, Delegación Cuauhtémoc c.p. 06350
Mexiko D.F.
Mexiko
Tel.: +52 55 568 875 43
Faxa: +52 55 568 811 56

**CAF TXILE**
Avda. de los conquistadores 1700, Piso 27
Comuna de providencia
Txileko Santiago
Txile
Tel.: +56 2 473 7200
Faxa: +56 2 473 7290

**CAF BRASIL**
Rua Tabapua, nº81 - 10º andar
CEP 04533-010 ITAIM IBI
São Paulo
Brasil
Tel.: +55 11 3074-0600
Faxa: +55 11 3074-0624

**CAF ARGENTINA**
Chacabuco 380 1er Piso
C1069AAH
Ciudad Autónoma de Buenos Aires
Argentinako Errepublika
Tel.: +54-11-4343-4500

**CAF QATAR**
Al Fardan Office Tower, 14th Floor,
West Bay, Doha
Qatar
Tel.: +974 44101506
Faxa: +974 44101500

**CAF ALJERIA**
Résidence «Petit Hydra» Entrée E107
Paradou, Hydra
Argel
Aljeria
Tel.: +213 021 60 08 07
Fax: +213 021 60 08 07

**CAF INDIA PVT LTD**
Pullman/Novotel Commercial Tower, 6th Floor, Asset No. 2, Hospitality District,
Near IGI Airport, New Delhi 110037
India
Tel.: +91 11 4025 0000/ 4734 0794
Fax: +91 11 4734 0680

**CAF MALAYSIA**
20th Floor Menara Boustead,
69, Jalan Raja Chulan, 50200 Kuala Lumpur
Malaysia
Tel.: +603 21449371
Faxa: +603 21418006

**CAF RAIL AUSTRALIA PTY LTD**
Level 20, Suite 2002, 321 Kent St
2000 Sidney NSW
Australia
Tel.: +61 (0) 2 8084 5119

**CAF TURKIA**
Altay Çeşme Mah. Çam Sk. No:16/14
D Blok DAP Royal Center
34843 Maltepe/Istanbul
Turkia
Tel.: +90 216 457 1227

**CAF HUNGARY KFT.**
Váci út 22-24, 7 emelet
1132 Budapest
Hungría
Tel.: +36 1 808 9444

CAF GROUP